Solasaldiaren azken aldera generatibisten artean honelakoetarako sortu *Free-Ride* arauaren izenaren bitxia bihurtu zitzaigun mintzagai. Delako arau horren bitartez, izenak ederki adierazi legez, forma batzuk beste batzuen eratorpen-bidaiaz baliatuta esplika daitezke. Ondoko lerroetan gramatikaren baliabide hau azaltzen saiatuko naiz.

1.1. Jakina denez, hizkuntza baten gramatika edo zati gramatikak egitean aukera bat baino gehiago aurkitu ohi du hizkuntzalariak. Gerta daiteke hizkuntz fenomeno bakarra adierazbide ezberdinen bidez jaso ahal izatea gramatikan: esate baterako, erregela diferenteak asma daitezke hots aldaketa bera deskribatu edo esplikatzeko fonologian, edo gertakizun morfologiko beraren berri emateko, edo egitura sintaktiko bakarraren jatorriaz hipotesiak azaltzeko (ik., fonologiaren alorrean eta bustiduraren eremutik atera gabe Oñederra 1985).

Aipatu euskarazko formek era horretako zalantza sor diezaiokete gramatikagileari. Arazoa alboko palatalaren palataltasunaren berri emateko orduan agertzen da, palataltasun hori gramatikan kokatzekoan alegia. Garbi dago euskaraz palatalizazio bilakabiderik ez balego ez litzatekeela inolako zalantzarik sortuko. Ez zaio fonologilariari zalantzarik sortzen —eskolen arteko bereizkuntza metodologikoez landa— *tella* [teʎa] formaren lehen kontsonantearen horzkaritasunaz: [t-] hortzetakoa da, *eman* formaren lehen kontsonantea ezpainetakoa den bezalaxe. Zalantza eta za-

* Lan honen bidez neure esker ona agertu nahi nioke fonologian ere irakasle izan nuen maisuari. Ez dut inoiz ahaztuko bere galderen apaltasuna eta nola sendotu zuen niregan fonologiarekiko jakingura. Mitxelenarekiko elkarrizketetara jantziago joateko laguntza eman zidan B. Hurch-i ere esker mila, berak aurkitu zidan maisuari hain xelebre iduritu zitzaion izenaren fonologiazko jatorria argitzen zuen lana (Zwicky 1970).

Adibideak ortografikoki idazten dira, ortografiak ahoskeraz agertu nahi dena agertzeko beta ematen duenean (ez da, noski, ortografia batua erabiltzen).

lantzarik-ez hauek ulertzeko ezinbestekoa da aintzakotzat hartzea euskararen fonologian ez dela [t] edo [m] horiek sor litzakeen ezpainkaritze edo horzkaritze bilakabiderik; beraz, ezaugarri horiek formen oinarrizko egituran kokatu behar dira. Bada, ordea, besteak beste /l/—>[ʎ] bihurtzen duen palatalizazioa. Bestela esan, euskal hiztunarentzat (eta fonologilariarentzat) hots palatalak palatal ez den beste hots batetik eratorriak daitezke. Alboko palatala palatal ez den albokoaren ahoskera berezia izan daiteke, esate baterako, < i > baten ondoren oguzten denean.

Hortik euskaraz gertatzen diren alboko palatal guztiak < i >-ren eraginari egoztea *free ride* egitea litzateke[1]. Ingeleraz *free ride* esamoldeak esan nahi du bestek eramanda, dohainik, egiten den txangoa. Euskal fonologian *biribila* [biribiʎa] edo *zaila* [sa(j)ʎa] ahoskeretan gertatzen edo gertatu dena jasotzeko behar den bustikuntzaz baliatuta, *tella* eta *silla*-ren oinarritzat /tejla/ eta /sila/ ematea *free ride* egitea litzateke[2].

1.2. Horixe da euskara batuaren ortografiak aukeratu duen bidea palatalen idaztarauetan. Horrela, gauza hauetaz fonologian aritu ez denari ere ezaguna gerta dakioke hemen dagokigun arazoa hots bustien ortografian isladatzen bait da. Euskara batuaren ortografiak erraztasun eta ekonomiaren izenean fonologian *free-ride* litzatekeenaren bidea hartu du eta adierazgarri ez den palatal oro < i + kide ez-palatala > idatzi behar da; beraz, hemen albokoa dugunez mintzagai, [ʎ] hotsa il idazten da. Baina, idaztarauak idaztarau, garbi dago *oilo* edo *teila* ebakerak ez direla ezagutzen eta ez dakigula ezagutu diren ere. Ez gara ari, noski, despalatalizazioa duten euskalkiez, hain zuzen ere hemen komentatzen dihardugunari dagokionean bestelako bidea hartu bait dute, ez palatalizazioarena, despalatalizazioarena baizik.

Ortografia ez da fonologiaren edo fonologilariek honetaz ziotenaren zain egon. Honekin ez da inolako kritikarik egin nahi, bai ordea ozen esan alor bi direla eta ez dutela derrigorrez pareko bideetan zehar ibili behar beti. Ortografia fonemikoetan —eta halakoa da funtsean euskara batuarena— alor biak estu lotuak badaude ere, bakoitzak bere arau eta ezaugarri beregainak dituzte. Hemen darabilkigun arazoa zuzenean ikutzen duen ezaugarria da Sgall-engandik (1987, 5) hona aldatzen dugun hau:

> The conventions underlying written norms (including not only graphemes, but also punctuation, abbreviations, etc.) are therefore accessible to conscious interventions to a degree to which rules of grammar (and phonemes) are not.»

Arlo honetan askotan sortu ohi den nahastearen arriskua behintzat salatu beharrean gaude: *teila* eta *oilo* idazteak ez du ebakera hori hobetsi behar dela esan nahi eta,

(1) Bustidura adierazgarria alde batera uzten da hemen, dagokigunerako gauzak luzatu eta beharrik gabe korapilatuko lituzkeelako. Bustidura honek, benetan bizia (h. d. benetan adierazgarria) bada ez du asimilazioaren zakuan erortzeko arriskurik semantikari dagozkion baldintzak direla eta. Honek ez du esan nahi semantikotzat jota fonologiaren kezketatik kanpo ikusten denik. Izan ere ez da txikia fenomeno foniko adierazgarriek fonologilariari eskaintzen dioten zeregina. Euskaraz jazotzen diren bustikuntza mota biak adibide paradigmatiko lirateke bata bestearen ondoan Nathanek (1986) ederki laburbiltzen duen hizkuntzalaritza kognitiboaren arauerako fonologian (h.d. baldintza fonetiko edota semantikoek gorpuztuan).

(2) Arau honen gainean ezagutzen dudan iruzkinik zuzenenean (Zwicky 1970) *Free-Ride Principle* erregelen arteko ordena finkatzeko irizpide bezala aurkezten da, baina artikuluaren zatirik garrantzitsuenean gertakizun fonikoen interpretapenerako tresna bezala aztertzen da eta arbuiatzen (hain zuzen ere, ing. *assimilate* eta abarretan asimilazioa ala kenketa jazo den eztabaidatzen da).

are gutxiago, hizkuntzaren historian zehar hitz horiek < i > izan dutenik frogatzen. Halaber, ez du < i > horren egia sinkronikoa zilegiztatzen[3].

Besterik gabe, ortografia batua hizkuntzaren fonetikatik abiatu da eta «hots bati grafema bat» hastapena ezarri du palatal ez-adierazgarrien kasuan. Beraz, berdin ahoskatzen dena, oro har, berdin idazten da eta palatal ahoskatzen denari < i > ipintzen zaio aurretik fonologikoki bada eta ez bada, berdin. Grafiak, horrela, ebakera palatalaren alde (palatalizazioz) zein ez-palatalaren alde (despalatalizazioz) fonologikoki gertatzen den neutralizazioa jasotzen du[4].

Ortografiak ortografiaren ekonomia eta erraztasuna ditu bide honen aldeko arrazoibide. Palatal etimologikoak —mailebuz edo bestela hiztegian daudenak— eta i baten asimilazioak sortuak bereiztea ortografia soberan eta etekin garbirik gabe zailtzea litzateke ziurrenik (cf. esate baterako, *silla* vs. *biribila*)[5]. Hiztun arruntek buruz ikasi beharko lituzkete era batera (palatalaren grafemaz: *silla*) zein bestera (*i* + palatalaren kide ez-bustia: *biribila*) idatzi beharrekoak. Azalean errazagoa dirudi txikigarri direnen eta ez direnen arteko bereizkuntza hiztunari bustidura benetan adierazgarri gertatzen zaion artean behintzat, bustikuntza semantikoki bait dago baldintzatua. Halaz ere, aintzakotzat hartzekoa litzateke, hain zuzen ere joera ekonomikoagatik *andereino* bezalakoak idazteko joera. Honek, hain zuzen, semantikazko baldintzen indarra norainokoa den egiaztatzen du. Zenbat hiztunek dakite *andereño* *andere*-ren txikigarria dela 'mujer' edo 'señora' *andre* erabiltzen eta atzizki txikigarritzat *-txo* dutenen artean adibidez? Horientzat, *andereino*-ko *i* hori ez da *teila*-koa baino arrotzagoa, edo, bestela esan, *teila*-koa bezain onartzekoa da.

1.3. Fonologian, hau da, gramatikaren aldetik, honen ordain litzateke ahoskatzen diren alboko guztien palataltasuna /i/-ren eraginagatik esplikatzea. Ez luke honek gramatika ezertan garestituko, < i >-k eragindako asimilazio bustikuntza azaltzeko erregela bestela ere beharrezkoa bait da euskararen gramatikan. Honako hau litzateke, oro har eta azalpidea muturreraino sinpletuz, *free ride* eginaz euskarazko palatalen analisia (cf. Zwicky 1974: 57-58):

a) Euskarazko hiztegian (azpiko aurkezpenean) ez da kontsonante palatalik, /i/ bokal palatal gehi kontsonante bilkurak baizik

b) Azalean, h.d. fonetikoki, agertzen dira kontsonante palatalak [i]-ren ondoren ez doazenak: honek (a)-n azalduarekiko irregulartasuna lekarkiguke, baldin eta ez bada modurik hiztegitik azalerako eratorpenean erregela fonologikoen bidez arazoa moldatzeko.

c) Euskal fonologian badira bi erregela —*bestela ere* behar direnak— kontsonante palatal [i]-rik gabeak erakarriko lituzketeenak: bustikuntza asimilazioa (cf. [ba+na] eta [bi+ɲa]) eta palatalaren aurreko bokalerdiaren kenketa (cf. adina > ajɲa > aɲa)[6].

(3) Errepara ebakerari dagokionaren garrantzi fonologiazkoari. Uste horren arrakastak fonetikoki sustrairik ez duen <i> baten eransketa lekarke edo, bestela, despalatalizazio erregela gehitzea [tejla] esaten duen hiztunaren fonologian (gauza bera eskatu behar al litzaioke sudurkarien kasuan?).

(4) Palataltasuna grafikoki markatzea (diakritikoz edo letra bikoiztuz) ez litzateke batasunaren aldetik egoki, despalatalizazioa edo palatalizazio mugatua (bokalerdiaren ondoren bakarrik, adib.) duten euskalkietako ortografia zailduko bait luke.

(5) Pareko gertatzen da *itxura* vs. *itsaso* bereizkuntza ortografiazkoa bigarrenaren afrikatua ere [tʃ] ahoskatzen dutenentzat.

(6) Bokalerdiaren kenketarako ingurunea ezin daiteke edozein izan. Daturik ezagatik ausartegia izateko arriskuz, esango nuke silaba (egitura / kopurua?) edota azentu baldintzak aintzakotzat hartzekoak daitezkeela.

d) Erregela bi horien bitartez posible da azaleko kontsonante palatalak azpiko aurkezpenean bokalerdi palatala + dagokion kide ez-palatal bezala irudikatzea. Horrela, fonetikoki [teʎa] denaren azpiko aurkezpena /tejla/ dela esan daiteke, azpitik azalerainoko bidea palatalizazioa eta bokalerdiaren kenketa erregelen bidez azaltzen delarik[7].

Esan da gramatika ez litzatekeela *garestituko.* Esan nahi izan da gramatika ez litzatekeela luzatuko, ez litzaiokeela gramatikari ezer erantsi edo gehitu behar, ez litzatekeela, alegia, gramatika pisuago bihurtuko: erabat hiztegi generatibista erabiltzearren, ez lukeela sinpletasunik galdu behar gramatikak. Garestitzea eratorpena luzatzearen eta korapilatzearen sinonimo da oro har generatibisten sinpletasun metrikari dagokionez. Esan da (ik. goiko c) euskararen gramatikan *bestela ere* behar direla /tejla/ aurkezpenetik [teʎa] emango liguketen erregelak.

Gauzak labur eta azkar esanaz, jasotzen den fonologiaren naturaltasuna fonologia hori jasoko duen gramatikaren sinpletasunaz parekatu nahi da. Ez da, bada, harritzekoa *Free-Ride* araua generatibisten arteko baliabidea izatea eta ziurrenik luzaroan fonologilari generatibisten gidaliburua izan den *The Sound Pattern of English* izan bide da arauari zabalera handiena eman diona[8]. Izan ere, liburu honetan behin eta berriz baliatzen dira delako arauaz erregela fonologikoak hautatzeko. Halaz ere eta izena bera Morris Halle-rena bada ere (Zwicky 1970: 579, 1. oh.), ez da inoiz aipatzen eta horixe izan daiteke gertatuaren azalpide nagusienetakoa: beharbada, aipatu ere egiten ez den *rule of thumb* horietakoa delako, analisi fonologikoaren muinean sartu da inolako eztabaidarik gabe eta analisiaren osagai funtsezko bezala.

Haatik, gramatikaren formari dagozkion ondorioez landa, ez dago inolako arrazoi fonetikorik, *tella* edo *ollo*-ren palatala asimilaziozkotzat joko bada, behar den iaren alde. Ez dago, *free ride* hori lortzeaz gain, hor asimilazioa gertatu dela frogatuko duenik. Bestela esan, konbentzio formala lortzeko baliabide formala da palatal horien oinarrizko aurkezpentzat /il/ edo /jl/ hartzea. Ez dago horren aldeko ebidentzia beregainik (*independent evidence*). Arrazoibidea osorik da formala, bai helburuaren aldetik (aurkezpen fonologikoa sinpletzea), bai konponbideen aldetik ere (*Free-Ride Principle*).

Ondorioak, ordea, ez lirateke formalak bakarrik edo formalizazio huts baino esplikaziotzat hartzeko arriskua behintzat bada. Analisia bere azkeneraino eramanda, euskarazko kontsonante palatal guztiak lirateke asimilazio bustikuntza baten ondorio eta horrek, hizkuntzaren esplikazio bezala aurrera egiteko zenbait oztopo aurki-

(7) *Silla* bezalakoetan ez dago noski bokalerdiaren kenketaren beharrik, palatalaren aurreko bokala i izanik berau bait litzateke sasi-bustikuntzaren eragile / sila / hartuz gero oinarrizko aurkezpentzat. Bestelako bokala dutenetan azpiko aurkezpenean suposatu behar den eragilea /i/ silabagilea izan liteke baduelako euskarak diptongatze erregela bat oinarriko /i/ hori (j) bokalerdi bihurtuko lukeena beste bokal baten ondoren (cf. /egin/ —> [ejn] bokalarteko belarearen desagertzearen ondorioz sortu bilkuran). Hemen bokalerdia jartzen da esplikazioak irabazirik gabe luzatuko lituzkeen diptongatze erregela alde batera uzteagatik eta, gainera, /teila/, bokalaz, jartzeak eztabaidagai dugun azpiko aurkezpenaren abstraktotasuna areagotuko lukeelako.

(8) Oraindik ere ezinbesteko erreferentzia gertatzen da Chomsky eta Hallek 1968an argitaratu zuten lau hau, ondorengo berrikuntza eta aldaketek lan hauxe bait dute oinarri eta abiagune. Euskal fonologiaren eremuan, ikerketa atzeratuago dabilen neurrian behintzat, esan daiteke bakarkako ikerlariren bat salbu (J. I. Hualde eta Txillardegiren azentuari buruzko lanak ditut gogoan) ez dela teoria sortzaileei dagokienean 1968 egoera gainditu.

tzen ditu. Sendoenetakoa mailebuek eskaintzen dutena da ziurrenik eta egun gazteleraz eta euskaraz erabiltzen diren *silla* edo *rollo* bezalakoak gerta daitezke hemen egokien arazoa ikuspuntu sinkronikoan kokatzeko behintzat. Izan ere beti da errazago (ez zilegiago) bilakaera diakronikoetan arrazoibideen muga malguagoak onartzea, zerbait denboran urrutiago egoteak logikatik ere urrutiratuko balu bezala.

Hiztunaren ahoskeraren nondik-norakoen esplikaziorako aurkezpen fonologikoaz (ere) baliatu nahi denean, hemen darabilkigun arazoaren aurrean azpiko aurkezpena aukeratzeko orduan sortzen den galdera da zergatik alboko hori palatal ebakitzen den: (a) *i* edo *j* baten ondoren doalako hitzaren egitura fonologikoan eta euskararen fonologiak horrelako bilkuretan ebakera palatala eskatzen duelako, ala (b) erdaraz duen ebakeraz mailegatu duelako euskarak (inolako arazo fonetikorik gabe, alboko palatala gertatzen bait da euskararen hotsen artean ere)[9]. Azpiko aurkezpenean /tejla, sila/ jartzeak (a)-ren alde egingo luke apostu, egitekotan. Gehiegizkoa badirudi ere horixe litzateke *free-ride* egitearen ondorioa, bortitzena ez bada ere, ziurrenik nabarmenena. Izkutatuago gelditzen da agian azaleko ondorioon azpian datzan eta analisiaren oinarri den hipotesia: euskarak ez luke kontsonante palatalik azpiko aurkezpenean, hiztegi mailan alegia.

Noski, oraingoz ez du balio fonologiazko argudio bezala, euskara batuaren idaztarauen eraginaz baten bati sor dakiokeen nahasteak, hemendik aurrera aintzakotzat hartzeko aldagaia izango bada ere (gogora goragoko *andereino*). Are gehiago, idatziaren ebidentziaz baliatzerik bada, esango nuke hiztun arruntarentzat bokalerdiak sortu palatalizazioak askotan bokalerdia bera izkutatzen duela. Euskara batuan alfabetatu gabeen idatzietan ez da inoiz *oillo* edo *teilla* bezalakorik eta bai, aldiz, *zalla, malla.*

Hitzon historiari begiratuta eta jatorri ezaguneko diren mailebuen historia izaten da gure artean historiarik ezagunena, esan daiteke *Free-Ride* arauaz baliatzeak lekarkeen analisia ez datorrela bat hitzon historiarekin. Gorago esan den bezala, *tella, ollo* eta abarren palataltasuna ez bide da < i > batek eragindako asimilazio aurrekariaren ordain (ik. Oñederra 1990, VII.1.: *tella, ollo, silla, zerralla* formetako palataltasun ez-asimilaziozkoaz).

Baina, historia alde batera utzita eta sinkroniaren izenean dakiguna jakingo ez bagenu bezala egitea zilegi balitz ere, *free ride* egiteak ez digu berririk ematen. Bestela esan, ez du ezaguera linguistikoan ezertan sakontzen, ez esplikazioa aberasten ere; gorago aipatu bezala, gehienez ere gramatika laburragoa lortu ahal izango da fonologiak duen erregela bati etekin haundiagoa ateratzen bazaio. Euskal palatalizazioaren kasuan ez da hori ere irabazten, *free ride* eginagatik ez bait zaio erregelarik gutxitzen gramatikari. Lor daitekeen gauza bakarra da fonologiaren azpiko aurkezpenean kontsonante palatalik ez egotea (berriz ere, bustidura adierazgarriaren arazoa alde batera utziaz). Gramatikak izan behar lukeen esplikazio edo gutxienez deskribapenak ho-

(9) Jakina da gazteleraz gehienen ebakeran hots horrek albokotasuna galdu duela eta antzeko bidea daramala belaunaldi berrietako euskal hiztunengan ere. Ez zait erabat zuzen iduritzen —ez bederen zalantzarik gabekoa— aldaketa fonetiko hau dela eta *yeista* zenbaitek hartu bidea, alegia albokotasuna gorde eta palataltasuna kentzearena [sajla], [majla] eta antzekoak ebakiaz. Ezintasun edo, besterik gabe, aldaketa fonetiko bat dela eta, euskarari bere gramatikan duen bustikuntza erregela kentzen zaio (cf. irtenbide horren alde Salaburu & Kintana-k (1984) proposatua).

rrekin zer irabazten duen ez da berehala ikusten den gauza. Nik behintzat ez dut ikusten eta ez da harritzekoa, izan ere *Free-Ride* araua ez bait da linguistikoa:

> The logical character of the *Free-Ride* Principle is somewhat peculiar. It is not a linguistic universal, substantive or formal: it does not delimit the notion of "possible human language" or restrict the class of possible grammars, simply because it is applicable only in the absence of decisive evidence as to the relative adequacy of alternative descriptions and becomes irrelevant as soon as such independent evidence is discovered. (Zwicky 1970, 581).

2.1. Zer adierazten da euskal fonologiaren *tella* [teʎa]-ren oinarrizko aurkezpenean /tejla/ edo *silla* [siʎa]-renean /sila/ ipinita? Galdera honek, noski, ez du zentzu bera fonologiarenganako hurbilera guztietan.

Garbi dago ezin dela aurkezpen hori bat etorri Baudouin de Courtenay-k hots asmo (*Lautabsicht*) bezala definitzen zuen fonemarekin ezta ere, bide beretsutik eta antzeko arrazoiengatik, Sapir-en (1951 [1933]) fonema psikologikoarekin. Gorago aipatu idazkerazko datuek, besteak beste, adierazten dute hiztunaren adimenean ez dagoela < i >-rik *tella* [teʎa] esaten duenean eta intentzioen aldetik, ez dut uste inork proposatuko lukeenik silla [siʎa] ahoskatzen duenak /sila/ esan nahi duenik (eta bustikuntza asimilazioa duelako esaten duela hor [ʎ]). Haatik, horixe litzateke ondorioa, hain zuzen, *Free-Ride* edo kideko baliabide formalaren eskutik azaleko ebakera palatalak justifikatuko dituzten < i > horiek azpiko aurkezpenean jarriko balira.

Mutatis mutandis, < i > horiei fonema balioa emango litzaieke hizkera estrukturalista edota tradizionalagoan. Baina arazoa ez da horren larria ikuspuntu sortzailetik, esan bait daiteke, analisi sortzailean fonemak ez duela gorputzik, ez duela izaera finkorik. Ikuspuntu honetatik, hasieran eta teoriaren bertsiorik oinarrizkoenean, aurkezpen fonemikoa ez da maila beregaina, analisi morfosintaktikoari dagokion zuhaitza analisi fonologikoarekin lotzen duen tramankuilu formala baizik. Nahikoa da, beraz, katea fonikoaz dugun informazio morfologikoa (zenbat eta zeintzu diren osatzen duten morfemak) eta deskribapen fonetikoa aurkezpen fonemikoa irudikatzeko eta, hortik, erregela fonologikoen bidez azaleko aurkezpen fonetikora iristeko. Ez zaio eskatzen, beraz, aurkezpen fonemikoari psikologikoki egia izan dadin, historiaren aldetik egiantzekotasunik eskain dezan edo hiztunen jokabide fonologikoaz esplikabide hipotesirik egiteko balio dezan[10].

Baina esandakoa ez da egia osoa, azaleko epai erraza baizik. Fonologia fonologia denetik bere buruari galdatu diona da hemen funtsezko arazoa. Azken buruan fonologiaren betidaniko galdera sakonen kakoa bera da, berdin da galderen azala zein den. Berdin da aldi bakoitzeko eztabaidaren gai zehatza zein den: naturaltasuna, abstrakzio maila, ezaugarri fonetiko-fonologikoen nolakotasuna, mugak, morfonologia edo fonosintaxia.

Funtsean, arazoa da fonemarik baden ala ez den, bestela esan, oinarrizko aurkezpenaren izaera, nolakotasuna eta baldintzak. Hotsa badela ez du inork zalantzan jar-

(10) Ez zaie arrazoirik falta esaten dutenei oso zaila dela gauzen egia psikologikoa frogatzea. Agian, dena den, teoria sortzailean *external evidence* deitu bigarren mailakotzat jo ez balitz ez ziren gauzak gertatu diren bezala gertatuko. Historiarekiko egiantzekotasunaren aurka sinkronia hutsa egitearen aitzakia erabili izan da. Dena dela ez dute honetan berdin jokatu hizkuntzalari guztiek eta bakoitzak zuen jakituria maila ez da erabat arrotz izan batzuen eta besteen arteko diferentzia hauetan.

tzen: hotsa fisikoki gertatzen da, fonema, berriz, ekoizpen teorikoa da eta, hotsa baino areago zerbait dagoela fonologilari orok onartzen badu ere, ez da erraza zerbait horren definizioan adostasunik aurkitzea. Eskola bakoitzak bere definizioa duela esatea ere gauzak errazegi kontatzea litzateke. Badira gainera eskoletatik landa ibili diren fonologilariak eta fonemaren definizioari dagokionean ekarpen tajuzkoak eskaini dituztenak. Baina hitzegin dugu horretaz beste nonbait (Hurch & Oñederra 1988) eta agian egokiagoa da hemen dagokigun gaira itzultzea.

2.2. Generatibisten artean ere sortzen da bestek garbiago eta zuzenago aldarrikatuko duten fonemaren beharra (garbien, ziurrenik, Stampe-ren fonologia naturalean). Schane-ren "The phoneme revisited" liteke agian alde horretatik lanik nabarmenena, izenburua bera nahikoa delarik diogun hau erakusteko. Ez gara hemen sartuko artikuluaren kalitatea eta eskaini datuen azterketan, besterik gabe ikuspuntu diakronikotik aurkitu eta salatu zuloen adibidea eman nahi da.

1971 urtean argitaratu artikulu honetan, Sanford Schane-k aldarrikatzen du fonema bezalako zerbaiten beharra hotsen gramatikaren, hau da fonologiaren, egituraketan. Zaila iduritzen zaio, bestela, fonologiaren alor diakronikotik hizkuntzen hotsen historietan aurkitzen dituen fonologizatzeen berri ematea: nola jaso fonemari berezko nortasunik ematen ez dion gramatika batean frantsesezko bokalen sudurkaritzea bereizkuntza foniko baten seinale fonetiko bakar bihurtu denean (*fonologizatu* denean, alegia) gordetzea eta presente dagoen beste ezaugarri baten ondorio erredundante denean galdu izana?; nola adierazi sudurkaritzeak kasu batean eta ez bestean duen maila hori fonema mailarik ez bada gramatikan?

Egia da maila horren egitekoa diakronian kokatzen dela, diakronikoa dela Schane-k fonemaren alde, nolabait esan, eskaintzen duen arrazoibidea, baina egia da, halaber, diakronikoki zerbaiten aztarna aurkitzeak esan nahi duela noizpait, sinkronikoa den noizpait batean, delako hori erreala izan dela. Halaber, hizkuntz aldaketa izan daiteke hizkuntz egiturari buruzko informazioaren iturri sendoenetakoa (cf. Kiparsky 1968 eta ondorengo artikuluetan). Schane-ren lehen adibidera itzuliaz, galditu diren sudurkaritzeak kontsonante sudurkariaren galtzeak ezinbesteko egin dituen horiek eta ez besteak badira, esan nahi du noizpait (bokal batzuen sudurkaritasuna galdu zuenean) hizkuntzak ezinbestekoen alde egin zuela aukera. Aukera hori sinkronian gertatu zen orain horren ondorio diakronikoak neurtzen baditugu ere.

Gai hauen inguruan, Kiparsky-ren izenaren garrantzia aipatzea nahitaezko gertatzen da. Mitxelena irakasleak (gertuagoko beste zenbaitek baino areago agian) oso aintzakotzat hartzen zuen hizkuntzalari hau analisi sortzailea egiten dutenen artean, fonologia lexikoak ekarri dion berpiztea baino lehenago, behintzat oraindik gurera iritsi ez zenean. Kiparsky-k bidea proposatu eta lantzen du bere ekarpena aurrerapausu bikaina delarik fonologiaren bidean. Izan ere hala zegokion Kiparsky-ren mailako hizkuntzalari bati —hizkuntzaz eta hizkuntzen historiaz Kiparsky-k bezainbat dakienari, alegia—.

Egia da generatibisten artean ez dela aurkitzen fonemaren definizio garbirik. Izan ere ez da harritzekoa, 1959.ean Halle-k ukatu zuenetik, fonemak ez bait du lekurik izan fonologia sortzailearen esplikazioan. Honek ez du esan nahi, noski, oinarrizko egituran unitate fonologikorik ez denik. Azkar eta labur esateagatik, generatibismoaren bertsiorik oinarrizkoenean fonema litzateke informazio morfologiko eta foneti-

koaz osatzen den azpiegituraren (maila fonemiko sistematikoaren) unitatea. Horregatik esan daiteke aurkezpen horri dagozkion baldintza eta proposamenek fonemaren ezaugarriak markatzen dituztela nolabait (gainerakoen ikuspegiarekin erkatu ahal izateko adina, bederen).

Hemendik azter daiteke Kiparsky-ren ekarpena. Berak dakar hasierako fonologia sortzailera lehenengo muga eta hesia: azpiko aurkezpenean ezin da edozer jarri, ez da nahikoa besterik gabe informazio morfologikoa eta fonetikoa lotzeko balio digun katea abstraktu bat bilatzea. Batez ere, abstrakzio mailari jarriko dio Kiparsky-k muga:

> It is only to be expected that progress in linguistics should consist in reducing the abstract part of language, the part consisting of the various theoretical constructs which must be set up to mediate between the concrete levels of phonetics and meaning, the only aspects of language which can be directly observed. (Kiparsky 1968, 43).

Beldur naiz ez ote dugun fonologilariok eta fonologiaren historiaz arduratzen direnek gutxietsi Kiparsky-ren ekarria. Alde batetik, bere lanaren emankortasunean urtu ahal izan da eta neurri batean galdu, baina bestetik txikitu egin dela esango nuke bere irakaskuntza. Sona haundia izan zuen lehen kopia nola edo hala argitaratuetatik hasita bere 1968ko "How abstract is phonology?" lanak eta horixe da urte askotara fonologiaren teorian abiatzen den ikasle jakinguratsuari ematen zaion irakurgai nagusienetakoa. Hasieratik lotzen du ikasleak Kiparsky-ren izena abstrakzioazko arazoekin eta erregelen hurrenkera diakronikoarekin, bere heziketa fonologiazkorako beste zenbait gai funtsezkorekin lotuko duen bezalaxe. Esan beharra dago, gainera, bere lehen ekoizpenetan antzematen dela dagoeneko oraingo bere fonologia lexikoaren zutabe teorikoetako bat, arazo fonetikoen baldintza fonetiko soil eta gainerakoen arteko bereizkuntzaren pisua (cf. Kiparsky 1968 vs. 1985, esate baterako) Iverson-en (1987) ustez, Kiparsky-k asmatu abstrakzioarekiko muga (*alternation condition*) ez dute erabat jasotzen fonologia lexikoaren ordainek (*strict cycle condition* edo *elsewhere condition* eta *lexical identity rule*). Bere iritzian, fonologia lexikoan ere baluke egitekorik Kiparsky-ren lan zaharragoetako baldintzak.

Baina Kiparsky-k, *alternation condition* irudikatzean (Kiparsky 1973), ez zuen soilik erregelak sailkatzeko tresna asmatu. Alegia, esan zuen bai (Kiparsky 1973), erregela bat neutralizagarria zenean (zentzurik ohizkoenean: erregelaren emaitza (*output*) hizkuntzaren oinarrizko egituran zegoen unitateren batekin bat zetorrenean) erregela hori ingurune eratorrietan gertatuko zela modu emankorrean: Kiparsky-ren zentzuan, ingurune eratorriak dira fonologian morfema mugan zehar osatuak eta beste erregelaren batek sortu edo aldatu elementu sekundarioren bat dutenak. Erregelen bi baldintza mota hauek (indar neutralizagarria batetik eta ezarketa eremua bestetik) lotzean, Kiparsky-k daitekeen azpiko aurkezpena mugatzen du, gorpuzten du eta ezaugarriz jazten.

Kiparsky-ren bidetik *Free-Ride* aipatuak ez du aukerarik. Euskarazko asimilazio bustidura neutralizazioa sortzen duen erregela fonologikoa denez, ingurune eratorrietan bakarrik gerta daiteke. Alegia, katea eratorrietan bakarrik du izaera fonologikoa, gainerakoetan lexikaldutzat jo behar delarik. Zehazki, gertatzen diren formei begira, morfema mugan zehar litzateke emankor aldakuntza fonologiko bezala. Mailebuz

sartu palatalek oinarrizko lexikaldu horien mailan leudeke[11]. Ez legoke oztopo haundiegirik Kiparsky-ren zatiketa, aldaketa fonologiko neutralizatzaileak zenbait hots berrikuntza lexikaldutatik (eta, halaber, aldakuntza automatikoetatik) bereizten dituena arras eskola diferente baten proposamenekin parekatzeko: Stampe-ren fonologia naturalarekin. Parekatze honen azterketak nahikoa gai emango luke hizkuntzalaritza deskribatzaile eta esplikatzaileez lan berri bat osatzeko[12].

3. **Ondorioak.** Saiatu naiz erakusten *Free-Ride* arauak ez duela balio euskarazko hots palatalen analisirako. Zwicky-k (1970) ingelerazko bi erregela morfonologikoren azterketan oinarritu zuen kritikan zalantzarik gabe eta gutxienez lortu zuenari neure lekukotza gehitu nahi izan diot:

> While I can scarcely be said to have demonstrated the general invalidity of the principle, I have emphasized the fact that the principle lacks empirical confirmation and hence should not be applied incautiously. (Zwicky-k, 1970: 587).

Tella, ollo eta *silla* bezalako hitzen analisiak aukera egokia eman digu *Free Ride* arauaz aritzeko eta askotan uste ezean arau honen ondorioez baliatzen garela ikusteko. Ikusi da, halaber, *Free-Ride* emaitza (*output*) berberera iristen diren gramatika biren arteko hautaketarako bakarrik dela garrantzitsu; bestela, beti dago pisu handiagokoa den beste irizpideren bat erabakia hartzeko (fonologiaren eremuan fonetikoki gertatzen den ahoskera izango da azken buruan ondorio zuzenak zein gramatikak dituen erabakiko duena). *Free-Ride* erabiltzeak ez badu baldintzatzen analisiaren emaitza, errazagoa da ohartugabe erabiltzea. Euskarazko aipatu palatalen analisian, *Free-Ride* erabili edo ez erabili emaitza berberetara heltzen gara: azpiko aurkezpenerako /tejla, ojlo, sila/ aukeratzeak suposatzen du *Free-Ride* erabiltzea oinarrizko aurkezpenaren hautaketarako, /teʎa, oʎo, siʎa/ hautatuta ere berberak dira gramatika osatzen duten erregelak, ez dago beraz inolako diferentziarik gramatikaren emaitza diren azaleko forma fonetikoetan.

Lanaren bigarren zatian gramatikaren alderdi mekanikoak itsu itsuan ezartzean aintzakotzat hartzen ez den analisi fonologikoaren alderdi batez aritu naiz. Baieztatu nahi izan da nola azpiko aurkezpenaz batek dituen usteek baldintza dezaketen egiten den analisi fonologikoa eta gramatikaren nolakotasuna (h.d. hizkuntzaz esaten dena edota hizkuntzalari bezala ematen den iritzia). Horretarako fonologiaren historiaren inguruko apunte batzuk ematen saiatu naiz.

Garbi gelditzen da, azkenik, *Free-Ride* araua eta, beraz *ollo, tella* eta *zerralla* bezalakoetan asimilazio bustikuntza dagoela, generatibismoaren barruan teoria formalaren bertsio erabat abstraktuak onartu zituztenek bakarrik esango zuketela. Gehienek, ordea —eta ez oraingo eredu berrietan bakarrik: horregatik erabili da *SPE*-ren garaiko bibliografia— ez lukete analisi hori onartuko generatibisten artean ere, are gutxiago noski Baudouin eta Sapir-en bidetik fonemaren izaera psikologikoa aldarrikatzen dutenek.

(11) Zailtasun handiena mailebuak oparo aldatzen dituzten zenbait bizkaieratatik letorkioke analisi honi (cf. gazt. *kilo* eta eusk. *killo,* hiztun berarengan). Fonologia naturalean bilakabide fonologiazkotzat hartuko lirateke aldaketok, elebidunen mailebuen ahoskera lehen mailako datu-iturritzat jotzen bait da.

(12) Hemen ikusiaren inguruan teoria naturalaren uste nagusiez, ikus bedi Donegan & Stampe 1979, 130 eta, teoriaren aurkezpen landu eta sakonagorako, Dressler 1985, pass.

Bibliografia

Chomsky, N. & M. Halle, 1968, *The Sound Pattern of English.* New York: Harper and Row.

Churma, D. G., 1983, "A further remark on the 'Hallean syllogism'". *Lingua* 59, 345-354.

Dogil, G., 1984, "Harry van der Hulst & Norval Smith, eds., *The Structure of Phonological Representations*" [Review Article]. *Phonology Yearbook* 1, 157-173.

Donegan, P. & D. Stampe, 1979, "The study of natural phonology". *Current Approaches to Phonological Theory.* Daniel A. Dinnsen, ed. Bloomington: Indiana University Press, 126-173.

Dressler, W. U., 1985, *Morphonology, the dynamics of derivation.* Ann Arbor: Karoma.

Hurch, B. & M. L. Oñederra. 1988. "Azterketa fonologikoaren inguruko gogoetak: fonema". *ASJU,* XXII-1, 213-231.

Iverson, G. K., 1987, "The revised alternation condition in lexical phonology" *Nordic Journal of Linguistics* 10, 151-164.

Kiparsky, P., 1968, How abstract is phonology?.Bloomington: Indiana University Linguistics Club. [= *Thee Dimensions of Linguistic Theory.* O. Fujimura, ed. Tokyo: TEC Corporation, 5-56].

————————, 1973, "Abstractness, opacity and global rules". *Thee Dimensions of Linguistic Theory.* O. Fujimura, ed. Tokyo: TEC Corporation, 57-86.

————————, 1982, "From cyclic phonology to lexical phonology" *The Structure of Phonological Representations* I. Harry van der Hulst & Norval Smith, eds. Dordrecht: Foris, 131-175.

————————, 1985, "Some consequences of lexical phonology". *Phonology Yearbook* 2, 85-138.

Mester, R. A. & J. Itô, 1989, "Feature predictability and underspecification: palatal prosody in Japanese mimetics". *Lg.* 65, 2. 258-293.

Nathan, G. S., 1986, "Phonemes as mental categories". *BLS,* 12,212-223.

Oñederra, M. L., 1985, "Arau baten azalpide bi" in *Symbolae Ludovico Mitxelena Septuagenario Oblatae,* J. L. Melena ed., Vitoria: UPV/EHU, 893-897.

————————, 1990, *Euskal Fonologia: Palatalizazioa.* EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Salaburu, P., 1984, "Hizketa adierazkorraren arauak (HAA)", "Sabaikarien eraketa (SE)". *Hizkuntz Teoria eta Baztango: Fonetika eta Fonologia* EHU-ko Argitalpen Zerbitzua, Bilbo. II, 118-128, 155-163.

———————— & X. Kintana, 1984, *Euskara Hobean Hobe.* Bilbao: EHUko Argitalpen Zerbitzua.

Sapir, E., 1951, "The psychological reality of phonemes". *Selected Writings of Edward Sapir.* D. G. Mandelbaum ed., Berkeley: University of California Press, 46-60. [= 1933, "La réalité psychologique des phonèmes", *Journal de Psychologie Normale et Pathologique* 30, 247-265].

Schane, S., 1971, "The phoneme revisited". *Lg.* 47-3, 503-521.

Sgall, P., 1987, "Towards a theory of phonemic orthography" in *Orthography and Phonology*, P. A. Luelsdorff ed., Amsterdam / Philadelphia: John Benjamins.

Zwicky, A. M., 1970, "The *Free-Ride* Principle and two rules of complete assimilation in English". *CLS* 6, 579-588.

————————, 1974, "Homing in: on arguing for remote representations". *Journal of Linguistics* 10, 55-69.

En torno al vocalismo vasco

MAITENA ETXEBARRIA AROSTEGI
(UPV, Vitoria)

1. Caracterización y descripción acústica de las vocales

El grupo de sonidos vocálicos es el que más interés ha despertado en las investigaciones acústicas por su indudable complejidad teórica y práctica. Desde hace más de un siglo se han desarrollado innumerables teorías que han ido clarificando poco a poco su naturaleza acústica.

Vocal y consonante

La dicotomía vocal/consonante es una de esas nociones básicas que está presente en los estudios del lenguaje desde los primitivos gramáticos de Grecia y de la India llegando su problemática hasta nuestros días.

El importante trabajo de G. Straka (1963), además de recoger los distintos ensayos de justificación de la existencia de ambos grupos de sonidos propone el fundamento articulatorio de su división.

Asimismo, el estudio de P. Delattre (1964), proporciona los elementos físicos para fundamentar la dicotomía vocal/consonante en el aspecto acústico. La diferencia se fundamenta en la *estabilidad* (vocal) frente al *cambio* (consonante) de los componentes acústicos de los sonidos. El reconocimiento de una *consonante* a través de su percepción depende esencialmente de la presencia de un *cambio de frecuencias en sus elementos acústicos constitutivos,* mientras que el de una *vocal* depende de la estabilidad de frecuencia.

Todos los cambios apreciables en la frecuencia de los formantes, excepto aquellos que aparecen en la unión de dos vocales contiguas, contribuyen a la percepción de las consonantes; un cambio no apreciable en la frecuencia de los formantes contribuye a la percepción de las vocales. Por lo tanto, en el contraste vocal/consonante, la percepción vocálica depende sólo de la estabilidad frecuencial, mientras que la percepción consonántica depende del cambio frecuencial.

Cuando un espectrograma, natural o sintético, se pasa por un sintetizador, por ejemplo, las partes que muestran cambios en los formantes contribuyen a la identificación de las consonantes, mientras que las que presentan una relativa estabilidad en la frecuencia de los formantes, incluso durante un tiempo muy breve, se identifican como vocales.

El problema de la clasificación en cuanto a la función silábica queda de este modo también más claro. Según el mismo Delattre, se ha afirmado que hay sonidos que

unas veces actúan como consonantes y otras como vocales, es decir, que lo que distribucionalmente es una consonante en una determinada lengua puede ser una vocal en otra,

> con la implicación de que tales sonidos son fonéticamente semejantes y percibidos como diferentes sólo a causa de su distribución. Ahora bien si estos dos conceptos fueran ciertos, el contraste vocal/consonante no podría ser definido por medio de criterios fonéticos, sino sólo a través de criterios distribucionales. Pero de acuerdo con las investigaciones acústicas recientes, esto no es así. *Los dos sonidos que distribucionalmente funcionan como una consonante en un caso y una vocal en el otro no son fonéticamente los mismos; tienen algo en común, pero son diferentes.* Se distinguen entre sí por un rasgo fonético marcado, invariante: uno se percibe por medio de un cambio en la frecuencia de los formantes, el otro no. (P. Delattre, *op. cit.* p. 17)

En estos últimos años los trabajos se orientan hacia el dominio de la percepción, pero los resultados obtenidos hasta ahora en lo que se refiere a un distinto tipo de percepción entre los sonidos vocálicos y consonánticos no son aún concluyentes. De un modo general se reconoce, según Stevens (1968), que la percepción de las vocales se realiza de una manera "cuasi continua", mientras que la percepción de las consonantes se realiza de una manera "cuasi categorial". (Puede verse en este sentido el trabajo de Konopczynski, 1973).

Teorías sobre la producción de las vocales

Desde finales del siglo XVIII, han sido varios los intentos de construir algún aparato que fuese capaz de reproducir el habla humana y que pudiese dar alguna explicación satisfactoria sobre la naturaleza de los sonidos vocálicos, que, por sus características, llamaban poderosamente la atención. En esta empresa intervinieron numerosos científicos que emitieron toda una serie de teorías apoyándose en medios tales como resonadores (Donders, Koenig, Helmholtz, Rousselot), inscripciones fonográficas (Mayer, Marichelle, Marage, Schneebeli y Rousselot), inscripciones quimográficas (Koening, Marage, Rousselot), síntesis del sonido por medio de diapasones o tubos abiertos (Willis), etc.

Kempelen (1791) fue el primero que logró reproducir satisfactoriamente por medios mecánicos tanto los sonidos consonánticos como los vocálicos: como reprodujo el timbre de las vocales por medio de las resonancias, homologó la cavidad de su resonador artificial con una cavidad bucal que resonase a determinadas frecuencias. Según Kempelen, el sonido vocálico emitido por el hombre se produciría del siguiente modo:

> la glotis emite un sonido, mientras que el conducto nasal está cerrado; este sonido se lleva a través de la lengua, como por un canal, directamente a los labios; la mayor o menor abertura de la boca completa la formación del sonido y le da su cualidad característica. Los sonidos que no poseen esta cualidad sólo pueden ser consonantes.

A partir de este momento la producción del sonido vocálico se explicó de dos maneras distintas: a) por medio de la llamada *teoría inarmónica* (Willis, Hermann, Scripture); b) por medio de la llamada *teoría armónica* (Wheatstone, Hemholtz).

Resumiendo ambas teorías podemos decir que:

a) Según la teoría inarmónica de Willis-Hermann, la producción de una vocal se explica del siguiente modo:

> a cada abertura de la glotis, una cierta cantidad de aire penetra en la cavidad bucal, la cual excita el aire de la cavidad en una vibración libre amortiguada; cuando esta vibración se repite periódicamente e irradia fuera de la cavidad como un sonido, el resultado es lo que llamamos una vocal.

b) Según Weatstone y Helmholtz:

> un tono laríngeo resuena con la cavidad bucal y aquellos de sus tonos parciales armónicos cuyas frecuencias coinciden con o están próximos a, las frecuencias naturales de la cavidad son reforzadas, mientra que las otras son debilitadas; el resultado es una vocal (apud Chiba y Kajiyama 1941: 51).

Las dos teorías no se excluyen, sino que a nuestro parecer se complementan, tal como ya ha sido señalado.

Según B. Hála (1956) no existen vocales producidas sólo según la teoría de Helmholtz, o según la de Willis-Hermann, aunque considera que es "la teoría de Willis-Hermann la válida de una manera general", pues:

1. Desde el punto de vista de la articulación, el trabajo de los órganos fonadores tiende a formar, en la región supraglótica, cavidades que posean sonidos propios, y no para producir armónicos de la voz que, por otra parte, se realizan sin ninguna relación con este trabajo.

2. Desde el punto de vista acústico, existen vocales que pueden formarse incluso sin armónicos de la voz: las llamadas vocales cuchicheadas.

3. Desde el punto de vista de la función comunicativa, es más fácil emplear, en el lenguaje, los sonidos propios de las cavidades que se es capaz de modificar, que los armónicos de la voz que se escapan a una intervención intencional.

La solución que da Hála al problema es la siguiente:

> los impulsos sucesivos y periódicos de la onda de aire sonorizada, que viene de la laringe, hacen resonar todas las cavidades supraglóticas, bien sea bajo la forma de un sonido o bajo la de un ruido; los sonidos propios de estas cavidades son independientes de la frecuencia fundamental. El oído percibe su unidad como constituyendo el timbre de las vocales, dejando a un lado las resonancias omisibles por su menor intensidad y contentándose únicamente con las que son bastante intensas para producir un efecto de importancia acústica notable. (B. Hála op. cit. pp. 54-59)

Según M. Halle (1959, *The sound pattern in Russian*) la cualidad de una vocal, de acuerdo con la teoría de Willis, se produce por las vibraciones amortiguadas de la cavidad bucal:

> Si es posible asumir que las vibraciones amortiguadas continúan indefinidamente —en el caso de los sonidos vocálicos esa suposición está muy próxima a la realidad—, entonces, dadas las vibraciones amortiguadas, es posible calcular matemáticamente el espectro frecuencial y, por consiguiente también las frecuencias de resonancia que, de acuerdo con Helmholtz, son las determinantes primarias de la cualidad de la vocal. Helmholtz y Willis, por lo tanto, están de acuerdo en que las frecuencias resonantes de la cavidad bucal son necesarias para especificar la cualidad vocálica. Difieren en que para Helmholtz las frecuencias de resonan-

> cia son tan necesarias como suficientes, mientras que, según Willis, es necesaria más información, como, por ejemplo, las amplitudes y los ángulos de fase de todos los componentes del espectro.

Las investigaciones posteriores sobre las vocales pusieron de manifiesto la presencia de varias zonas de resonancia en su espectro y acometieron la empresa de relacionarlas con las cavidades bucales. Puede verse, en este sentido, el trabajo de Rousselot (1924), por ejemplo, que concedía dos resonancias a todas las vocales:

> una *aguda* en el punto de articulación, allí donde el órgano se estrecha; otra *grave*, bien adelante de este punto, bien detrás.

Como vemos, durante mucho tiempo se ha creído que el conducto vocal era semejante a dos resonadores de Helmholtz acoplados en serie: uno correspondiente a la faringe y otro a la cavidad bucal anterior.

Ahora bien, los trabajos de Chiba y Kajiyama (1941), de Dunn (1950) y de Fant (1960) han hecho cambiar radicalmente las ideas que hasta ahora se venían barajando sobre la producción de las vocales.

En estos estudios el conducto vocal se considera como un tubo acústico de sección uniforme, que es recorrido por una onda plana. La excitación producida por la glotis se extiende a las cavidades supraglóticas, que, al actuar como filtros, estructuran la señal acústica. Desde la glotis hasta los labios se pueden considerar una serie de cavidades resonantes que, a través de la función de transferencia o, lo que es lo mismo, de la función de filtrado del conducto vocal, originan los llamados *formantes*. Un formante de la onda acústica del lenguaje es, por lo tanto, un máximo de la función de transferencia del conducto vocal. Lo que interesa es, pues, calcular esta función de transferencia.

Una mejor simulación de los parámetros articulatorios, utilizados tradicionalmente en lingüística, llevó a Fant (1960) a caracterizar por medio de tres parámetros la función del área del conducto vocal, que sin ellos sería definida por tantos valores como secciones. Los tres parámetros mencionados son:

1. La situación de la principal constricción de la lengua en el conducto vocal (lugar de articulación).
2. El área de la sección en esta coordenada (abertura).
3. El grado de redondeamiento y de protusión labial (labialización).

Cualquier modificación de uno de estos parámetros lleva consigo un desplazamiento de la frecuencia, con la consiguiente modificación del timbre vocálico. Según Fant (1960: 21) "todas las partes del conducto vocal contribuyen a la determinación de todos los formantes" aunque en diversos grados. Por eso, no es posible señalar a cada formante una determinada cavidad. (v. Fant 1968).

También G. Ungeheuer (1962: 84-85) rechaza los intentos de asignar a cada formante vocálico una determinada cavidad de resonancia aduciendo que toda la estructura formántica de una vocal tiene su origen en toda la cavidad bucal, que actúa como un gran mecanismo de resonancia. Propone en su obra una teoría vocálica que él mismo resume en los cuatro puntos siguientes:

1. La columna de aire en vibración del conducto fonador debe analizarse como una sola estructura unificada.

2. Cada frecuencia de resonancia de la columna de aire, esto es, del conducto fonador, está asociada con una función propia, que corresponde a la curva de presión del sonido en este punto y frecuencia.

3. Las frecuencias de resonancia se determinan por medio de la curva de sección transvesal, no por los volúmenes parciales del conducto fonador.

4. Cada frecuencia de resonancia de todo el conducto fonador produce un formante en el espectro de la vocal.

Las investigaciones sobre la naturaleza acústica de las vocales y su génesis han proseguido. Más recientemente pueden consultarse los trabajos de H. Mol (1970), de Lindblom y Sundberg (1971) y Petursson (1974), quienes siguen las líneas antes indicadas.

Estructura acústica de las vocales

Como ya hemos visto, y en palabras de P. Delattre (1948):

> las resonancias que caracterizan el timbre de una vocal oral resultan de la filtración que sufre el tono glotal (la vibración de las cuerdas vocales) al pasar por la boca (y por las cavidades guturales que sobreentendemos aquí). La boca se comporta como un filtro (o un resonador, que viene a ser lo mismo) que no deja pasar más que ciertas vibraciones salidas de la glotis. Las frecuencias que la boca deja pasar son diferentes para cada vocal; y si son diferentes se debe principalmente a que las cavidades de resonancia que las filtran cambian de forma y/o de dimensiones.

Es decir, al ponerse en vibración las cuerdas vocales producen una onda compuesta. Si mantuviésemos la misma frecuencia fundamental, cada uno de los sonidos vocálicos que emitiésemos tendría exactamente la misma configuración. Por lo tanto, si dependiese la percepción de cada vocal tan sólo de la frecuencia de sus componentes, todas las vocales serían —bajo condiciones iguales— prácticamente idénticas.

Ahora bien, lo que diferencia una vocal de otra u otras, aunque la frecuencia de sus componentes sea igual, es la distinta estructuración de sus armónicos, cuya percepción es lo que denominamos *timbre*. Esto quiere decir que de todos los armónicos competentes, serán reforzados, aquellos, cuyas frecuencias coincidan con las frecuencias de resonancia de las distintas cavidades resonantes del conducto vocal. Como la articulación de cada sonido requiere unas determinadas posiciones de los órganos articulatorios que modifican la forma y el volumen del resonador vocal, se originan distintas frecuencias de resonancia que infieren una determinada estructura en el espectro vocálico. Cada conjunto de armónicos reforzados es *un formante*, que en definitiva es el conjunto de frecuencias características del timbre de una vocal. Quisiéramos señalar sin embargo, que recientemente se ha discutido el valor de los formantes de una vocal: entre los estudios al respecto señalaremos que Oeken (1963) niega que puedan ejercer, los formantes, "alguna influencia determinante sobre la discriminación de los sonidos". Haggard (1963), contestó a Oeken argumentando que la percepción de las vocales debe examinarse bajo el punto de vista de las funciones y relaciones.

De todos los formantes, los dos primeros son indispensables para la percepción de cada vocal, siendo, por ello, los responsables de la diferenciación vocálica. El tercer formante desempeña cierta función en determinados casos, como veremos más adelante.

El resto de los formantes superiores son los llamados *formantes individuales,* que dependen:

a) De la configuración faringo-bucal de cada sujeto. Las mujeres y los hombres difieren más en la longitud total de la faringe que en la de la boca. En general, se ha calculado que las frecuencias formánticas de la voz femenina son un 15/20% más altas que las de los hombres, y que los niños tienen también unas frecuencias formánticas un 20% más altas que las de las mujeres.

A: Apostoluen Egintzak (Actes des Apôtres);
Erro: Erromarrei (Romains);
Kor I, II: Korinthoarrei I, II (1, 2 Corinthiens);
Ga: Galiziarrei (Galates);
Ep: Ephesoarrei (Ephésiens);
Fi: Filipestarrei (Philippiens);
Kol: Kolostarrei (Colossiens);
The I, II: Thesalonikarrei I, II (1, 2 Thessaloniciens);
Tim I, II: Timotheori I, II (1, 2 Timothée);
Tit: Titori (Tite);
Phi: Philemoneri (Philémon);
H: Hebrearrei (Hébreux);
Jk: Jakobe (Jacques);
Pi I, II: Piarres I, II (1, 2 Pierre);
Jo I, II, III: Joanes I, II, III (1, 2, 3 Jean);
Ju: Juda (Jude);
Ap: Apokalipza (Apocalypse);
Es III, IV: Esdras III, IV (3, 4 Esdras).

Nous avons par ordre alphabétique:

adiarazpen ('signe'): *argumentum;* Zu 19, 12.

agerpen ('apparition, révélation'): *visio, revelatio, apocalypsim;* No 24, 4; No 24, 16; Dt 4, 34; Erre II 7, 17; Pa I 17, 15; Pa II 9, 29; Dei 2, 9; Erro 2, 5; Kor I 1, 7; Kor I 14, 26; Kor II 12, 1; Ga 2, 2; Ep 3, 3: Es IV 14, 17.

agertzapen ('révélation'): *revelatio;* Erro 8, 19; Erro 16, 25.

ahalkapen ('honte, confusion'): *confusio;* Jr 11, 13.

ahamen ('bouchée'): *bucella;* Erru 2, 14; Erre I 2, 36; Erre I 28, 22; Erre III 17, 11; Jb 31, 17; Ps 147, 17; E 17, 1; E 28, 21; Jn 13, 27.

ahanzpen ('oubli'): *oblivio;* Jd 16, 23; Ps 30, 13; Ps 87, 13; Ek 2, 16; Ek 6, 4; Ek 9, 5; Zu 16, 11; Zu 17, 3; Dei 2, 6; Jr 50, 5; Ez 21, 32; Os 1, 6; Mak II 12, 42.

ahipen ('fin'): *consummatio*; So 1, 18; Mt 24, 14.

aiphamen ('renom'): nomen, fama; Eks 20, 24; Erre III 8, 65; Jd 11, 21; Jb 18, 17; Ps 144, 7; E 22, 1; Ekl 39, 13; Ekl 39, 15; Mak II 14, 37; Kor II 6, 8; The I 2, 13.

akhipen ('épuisement'): *consummatio*; Da 9, 27.

aldapen ('changement'): *translatio;* H 7, 12.

aldatzapen ('relève'): *immutatio;* Jb 14, 14.

altxapen ('élévation'): *elevatio;* Ps 140, 2; A 11, 5.

argipen ('interprétation'): *interpretatio;* Jen 40, 5; Jen 40, 12; Jen 40, 18; Juy 7, 15; Ekl 47, 18; Da 2, 4; Da 2, 9; Da 2, 36; Es IV 12, 35.

argitzapen ('interprétation'): *interpretatio;* Juy 14, 12; Da 2, 30.

bakepen ('réconciliation'): *reconciliatio;* Kor II 5, 18; Kor II 5, 19.

batpen ('rassemblement'): congregatio; The II 2, 1.

berezpen ('séparation, partie'): *separatio, distributio, divisio;* Lb 15, 21; No 36, 4; Pa I 26, 19; Pa I 28, 13; Es IV 6, 7.

bereztamen ('division'): *schisma;* Kor I 1, 10.

berhatzapen ('accroissement'): *augmentum;* E 4, 9; Kol 2, 19.

berrerospen ('rédemption'): *redemptio, remissio;* Lb 25, 24; No 18, 16; Ps 48, 9; Ps 110, 9; Ps 129, 7; Is 63, 4; Mk 10, 45; Lk 2, 38; Lk 4, 19; Lk 21, 28; Erro 3, 24; Erro 8, 23; Kor I 1, 30; Ep 1, 7; Ep 1, 14; Ep 4, 30; Kol 1, 14; H 9.12.

berritzapen ('rénovation'): *innovatio, renovatio;* Pa II 24, 5; Mak I 12, 17.

bethapen ('accomplissement'): *confirmatio;* Erro 15, 8.

bihurpen ('restitution, retour'): *remissio, reversio, redditio, conversatio, conversio, assumptio;* Lb 25, 10; Ps 111, 1; Ekl 1, 29; Ekl 18, 21; Ez 46, 17; A 15, 3; Erro 11, 15.

bihurripen ('sédition'): *seditio;* No 16, 49.

bihurtzapen ('restitution'): *remissio;* Dt 15, 1; Dt 15, 2; Dt 15, 9; Dt 15, 12; Dt 31, 10; Erre I 12, 3.

bururazpen ('suggestion'): *suggestio;* Est 16, 7.

deitpen ('vocation'): *vocatio;* Erro 11, 29; The II 1, 11; Pi II 1, 10.

desherripen ('déportation'): *transportatio, transmigratio, emissio;* Jr 1, 3; Ba 2, 25; Mak II 2, 1; Mt. 1, 11; Mt 1, 12; Ez 1, 2; Ez 12, 4; Ez 33, 21; Ez 40, 1; Mt 1, 17.

edertzapen ('beauté'): *pulchritudo;* Ez 27, 11.

eginpen ('acte'): Voir *haur-eginpen.*

ehorzpen ('enterrement'): *sepultura;* Mak II 4, 49; Mt 26, 12.

eragozpen ('ruine, chute'): *subversio, ruina, eversio, interitus;* Ekl 9, 16; Jr 49, 21; Ez 22, 5; Ez 26, 15; Ez 26, 16; Ez 27, 27; Ez 31, 16; Ez 32, 10; Na 3, 3; Mak I 2, 49; Es IV 15, 49.

erakhuspen ('démonstration'): *ostentio, argumentum;* Is 6, 13; Kor I 2, 4; H 11, 1.

erantzupen ('proclamation'): *praedicatio, exhortatio, annuntiatio;* Kor I 1, 21; The I 2, 3; Tim II 4, 17; Tit 1, 3; Jo I 3, 11.

erditzapen ('accouchement'): *partus;* Erre IV 19, 3.

erospen ('achat'): *emptio, redemptio;* Lb 25, 16; Pa II 1, 17; Jr 32, 12; Jr 32, 14; Mt 20, 28.

erreberripen ('rénovation'): *instauratio;* Erre IV 12, 6; Erre IV 12, 7; Erre IV 12, 12; Erre IV 22, 5; Pa II 24, 27.

erreberritzapen ('régénération'): *regeneratio;* Mt 19, 28.

errekeipen ('supplication'): *obsecratio;* Ba 4, 20.

errepen ('brûlure'): *combustio;* Jr 34, 4.

erretzapen ('brûlure'): *combustio;* Lb 13, 28; Pa II 21, 19.

eskumen ('poignée'): *manipulus:* Dt 24, 19; Erru 2, 16; Ps 128, 7.

ethorpen ('venue'): *adventus, praesentia;* Mt 24, 3; Kor I 15, 23; The II 2, 1; The II 2, 8; Tim II 4, 1; Tim II 4, 8; Tit 2, 13; Pi II 3, 4; Pi II 3, 12.

ezeztapen ('ruine'): *convulsio;* Mak II 8, 17.

frogapen ('épreuve'): *experimentum, tentatio, probatio;* Jen 42, 15; Dt 4, 34; Dt 6.16; Dt 29, 3; Dt 33, 8; Tb 2, 12; Tb 3, 21; Tb 12, 13; Ps 94, 9; Zu 18, 20; Ekl 4, 18; Ekl 4, 19; Ekl 6, 22; Ekl 33, 1; Ekl 34, 11; Mak I 2, 52; A 20, 19; Erro 5, 4; Kor II 8, 2; H 11, 17; Jk 1, 3; Pi I 1, 6; Es IV 12, 47.

gaitzespen ('exécration'): *execratio;* Ekl 19, 20.

galpen ('perte'): *perditio, interitus, corruptio, ruina, amissio;* Dt 32, 35; Pa II 22, 4; Tb 4, 14; Tb 14, 6; Jb 28, 22; Jb 31, 3; Ps 54, 24; Ps 87, 12; E 6, 15; E 14, 27; E 15, 11; E 16, 18; E 20, 25; E 24, 22; E 27, 20; E 29, 27; Zu 1, 12; Zu 1, 13; Zu 5, 7; Zu 14, 12; Ekl 9, 13; Ekl 20, 27; Ekl 23, 21; Ekl 41, 13; Ekl 50, 4; Ekl 51, 3; Ekl 51, 16; Jr 49, 8; Os 9, 8; Ab 12; Mi 6, 13; Mak II 1, 17; Mak II 6, 12; Mt 7, 13; Lk 2, 34; Erro 11, 5; Fi 1, 28; The II 2, 3; Tim I 6, 9; H 10, 39; Es IV 8, 38; Es IV 10, 10.

galtzapen ('perte'): *amissio, ruina, perditio;* Juy 16, 28; Est 14, 11; A 8, 20; Tim I 6, 9.

gantzupen ('onction'): *unctio;* Lb 7, 35.

garbipen ('purification'): *emundatio;* H 9, 13.

garbitzapen ('justification'): *justificatio;* Pa II 19, 10; Lk 2, 22.

gogorapen ('pensée'): *cogitatio;* Ps 145, 4; Pi I 4, 1.

gorapen ('exultation'): *exultatio;* E 28, 12.

gorespen ('éloge'): *exaltatio, exultatio, magnificentia;* Eks 17, 15; Jd 16, 9; Pa I 16, 27; Pa I 29, 13; Ps 110, 3; Ps 149, 6.

gozamen ('possession, héritage'): *possessio, haereditas;* Lb 25, 24; Lb 25, 27; Lb 25, 34; Js 13, 24; Js 13, 29; Js 13, 33; Js 17, 15; Js 18, 7; Js 18, 28; Js 21, 39; Js 22, 33; Juy 2, 6; Juy 2, 9; Juy 11, 24; Pa I 7, 28; Pa I 9, 2; Pa II 11, 14; Pa II 20, 11; Pa II 31, 1; Jd 3, 3, ; Ps 43, 4; Is 61, 7; Es III 8, 84.

handiespen ('gloire'): *magnificentia, gloriatio, gloria;* Pa I 17, 19; Ekl 1, 11; Ekl 39, 20; Is 4, 2; Ju 25; Es III 9, 8.

hasbeherapen ('soupir'): *gemitus;* Juy 1, 14; Ekl 25, 25; Ekl 30, 21; Mk 8, 12; H 13, 17.

hasgorapen ('soupir'): *gemitus;* Mak II 6, 30; Mk 7, 34.

haspen ('commencement'): Voir *uda-haspen.*

hastapen ('commencement'): *principium, initium;* Jen 1, 1; Jen 49, 3; Js 15, 2; Jb 20, 4; Ps 101, 26; Ps 110, 10; E 16, 5; Ek 10, 13; Ek 10, 15; Zu 6, 18; Zu 12, 16; Zu 12, 19; Zu 14, 6; Zu 14, 12; Zu 14, 27; Ekl 1, 16; Ekl 10, 14; Ekl 10, 15; Ekl 15, 14; Ekl 16, 26; Ekl 24, 14; Ekl 25, 16; Ekl 25, 33; Ekl 45, 15; Ekl 51, 28; Is 45, 21; Is 46, 10; Jr 28, 8; Ba 3, 26; Mak II 4, 13; Mt 13, 35; Mt 24, 21; Mt 25, 34; Mk 13, 8; Mk 13, 19; Jn 1, 1; Jn 8, 44; Fi 4, 15; H 3, 14; Pi II 3, 4; Jo I 1, 1; Jo I 2, 13; Ap 13, 8; Es IV 4, 43; Es IV 6, 1; Es IV 7, 43; Es IV 9, 6.

haur-eginpen ('accouchement'): *partus;* E 30, 17.

hauspen ('fracture'): *fractio;* Ez 14, 11; A 2, 42. (Voir aussi *lege-hauspen, patu hauspen*)

hautespen ('élection'): *electio;* Erro 11, 28; Pi II 1, 10.

helmen ('portée'): *de manu gladii: ezpataren helmenetik;* Jb 5, 20.

hertsapen ('oppression'): *oppressio;* Ekl. 40, 9.

iduripen ('imagination'): *sententia, imago, adinventio, visum, vanum, parabola, similitudo, proverbium, figura, sensus;* Jb 21, 27; Ps 38, 7; Ekl 40, 2; Ekl 40, 7; Is 56, 10; Mk 13, 28; Lk 5, 36; Lk 6, 39; Lk 8, 4; Lk 21, 29; Jn 16, 25; Kor I 10, 6; Fi 4, 7; Tim I 5, 21; Es IV 4, 47.

igurikimen ('espoir'): *spes, expectatio;* Ps 61, 9; Ps 118, 147; E 11, 7; Zu 17, 12; Ekl 34, 15; Ekl 34, 16; Is 14, 8; Jr 17, 13; Jr 50, 7; Dei 3, 18; Dei 3, 25; Dei 3, 29; Mt 12, 21; Lk 21, 26; A 24, 15; A 26, 7; A 28, 20; Erro 5, 2; Kor I 13, 13; Kor I 15, 19; Kor II 1, 7; Kor II 1, 13; Kor II 3, 12; Ep 1, 18; Ep 2, 12; Ep 4, 4; Tim I 5, 5; H 3, 6; H 7, 19; Jo I 3, 3.

igurikipen ('espérance'): *praestolatio;* Jb 17, 15.

ihardespen ('réponse'): *responsum;* Mak II 4, 23.

ihardukimen ('communication'): *communicatio;* Zu 8, 18; Ekl 13, 22.

ihardukipen ('affaire'): *quaestio;* Pa II 19, 10.

ikharpen ('recherche'): visitatio; Jr 27, 22; Jr 46, 21; Jr 48, 44; Jr 50, 27; Jr 50, 31; Jr 51, 18; Os 9.7; Os 12, 2.

ikhuspen ('vision'): *visio, visitatio, visum;* Jen 15, 1; Jen 22, 2; Jen 46, 2; Pa II 32, 32; Jb 4, 13; Jb 7, 14; Ps 88, 20; E 30, 1; E 31, 1; Ekl 34, 3; Ekl 34, 6; Is 1,

1; Is 14, 14; Is 21, 2; Is 22, 1; Is 29, 10; Is 29, 11; Jr 14, 14; Dei 2, 14; Ez 1, 1; Ez 1, 13; Ez 1, 16; Ez 7, 13; Ez 7, 26; Ez 8, 3; Ez 8, 4; Ez 11, 24; Ez 12, 22; Ez 12, 23; Ez 12, 24; Ez 12, 27; Ez 13, 7; Ez 13, 16; Ez 13, 23; Ez 40, 2; Ez 43, 3; Da 1, 17; Da 2, 19; Da 2, 28; Da 4, 2; Da 4, 6; Da 4, 10; Da 7, 1; Da 7, 2; Da 7, 7; Da 7, 13; Da 7, 15; Da 8, 1; Da 8, 2; Da 8, 13; Da 8, 15; Da 8, 16; Da 8, 17; Da 8, 26; Da 8, 27; Da 9, 21; Da 9, 23; Da 9, 24; Da 10, 1; Da 10, 7; Da 10, 8; Da 10, 14; Os 10, 4; Os 12, 10; Jl 2, 28; Ab 1; Mi 3, 6; Mi 3, 7; Na 1, 1; Za 1, 8; Za 13, 4; Mak II 15, 12; Lk 1, 22; A 2, 17; A 10, 17; A 10, 19; A 11, 5; A 16, 9; A 16, 10; A 26, 19; Kor II 12, 1; Es IV 10, 40; Es IV 12, 8; Es IV 12, 10; Es IV 12, 11; Es IV 15, 28.

ilkhipen ('exode'): *egressio, egressus, profectio;* Dt 16, 3; Ekl 38, 24; Mi 5, 2; H 11, 22.

irakhasmen ('doctrine'): *doctrina, traditio, disciplina;* E 1, 3; E 1, 7; E 5, 2; E 8, 10; E 10, 17; E 13, 15; E 13, 18; E 15, 10; E 15, 32; E 19, 20; E 19, 27; E 21, 26; E 23, 12; E 23, 23; E 24, 14; Zu 3, 11; Ekl Prologue; Ekl 6, 18; Ekl 6, 34; Ekl 8, 10; Ekl 11, 15; Ekl 21, 22; Ekl 21, 24; Ekl 23, 2; Ekl 50, 29; Ekl 51, 34; Ekl 51, 36; Is 29, 13; Jr 3, 15; Jr 7, 28; Jr 17, 23; Mt 7, 28; Mt 16, 12; Mt 22, 33; Mk 1, 22; Mk 1, 27; Mk 6, 2; Mk 11, 18; Lk 4, 32; Jn 7, 16; Jn 7, 17; Jn 18, 19; A 2, 42; A 5, 28; A 13, 12; Erro 6, 17; Erro 16, 17; Kor I 2, 13; Ep 4, 14; Ga 5, 10; The II 2, 14; The II 3, 6; Tim I 4, 1; Tim I 4, 6; Tim I 5, 17; Tim I 6, 1; Tim I 6, 3; Tim II 3, 10; Tim II 4, 3; Tit 1, 9; Tit 2, 1; Tit 2, 7; H 6, 2; Jo II 9, 10.

irakhaspen ('doctrine, prédication'): *doctrina, dogma, disciplina, praedicatio, sermo, traditio:* Eks 28, 30; Lb 8, 8; Dt 33, 3; Jb 13, 4; Jb 20, 3; Ps 17, 36; Ps 49, 17; Ps 59, 1; E 1, 8; E 1, 29; E 4, 1; E 6, 23; E 8, 10; E 8, 33; E 13, 1; E 22, 17; E 23, 9; Zu 1, 5; Ekl Prologue; Ekl 1, 31; Ekl 4, 19; Ekl 16, 25; Ekl 18, 14; Ekl 22, 6; Ekl 23, 7; Ekl 24, 37; Ekl 24, 44; Ekl 24, 46; Ekl 38, 38; Ekl 39, 11; Ekl 41, 17; Ekl 51, 31; Is 6, 13; Is 26, 16; Mi 3, 11; So 3, 2; So 3, 7; Mt 15, 9; Mk 4, 2; Mk 7, 3; Mk 7, 5; Mk 7, 7; Mk 7, 8; A 17, 19; Kor I 2, 4; Kor I 7, 17; Ga 1, 14; Ep 6, 4; Tim I 1, 10; H 2, 3; H 6, 1; H 13, 9; Ap 2, 14; Ap 2, 15; Ap 2, 20; Ap 2, 24.

irakurpen ('lecture'): *lectio;* Ekl Prologue.

iratxikipen ('accusation'): *accusatio;* Es I 4, 6; Es I 4, 18; Tim I 5, 19.

iraupen ('durée'): *perseverantia, stabilitas, tempora;* Jen 5, 5, ; Dt 28, 59; Ps 88, 46; Ekl 10, 1; Ekl 28, 26; Ekl 40, 19; Da 7, 12; Mak I 13, 37; Jk 3, 6; Es III 8, 82.

irudipen ('visión'): *visio;* Da 4, 7.

itxurapen ('visión, parable'): *figura, visio, forma, parabola, proverbium, exemplar;* No 12, 8: No 23, 21; Jb 20, 8; Is 29, 7; Ez 24, 3; Mk 4, 30; Jn 16, 29; Kor I 10, 11; H 8, 5; Pi I 3, 21; Es IV 10, 59.

itzulpen ('retour'): *reditus;* Os 11, 7.

itzurpen ('salvation'): *salus;* Erre II 22, 3; Erre II 23, 10; Erre II 23, 12; Es I 9, 13; Ps 13, 7; Ps 17, 36; Ps 19, 6; Ps 19, 7; Ps 20, 2; Ps 20, 6; Ps 21, 2; Ps 27, 8; Ps 52, 7; Ps 61, 2; Ps 61, 8; Ps 88, 27; Ps 95, 2; E 21, 31.

ixurpen ('aspersion'): *effusio;* H 11, 28.

jabalmen ('complaisance'): *placor;* Ekl 39, 23.

jabalpen ('propitiation'): *propitiatio, placatio;* Lb 25, 9; Ekl 7, 36; Ekl 35, 3; Mak I 1, 47; Jo I 2, 2.

jasanpen ('patience'): *patientia;* Ap 3, 10.

jauspen ('obéissance'): *obedientia, observatio, subjectio;* Erre I 15, 22; Pa I 23, 32; Tim I 2, 11; Pi I 3, 6; Pi I 5, 5.

jazarpen ('persécution'): *persecutio;* Mt 5, 10; Mk 4, 17; The II 1, 4.

khutsapen ('souillure'): *contaminatio, fornicatio, coinquinatio;* Ez 14, 6; Ez 43, 7; Ez 43, 9; Os 2, 2; Mak I 13, 50; Mak II 5, 27; Pi II 2, 13; Es III 8, 84.

laudamen ('louange'): *laudatio;* Ps 144, 1. (mot d'emprunt au gascon).

lege-hauspen ('transgression'): *praevaricatio;* Lb 16, 16; Js 6, 18; Ez 18, 24; Ez 18, 31; Da 9, 24; Am 3, 14.

leherpen ('ruine'): *contritio, ruina;* Jr 17, 18; Mt 7, 27.

luzamen ('delai'): *dilatio, mora;* Erre II 17, 16; Es I 7, 21.

medeapen ('réparation'): *piaculum:* Erre II 21, 3.

narriapen ('souillure'): *praevaricatio;* Dei 1, 7.

oharmen ('conseil, discernement'): *consilium, monitum:* Dt 32, 28; Erre II 15, 31; Erre II 17, 14; Tb 1, 15; Es III 2, 22.

oharpen ('provision'): *providentia;* Zu 9, 14.

oharraspen ('avertissement'): *memoria;* Ekl 45, 11.

orhoi(t)pen ('mémorial, stèle'): *titulus, memoriale;* Jen 28, 18; Jen 28, 22; Jen 31, 45; Jen 35, 14; Jen 35, 20; Eks 12, 14; Eks 13, 9; Eks 24, 4; Eks 28, 29; Lb 2, 9; No 33, 52.

orhoitzapen ('souvenir'): *recordatio, memoriale, memoria, titulus;* Eks 13, 16; Eks 28, 12; Lb 2, 2; Lb 2, 16; Lb 5, 12; Lb 23, 24; Lb 26, 1; No 5, 18; No 10, 9; No 10, 10; Es II 2, 20; Est 9, 27; Jb 8, 8; Jb 13, 12; Jb 18, 17; Jb 24, 20; Ps 9, 7; Ps 29, 5; Ps 33, 17; Ps 58, 15; Ps 96, 12; Ps 108, 14; Ps 108, 15; Ps 110, 4; Ps 111, 7; Ps 134, 13; Ps 144, 7; E 10, 7; Ek 1, 11; Ek 2, 16; Ek 9, 5; Zu 2, 4; Zu 4, 1; Zu 4, 19; Zu 5, 15; Zu 8, 13; Zu 10, 7; Zu 10, 8; Zu 11, 13; Ekl 10, 20; Ekl 10, 21; Ekl 23, 36; Ekl 24, 28; Ekl 35, 9; Ekl 38, 24; Ekl 39, 13; Ekl 41, 1; Ekl 44, 9; Ekl 45, 1; Ekl 45, 13; Ekl 46, 14; Ekl 49, 1; Ekl 49, 2; Ekl 49, 15; Ekl 50, 18; Is 26, 8; Is 26, 14; Is 65, 17; Jr 23, 40; Ba 5, 5; Ez 3, 20; Os 12, 5; Za 6, 14; Za 13, 2; Mak I 3, 7; Mak I 3, 35; Mak I 12, 54; Mak I 13, 29; Mak I 14, 23; Mak II 6, 31; Mak II 7, 20; Mt 26, 13; Mk 14, 9; Lk 22.19; Erro 1, 9; Erro 15, 15; Ep 1, 16; The I 1, 2; The I 3, 6; Phi 4; Pi II 1, 15; Ap 16, 19; Es IV 16, 21.

pairamen ('souffrance'): *passio;* A 1, 3.

patu hauspen ('parjure'): *praevaricatio;* Ez 17, 20.

prezamen ('estimation'): *aestimatio;* Eks 22, 5; Lb 5, 18; Lb 6, 6.

sainduespen ('sanctification'): *sanctificatio;* Erre I 14, 41; Ps 47, 54; Ekl 7, 35; Ekl 36, 15; Is 64, 11; Jr 17, 12; Ez 20, 40; Da 8, 11; Ma 2, 11; Mak II 15, 2; Erro 1, 4; Erro 6, 19; Erro 6, 22; Kor I 1, 30; Kor II 7, 1; Es IV 7, 38.

saindupen ('sanctification'): *sanctificatio;* The II 2, 12.

salbuespen ('immunité'): *immunitas;* Mak I 10, 34.

salpen ('vente'): *venditio;* Lb 25, 28; Lb 25, 50; Ekl 37, 12.

sariztapen ('rétribution'): *retributio;* Lk 4, 19.

sarpen ('entrée'): *introitus;* Dt 4, 38.

sendapen ('guérison'): *integra sanitas;* A 3, 16.

uda-haspen ('printemps'): *vernum tempus;* Jen 35, 16.

urrikalpen ('miséricorde'): *misericordia, miseratio;* Jen 47, 29; Eks 15, 13; Eks 34, 6; No 14, 18; No 14, 19; Dt 7, 9; Dt 7, 12; Js 2, 14; Erre I 20, 8; Erre I 20, 14; Erre I 20, 15; Erre II 3, 8; Erre II 7, 15; Erre II 9, 3; Erre II 10, 2; Erre II 15, 20; Erre II 22, 51; Erre II 24, 14; Erre III 3, 6; Erre III 8, 23; Pa I 16, 34; Pa I 16, 41; Pa I 17, 13; Pa I 21, 13; Pa II 5, 13; Pa II 6, 14; Pa II 7, 3; Pa II 20, 21: Pa II 24, 22; Pa II 30, 9; Es I 3, 11; Es I 7, 28; Es I 9, 9; Es II 1, 11; Es II 9, 17; Es II 9, 19; Es II 9, 27; Es II 13, 32; Tb 3, 2; Tb 3, 21; Tb 12, 9; Tb 13, 8; Jd 7, 4; Jd 7, 23; Jd 10, 12; Jd 13, 18; Jb 10, 12; Jb 24, 20; Ps 5, 8; Ps 16, 7; Ps 17, 51; Ps 20, 8; Ps 22, 6; Ps 23, 5; Ps 30, 8; Ps 39, 12; Ps 50, 3; Ps 68, 17; Ps 91, 11; Ps 102, 4; Ps 106, 43; Ps 118, 156; Ps 118, 159; Ps 144, 9; E 16, 6; E 21, 3; Zu 9, 1; Ekl 16, 15; Ekl 17, 27; Ekl 35, 25; Ekl 36, 1; Is 30,

19; Is 44, 23; Is 57, 1; Is 63, 7; Jr 16, 5; Dei 3, 22; Dei 3, 32; Ba 2, 27; Ba 4, 22; Da 2, 18; Da 4, 24; Os 2, 1; Os 10, 12; Jon 4, 2; Mak I 3, 44: Mak I 4, 24; Mak II 2, 18; Mak II 9, 13; Mt 9, 13; Mt 12, 7; Erro 9, 23; Erro 11, 30; Erro 11, 31.

urrikaltzapen ('miséricorde'): *misericordia, miseratio;* Juy 1, 24; Erru 3, 10; Erre I 12, 7; Es II 9, 28; Es II 9, 31; Ps 12, 6; Ps 188, 77.

xahupen ('purification, destruction, liquidation'): *subversio, purificatio, emundatio, piaculum, purgatio, ruina, consummatio, interitus, dissipatio, contritio, vastitas, perditio;* Jen 19,29; Lb 4,8; Lb 12, 4; Lb 12, 5; Lb 12, 6; Lb 14, 23; Lb 14, 32; Lb 14, 49; Lb 15, 13; Lb 15, 28; Lb 17, 11; Lb 23, 27; No 6, 9; Erre II 1, 10; Pa II 29, 24; Ps 58, 14; E 12, 13; Zu 16, 4; Ekl 7, 34; Ekl 31, 3; Ekl 31, 28; Ekl 34, 30; Is 1, 7; Is 6, 3; Is 10, 23; Is 22, 4; Is 24, 3; Is 28, 22; Is 51, 19; Is 59, 7; Jr 4, 6; Jr 20, 8; Jr 48, 5; Jr 48, 16; Dei 3, 47; Dei 3, 48; Ba 4, 31; Ez 7, 7; Ez 7, 10; Ez 21, 15; Ez 32, 9; Da 9, 26; Ab 13; Jl 1, 11; Na 1, 8; Mak I 4, 41; Mak II 1, 18; Mak II 1, 33; Mak II 1, 36; Mak II 2, 16; Mak II 2, 19; Mak II 2, 20; Mak II 10, 3; Mak II 10, 5; Mk 1, 44; Jn 3, 25; The I 5, 3; The II 1, 9; H 1, 3; Pi II 2, 1; Pi II 2, 6; Pi II 3, 7; Es IV 1, 6; Es IV 4, 23; Es IV 10, 48; Es IV 15, 5; Es IV 16, 2.

xehatzapen ('description'): *descriptio, distributio;* Js 13, 24; Pa I 4, 33; Pa I 28, 11; Ez 43, 11.

xuripen ('justification'): *iudicium* Mi 6, 2; *justificatio;* Jb 27, 6.

zainpen ('charge'): *custodia;* No 18, 8; Mak II 3, 40.

zuzenpen ('justice'): *justificatio, justitia;* Erro 8, 4; Erro 8, 10; Kor II 3, 9; Ga 5, 4; Ga 5, 5.

Note: Lorsqu'un mot basque traduit plusieurs termes latins, ceux-ci sont cités dans l'ordre correspondant à celui des lieux bibliques où ce terme se traduit pour la première fois par le mot basque en question.

Références

Azkue, R. M., 1891, *Euskal-izkindea,* Bilbao.

———, 1905, *Dictionnaire basque-espagnol-français,* I-II, Bilbao. *(DBEF).*

———, 1969, *Morfología vasca,* 2e éd., Bilbao.

Campión, A., 1884, *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua euskara,* 2e éd., Bilbao 1977.

Echaide, I. M., 1932, *Tratado de sufijación, prefijación y composición en el idioma euskaro,* 2e éd., Tolosa.

Haize Garbia (équipe de), 1978, *Grammaire basque pour tous, I. Éléments non verbaux,* Hendaye.

Lafitte, P., 1962, *Grammaire basque (navarro-labourdin littéraire),* 2e éd., Bayonne.

Michelena, L., 1977, *Fonética histórica vasca,* 2e éd., St. Sébastien *(FHV).*

———, 1987, *Diccionario general vasco* I, Bilbao. *(DGV).*

Schuchardt, H., 1906, "Die romanischen Nominalsuffixe im Baskischen" *ZRPh* XXX, p.1-10.

Uhlenbeck, C. C., 1905, *De Woordafleidende Suffixen van het Baskisch (Verhandelingen der Koninklijke Akademie van Wetenschappen te Amsterdam, Afdeeling Letterkunde* N.R. VI, n.° 3), Amsterdam.

Villasante, L., 1974, *Palabras vascas compuestas y derivadas,* Oñate.

Documentation

Aguirre, F. A., 1987, *Cristavaren doctrina* (Le catéchisme d'Oiquina de 1759) Publié par J. A. Lakarra dans *ASJU* XXI-2, p. 519-564.

Albizuri, S., 1961, "Ederraren atsegina". *Jakin* 15, p. 2-6.

Altuna, F. M., 1967, «Larramendi'ren iztegi berria». *Euskera* XII, p. 139-300.

———, 1979, *Etxepareren hiztegia (Lexicón decheparianо),* Bilbao.

Añibarro, P. A., 1802, *Escu-liburua*, Tolosa. (Ed. fac-similé, St. Sébastien 1978).
———, 1827, *Esculiburua*, Tolosa. (3e édition revue du précédent).
———, 1803, *Lora-sorta espirituala*, Tolosa. Publié par B. Urgell dans *ASJU* XXII-1 (1988) (p. 7-92)
———, 1963, *Voces bascongadas diferenciales...* Ed. Villasante, Bilbao.
———, *Gerocó guero...* (manuscrit).
Aresti, G., 1973, «Léxico empleado por Leizarraga de Bricous». *FLV* V, 13, p. 61-128.
Argaiñaratz, P. d'., 1978, *Devoten breviarioa.* Ed. fac-similé, St. Sébastien.
Arregi, R., 1961, «Balmes eta Kant jakinduriaren asieran». *Jakin* 15 p. 40-47.
Arzamendi, J. et Zubiaur, J. R., 1976, «El léxico vasco de los refranes de Garibay». *ASJU* X p. 47-144.
———, et Azkarate, M., 1983, «Léxico de los refranes de B. de Zalgiz». *ASJU* XVII p. 265-327.
Axular, P. *Gero.* Ed. Villasante, Barcelone 1964.
Azkarate, M., Voir Arzamendi, J. et Azkarate, M.
Barrutia, P. I., 1983, *Acto para la Nochebuena.* Ed. J. A. Lakarra, Diputación Foral de Alava.
Belapeyre, A. *Catechima laburra.* Ed. fac-similé, Bilbao 1983.
Bera, E., 1909, *Euzkel-iztegitxua*, Pamplune.
——— et Lopez Mendizabal, I., 1916, *Diccionario erdera-euskera, euskera-erdera.* Tolosa.
Beriayn, J., 1980, *Tratado de como se ha de oyr missa.* Ed. fac-similé, St. Sébastien 1980.
Betolaça, J. (Perez de), 1955, *Doctrina christiana*, Ed. L. Michelena, *ASJU* 1955, p. 52-60. [Maintenant dans *SHLV* p. 824-837].
Bidegain, M. M., 1967, "Textos vascos antiguos". *ASJU* I, p. 179-195.
Capanaga, M. (Ochoa de), 1893, *Exposición breve de la doctrina christiana.* 2e éd. Vizeu.
Cardaveraz, A., 1850, *Cristavaren bicitza*, 3e éd. Tolosa.
———, *Euskeraren berri onak.* Ed. Auspoa, St. Sébastien 1964.
Dassança, M., 1908, *Laborarien abisua*, Ed. *RIEV* II (1908), p. 585-600.
Duvoisin, J., 1978, *Laborantzako liburua.* Ed.fac-similé, St. Sébastien.
———, 1987, *Liburu ederra.* Ed. fac-similé, St. Sébastien 1978.
———, 1972, *Bible saindua.* Ed. fac-similé, Bilbao.
Etcheberri De Ciboure, J. *Manual devotionezcoa.* Ed. fac-similé, St. Sébastien 1978.
———, 1970, *Noela eta berce canta spiritual berriac.* Ed. L. Akesolo, St Sébastien.
Etcheberri De Sare, J., 1907, *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri.* Ed. J. de Urquijo, Paris 1907. Fac-similé Bilbao 1976.
———, 1972, *Lan hautatuak.* Ed. X. Kintana, St. Sébastien 1972.
Etcheandy, M. et Puchulu, R., 1983, *Jondoni Pauloren gutunak.* St. Sébastién.
Gamiz, J. B., 1974, *Olerkiak*, Ed. J. Goikoetxea-Maiza, *Euskera* XIX, p. 228-230.
Garibay, E., 1976, *Refranes de Garibay.* Ed. J. R. Zubiaur et J. Arzamendi, *ASJU* X, p. 53-75.
Gasteluçar, B., 1983, *Eguia catolicac.* Ed. L. Akesolo, Bilbao.
Guerrico, J. Y., 1858, *Cristau doctrina guztiaren esplicacioaren sayaquera.* I, Tolosa.
Harizmendi, C. de, 1901, *L'office de la Vierge Marie.* Ed. J. Vinson, Paris.
Harosteguy, G., 1985, *Bayonaco diocesaco bi-garren catichima.* Ed. L. Villasante, Bilbao 1985.
Harriet, M. de, 1741, *Gramatica escuaraz eta francesez.* Bayonne.
Hualde, P., 1869, *Catéchisme roncalais.* Ed. L. L. Bonaparte, Londres.
Irazusta, J. de, 1739, *Doctrina christiana.* Pamplune.
Iztueta, J. I. de, 1847, *Guipuzcoaco provinciaren condaira edo historia.* St. Sébastien.
Kerexeta, J., 1976, *Euskal-Biblia.* Bilbao.
Kintana, X., 1972, *Joannes Etxeberri Sarakoaren lan hautatuak.* St. Sébastien.
———, (et alii), 1980, *Hiztegia 80.* Bilbao.
Knörr, E. «Una traducción de Uriarte al vascuence alavés, *La Bula ineffabilis* de 1864». *Iker-2*, p. 279-315.

Lakarra, J. A., 1986, "Burgosko 1747ko Dotrina, I. Testua eta oharrak", *ASJU* XX-2, p. 533-594.
———, 1987a, «Burgosko 1747ko Dotrina, II. Facsimilea eta hiztegia». *ASJU* XXI-1 (1987), p. 277-317.
———, 1987b, «Oikiako dotrina» (1759). *ASJU* XXI-2 (1987), p. 515-564.
Larramendi, M. de, 1745, *Diccionario trilingüe.* 2e éd. St. Sébastien 1853.
———, *Diccionario Vasco-Castellano.* Ed. F. M. Altuna, *Euskera* XII (1967), p. 139-300.
Legaz, D., 1880, *Cristauaren icasbidea.* Pamplune.
Leizarraga, I., 1900, *Baskische Bücher von 1571.* Ed. Th. Linschmann et H. Schuchardt, Strasbourg.
Lhande, P., 1926, *Dictionnaire basque-français.* Paris.
Lizardi, 1972, *Itz-lauz.* 2e éd. St. Sébastien 1972.
Mahn, C. A. F., 1857, *Denkmaeler der baskischen Sprache,* Berlin. (Fac-similé Oosterhout 1967).
Mendiburu, S., 1747, *Jesusen Bihotzaren Devocioa,* St. Sébastien.
———, 1987, *Icasbidea.* Ed. fac-similé, *ASJU* XXI-1 (1987), p. 279-303.
Michelena, L., 1964, *Textos arcáicos vascos (TAV),* Madrid. 2e éd. Anejos de *ASJU* nº 11 St. Sébastien 1990.
Micoleta, R., 1653, *Modo breve de aprender la lengua vizcayna.* Ed. Dodgson, Sevilla 1897.
Moguel, J. A., 1803, *Confesino ona.* Vitoria.
———, 1981, *El Doctor Peru Abarca,* Ed. fac-similé, Bilbao.
———, *Cristaubaren icasbidea edo doctrina christiania.* Ed. L. Villasante, Bilbao 1987.
———, *Versiones bascongadas...* Ed. C.A.F. Mahn, *Denkmaeler,* p. 47-54.
Mugica, P., 1965, *Diccionario castellano-vasco.* Bilbao.
———, 1981, *Diccionario vasco-castellano I, II.* Bilbao.
Mugica, L. M., 1977, *Diccionario general y técnico. 1. Castellano-Euskara.* Bilbao.
Mujika, L. M. *Hiztegi orokor-teknikoa. 2. Euskara-gaztelera.* Bilbao 1977.
Nimegako Katekesi Institua, 1975, *Kristau bidea.* Oñate.
Ochoa de Arin, J., 1713, *Doctrina christianaren explicacioa.* Ed. Dodgson, 1902.
Oihenart, A. de, 1657, *Atsotitzak eta neurtitzak.* Ed. Larresoro, St. Sébastien 1971.
Olce, I. de, *Pregariac bayonaco diocezacotz.* Ed. L. L. Bonaparte, Bayonne 1866.
Pouvreau, S., 1665, *Gudu espirituala.* Paris.
———, *Iesusen imitacioea,* St. Sébastien 1979.
———, *Les petites oeuvres basques.* Ed. J. Vinson, Chalon-sur Saône, 1892.
———, *Dictionnaire* (manuscrit).
Sarasola, I., 1982, *Diccionario de frecuencias del euskera escrito actual.* St. Sébastien.
———, 1984, *Hauta-lanerako euskal hiztegia.* St. Sébastien.
Satrustegi, J. M., 1983, "Lasarteko bertsoak". *Iker-2,* p. 574-581.
Sota, M. de la (et alii), 1976-78, *Diccionario Retana de autoridades de la lengua vasca,* I, II, III, IV, Bilbao. *(DRA).*
Soto Michelena, M. J., 1978-79, "El lexicón de *Refranes y sentencias* de 1596". *ASJU* XII/XIII, p. 15-86.
Txillardegi (Larresoro). *Hizkuntza eta Pentsakera,* Bilbao 1972.
Ubillos, J. A., 1785, *Christau doctriñ berri-ecarlea.* Ed. fac-similé, St. Sébastien 1978.
Urquijo, J. de, 1907, *Obras vascongadas del doctor labortano Joannes d'Etcheberri.* Paris fac-similé Bilbao 1976.
———, 1909, "Las citas del diccionario de Pouvreau". *RIEB* III (1909), p. 504-519.
———, 1910, "Notes d'Oihenart pour le vocabulaire de Pouvreau". *RIEB* IV, p. 220-232.
Villasante, L., 1973, *Axular-en hiztegia,* Oñate.
Zelaieta, A., 1978-79, *"Peru Abarca*-ren hiztegia". *ASJU* XII-XIII, p. 87-199.
Zubiaur, J. R. et Arzamendi, J., 1976, "El léxico vasco de los refranes de Garibay". *ASJU* X, p. 47-144.

Erator-atzizki ala eratorpen-atzizki?

MIREN AZKARATE - FRANCISCO OLARTE
(EHU, Donostia) (EUTG)

Erator-atzizki ala *eratorpen-atzizki*? Lan honi izenburua eman dioen eta bertan aztergai dugun puntu hau, Mitxelena irakasleak berak planteatzen digula esan daiteke. Izan ere, besteok orohar *eratorpen-atzizki* edota *eratorketa-atzizki* erabiltzen genuelarik, (ikus, adibidez Goenaga 1984, bereziki azken kapitulua) azkenengotako lan batean *erator-atzizki* forma aukeratzen du (ik. Mitxelena 1986: 535-541). Ba al dago bietatik bat hobesterik, edo gutxienez kronologiaren araberako bereizkuntzaren bat egiterik?

Galdera honi erantzuna eman nahian hasi orduko ohartzen gara, ez euskaraz bakarrik, inguruko hizkuntzetan ere ez dugula, hitz elkarketaz ari direla, arazo honen aipamen berezirik aurkitzen. Gehienaz ere, kanpoko autore batzu bi motak aitatzen dituzte, baina elkarren artean inolako loturarik ez balute bezala tratatuaz. Egia ote? Hau da, lehen osagaia, mugatzailea, izenkia (aditzetik eratorritako izena) ala aditzoina izateak, begibistakoa den morfologi diferentziaz gain, ez al dakar bestela inolako desberdintasunik?.

Euskal hitz elkarketaz aritu diren autoreen artean, P. Lafittek (1944: 38-39), osagaien kategoria gramatikalaz bereziki arduratu denak, izen elkartuak, besteak beste, honela lor ditzakegula diosku:

a) bi izen elkartuz, bata bestearen konplementu izanik: *lur-sagar* edo *bihotz-min*.

b) aditza eta izena elkartuz, aditza izenaren konplementu izanik: *ira-baz-bide*.

Garbi dago gure *erator-atzizki* bigarren sailekoa dela; *eratorpen-atzizki* edo *eratorketa-atzizki*, aldiz, aipamen berezirik ez izan arren, lehen saileko direla dirudi, Lafittek ematen dituen adibideekin duten desberdintasuna, izen hauek aditzetik eratorriak izatean datzala.

Orain arte euskaraz egin den sailkapenik zehatzena, Euskaltzaindiaren Lexikologi Erizpideak Finkatzeko Batzordeak eginikoa hartzen badugu ere, ez dugu *eratorpen-atzizki, eratorketa-atzizki* bezalakoentzat leku jakinik aurkituko. Bada *JARLEKU*

Elkarte-mota deitzen den saila, hots, aditzoina gehi izenaz osaturiko izen elkartuei dagokiena, baina menpetasunezko izen elkartuen barnean ez da izenkia gehi izenaz osatutakoentzat azpisail berezirik egiten; areago, morfologi alderditik ere ez dira aipatzen. Hala ere *lansari, zahar-ontzi* edo *akordeoi-soinu* izen elkartuen ondoan beharko lukete kokatu.

Inguruko hizkuntzak aztertu dituzten autoreetara joaz, batez ere hitz elkartuak perpausen kide direla eta, berauek sailkatzeko, osagaiek, baliokide litzatekeen perpausean beteko luketen funtzio sintaktikoa kriteriotzat hartu duten hizkuntzalariek emango digute, zeharka bada ere, argibideren bat aztertzen ari garen auziaz. Horrela, H. Marchand-ek (1960: 27-28), erlazio sintaktikoetan bakarrik oinarritzen ez denez, osagaien kategoria gramatikala eta morfologi itxura kontutan hartzen dituela:

a) aditzoina gehi izena motakoak (*whetstone, rattlesnake*)
b) aditzoina+*-ing* eta izena motakoak[1] (*writing-table* edo *dancing-girl*)

bereizten ditu. Morfologi desberdintasunaz gain, bi osagaien arteko erlazio nozional edo semantikoak aztertzean, bi erlazio semantiko nagusi bereizten ditu morfologi mota bakoitzean:

a) alde batetik, *writing-table* eta *whetstone* bezalakoetan, 'Helburua', 'Xedea' da bi osagaien artean atzeman daitekeen erlazio semantikoa. Eta bien artean, bigarrena, antzina ingelesez lehena baino askoz ahulagoa zela digu. Ez da, beraz, esanahiari dagokionez, diferentzia nabarmenik bien artean.
b) bestalde, erlazio sintaktikoak ere kontutan izanik, *dancing-girl* erakoetan, lehen osagaia atributua litzatekeela bigarrenari buruz esaten zaigu; eta *rattlesnake* modukoetan, lehen osagaia perpauseko aditzari, predikatuari legokioke (bigarrena askotan perpauseko subjektuari).

V. Adams-ek (1973: 64 hh) osagaiek perpausean beteko lituzketen erlazio sintaktikoak direnez nagusi, Subjektu-Aditz, Aditz-Objektu sailak proposatzen ditu[2], eta berauen barnean, izen elkartuak, kategoria gramatikal eta morfologi egituraren arauera banatu. Horrela, besteak beste, Subjektu-Aditz sailean:

— Aditza (*-ing*) - izena: *cleaning lady, governing body...*
— Aditza (neutrala) - izena: *call boy, glow-worn, lead article...*
— Aditza (nominalizazioa) - izena: *demolition squad, motion picture...*

azpisailak egiten ditu. Edota Aditz-Objektu sailean:

— Aditza (*-ing*) - izena: *drinking-water, eating-apple...*
— Aditza (neutrala) - izena: *flashlight, drawstring...*

Eta erlazio sintaktikoak izan ordez, bi osagaien arteko erlazio semantikoak direnean erizpide ere, berdintsu jokatzen du. Adibidez, 'Instrumental' sailean, osagaietako batek

(1) Ez dira aditzoinak har ditzakeen beste atzizki batzuk, *-tion* esaterako, kontutan hartzen.

(2) Erlazio sintaktikoen arauerako sailkapenak aurki ditzakegu, era berean, Ch. Rohrer (1967) edo U. Wandruszka (1972) hizkuntzalarien lanetan.

baliabidea adierazten duenean, osagaien kategoria gramatikal eta morfologiaren arauera:

— Aditza (*-ing*) - tresna-izena: *burning glass, darning needle...*
— Aditza (neutrala) - tresna-izena: *grindstone, guide book...*
— Aditza (nominalizazio) - tresna-izena: *ignition key, navigation aid...*

bereizten ditu. Eta 'Locative' sailean, lekua adierazten denean:

— Aditza *(-ing)* - leku-izena: *drawing paper, landing strip...*
— Aditza (neutrala) - leku-izena: *bake-house, save area...*
— Aditza (nominalizazioa) - leku-izena: *amusement park, birth-place, assembly line, concentration camp...*

Hortaz, badirudi, V. Adams-en eritziz, *erator-atzizki* eta *eratorpen-atzizki* formen artean morfologi desberdintasun soila dagoela, eta ez beste ezer. Bi motetan aurki bait daitezke erlazio sintaktiko eta semantiko berak. Bestalde, azterketa sinkronikoa den neurrian, ez zaigu mota hauen diakroniari buruzko informaziorik ematen. Gaur egun ingelesez, bigarren osagaia subjektu zein objektu delarik, ekintza adierazteko aditzoinaz, *-ing* formaz edo beste nominalizazioren batez balia gaitezkeelako ondorioa ateratzen dugu. Erabat aukerazko formak lirateke.

Azken urteetan, Morfologia Sortzaile deitzen zaion arloaren barnean ere ikuitu izan da Hitz Elkarketaren arazoa. Konkretuki gai hau aztertu duten bi autore hartuz, E. Selkirk (1982) eta R. Lieber (1983), lehenak, Izen Elkartuen egitura aztertzean, bi izenez osatuak eta aditz gehi izenaz osatuak bereizten ditu (hemen axola zaizkigun kategoriak kontutan izanaz). Berriro ere *eratorketa-atzizki* bezalakoak bi izenez osatutakoen artean genituzkeela dirudi. Beste horrenbeste esan dezakegu R. Lieber-en (1983: 255) zerrendaz, erroen konbinazio prosibleen artean *Izena + Izena* eta *Aditza + Izena* ezartzen dituenean.

Bada, ordea, bi hizkuntzalari hauen lanetan aditza (edota aditzetik eratorritako izena) osagaitzat duten hitz elkartuei buruzko ikuspegi berri bat: lexikoaren argumentu-egiturarena, alegia, hau da, lexikoiko zenbait elementuk, aditzek eta preposizioek konkretuki, sintaxian aurki dezakegunaren antzeko argumentu-egitura lukete, hitz elkartuaren barnean bete beharrekoa zenbait kasutan[3]. Baina E. Selkirk-en predikzio guztiak *ardatz* gisa aditza edota izenkia (aditzetik eratorritako izena) duten hitz elkartuen gainekoak direnez[4], hortik kanpo geratzen zaizkigu *eratorketa-atzizki* edo

(3) "This, then, is the theory I propose for interpreting verbal compounds in English. (*Verbal compounds* terminoaren definizioak, berriz, honela dio: «Only compounds in which a nonhead satisfies an argument of the deverbal head constituent will be termed verbal compounds». Ardatz ez den osagaiak leku, —denbora—, modu-zehaztapena dakarrenean, beraz, ez dugu *verbal compound* izango)... This theory includes a set of rules (a context-free grammar) specifying the structural or morphological well-formedness of compounds and, disjoint from this, a system of rules for defining the syntactic well-formedness of phrases. The objects generated by these autonomous rule systems have in common the property of being built out of words. These words have the same lexical forms, regardless of whether they appear in words structure or syntactic structure. With their predicate argument structure and associated grammatical functions, they provide the basis of the semantic interpretation of the larger structures containing them, whether syntactic or morphological".

(4) Areago, hauen barnean ere, ardatz ez den osagaiak, mugatzaile dei dezakegunak, argumenturen bat betetzen dueneko adibideak bakarrik hartzen dira kontutan aurreko oinoharreko definizioan ikus dezakegunez.

alfabetatze-kanpaina modukoak. Ardatz ez diren osagaiak direla eta ematen zaigun erregela bakarra hau dugu:

> Optionally, in compounds, (i) a nonhead noun may be assigned any of the grammatical functions assigned to nominal constituents in syntactic structure... (Selkirk 1982: 32).

Mugatzaileek, beraz, edozein argumentu-mota bil dezakete. Baina hain garrantzitsua ote da osagaia ardatz izatea ala ez izatea? Ardatz denean bakarrik balio ote dute E. Selkirk-en erregelek?

R. Lieber-entzat (1983), ostera, Argumentu-Lotze Printzipioa[5] da, aditza dugun heinean, sor daitezkeen eta ezin daitezkeen hitz elkartuei buruz predikzioak egin ahal izateko giltza. Bestalde, lehen esan bezala, argumentu-hartzaileak aditza eta preposizioa direnez, *erator-atzizki* eta *eratorketa-atzizki*, biak sartuko lirateke R. Liber-en sailkapenean, 'Lehen osagaia argumentu-hartzaile' izenburu duen sailean. Baina sail honetan ez dagoela Izena + Izena egiturarik ohartzen gara; Aditza + Izena egiturakoen artean, berriz, *drawbridge, pickpocket* edo *pushcart* bezalakoak azaltzen dira, hots, *erator-atzizki*-ren parekoak. Ez ote da, bada, ingelesez *eratorpen-atzizki* modukorik? V. Adams-en (1973) sailkapenean bat baino gehiago aurki daitezke, ordea: *drawing paper, landing strip, falling star, drinking-water, burning glass* eta abar luzea. Lieber-en artikuluan ez dirudi horrelakoak inon jasotzen direnik. Eta hemen ezin esan daiteke hizkuntzalari honen predikzioak, Selkirk-enak bezala, ardatzari, bigarren osagaiari, soilik dagozkionik. Egia da, bestalde, Argumentu-Lotze Printzipioan aditz eta preposizio kategoriak bakarrik sartzen direla. Baina Argumentu-Lotura eta Hitz Elkartu Sintetikoen[6] arteko harremanak aztertzen dituenean ere *-er, -ing, -ed* atzizkiduna beti mugakizuna, bigarren osagaia, ardatza, da. Dena den, hemen ateratako ondorioak interesgarriak dira, atzizkioz eratutako osagaiak mugatzaile direnean zer gerta daitekeen aztertu ahal izateko. Alde honetatik, *-er* edo *-ing* atzizkiez izenak sortzen ditugunez, oinarri den aditzaren argumentu-egitura ez zaio goragoko adabegiari iragazten (ardatza, eskubiko elementua bait da beti bere kategoria eta bestelako tasunak goiko adabegiari iragazten dizkiona). Eta horrenbestez,

(5) Argument-linking Principle

a. In the configuration [ ] $\left\{\begin{matrix}V\\P\end{matrix}\right\}$ [ ] a or [ ] a [ ] $\left\{\begin{matrix}V\\P\end{matrix}\right\}$ where a ranges over all categories, $\left\{\begin{matrix}V\\P\end{matrix}\right\}$ must be able to link all internal arguments.

b. If a stem [ ] a is free in a compound which also constains an argument-taking stem, a must be interpretable as a semantic argument of the argument-taking stem, i.e. as a Locative, Manner, Argentive, Instrumental, or Benefactive argument». (Lieber 1983: 258). Barne-argumentuak, «all obligatori (i.e. lexically specified) arguments with the exception of the subject» (Lieber 1983: 257) direlarik.

(6) "Compounds which are most often called synthetic are those like truckdriver (which contain the agentive -er suffix), those like child-supporting (which have the progressive, adjectival, or gerundive *-ing*), and those like home-baked (whose last element is a passive participle)" (R. Lieber 1983: 267). Horrenbestez, euskaraz, gutxienez *-le/-tzaile, -tze* atzizkiz osatutakoak sartuko litzaizkiguke hemen. Baina euskaraz bederen ez al dira *-keta, -pen* edo *-era, -tze* izenak sortzeko atzizkiaren kide? Ikus P. Goenagak (1984), esaterako, nola aztertzen dituen guzti hauek. Dena den, azken atzizki hauek hitz elkartu sintetikoen osagarritzat har ditzakegun ala ez gehiegi eztabaidatu gabe, *-tze* atzizkiarekin batera hartuko ditugu, LEF-Batzordearen sailkapenean egin antzera.

adar-jotze bezalakoak, bigarren osagaitzat argumentu-hartzaile ez den izena duten izen elkartuak bezalakoak dira. Ondorioz, argumentu-lotze printzipioak ez du hemen balio[7]. $_{I}[$*Aditza + -le/-tzaile/-tze/-pen...*$]_{I}$ mugatzaile, ezkerreko osagai, duten izen elkartuetan ere berdintsu gertatzen dela esatea ez bide dateke ausardia handiegia.

R. Liber-ek (1983), beraz, lexikoiko zenbait elementuren argumentu-egiturari dagokionez, ez ditu era berean tratatzen *erator* eta *eratorpen* edo *eratorketa*. Lehena bakarrik da argumentu-hartzaile; beste biak, gainerantzeko izenak bezalaxe, ez dira erro argumentu-hartzaileak. Eta, horrenbestez, Argumentu-lotze Printzipioa *erator-atzizki*-ren kasuan izan beharko dugu kontutan. *Eratorketa-atzizki* edo *eratorpen-atzizki* sortzeko ez bait dago, alde honetatik, inolako mugarik.

Gauzak horrela direla, R. Lieber-en planteamentuak eta lehenagokoak —H. Marchand (1960) edo V. Adams-enak (1973)— kontutan harturik, bi galdera egin ditzakegu ondoren aztertzen saiatuko garen euskal izen elkartuen aurrean:

1 *Erator-atzizki* gisako euskal izen elkartuetan betetzen ote da R. Lieber-en Argumentu-lotze Printzipioa? Ala guztiok onartu eta inolako eragozpenik gabe sortu eta erabiltzen ditugun Aditzoina + Izena egiturako hitz elkartuok hautsi egiten dute Printzipio hori?

2 *Erator-atzizki* eta *eratorpen-atzizki*-ren arteko harremanak beste teori-ikuspuntu batetik aztertuaz, ba al dago nolabaiteko desberdintasunik aurkitzerik bien artean: dela bilakaera kronologikoa, dela bi osagaien arteko erlazio semantikoa ...? Ala V. Adams-ek (1973) ingelesez proposatzen duen bezala, morfologi-diferentzia soila dugu?

Galdera hauei erantzuteko, ikus dezagun zer aurkitzen dugun euskal literaturan. Guztia aztertzea ezinezko izanik, aukera zabal samarra egin da garai eta euskalki desberdinetako autoreak jasotzen saiatuaz. Horrela, Leizarragaren lanetatik hasi eta 1940. inguru artekoak, Axular, Etxeberri Sarakoa, Hiriart-Urruty, Pouvreau, Mogel, Fray Bartolome, Agirre Asteasukoa, Orixe, Lizardi, Txomin Agirre, Kirikiño...-ren zenbait obra aztertu ziren. Era berean Barandiaranek eta Azkuek egindako herri-ipuin eta kontakizunen bildumak ere kontutan izan ziren, zenbait bertsolariren (Xenpelar, Txirrita, Uztapide, Basarri, Xalbador...) lanekin batera. Halaber, gure corpuseko Menpetasunezko izen elkartuetan aztertuko ditugu *Aditzoina + Izena* eta *Ekintza-izena + Izena* egituren arteko harremanak.

Xehetasun horiek eman ondoren, ekin diezaiogun lehen galderari erantzuna emateari. R. Lieber-ek (1983: 261) posibletzat jotzen ditu ingelesez *Aditzoina + Izena* motako hitz elkartuak, izena aditzaren argumentu-egitura betetzeko gai bada, edota aditzak barne-argumenturik ez izatean, izena aditzaren argumentu semantiko bezala interpreta badaiteke. E. Selkirk-ek (1982: 16), bere aldetik, ingelesez horrelako elkarketak oso maiztasun urrikoak direla dio; oso adibide gutxi aurkitu omen ditu. Euskaraz, hasteko, izen elkartu mordoa sor dezakegula aditzoina eta izena elkartuaz ikusiko dugu: *ikas-mai, gordeleku, ehortz-egun, idaz-tankera, jostorratz, bedeinkamezea...* Aditz hauek, ordea, 'Agent' eta 'Theme' (Egilea eta Tema) argumentuak eskatzen

(7) Ikus, dena den, Lieber-en eritziz (1983: 268-269) *harri-jasotzaile* bezalako izen elkartu batek izan dezakeen egitura bikoitza: $_{I}[_{A}[$*harri jaso*$]_{A}$ + *-tzaile*$]_{I}$ edo $_{I}[_{I}[$*harri*$]_{I}$ $_{I}[_{A}[$*jaso*$]_{A}$ *-tzaile*$]_{I}$. Bigarren egituran, euskaraz dugunean, aditza izenaren barnean ardatz ez izanik gertatzen da, eta, horregatik, Argumentu-lotze Printzipioa indarge geratzen da.

dituztenak direla esan daiteke[8], subjektuak eta objektuak jasoko dituztelarik argumentuok sintaxi-egituran. Demagun, subjektuak kanpo-argumentua jasotzen duela. Hala ere R. Lieber-ek dioenaren arauera, aditzoinaren eskumara azaltzen den izenak, aditz horren barne-argumentua, 'Tema', bildu beharko luke goian aipatu kasuetan. Eta ez da hala; eskubitara azaltzen den izena argumentu semantikotzat har daiteke, 'Leku', 'Baliabide, instrumentu' argumentu semantiko bezala hain zuzen.

Zer esan daiteke datu hauen aurrean? Badirudi R. Lieberen (1983) teoria motz geratzen dela, batez ere E. Selkirk-en (1982: 24) eritzi desberdina kontutan hartzen badugu:

> Note next that a deverbal constituent in nonhead position will not have its argument structure satisfied by the head constituent (...) Moreover, I would argue that even in the case of endocentric $_N[VN]_N$ compounds ... the head noun does not satisfy the argument structure of the verb.

Eritzi desberdintasun honen aurrean, euskarak E. Selkirk-i arrazoi ematen dioela dirudi. Ondorioz, Argumentu-lotze Printzipioa bera dela aldatu behar dena pentsa dezakegu.

Nor motako aditzak direnean mugatzaile, ezkerreko osagai, ordea, argumentu bakar hori subjektuak bilduko lukeenez[9], eskumako osagaia 'aske' geratzen da, eta argumentu semantiko gisa hartzen dugu. Alde honetatik ez da inolako arazorik sortzen R. Lieber-ek esanak kontutan hartuaz.

Bigarren galderari dagokionez, *erator-atzizki* eta *eratorpen-atzizki/eratorketa-atzizki*, beste modu batera esanda, Aditzoina + Izena eta Ekintza-izena + Izena egiturak erkatzean, lehen begirada batetan ohartzen gara lehen motakoak askoz ugariagoak direla. Areago, Ekintza-izena + Izena sailekoetatik, Menpetasunezko ez direnak kenduz gero (*gorde-agertze, uka-aitortze, sal-erospen, siñiste-egiteen...*), eta Menpetasunezkoen artean ere ekintza nominalizazio soila gaindituz beste nolabaiteko balioa hartu dutenak alde batera utziaz (*eriotz* mugatzaile duten guztiak, adibidez, edo *batzoki, itxaropen* bezalakoak), geratzen zaizkigunak berrogeitamarren bat izango dira.

Kopuruak alde batera utziaz, *Aditzoina + Izena* eta *Ekintza-izena + Izena* egituren artean beste desberdintasunen bat aurkitu nahirik, bi osagaien arteko erlazio semantikoei beha diezaiekegu. Erizpide hau kontutan harturik, begibistakoa da *Aditzoina + Izena*-ren kasuan, 'Helburua' dela aditzoinaren eta izenaren artean gehienetan azaltzen den erlazioa: aditzak adierazten duen ekintzarako da (balio du, erabiltzen dute...) izenak adierazten duena. Hau hala da erlazio semantikoa erabakitzeko mugatzailea, aditzoina hartzen badugu erreferentzi-puntutzat. Mugakizunean oinarriturik, aldiz, izenak bi eratako zehaztapena eman diezaioke ekintzari: lekua edota instrumentua, baliabidea.

Arestian esanaren arauera adibideak banatuaz, bada:

a) Izenak, zein lekutan gertatzen den ekintza adierazten du:

(8) Dena den, euskaraz oraindik lan handia dago aditzen barne-argumentuak, aditzak nahi eta ez eskatzen dituenak zeintzu diren zehazten. Esaterako, *ipini* aditzak ingelesez barne-argumentutzat 'Tema' eta 'Lekua', zer ipini eta non ipini, eskatzen ditu. Euskaraz beste horrenbeste esan al daiteke?

(9) Nolatan ez dagoen, ingelesez *put* aditzak eskatzen duen bezala, 'Lekua' edo bestelako barne-argumenturen bat.

gal irriskuan (17)[10]
eseri-alki (21)
jan-batzar (14)
erdi-eguna (16)
garbi-egunak (16)
marka-egun (24)
xakiegun (24)
bil-etxe (17)
egurastetxe (24)
jan-etxe (18)
asi-garaia (12)
itxi-garaia (12)
eldu-giro (12)
gazikutxa (10)
aitor-leku (16)
egonleku (01, 16, 22)
erran-leku (03)
etzanleku (10)
geldi-leku (14)
gorde-leku (17, 23, 03, 15...)
icasi lecu (01)
jar leku (17, 21, 14, 13...)
ohortz leku (02)
vici lecu (07)
bizi modu (15, 22, 17, 10...)
ibil molde (17)
buka-muga (16)
jo-muga (16, 15)
ikastola (23, 14)
edanontzi (13, 14, 24)
jan-ontzi (14)
geldi ordu (19)
ikas-ordu (12)
jatordu (14, 18)
bil-saski (24)
ariltoqui (08)
bizitoki (10, 12, 23, 11...)
egurastoki (23)
etzan-toki (18, 14)
jantoki (14)
legortoki (13)
iraztasquia (08)
exer-aulki (20)
ehorztegunetan (19)[11]
escont-eguna (03)
ibil-eguntxo (12)
sor egun (02)
aztetxe (24)
bizitetxe (15)
ikastetxe (13, 14, 23...)
jatetxe (24, 12)
biur-garaian (12)
yoan-garaia (12)
yaioturi (17)
aira-leku (17)
bizi leku (23, 21, 16...)
erne lecu (01)
eserleku (13, 12, 14...)
galdu lecu (01)
gertatu-leku (24)
iar lecu (02, 05...)
janlecu (08)
legorleku (13)
pausalecu (05)
ikas-mai (15)
esan modu (01)
ikas molde (07)
erdi-muga (03)
ibill-neurri (13)
irarkola (23)
edontzi (24, 26)
asitordu (23)
hil ordu (03)
jaiotordu (14)
bildu-orri (12)
idaz-tankera (24)
biltoki (15, 17)
egotoki (13, 08)
esertoki (12, 14)
garbitoki (10, 13, 16...)
jar toki (17, 19)
saltoki (12, 13)

Guztietan uler dezakegu 'ontzian edan', 'olan ikasi', 'ordu horretan hasi' edo 'modu horretan bizi' adierazten dela, nolabait esateko. Mugatzailea, aditzoina, erreferentzi hartuaz, berriz, 'ikasteko ola', 'hasteko ordua', 'edateko ontzia'... bezala uler daitezke.

Adibideon formari dagokionez, bestalde, *Aditzoina* + *Izena* egituraren azpian sartu izan arren guztiak, zenbaitetan, mendebaldeko adibideetan, partizipioa agertzen zaigu mugatzaile gisa.

(10) Parentesi artean ematen dugun zenbakiak, adibideari dagokion liburuaren kodea adierazten du. Kodeen azalpena artikuluaren amaieran ezarri dugu.

(11) Mitxelenaren (1961: 248-250) iritziz, *-te* nominalizazio atzizkia genuke hor, ez aditzoina. Azkuek (1923-25: 407) dioenaren arauera, *-t-* kontsonantearen epentesi bidez esplika daiteke. Beste horrenbeste esan daiteke *egurastetxe, aztetxe, ikastetxe* etabarrez.

b) Izenak, ekintza nola, zein baliabidez gauzatzen den adierazten du:

altxarrastelua (11)	*ekin deadarra* (12)
ezagu-errañu (16)	*bizi-erregela* (16)
maxelarria (10)	*oroitarria* (12)
zorrotzarri (10, 05, 06)[12]	*idazkortza* (12)
erne-indarra (12)	*guija catia* (08)
iin-congita (03)	*bizi-legea* (17)
izkira-lege (13)	*ikas-liburu* (16)
bedeinkamezea (10)	*ernamin* (11, 12)
maxi-mintzo (24)	*jostorratz* (08, 11, 16)
bizi poza (20)	*alda soinuak* (17)
iraztramaac (08)	*igi-almena* (12)

c) Hirugarren multzo batean bil ditzakegu, izenak ekintzaren lekua adierazi arren, mugatzailea, aditzoina, erreferentzia hartuz gero, 'Helburua' erlazioa ez, baizik 'Edukia' adierazten duten adibideak. Hau da, gure ustez, adibide hauei dagokien parafrasia ez da 'jateko tokia', 'garbitzeko tokia', 'edateko ontzia' edo 'ikasteko moldea'. Izan ere, *jaiotetxe, sorterri* diogunean, egia da 'etxean jaio', 'herrian sortu', edo zehazkiago esanda, 'etxea zeinetan jaio zaren', 'herria zeinetan sortu zaren' uler dezakegula, eta orohar ulertzen dugula; baina aditzoinean oinarrituz, ez genuke esango goiko adibideok 'jaiotzeko etxea', 'sortzeko herria' adierazten dutenik. Ez dute adierazten leku horietan zein ekintza gertatz*en* den, zein ekintza gertat*u* den baino. Horregatik egokiago iruditu zaigu 'Edukia' erlazio semantikoaren azpian biltzea ondoko adibideak (nahiz agian norbaiti erlazio hau ez gogobeteko iruditu):

jaiotetxe (10, 12, 14, 22, 21, 23)	*sortetxe* (11, 14, 17)
sorturi (11)	*sor-leku* (03, 13, 19, 21...)
jaioterri (13, 14, 15)	*sort herri* (06, 19, 14...)

d) Orohar *Aditzoina* + *Izena* elkarketetan, erlaziorik maizenak goikoak direla esan badezakegu ere, aurkitzen dira han hemenka bestelako erlazioak ere[13]: — 'Egilea' erlazio semantikoa antzeman uste izan dugu Lizardiren *ari-otsa, bizi-otsa* adibideetan[14], 'aritzeak, bizitzeak ateratzen duen hotsa' edo antzeko zerbait emango bait genuke hitz elkartuon parafrasitzat. Eta, horrenbestez, nahiz mugatzaile gisa formalki aditzoina azaldu, beronen balioa izenkiarena, *-tze* atzizkiaz sortutako izenarena litzateke. Ondorioz, aztergai dugun bigarren egituraren eremuan sartu gara, hots, *Izenkia* (aditzetik erratorritako izena) + *Izena* egituran.

Emen dago guerturic / Erioa eta biçia: / Eliçac erraten digu / Bata nola bertçea *TAV* 115.
Baya gueyago erdestendute Meza onguiençutendutenean, batas ceren verac Mezan ofrecicenbaytu sacrificioa, berceas Meza erraten duenac ofrecicen baytu aren gatic Ber *Trat* 106 v.
Persona iru oneetaric zaarrago da bata besteac bàno [...]? *VJ* 5.
Zerren badakite guziak, Santuak eginzituela liburu bi, bata bere pekatuak aitortzeko, bestea bere utsegiñak eta oker-esanak zuzentzeko Lar *SAgust* 7.
Emazte manzaba eta desonesta cori condenatu bearducie batorrec eta verceorrec ETZ 165.
Biac dìra ònac; baña bàta bestea baño obeagoa Ub 208.
Daucaguz buztar-idi bi, bata belleguija, bestia zurija Mg *Pab* 109.
Baldin Mezaco dembora igarotzen bada erausian, lotan, edo batari ta besteari beguiratuaz AA II 48.
Alan dauqueela gueijeenac aparteco gogua, bata gauza batian, ta bestia bestian divertiduteco fB *Olg* 27.
Eta illunabarrean bildu ciranean contuan jauci ciran Semea ez batarequin ez bestearequin zala Lard 370.
Urlia izango zan Lekobide ta sendia Lartaun, bata Don Pedro Erregea ta bestea Don Juan bere anaia Ag *Kr* 201.
Arekin batean yosi zituzten bi lapur, bata eskui aldean, bestea ezker aldean Ir *YKBiz* 500.
Alako lirio zoragarririk! Bata baltzerana; urrezko ulematasadun, bestea Erkiag *Arran* 43.
Bata eta bestea egia izaki, bi mutur oiek beude zutik Vill *Jaink* 176.

Nahiz eta agerraldi mugagabeak ere badauden, bereziki azken mendean, badirudi autore hoberenek legeari gehienbat eusten diotela.

1.1.2. Iparraldean ere erabat betetzen da legea XVI, XVII eta XVIII. mendeetako testuetan:

Ni gathibu naducana captiua da berceren / Ene dichac hala eguin du ny gathibu bigaren / Gogo honez içaneniz vicy baniz bataren / Bana borchaz bayecila ez iagoytic verciaren E 132.
Gogo batez bata berceagana affectionatuak çaretelarik Lç Rom 12, 16.
Eta haur hain ongui aditcen da çor iaquinaz eta aithortuaz, nola gauça ebatsiaz eta ichilik eramanaz. Haiñ ongui pagatu behar da bata nola bertcea Ax 243.
Baiña ceren bataz gutitan barccatzen baitu: eta bertzeaz ceren gaitza baita Ax 100.
Ikas dezaguntzat batac bertcearen cargaren iasaiten SP *Imit* I 16, 4.
Batak emaiten cian loxeria; eta bestiac ematcen gutu Gincoa ere maita eraciten Bp II 74.
Bata hiltcen da iatean, bertcea iocoan; bata consumitcen du suac, bertcea akhabatzen du burdiñac Ch I 23, 7.
Nic oguen duna eta oguen gabia jujaturen dutut, bena aitcinetic nahi uken dutut borogatu bata eta bestia jujamentu estalibateç Mst III 46, 3.
Saül Erreguea ongui hassi cen, Judas cembait demboraz ongui cioan; ordean bata eta bertcea gaizqui hil dire Brtc 253.
Hambat adiskide lohi, batac bertcea bilhatuz, batac bertceari amor eginez Dh 162.

Hemeretzigarren mendean, autore gehienek gehienetan betetzen badute ere, badira batzuek mugatuaren ordez deklinabide-era mugagabeak (*bat, batek, bati...*) erabiltzen dituztenak. Zehatzago adierazteko, badirudi autore gehienek bi sistemak nahaste erabiltzen dituztela, batari edo besteari nagusitasuna emanaz, baina gero eta areago era mugagabeetara makurtuz. Horrela, aipatu berri dugun Duhaldek: *Jasanatzue batec bertzearen cargac* (249).

Joera hau areagotuz doa hogeigarren mendean, eta azkenengo hamarraldietan badirudi ia erabat nagusitu dela: aztertu ditudan testu guztietan *bata*-ren lau adibide (*bat*-enak gutxienez hamar aldiz gehiago direla), *batak*-en beste lau (hauetako hiru Oxobirenak), eta *bataren*-en bat bakarra baizik ez ditut aurkitu mende honetan.

1.1.3. Laburpen gisa Mateoren ebanjelioko pasarte baten (6, 24) Leizarragaren itzulpena historian zehar egin diren beste itzulpenekin erkatuko dut. Hau da Leizarragaren itzulpena: *Nehorc bi nabussi ecin cerbitza ditzaque: ecen edo batari gaitz eritziren drauca, eta berceari on: edo batarequin eduquiren du eta bercea menospreciaturen.*

Pasarte berean Haraneder lapurtarrak 1750 inguruan *bata... bertcea, bata... bertcea...* ematen du; 1828ko *Testament Berria* lapurtarrak *bat... bertcea..., bati... bertzea...;* Haranederren itzulpen Harrietek antolatuak *bata... bertcea..., batai... bertcea...;* M. Salaberri behenafartarrak 1856an *bat... bertzia..., bati... bertzia...;* Intxauspe zuberotarrak 1856an *batá... bestía..., batári... bestía...;* Etxenike baztandarrak 1857an *bat... bertzea..., bati... bertzea...;* Uriartek gipuzkeraz 1858an *bati... bestea..., bata...bestea...;* Duvoisinek 1859an *bat... bertzea..., bat... bertzea...;* Hualde bidankoztarrak 1860 inguruan *batari... berziari..., leinari... bigarnari...;* Sanper zaraitzuarrak 1869an *batari... berzeari..., lembizikoari... bigarnari...;* Olabidek 1931ean *bata... bestea..., batari... besteari...;* Leon lapurtarrak 1946an *batto... bertzea..., battori bertzeari...;* Arriandiaga bizkaitarrak 1946ean *bata... bestia..., batarentzako... bestia...;* Kerexeta bizkaitarrak 1976an *batari... bestia..., batari... bestia...;* 1980eko *Itun Berria*-k eta 1983ko *Itun berria* ekumenikoak *bata... bestea..., batari... bestea...*

1.1.4. Leku-denborazko kasuetan *bat* izenordaina alde eta aldi guztietan agertzen da era mugatuan *beste* mugatu batek eragindako testuinguruetan:

> Eta batean beçala bertcean ere, elccar eduqui deçaten Ax 592.
> Batean eror eta bertcean iaiqui dabillanac Ax 539.
> Loria bedi bata hunetan, bertcea hortan, lauda bedi millatan eta millatan, çuc hareçaçu atsegin ez batean, ez bertcean, baina soilqui çure buruaren mesprecioan SP *Imit* III 49, 7.
> Batean eta bestean zorrac dauzcatzula AA II 176.
> Batean beharri batetik, bertzean bertzetik Elzb *PAd* 50.
> Batean ango ta bestean emeko Doneari egitten eutsezan eskintzariak Echta *Jos* 286.

1.2. *Bat*-en forma mugatuak izenondo gisa.

1.2.1. Izenondo gisa, hots, *bat*-ek izen-sintagma bati muga jartzen dionean, lehenago hasten da legea hausten. Iparraldeari dagokionez, Leizarragak beti erabiltzen du *bat* era mugatuetan:

> Batac estimatzen du egun bata bercea bainoago, eta berceac [...] Rom 14, 5.

Eta gaizquiguile urkatuetaric batac blasphematzen çuen hura, cioela, Baldin hi bahaiz Christ, empara eçac eure buruä eta gu. Baina ihardesten çuela berceac reprotcha ceçan hura, cioela [...] Lc 23 39h.
Ala eztu lur-tupinaguileac orhe ber batetarik eguiteco bothere, unci bataren ohoretaco, eta bercearen desohoretaco? Rom 9, 21.

Iparraldeaz jarraituz, hurrengo mendean badirudi erregela gehienbat betetzen dela, baina *bat* mugagabeko lehen adibideak hasten dira jadanik:

Ceren bethiere gauça bat edo bertcea higoinduko baitçaio SP *Imit* I 25, 7.
Batzu amorioaren beroz eramaitenago dire saindu bat gana bertcea gana baino SP *Imit* III 58, 3.

XVIII. mendean, Etxeberri Sarakoak —behin: *Batean verboac aditcera emaitendu mintçodela giçonquiarekin eta bertcean emacumearequin, verbo batac darontsa accusatiuo singularrecoa, bertceak pluralecoa* ES 91—, Larregik (behin) eta zuberotarrek soilik betetzen dute legea *bat* izenondoari dagokionez. Bada Etxeberri Sarakoaren adibide adierazgarri bat, zeinean *bat* izenordainak legea betetzen duen, baina ez *bat* izenondoak: *Non hauquien bidez hitzcuntça bat bertceaganik diferent, edo bata bertcearen iduritako eguiten baitira* ES 127.

XIX. mendean agerraldi bakar bat aurkitu dut, Duvoisinena, baina Kardaberazen (*Eg* II 101) pasarte baten (*Beso bata batera, bestea bestera, ta burua bere aldera erortenzat*) itzulpena: *Beso bata batera, bertcea bertcera, eta burua bere aldera erortcen ceraizkit* (LEd 183).

Hori da Iparraldean aurkitu dudan *bat* izenondoaren azken agerraldia.

1.2.2. Hegoaldean adibide bakar bat aurkitu dut XVII. mendean, Beriain nafarrarena, eta adibide horretan betetzen da legea: *Atra ciradela iay egunbates bi lagun ciudade batetic campora* [...] *obetatic batac yduquiçuen cuydado Mezaençuteaz, eta berceac ez* (*Trat* 112 r).

Hemezortzi eta hemeretzigarren mendeetan aski betetzen da, nahiz eta gero eta maizago agertzen diren forma mugagabeak:

Guizon bata ta bestea comulgatu ta illciran Cb *Eg* III 236.
Egon ere ecin diteque Trinidadeko Persona bata besteac gabe Mg *CC* 202.
Beguira iñoiz enzun ote dezun Meza bataren erdia eta bestearena beste erdia AA II 59.
Beguira, tramparic eguin dezun, saltzen dezula gauza bat bestearen lecuan, catua erbitzat esan oi dan eran AA II 183.
Nesca batac egiten dau garraasi bat. Bestiak silijo bat. Bestia asarratuta, asten da lotsagalduco diadarca. Bestiac [...] fB *Olg* 72.
Baita bere adisquide batek bestiari, guizon batek bestiari, au eguin leiquijo Astar II 29.
Epai oneetaric bata edo bestea nai eta naiezean emongo yaco bacochari Añ *EL*[2] 38.
¡Cer banacatce desberdiña aizpa bata eta bestearentzat! Lard 159.

Hogeigarrenean, aldiz, badirudi Mendigatxa erronkariarrak —bi aldiz, *leku batarik berziara* esapidean— eta zenbait idazle bizkaitarrek soilik —eta ez beti— erabiltzen dituztela *bat* izenondoaren era mugatuak. Horietatik at, G. Anduagaren *Aitonaren uzta*-n eta D. Agirreren *Garoa*-n —hots, euskalkiz bizkaitar ziren bi idazleren gi-

puzkerazko testuetan— aurkitu ditut agerraldi bana. Beraz, badirudi ugariagoak direla mugagabezko agerraldiak mende honetan, bizkaieraz izan ezik bederen. Egoera honen lekuko K. Mitxelena izan daiteke. Izan ere, euskara batuaren gidariak betetzen du —nahiz ez beti— legea *bat* izenordainari dagokionez, baina ez izenondoari dagokionez:

> Galdua ote dugu —aritu ginen luzaroan galdezka, batak besteari eta nork geure buruari— poema jaioberria? *MIH* 291.
> *Ez du hitz honek besterik esan nahi, hizkuntzaren alde batek bestearekin, hizkuntza batek beste batzuekin, halako antz eta egitea baduela baizik MIH* 195.

1.2.3. Laburpen gisa, gorago aipatu dudan Leizarragaren pasarte bat (Lc 23, 39) euskaraz egin diren beste itzulpenekin erkatuko dut. Leizarragak *gaizquiguile urkatuetaric batac.. berceac* zion lekuan, Haraneder lapurtarrak 1750 inguruan *ohoinetaric bat... bertzeac* ematen du; 1828ko lapurterazko *Testament Berria*-k *gaistaguinetarik batek... bertceac...;* Haranederren itzulpen Harrietek antolatuak *ohoinetaric bat... bertceac...;* Duvoisinek *ohoinetarik bat... bertzeak...;* Brunet gipuzkoarrak 1870ean *gaizguille ayetaco batec... besteac...;* Olabidek 1931n *gaiztagiñetako batek... besteak...;* Arriandiaga bizkaitarrak 1946an *gaizkille eskegittariko batek... besteak...;* Kerexeta bizkaitarrak 1976an *lapurretariko batek... besteak...;* 1980eko *Itun Berria*-k eta 1983ko *Itun Berria* ekumenikoak *gaizkileetako bat... besteak...*

1.2.4. Leku-denborazko kasuetan *bat* izenondoa alde eta aldi guztietan agertzen da era mugatuan *beste* mugatu batek eragindako testuinguruetan:

> Artuco dot escu batean guecia, / Bestean çuci yraxeguia *TAV* 91.
> Eta leku batetik bercera errebelatuak gabiltza Lç 1 Cor 4, 10.
> Birjina bazter batean / eta Iosef berzean: biak belhauriko iarri / ziren haren aldean EZ *Noel* (L. Akes. ed.) 57.
> Behin alde batera gero bertzialat Egiat 157.
> Escu batean dozula Christo crutzean josiric, eta bestean candela erexeguin bat Añ *EL*[1] 30.
> Bada gauza gusti oneec, epia emoten dabe, eta eguin leitequez egun bateric besteraco Astar II 71.

1.3. *Bat* mugatuaren agerraldiak *Beste* mugatuaren eraginpetik at.

Antza denez ez dira gehiegi horrelako agerraldiak, batez ere aipaturiko legea betetzen dutenen aldean. Dena dela, lehenak Leizarragagan beragan aurkitu ditut. Hiru adibide dira: *Eta baldin eure beguiac trebuca eraciten bahau, idocac hura eta iraitzac eureganik: hobe duk hire, begui batarequin vicitzean sar adin, ecen ez bi beguiac dituala suco gehennara iraitz adin* (Mt 18,9), *Cen Andriu Simon Pierrisen anayea, Ioannes minçatzenençun zuten bietarik eta hari iarreiqui çaizconetaric bata* (Io 1, 40) eta *Eta ihardesten çuela batac Cleopas deitzen cenac, erran cieçón* (Lc 24, 18). Egia esan, ez dut hiru agerraldi mugatu hauen zergatia argi ikusten. Dena dela, lehenengoari dagokionez Mc 9, 47an testuinguru berberean *begui bakoitzdun* ematen du Leizarragak berak, eta bigarrenaren kideko bide direnetan *-tarik bat* erabiltzen du besteetan[2]. Esaterako, *Eta Lazaro cen harequin*

(2) Agerraldien urritasunaren gorabehera, badirudi arrazoia hau izan daitekeela: perpausaren testuinguari *bi*-ren forma mugatu batek eragiten diola, agerian (bi lehenetan) edo ezabaturik (hirugarrenean: kapitulu bereko 13. txatalean aipatzen diren *hetaric biga*-tako bat da Cleopas). Cf. aldiz *Eta laur animalietaric batec eman*

mahainean iarriric ceudenetaric bat (Io 12, 2). Bestalde, pasarte horien gainerako itzultzaileen bertsioetan forma mugagabeak aurkitu ditut hirurotan. Adibidez *bi hetarik bat* (1828ko TB), *Jesusi iarraiqui citçaizconetaric bat* (HeH) edo *bietarik bat* (Dv), bigarrenari dagokionez. Eta, gehien axola diona, egongune horretan ez legoke *-rik bat* eta *-rik bata*-ren artean kontrasterik.

Beste adibide bat Axularrena da: *Eta bere azquen finean* [*aztore*] *hetaric bata vtzi çuela, çorbat baitçuen haren pagatceco; bigarrena seme bat baitçuen, harendaco; eta hirurgarrena, arima-cari, meçatan emplegatceco* (247 h). Hemen *bata, lehendabiziko*-ren kide-edo da, *bigarrena* eta *hirugarrena*-rekin harremanetan, hots aldaera estilistiko moduko zerbait; cf. Agirre Asteasukoarengan: *Guizonac ditu iru vicitza-mota, gorputzarena bata, animarena bestea eta irugarrena da onra eta icen onarequin ezagutzen duen lecuetan vicitzea* (II 103), baina *Iru mallatacoa da beldurra. Batari deitzen zayo* servitzariena; *oetatic ascoc alabaña eguiten ditue lanac* [...] *castiguaren beldurrez* [...]. *Bigarren beldurra da seme ongui aciac izan oi duena. Oec* [...]. *Irugarren beldurra da* [...] (I 612 h.)[3].

Aurkitu ditudan gainerako salbuespen guztiak bizkaierazkoak dira, eta esapide-moduko batean agertzen dira. Horrela Mogelek *Nire alaba batak, bera da gazteena, daucaz egunteguijac* (*PAb* 137). Esapide-moduko hau batez ere Kirikiñok erabiltzen du, —adibidez *eta beriala anka bata barrura sartzen dau* (*Ab* II 32)—eta *-etako bat*-en kide dirudi.

1.3.2. Zertzelada batean bakarrik dagoke, teorian bederen, kontrastea: *Ordu batean etorri zen / Ordu batetan* (edo *baten*) *egin zuen* (hots, 60 minututan). Praktikan ez dut horrelako bereizkuntzarik inongo idazletan ikusi. Izan ere testuinguruak (aditzak esaterako) aski argitzen du kontua, eta dena dela *ordu batez* erabiltzen da batez ere bigarren kasuan, antza denez.

1.3.4. Alde batera uzten dut, noski, *bat* zenbatzailea izen gisa erabiltzen denean, *Maiatzaren bata, hilaren hogeita batean* esaterako, *EGLU* 1985, 165-en esaten den bezala, mugatasuna automatikoa baita horrelakoetan, izen batez ari garenez gero.

2. *Bat* leku-denborazko kasu-atzizkiez *beste* mugatuaren eraginpetik at.

Beste hitzaren era mugatu baten eraginpetik at, *bat* mugagabean agertzen da, *batek, bati, baten, batez...* formetan. Salbuespen nabari eta garrantzitsu bat dago haatik: leku-denborazko deklinabide-atzizkiena. Lehenik *non* kasua aztertuko dugu eta ondoren *nora* eta *nondik* kasuak.

2. 1. *Bat* non kasuan izenondo gisa.

2.1.1. Izen-sintagma baten amaian, bizkaierazko tradizioan *baten* da forma zabalduena. Horrela bizkaiera zaharrean:

---

cietzén çazpi Aingueruey çazpi ampola vrrhezcoric (Apoc 15, 7). Hiruotatik at, *bi* mugatu baten eragin honen adibide bakar bat aurkitu dut aztertu dudan *corpus*-ean, J. D. J. Salaberrik *ChantP*-en jasotzen duen *Agot denak chipiago badü beharri bata, / Aitari erranen diot biak bardin tüzüla* (174) bertsoetan, non aurreko ahapaldian [*Beharri*] *bata handiago dizü eta aldiz bestia / Biribil et' orotarik bilhoz üngüratia* esaten baita.

(3) Bada Agirre Asteasukoarengan beste agerraldi bat, bakarra, *bestea*-ren eraginpetik at: *Onra au ematen zayo Jaunari era ascotan, eta era oetatic batari deitzen zayo* adoracioa (II 336), esplikagaitza, beste agerraldi guztietan *oetaric bat, batec* etab. ematen baitu, itxuraz kideko testuinguruetan, gainerako autore guztiek bezala.

Laster baten ygaro çan / Uraz alde bestea[n] *TAV* 83.
Edo icussi daigunean gueure buruau neçesidaderen baten Cap 23.

Dena dela, bizkaiera zaharrean ez dira, *baten*-en nagusitasuaren gorabehera, *batean*-en adibideak falta:

Bear dogu persinedu edo santiguedu peligruren batean gagozanean [...] ta tentaciñoe deunguereenbatec afligietan gatuzenean *VJ* 3.
Veguiratu neguion ta egumbatean / Errencore (andiac erneçitean) *TAV* 122.
Ecussico doçu laster batean / nola çorretaric vrten doquean *EgiaK* 89.
Sinisetandot Jangoico bacar batean, eta iru Persona distinto edo bana Jangoico batean direanac Cb *CatV* 95.
Jangoico en Legue en contra gauza astun edo andiren batean Cb *CatV* 51.

XIX. mendearen hasieran bizkaiera literatur euskalki bihurtu zuten idazleen lanetan *baten* agertzen da, erruz agertu ere, bai Markinako Taldekoetan, baita ere Añibarrorengan. Salbuespen bakarrak Añibarroren bi *batean* dira, bata *ao batean esan lei* (EL[1] 228) eta bestea *beingo batean* (*LoraS* 88; gainerakoetan *beingo baten* erabiltzen du) esapidean. Laudioko Kristau ikasbidean (1828) ere *baten* aurkitu dut. Orobat, mendearen erdi aldean Markinako ereduaren jarraitzaile den Uriartek *baten* erabiltzen du bizkaierazko lanetan. Baina Eusebio Azkuek 1860 inguruan ondu zituen olerkietan biak erabiltzen ditu, nahiz *baten*-ez gehiago baliatzen den. Iturzaeta otxandiarrak ere biak erabiltzen ditu, baina askozaz ere gehiago *baten batean* baino.

XIX. mendearen amaieran gertatzen den bizkundearekin batera, askotan ikusten hasten da *batean* aldaera literatur bizkaieran, Arrese Beitiaren bertsotan esaterako, eta Agirreren bizkaierazko eleberrietan gaina hartzen dio *baten*-i maiztasunean. Baina Azkue eta sabindarren *hiperbizkaiera*zko testuetan atzera egiten du berriro. Horrela, Azkueren *Bein da betiko* (1893) eta *Batxi Guzur* (1897) irakurgaietan, edo Kirikiño, Lauaxeta, Otxolua, Eguzkitza edo Joseba Altunaren idazlanetan badirudi ez dela *batean*-ik agertzen, baina ezta ere Etxeitaren *Josetxo* eleberrian. K. Enbeitak gutxitan erabiltzen du, eta errimak edo neurriak hartaraturik beharbada. Orixeren *Tormesko itsu-mutila* bizkaierazko itzulpenean, aldiz, paretsuan agertzen dira biak.

Gerraondoko testuetan, herriren bateko hizkeraz idatziriko iragurgaietan —L. Akesoloren *Ipiña ta ipiñatarren barri* Arratiako hizkeran idatzian, edo T. Etxeberria eta J. San Martin *eibarrera*zko liburuetan— *baten* besterik ez dut aurkitu. Baina orduko idazle nagusienak, Gandiaga, Erkiaga edo N. Alzolak, biak erabiltzen dituzte, eta *batean*-i erabateko nagusitasuna emanez. F. Bilbaoren *Ipuin barreka*-n, aldiz, nagusitasuna beste aldera makurtzen da erabat. B. Enbeita bertsolariak biak erabiltzen ditu. Amaitzeko, Oskillasok *Kurloiak* irakurgaian proposaten duen euskara batuan *baten* eta *batean* erabiltzen ditu, bigarrena lehena baino maizago, antza denez.

2.1.2. Gipuzkeraz, goi-nafarreraz, Baztango euskalkian, zaraitzueraz eta erronkarieraz, *batean* (edo *batian*) da lehen testuetatik hasi eta gaurdaino agertzen den forma bakarra[4]:

(4) Salbuespena, idazle euskalkiz bizkaitarren gipuzkerazko testuak dira, non *batean* eta *baten* nahaste agertzen baitira. Orobat badira *baten*-en agerraldiak Urola aldeko idazle batzuengan, J. I. Arana eta N. Etxaniz azkoitiarrengan, esaterako.

Adicera ematen draugu nola Christo gure Iauna lotu çuten cuerdes pilarebatean non açotatu bayçuten Ber *Trat* 11 r.
Igo eziñ ditekean argi-leku batean Lar *SAgust* 12.
Manatucizun eser cezayela calabozo batean obligaeraciceco vere consentimentraren ematra ETZ 162.
Siñestea Yaungoico guziz poderoso batean *CatB* 16.
Leina, ssinestia Jangueico guciuen poderoso solo batian *CatR* 11.

2.1.3. Iparraldeari dagokionez, Etxeparerengan bitan agertzen da *bat* izenondoa *non* kasuan, eta bietan *batetan* forman. Leizarragagan ere beti *batetan* forman agertzen zaigu, salbuespenik gabe:

Eta ioanic sar citecen Samaritanoén burgu batetan Lc 9, 52.
Eta nehorc oihal pedaçu latz-bat eztu iosten abillamendu çar batetan Mc 2, 21.
Embarca guentecen Alexandriaco unci islán negua iragan zuen batetan, ceinec [...] Act 28, 11.
Gau hartan biga içanen dirade ohe batetan: bata harturen da, eta bertzea utziren Lc Lc 17, 34.
Guciak ciraden gogo batez leku batetan berean Act 2, 1.
Ezen gu baicara anhitz, oguibat gara eta gorputzbat: zeren guciac ogui batetan participant baicara 1 Cor 9, 17.
Bi parra-chori eztirade dirutcho batetan saltzen? Mt 10, 29.

XVII. mendeko lapurtera klasikoan, Etxeberri Ziburukoak eta Gazteluzarrek, antza denez, beti *batean* erabiltzen dute; ez dut horiengan *batetan*-en agerraldi bakar bat aurkitu. Orobat, Mongongo Dasanzaren *Laborarien abisua*-n eta *Itsasoko nabigazionea*-n *batean* (edo *batian*) besterik ez dut idoro. Argaiñaratsen *Deboten Brebiarioa*-n *batetan* bat (*hunetan*-ekin errima egiten) eta 13 *batean* aurkitu ditut. Silvain Pouvreauren obretan, aldiz, *batetan* da nagusi: aldaera horren 36 agerraldi idoro ditut aztertu ditudan liburuetan, *batean*-en 6ren aldean. Axularrengan paretsu dabiltza bi aldaerok: 18 *batetan* eta 17 *batean,* kontuak gaizki egin ez baditut[5]. Dirudienez ez da bien artean bereizkuntzarik erabileraren aldetik:

Orduan bide on batean iartcera eta fincatcera deliberatuqui deliberatuco dut Ax 51
Eta guero bicitcen zen baque handi batetan Ax 31.
Ezta aitcinatcen, eta ez guibelatcen, bethi dago egoitza batean. Crozca batean Ax 600.
Ceren oraiño, pena hec [...] egonen baitira bethi ere estatu batetan, egoitza batetan Ax 600.
Egun batez, compaiñia on batean, euscaldunic baicen etcen leccuan nengoela Ax 15.
Ediren baitcen egun batez hartçaz gaizqui mintço ciren compaiñia batetan Ax 313.

Materreren liburuan eta Oihenarten atsotitz nahiz neurtitzetan ez dut ez bata ez bestea aurkitu. Belapeire zuberotarrari dagokionez, beti *batetan* erabiltzen du.

(5) Gauzak horrela, badirudi Villasante 1972, 47ko "Axular, empero, lo emplea [*-ta-* artizkia] regularmente (aunque no siempre)" delakoa ez dela errealitatearen deskribaketa ona. Orobat hurrengo paragrafoan "[*batez*] en los dialectos orientales sigue vivo, y nosotros deberíamos restaurarlo" dioenean, hegoaldeko literatur tradizioan, zaharrean, berrian eta oraingoan *batez* erabat ohizkoa baita.

XVIII. mendean ia erabat desagertzen da literatur lapurteratik *batetan* aldaera. Behin bakarrik aurkitu dut Haraneder-gan (9 *batean*) eta Churiogan (21 *batean*), eta testuinguru berezi batean: *ere* aurrean ezezko esaldian:

> Eciñ causituco dut consolacioneric gizon iaquiñsunen liburutan [...], ez segurantçaric lekhu batetan ere zeroni ezpaçare adisquidea Ch *Imit* III 59, 3.
> Haiña hutx batetan-ere ez-litequela eror He *Gudu* 43.

Etxeberri Sarakoarengan, Larregigan eta Baratziartengan *batean* aurkitu dut beti, Larregigan 51 aldiz, adibidez. 1733an argitaratu zen *Baionako diozesako bigarren katixima*-ri dagokionez, Aita Villasantek prestaturiko edizioko hiztegian *batean*-en lau agerraldi adierazten dira eta *batetan* ez da aipatzen. Salbuespen bakarra Mihura da, hamar *batetan* eta bi *batean*-ekin. Amikutzeko hizkeraren lekuko-edo zen 1780 inguruko *Katixima*-n bost *batetan* eta hamar *batian* aurkitu ditut.

Zuberoko tradizioan Maisterrek beti *batetan* dakar eta orobat Mercy-k. Egiategigan *batetan* nagusi da, baina *batian* bat edo beste ematen duelarik.

XIX. mendean, lapurtera edo behenafarrerazko idazleengan *batean* (edo *batian*)-en 465 agerraldi aurkitu ditut, eta *batetan*-en hiru, bata Goihetxerengan (*uretan*-ekin errima egiten), bestea Duvoisinengan eta hirugarrena Hiriart Urrutigan (Lafitten edizio-huts bat ezbada). Zuberotarren artean, berriz, *batetan* erabat nagusi da: bakarra Etxahun eta Artxugan, *Uskara Libru berria*-n, *Xarlemagne* pastoralean, 1872ko *Katixima*-n eta *Uskal Noelen Lilia*-n. Intxauspe da *batean*-en zenbait adibide (sei gure zenbaketan, *batetan*-en 34ren aldean) dakarren bakarra.

XX. mendeari dagokionez ez dut *batetan*-en agerraldi bat ere aurkitu zuberotar ez diren iparraldeko idazleengan. Hala dio Pierre Lafittek (1962: 107):

> Cependant aux cas locatifs les modernes tendent à ne pas employer l'indéfini; ils ne distinguent plus entre: etche batetan 'dans une maison', et etche batean 'dans l'une des maisons'; etche batetarik 'd'une maison' et etche batetik 'de l'une de maisons'; ils disent toujours etche batean, etche batetik. C'est dommage[6].

Mende honetako zuberotar idazle bakanen artean, aldiz, *batetan* erabat nagusi agertzen da. Dena dela, badirudi Zuberoko idazleek Iparralde guztirako idazten dutenean *batean* erabiltzen dutela. J. L. Davantek, *Herria* aldizkariko idazlanetan, esaterako.

2.1.4. Laburpen gisa, Mateoren ebanjelioko pasarte bat (27, 59) nola itzulia izan den mende eta euskalkietan zehar erakutsiko dugu:

> Eta gorputza harturik Iosephec mihisse churi batetan barna eçar ceçan (Leizarragak 1571ean).
> Harturic bada gorphutça Josephec, eçarri çuen mihisse churi batean barna (Haranederrek lapurteraz 1750 inguruan).
> Beraz Josephec hartu çuen gorphutça eta inguratu çuen mihise churi batean (lapurterazko *Testament berri*an 1828an).
> Joséfec hártu zian khorputza eta mihise chouri batétan ungurátu (Intxauspek zubereraz 1856an).

(6) Dena dela Lafittek berak *batean* bakarrik erabiltzen du, aztertu ditugun idazlanetan bederen.

> Eta Josephec artuïc gorputza, inguratu zuen maindire churi batean (Etxenikek baztaneraz 1857an).
> Eta arturic gorputza, Josec bildu zuen maindire garbi batean (Uriartek gipuzkeraz 1858an).
> Eta gorphutza harturik, mihise churi batean inguratu zuen Josepek (Duvoisinek lapurteraz 1859an).
> Josefek bada artan ziolarik Jesusen korpiza, ungurukatu zion mantre sain batian (Hualde Mayok erronkarieraz, J. Estornes-en letraldatzearen arabera, 1860 inguruan)
> Josèc bada, artzenzuelaric Jesusen corputza, inguratucizun mandre ssau batean (Senper-ek zaraitzueraz 1869an).

Haraneder-en itzulpenaren Harrieten argitalpen eraberrituan, Salaberriren behenafarrezkoan, Olabide eta Leonen itzulpenetan *batez* ematen da, eta Kerexetaren 1976ko bizkaierazkoan *miesa garbi bataz.*

2.2. *Bat* nora eta nondik kasuetan izenondo gisa.

2.2.1. *Non* kasuan ez bezala, kasu hauetan bat datoz bizkaierazko eta gipuzkerazko literatur tradizioak: salbuespenik gabe *batera* eta *batetik* (edo *bateti, baterik*) erabiltzen dira berorietan, eta orobat baztanerazko, goi-nafarrerazko, zaraitzuerazko (*bateala*)[7] eta erronkarierazko (*batra*) testuetan.

2.2.2. Iparraldeko tradizioari dagokionez eta idazle ez zuberotarren artean, *nora* eta *nondik* kasoen bilakaera ez da izan historian zehar *non*-arena bezalakoa: nabarmenki gehiago iraun dute kasu horietan forma mugagabeak. Horrela, dirudienez *batetan* erabiltzen ez duen Etxeberri Ziburukoarengan lau *batetara* aurkitu ditut eta bi *batera,* eta bi *batetarik* eta *batetik* bat (testuinguru erabat "mugagabe"an hain zuzen: *Alde batetic tentatu duenean Etsaiac, / Alabaiñan irabaci ez deus enganariac, / Berce alde batetara itçultcentu harriac* Man I 51); orobat Axularrengan, hamaika agerraldi mugagabe eta hiru mugaturekin. Areago S. Pouvreaugan, zeinak, non kasuan ez bezala, forma mugagabeak (27 agerraldi) bakarrik agertzen bait ditu *nora* eta *nondik* kasuetan. Salbuespen bakarra Gazteluzar bide da, baina agerraldien urritasunak ez du uzten ondorio finkorik ateratzen.

Antzeko zerbait aurkitu dut XVIII. mendeko autore gehienetan. Adibide gisa Larregi aipatuko dut. *Testamen zaharreko eta berriko historioa*-ren egileagan, esan den bezala, 51 *batean* aurkitu ditut eta *batetan* bat ere ez; *nora* eta *nondik* kasuetan aldiz 28 *batetara(t)* eta 11 *batera(t)*, eta 11 *batetarik* eta *batetik* bakar bat. XIX. mendearen erdialdera badirudi forma mugagabeen kopurua jaitsi egiten dela, erabat desagertu gabe, dena dela. Baina mende honetan *batetara(t)* eta *batetarik* formen berpizkunde bat gertatu da. Horrela, aztertu ditugun testuetan 37 *batetara(t)* eta 17 *batera(t)* aurkitu ditut, eta 29 *batetarik* eta 30 *batetik.* Autore gehienek bi motetako formak erabiltzen dituzte, bata adina bestea eta, antza denez, nahaste, J. Barbier-en adibide honek erakusten duenez:

> [Jaun Errientak] choria aldachka batetik bertzera bezala, elhe batetik bertzera, gogoeta batetik bertze gogoeta batetara (Sup 3).

(7) *Ceren vecatubatec inclinacendizu gure apetitoa verce vecatubateala* (ETZ 164), esaterako.

Bi motak, mugatua eta mugagabea, berdintsu erabiltze horretan salbuespen bat dago batez ere, Barbier-ena hain zuzen, 16 *batetara(t)* eta 3 *batera(t)*-ekin. Honi zor zaio batez ere *nora* kasuko bi aldaeren arteko alde (37/17) nabarmena. Azken urteotan badirudi forma mugagabeen maiztasuna asko jaitsi dela berriro. Horrela, 1977ko 800.000ren bat testu-hitzetako erakusgarri batez baliatuz moldatu nuen *Maiztasun Hiztegi*-an *non* eta *nora* kasuetako 23 agerraldi mugatu eta 4 mugagabe agertzen dira Iparraldeko testuetan.

2.3. *Batean* esapideetan.

Oro har, badirudi *bat*-en leku-denborazko forma atzizkidun batez eratzen diren esapide nolabait fosildutzat-edo har daitezkeenetan (*behin baten / batean* esaterako) autore bakoitzak esaldi normaletan erabiltzen duen forma bera erabiltzen duela, hots *baten* erabili ohi duenak *behin baten* idatziko duela, eta *batean* erabiltzen duenak *behin batean*[8].

Dena dela badira zenbait salbuespen nabarmen. Nabarmenena, Irigoyen irakasleak (1978: 573) adierazten duen bezala, *-ekin*-ek (edo *-gaz*-ek) burutzen duen izen-sintagma baten ondoan *batean* agertzen dela garai eta euskalki guztietan, Leizarragaren *Çoure dohain-onetaco haour Iaun Andrequin batean* (Dedic *7 r) adibidean agertzen den arabera.

Horrelako ehundaka adibideren ondoan bat bakarra aurkitu dut *batetan*-ekin eratua: *Jesus Jaunaren sacrificioareki batetan* Belapeire (I 120) zuberotarrarengan.

3. Mugatasuna eta mugagabetasuna euskaraz.

Artikulu honen bigarren partean aztertu ditugun kasuetan *batetan, batetara, batetatik* formak literatur tradizioan berrezartzearen alde agertu direnek argudio bera erabiltzen dute, hots, egoera horiek mugagabeak direnez gero forma mugagabeak erabili behar direla berorietan. Argudio hori uste faltsu batean oinarritzen da. Izan ere gauza bat da mugagabetasunaren *nozioa* eta beste bat nozio hori zein eratako formez gauzatzen den. Esaterako filme baten bukaeran ematen den nozioa ingelesez adina mugatua edo mugagabea da gaztelaniaz; hala ere ingelesak *The end* mugatuaren bidez ematen duen bitartean gaztelaniak *Fin* mugagabeaz ematen du. Gaztelaniaz *voy a casa, voy al monte* bezain mugatua edo mugagabea da, mugatzailearen gorabehera, eta *voy a casa de Juan*-en dagoen "mugatasun-gehitze"ak ez dakar *la* mugatzailearen ezarpena; bai, ordea *está en palacio* ("erregeren jauregian") / *está en el palacio del Marqués de X*-en. Era berean latinaren dialekto batean *voy a la escuela* esaten dena beste batean *vaig a escola* esaten dute, eta ez katalanen eskolak mugagabeagoak dire-

(8) *Bat batean*-i dagokionez ere, *bat batetan* zuberotarrek soilik erabiltzen dute (kontuan har bedi Iparraldeko autore zaharrak ez direla esapide honetaz baliatzen), eta *bat baten* azken ehun urteetako zenbait idazle bizkaitarrek. Gainerakoek *bat batean* erabiltzen dute. Bada salbuespen bat itxuraz bederen harrigarria, gipuzkera klasikozko zeinbat idazlerena, zeinek *batean* izenondoa inoiz ere erabiltzen ez dutelarik *bat batean* eta *bat batetan* nahaste erabiltzen baitituzte. Orobat, 'a la vez, al mismo tiempo' itzul daitekeen esapidea *batean* forman ematen da literatur tradizioan. Salbuespenak, kasu honetan, Axular, S. Pouvreau, Maister eta 1782ko katexima zuberotarra dira, eta *bat batetan* erabiltzen duten idazle gipuzkoarrak. Bidenabar, *bapatean* aldaera *-p*-duna azken 60 urteetako hegoaldeko zenbait idazlek bakarrik erabili izan dutela gogoarazi nahiko nuke.

lako. Berdin *meter en agua* eta *mettre dans l'eau* etab, etab. Eta kontua ez da batak "ongi" eta besteak "gaizki" egiten dutela, igoaleko ongi edo gaizki egiten dute guztiek, definizioz. Orobat euskaraz euskalki batzuetan *urean* edo *gauaz* eta beste batzuetan *uretan* edo *gauez* esaten dela eta, ez dago zuzenen eta okerren bila abiatu beharrik[9]. Beste gauza bat da batasuna dela eta bat aukeratu beharko dela *standard*erako; hautapena dena dela beste irizpideen arabera egin beharko da, ustez baztertua genuen "logika"ren ifernuan berriro erori nahi ez badugu. Bestalde, denok dakigun bezala, euskaraz gehiago eta areago erabiltzen dugu *-a* mugatzailea inguruko erdaretan baino. Horrek ez du esan nahi, noski, nozio mugatuez baliatzeko joera handiagoa dugunik, baina gure literatur tradizioan *batean* eta horrelako *forma* mugatuetaranzko bilakaera nabarmenaren arrazoia argi dezake.

Inork ez du zalantzan jartzen euskaraz izen-sintagma mugagabeak badaudela. Baina falta zaiguna mugagabetasun horren deskribapen zehatza da, zeren badirudi sintagman adierazten dena hiztunekiko ezagun izanaren irizpideak ez dituela, ez hurrik eman ere, kasu guztiak esplikatzen. Deskribapen horren ezean, gure aurreiritzien arabera, euskal deklinabidean gertatzen diren sinkretismoen laguntzaz, agerraldi konkretuak *interpretatzera* jotzen dugu, eta hain zuzen hori da arazoa ez argitzeko biderik egokiena[10]. Adibide bakar bat jartzeko, Leizarragaren (Mt 10, 5) *Gentiletarát etzoaztela, eta Samaritanoen hiritan etzaiteztela sar* esaldian zergatik ez *Samaritanoren* edo, batez ere, zergatik ez *hirietan?* Izenlagun mugatuak zergatik ez du izena mugatzen kasu honetan? Zein kasutan mugatzen du? Gertatzen dena, esaldi horretan *ezein* edo horrelako zerbait ezabaturik dagoela baldin bada, zein dira ezabaketa horren legeak? Eta pasarte horren gainerako itzultzaile guztiek zergatik ematen dute *hiri* mugatuan? Nor dabil "oker"? Eta benetan axola duena, zein eredu har euskara batuan?

Txillardegik (1972, 43) beste arrazoi bat ematen du *batetan, batetara, batetatik* formak literatur tradizioan berrezartzeko: forma mugatuak gaztelaniaren eraginaren ondoriozkoak direla. Arrazoia kontuan hartzekoa iruditzen zait, baina beldur naiz ez ote den kasu honetan, idazleak bere iritzira biltzeko argudio frogaezin —edo errealitatearen kontrako— bat besterik. Izan ere *beste*-ren agerraldi mugatu baten eraginpeko *bat*-en forma mugatuak —*bata, batari, bataren...*— Iparraldean galdu dira batez ere, hots, hizkuntza menderatzaileak *forma* mugatua —*l'un (et l'autre)*— erabiltzen duen eremuan, eta Hegoaldean —*uno (y el otro)*-ren eremuan— mantendu, hain zuzen ere. Eta *batetan*-i eta dagokionez, nola izan daiteke *gurutze batean hil zen* "mugatua" gaztelaniazko *murió en una cruz*-en "mugagabearen" kutsadura?

(9) Ezta ere inoiz inon egin ez diren bereizkuntzak egiten hasi beharrik. Esaterako *EGLU* 352h-n idarokitzen dena, hots, *Iturriko urean busti ditu behatzak / Apaiza blei-blei egin da uretan,* "egungo egunean ere euskaldunik franko"k ("eta horien alde dago antzineko idazleen ohitura"), egiten omen dutena. Egia esan ez dakit "egungo euskaldun" horiek nor diren, baina argi dago "antzineko idazleen ohitura" ez zela hori: forma bat edo bestea erabiltzen zuten, mugatasun-bereizketarik egin gabe. Orobat Villasante 1972, 15-eko "*Egunez* (de día) y *Egunaz* (con el día)", interpretazioa, estatistikaren bidez froga daitekeenez, aurreiritzi bati kostarik kosta eustearren gauzak bere onetatik ateratzea besterik ez da.

(10) Era berean, eta aipatu berri dudan arrazoiagatik, erabat arriskutsua iruditzen zait, noiz erabili behar den mugatua eta noiz mugagabea erabakitzeko, gaztelaniak egiten duenari begiratzea. Esaterako, gaur egun, ia literatur tradizio osoaren kontra, hainbeste ugaldu den *baketan utzi* horren azpian dagoena erdarazko *dejar en paz* da eskierki.

Neretzat *batetan*-en desagertzearen arrazoia beste bat da eta ez du zer ikusirik inguruko erdaren inongo eraginekin: azaldu dugunez bi paradigmak ez ziren askeak edo beregainak, eta hizkuntza, ekonomiaren hatsapenaren arabera, erredundantzia hori baztertuz joan zen. Forma mugatuak ezin bazter zitezkeenez gero (*harekin batean, (alde) batetik bestera* etab. zirela medio) forma mugagabeak izan ziren baztertuak.

4. Amaitzeko.

Iritziak iritzi, bada gauza kezkagarri bat aztertzen ari garen arazo honetan. Adierazi dugun bezala *bat*-en forma deklinatuen batasuna erabat bideratua zegoen lekudenborazko kasuetan euskara batuaren finkatzea hasi zenean. Orduan, uste gutxienez eztabaidagarrien bidez, eta argudio badaezpadako edo baieztapen errealitatearekin bat ez zetozenen bitartez[11], alde batetik batasun hori hautsi egin zen batasunaren izenean, eta bestetik, mantentzen gero eta zailago den Iparraldeko idazleekiko bateratasuna apurtu zen. Horrela 1977an, *Maiztasun hiztegia*-ko datuen arabera, Iparraldeko idazleek "lege zaharrari" eusten zioten bitartean (*batean*-en 83 agerraldi *batetan*-en biren ondoan), Hegoaldekoak bitan banatuta agertzen ziren (516 *batean*, 503 *batetan*-en ondoan). Uste dut badagoela zifra hauetan eskarmentu hartzeko nahikoa gai geroari begira.

Aipaturiko idazlanak.

EGLU 1985, Hizkuntz batzordea. Euskaltzaindia. *Euskal gramatika. Lehen urratsak.* Iruñea.
Irigoyen, A., 1978, "Deklinabideaz". *Euskera* XXIV, 2: 737-759.
Lafitte, P., 1962, *Grammaire Basque.* Baiona.
Txillardegi, 1970, *Sustrai bila.* Donostia.
————, 1977, *Oinarri bila.* Donostia.
Villasante, L., 1972, *La declinación del vasco literario común.* Oiñati.

(11) Adibidez Txillardegik (1977: 43): "Horrelaxe [*batetan, batetara, batetatik* etab.] deklinatzen zen lehen; eta horrelaxe deklinatzen da oraindik ere lapurteraz, baxenabarreraz eta zubereraz".

Atzizkiak izen kente bilakatzen direnean zubereraz

TXOMIN PEILLEN
(PABE)

Adieraziaren bospasei sailetan zubererak hizkuntza jokabide bereiziak baditu: 'eduki-ezeduki' 'gustatu-ezgustatu' 'leku', 'neurri', 'geroaldi', alorretan, alegia atzizkiak; aditz, izen, izenlagun bilaka ditzakeela, gehienetan atzizki iturria (?) moztu gabe.

1. Gastronomia sailean

Itsasaldean hasi zen eta Iparralde barneko gazteen artean erdal kutsu bat hedatzen ari da, zeren frantsesari berdin zaion aditzetan 'j'aime ma femme', *emaztea maite dut* eta 'j'aime le fromage' *gazta on zait* eta 'j'aime ce spectacle', *ikusgarri hau gustatzen zait*. Zehaztasun-ez hori ta hizkera nahasketa hau euskarara igaro da:

gazna maite dut, kantu hori maite dut

egunero hizketetan eta irratietan entzuten bait dira; bai jendeez mintzo ez direlarik ere, gauzez diote 'maite dituztela'.

Zuberoan, kutsu hori ez da gehiegi sartua —noiz arte?— eta hain zuzen baliapide ugari daukatelako horien adierazteko; noski, euskaldun askoren moduan badakite, *gustatzen zait* eta *hon zait* erraten, baina atzizkiz eta atzizkietatik ateratu hitzez baliatzen dira, nabarduren adierazteko.

1.a. *-khoi,-koi,-oi*

Atzizki gisa ez da Zubereraren berezitasuna, nahiz eratorrizko hitz ainitz eman dezakeen, euskalki horretan.

ardo + koi: ardanoi ('ardozale porrokatua')
aragi + koi: ark(h) oi ('aragiari biziatua')
gatz + gatzkoi ('gatzari emana')
lürkoi ('haur lur jalea')

Gaitzespen nabardura du atzizki horrek.

Atzizkitik aditzera igaro da, agian, *khoitü, koitü* sortuz eta *izan*-ekin erabiltzen dena:

koi zira? Bai, koi nüzü (niz, nün, nük)

1.b. *-kari,-ari,-zale*

Lehen atzizki *k* epentesisdunak gutxi gora behera 'zale' esan nahi du, gaitzespenik gabe, baina bakarrik gastronomiaz hitzegitean[1]; hemen bisemia batek atzizkia baztertuxe du erabilera batean, zeren *eznekari* gehienetan *esneketari* baita 'saltzen edo erosten duena esnea'; berdin *ardukari.*

Halere atzizkia hitz bilakatzen delarik, ez du sekulan sal-eroste adierazirik, *kari* ('zale'), *karitü* ('zaletu')

> Kari zira? Bai hanitx kari nüzü, ardü
> hatsarrean ez zitazün hon, orai karitü nüzü.

Igurukitzen zen, beharbada, gipuzkeraz bezala zubereraz, *-zale, zaletu*-rako pausua emango zela, baina ez da hala gertatu, nahiz zuberotarrek atzizkia ezagutu, adierazgarritasun arazoa sortuko baitzuen, euskalki horretan *zal(h)e,* 'laister', baita.

Beste euskaldunen adieraziarekin darabilate *arduzale, hurzale, goxozale* eta holakoak gaitzespenik gabe, baina gorago *-kari* ikusi baitugu ez ditu zuberotarrak *-zale* ta *-kari* beti bereizten eta dio *arrantzale,* ta *arrantzükari* (batzuen ustez *arrantzükaria* da, mementoan ihardun horretan ikusten dena, *arrantzalea* berriz asko emana dena horretara).

Zubereraz ez baita *-zaile* ta *-zale* bereizten *mintzazale, elestazale* hitzek ez dute esan nahi gorago ikusi bezala, gustoarekin eta atseginez egiten dutela baina *-zaile, -le,* norbaitek egiten duela baizik[2].

Atzizki legez *-kari* polisemiaduna da eta *-ari*-rekin aldikatzen, txandakatzen da, hirurgarren sektoreko ihardunak adierazteko: *dantzari, kantari, pelotakari, koblakari, kartakari, jokülari* baina beste alor batetan ere *-ketari*-ren ordezko, lehen sektoreko lantxoetan, urte guztiko daitezken lanetarako: *bedakari* ('belar egile', 'itzultzaile'), *zurkari, egürkari, harrikari, iratzekari* ('garo biltzaile') *onddokari* eta holako. *Ketari* ordea, ez da zubereraz agertzen.

Ari noski, euskara gehienean bezala, atzizki izatetik aditz izatera igaro da, eta esangura zabala dauka, norbaitek galdetzen badu: *zer a(r)i hiz?* Ez du galdetzen bakarrik zer lan egiten duen, baina zernahi egiteko delarik ere paseatzea, etxera sartzea, geldirik egotea, pentsamendukan izatea eta abar. Hain zuzen *ari*-k bere zentzu zehatzagoa bildu behar badu, zubereraz *aktore* esateko *arizale* bitxia sortu digu[3].

(1) Zubereraz *k* ez da epentetikoa, *-ka* atzizkiak eman du *-kari.*

(2) Halaz ere *-zale* baino gehiago *egile-gile* erabiltzen da bigarren sektorean 'gauza bat egiten duenaren' aipatzeko: *oskigile* ('zapatain'), *espartinegile* ('abarketagin') *ogiegile, ehüle* ('ehun egile') eta holakotan. Atzizki gisa *-gin* gutxi dago zubereraz: *hargin, emagin/emagintsa,* hala norbaitez mintzo esaten da, gero lanpidearen aipatzeko, noski, zubereraz *-goa* gaineratu behar da: *oskigilegoa, hargingoa* eta abar.
Gero lanpidez ala ez norbait zerbaiten egiten ari delarik *-kari* erabiltzenago da, gorago ikusi moduan.

(3) *Ari*-ren kasuan, eta ez atzizki baita aditz gisa zubereraz erabiltzen delarik muga hestu batzu dauden auzo euskalkietan ez daudenak (ik. L. N. *aritu, ari izan, aritzen, aritu/ariko*) zubereraz zerrenda hau dago:

> iraganaldian: *erauntsi dü*
> orainaldian: *a(r)i da*
> geroaldian: *a(r)iko da*

Kontuz bokalarteko *r* ez da gehiago ahozkatzen.

Erauntsi-ren kasua bitxiago da, zeren ez baita atzizkia ta *ari*-ren lekua har dezakeen; bere beste adierazia haro ta eguraldi hiztegian aurki genezake: *el(h)ür erauntsi, ebi erauntsi, harri erauntsi, barazuza* edo *tzitzer erauntsi. Erauntsi*-ren erabilera bikun horrek suposa lezake, eguraldiaren aldaketak norbaiti egoizten zaizkiola, *egile* bat daukatela erabileraz, *ari* baina mugatuago da[4].

Erauntsi eta *ari*-ren sema berdinen artean egiteko baten errepikapena balegoke, zeren euriak iraupenezko izatea baldin badu, halaber *erauntsi* ('gelditu gabe hitzegin L.') eta ('gelditu gabe kanpaiak, musikak jo'). Halere *erauntsi-k*, 'jasa, zaparrada, indriska' adierazia baldin badu ere horrek ez du baztertzen, *ebia ari da* esatea[4]. *Erauntsi*-ren konotazio horrek, beharbada, *iraun* aditzarekin zerikusia du.

Bai, *-ari* atzizkia latinetik etorria izateak ez du inolako garrantzirik, gure hizkuntzak mailegatzean bere egitura ta morfo-sintaxis legeak ez baititu hautsi ez eta murriztu, ia erabilera batzutan jatorrizkoarekin ez du asko ikustekorik[5].

1.c. Erdarazko 'que tiende a' 'qui a tendance à'

Adierazteko, gaitzespen arin batez, beste atzizkia daukagu euskaraz eta zubereraz ere bizi-bizirik dagoena, *-kor,* eta horrek ez du aditzik eman, orainarte, ez bait **kortu* aditzik agertu, baina bai

aholkor (*ahalgekor,* = 'lotsati'), *lotsor* ('beldurti')
jeloskor ('fidagaitz'), *mesfidakor* (*jeloskor*-en adierazkide), *hauskor* ('apurkor') eta abar.

Beraz, egituraren aldetik zubererak ez darakusa hor beregisakotasunik non ez den, hitz horiekin aditzak egitea, *jeloskortü, ahalkortü* erraztasun haundiz.

(4) Gero *erauntsi*-ren erabilera beregisakoa da, lehenik *ukan*-ekin baita, bigarrenik orainaldiaz kanpo, xedezko geroaldian erabiltzen baita: *erauntsi-gei.*

Ari-rekin berdin (ik. *nahi* eta abar) beti *izan* erabiltzen da, aditz nagusiaren araua kontutan hartu gabe, eta euskalki horretan ezin da esan.

**ebia ari dü,* baina, *ebia ari da.*

Kari, berriz, bi gisatara azter diteke *-(k)ari* moduan edo *-kari (ka + ari);* bigarrenaren jakile da zubereraz *-ka* atzizkia: *egürka, zurka, arrantzüka,* 'ekintzaren erakusgarri' eta *egürkara, zurkara, arrantzükara* 'ekintzaren norabidea' adierazten duena.

(5) Latinetik hartu dugunean *-ari* gure hizkuntzaren senera bildu dugu dakigunez espainierak ez baitu *trabajador* hitzetik **adorar* aditzik sortu, ez eta frantsesak *travailleur*-etik, **eurer* aditzik.

Zoritxarrez gaur erdara mailegatzen dugunean ez gara ez hitz, ez atzizkietara mugatzen, baina aintzinako idazle zabar, itzultzaile baten lumapean aurkitzen delako gurea ez den morfosintaxisa onartzen halaxe geroago eta gehiago *erdal eredura* esaten baitugu *modelo erderikoa* gogoan. Zorionezko *-al,* Iparraldean gutxi sartua zen eta zubereraz idazle txarrenen lumapean *korporal* eta *ispiritual,* eta naski *normal* dena normal irakurtzen baldin bazen, oraingo modaz erdal ereduz: gorputzaren zatiak, *zati korporalak* eta gorputzezko harremanak, *erlazio korporalak;* euskarak zeukan sorkuntza ahalbideak kurtsikeriaz moztu nahiz.

Gero galdera aspaldikoa, zergatik *-al* gaztelaniazkoa eta ez *-el* gehienetan frantsesak darabila —frantses ekoizpenen boikota bazter utzita— bata nahiz bestea entzuten dira euskara, *artifizial* eta *artifiziel* eta bigarrena ez da euskal fonetikaren etsaia, ezin jasanezkoa entzuten den bezala. *Al* euskaraz badago, baina *-ara*-tik dator. Larramendirengan hasita badira vasco-hispanistak euskara batuaren aitzakian *euskerdera* ematen digutenak orozgain, unibertsitari-ikasle jakintzaotsezko mordoilo horretan hitzegiten eta idazten digutenek. Ez ote da egokiago bizkaiera eta zubereraren aberastasunak biltzea —ez baitira hitzberriak— gaztelaniaren hiztegi guztia 'euskerdara' igarotzeko ordez.

Erauntsi-ren kasua bitxiago da, zeren ez baita atzizkia ta *ari*-ren lekua har dezakeen; bere beste adierazia haro ta eguraldi hiztegian aurki genezake: *el(h)ür erauntsi, ebi erauntsi, harri erauntsi, barazuza* edo *tzitzer erauntsi. Erauntsi*-ren erabilera bikun horrek suposa lezake, eguraldiaren aldaketak norbaiti egoizten zaizkiola, *egile* bat daukatela erabileraz, *ari* baina mugatuago da[4].

Erauntsi eta *ari*-ren sema berdinen artean egiteko baten errepikapena balegoke, zeren euriak iraupenezko izatea baldin badu, halaber *erauntsi* ('gelditu gabe hitzegin L.') eta ('gelditu gabe kanpaiak, musikak jo'). Halere *erauntsi-k*, 'jasa, zaparrada, indriska' adierazia baldin badu ere horrek ez du baztertzen, *ebia ari da* esatea[4]. *Erauntsi*-ren konotazio horrek, beharbada, *iraun* aditzarekin zerikusia du.

Bai, *-ari* atzizkia latinetik etorria izateak ez du inolako garrantzirik, gure hizkuntzak mailegatzean bere egitura ta morfo-sintaxis legeak ez baititu hautsi ez eta murriztu, ia erabilera batzutan jatorrizkoarekin ez du asko ikustekorik[5].

1.c. *Erdarazko 'que tiende a' 'qui a tendance à'*

Adierazteko, gaitzespen arin batez, beste atzizkia daukagu euskaraz eta zubereraz ere bizi-bizirik dagoena, *-kor*, eta horrek ez du aditzik eman, orainarte, ez bait **kortu* aditzik agertu, baina bai

> *aholkor* (*ahalgekor*, = 'lotsati'), *lotsor* ('beldurti')
> *jeloskor* ('fidagaitz'), *mesfidakor* (*jeloskor*-en adierazkide), *hauskor* ('apurkor') eta abar.

Beraz, egituraren aldetik zubererak ez darakusa hor beregisakotasunik non ez den, hitz horiekin aditzak egitea, *jeloskortü, ahalkortü* erraztasun haundiz.

(4) Gero *erauntsi*-ren erabilera beregisakoa da, lehenik *ukan*-ekin baita, bigarrenik orainaldiaz kanpo, xedezko geroaldian erabiltzen baita: *erauntsi-gei.*

Ari-rekin berdin (ik. *nahi* eta abar) beti *izan* erabiltzen da, aditz nagusiaren araua kontutan hartu gabe, eta euskalki horretan ezin da esan.

> **ebia ari dü*, baina, *ebia ari da.*

Kari, berriz, bi gisatara azter diteke *-(k)ari* moduan edo *-kari (ka + ari);* bigarrenaren jakile da zubereraz *-ka* atzizkia: *egürka, zurka, arrantzüka*, 'ekintzaren erakusgarri' eta *egürkara, zurkara, arrantzükara* 'ekintzaren norabidea' adierazten duena.

(5) Latinetik hartu dugunean *-ari* gure hizkuntzaren senera bildu dugu dakigunez espainierak ez baitu *trabajador* hitzetik **adorar* aditzik sortu, ez eta frantsesak *travailleur*-etik, **eurer* aditzik.

Zoritxarrez gaur erdara mailegatzen dugunean ez gara ez hitz, ez atzizkietara mugatzen, baina aintzinako idazle zabar, itzultzaile baten lumapean aurkitzen delako gurea ez den morfosintaxisa onartzen halaxe geroago eta gehiago *erdal eredura* esaten baitugu *modelo erderikoa* gogoan. Zorionezko *-al*, Iparraldean gutxi sartua zen eta zubereraz idazle txarrenen lumapean *korporal* eta *ispiritual*, eta naski *normal* dena normal irakurtzen baldin bazen, oraingo modaz erdal ereduz: gorputzaren zatiak, *zati korporalak* eta gorputzezko harremanak, *erlazio korporalak;* euskarak zeukan sorkuntza ahalbideak kurtsikeriaz moztu nahiz.

Gero galdera aspaldikoa, zergatik *-al* gaztelaniazkoa eta ez *-el* gehienetan frantsesak darabila —frantses ekoizpenen boikota bazter utzita— bata nahiz bestea entzuten dira euskara, *artifizial* eta *artifiziel* eta bigarrena ez da euskal fonetikaren etsaia, ezin jasanezkoa entzuten den bezala. *Al* euskaraz badago, baina *-ara*-tik dator. Larramendirengan hasita badira vasco-hispanistak euskara batuaren aitzakian *euskerdera* ematen digutenak orozgain, unibertsitari-ikasle jakintzaotsezko mordoilo horretan hitzegiten eta idazten digutenek. Ez ote da egokiago bizkaiera eta zubereraren aberastasunak biltzea —ez baitira hitzberriak— gaztelaniaren hiztegi guztia 'euskerdara' igarotzeko ordez.

Hirur kasu horietan, biek lege berdina jarraitu dute dirudienez.

-ari, ari, arizale: /-kari, karitu, kari.

-koi, koitü, koi.

atzizkitik aditzera (agian) eta aditzetik izenlagunera[5]. *K* fonetikalarien arauera epentetikoa dugu, eta batzutan atzizkitik etorritako hitzak gordetzen du; horregatik susmoa dut *k*-rekin hasten diren beste aditz edo izen batzu ez ote diren, atzizki jatorrizkoak, beste euskalkietan *era/kera, ente/kente* eta abar. Zer esanik ez *tegi/hegi, toki/hoki* badira zubereraz eta beste euskalkitan *alde/talde, arte/tarte*[6].

2. Xedezko geroaldia

Gei (e.b.-*gai*) atzizki erabiltzen da zubereraz ere: *apezgei* ('seminarista'), *bedezigei* ('mediku ikasle') *emaztegei, senargei,* euskaraz gehienetan ohi den egituraz baina *gei* hitz askatu bilakatu da, xedezko geroaldia hartuz gure euskalki honetan:

gei düt 'joaiteko gogoa dut'
geietan da 'joaitekotan dago'[7]

hemen *gei* izen egintzetan badago, 'destinado a' adierazizi itzul genezake morfo-sintaxisaren gatik

eskolarako geia dü: edo *eskolalako geitü dü*[8].

Erabilera honen gaia ez da maiz aipatu, nahiz. Zuberoatik kanpo Ekialdeko Benafarreraz badagoen.

Beraz joskera aldetik, ez balitz aski, Zuberotarrek zalantza bat izan dute, geroaldiaren erabileran: euskaldun gehienek analisikoak hartzen zituztelarik, *izan* ta *ukan* zubereraz *-te, teke,* itxurapean begiratu dira, gero beste aditzekin euskara orokorraren, *-ren* ta *-ko* analisikoak onartu, xedezko geroaldi horrekin nabardurak metatuz, Santa Grazin gorde diren moduan.

(6) Duda-mudan gaude, ordea, aditz batzuen jatorriaz ta atzizkiekin izan dezaketen askazitasunaz, bereziki semantika alor hurbileko daudenean, hala nola *xeheki/xehekatü* (Z.), *xehatu* (L.N.) alde batetik, *k(h)en, k(h)entü* (Z.) bestetik.

Xehatu, izenlagun den *xehe*-tik etorri liteke baina atzizki bat badago, 'txikitu, txiki', adierazi berdinarekin eta 'apur' bezala erabiltzen dena berdin barne-hizki gisa, *-xe, -txe.* Hemen ez dira gauzak hain argi *xehe*-ren jatorria L. Mitxelena jarraituz *xene/zene* bailitzateke; orduan, akitaniar *zeni,* euskara *zeinko, seinko* lizateke, gaurko *seintxu* (B.).

Ken -ekin erro gisa, eman genezake *-ke* atzizki gabetzailea, eta zubereraz lekukotasuna badu *ahalke* (lotsa) hitzean (ikus ere *dünthü* antonimoaren kasua).

Edukitasunaren alor horretan, *-kide, -kin, -kidin* ikusi behar dira.

(7) Morfosintaxia lagungarri zaigu adierazien bereizteko, hitza erabiltzeko, entzuteko garaian:

laneala gei dit: -ala + gei + Ø + ukan
lanealako geia da: -alako + gei + a + izan

Naski lehena itzul liteke 'tengo la intención' bigarrena 'está destinado a'.

(8) *Geitü,* aditzaren erabilera oso estua, hertsia da zeren derrigorrez *-ko, rako, -lako* behar baitu

semea etxeko geitü dizügü
arropa hori lanealako geitü dit

Beraz 'destinado a' adieraziarekin bakarrik erabiltzen da *geitü,* ez 'gogoa daukat' esangurarekin. Beraz *-rako geitü, -rako geia izan*-en aldaera da, lehena *ukan*-ekin bigarrena izanekin erabiliak.

Hitz horrekin *-ari*-rekin bezala ez gara, izenlagun eta izenera heldu, (ez da erraten **dün bat*, baina aditz batekin *düan bat/daukan bat)*. Halere erdi-pleonasma den hitz elkartua badugu (?) *ükendün.*

6. Lekukoak: *toki/hoki, tegi/hegi, pe/be*

Badirudi *(h)oki* ta *(h)egi* atzizkiek bide berdina segitu dutela eta *t* epentetikoa erabileraz bildu hala nola *ikas* + *etxe* = *ikastetxe*, *haritz* + *hegi* = *hariztegi;* Zuberoan ordea itxura zaharpean *hoki* eta *hegi* bizi dira

Hoki-k behintzat *toki*-rekin zerikusia dauka,

– *Ez nük ene hokian* ('ez nuk nere aldarte onean') Bitxi dena, *toki* hitz askatu bezala ez dago zubereraz nahiz hitz elkartuetan agertu: *ketoki, egürtoki, ihitoki;* ia beti teilaturik ez daukan, edo teilatua kontutan edukitzen ez duen lekua, 'lekü bat' adierazten du.

Hegi-k izenkideak ditu zubereraz, *muñoa* adierazi batekin, *muga* adierazi batekin *(Nafar hegia)*, baina *heipe* itxurapean, enparantza baten inguruko portikua adierazi nahi du. Gehienetan *tegi* teilatudun aberetegi eta jendetegia da: *behitegi, arditegi, xerritegi.*

Tegi soila agertzen da zubereraz, *thegi* itxuraz eta egoitza esan nahiz[11]. *Pe*, atzizki ta hitza ta zubereraz, azken kasu horretan 'behera, behealdia, bekoaldi'-ren lekuan

Pe hortan 'hor beherean'
Pekoa 'beherekoa'

Zeren *behera* zubereraz baita 'bekoalderantz, beheiti'. Bestalde naski, atzizki bizi haundia dauka: *bürüpe, besape, zankape, üzküpe, esküpeko, ohepeko, mahainpeko, mendipeko* eta holako.

Ondorioz

Lehenik esan behar da, ezaugarri horiek zubereraz kanpo, beste atzizkirekin gertatzen direla, jakina, hala nola gipuzkeraz eta euskara batuan: *-zale* eta *zaletu, zioak, tasunak, kerak* eta abar.

Agian, euskaratik kanpo beste hizkuntza askotan gertatzen da, ez da gaurko gaia.

Atzizkiekin, ezagutzen ditugun neurrian eta zahartasunean, bizpalaur joera daude:

1. Hitz askatuak ematea, aditz, izenlagun
   (*Zaletu*, (G.) *koitü, karitü, gei* (Z.)
2. Hitz askatu baina izena ere
   (*Zio, tasun, kide* (G.) *hoki, hegi* (Z.) *khide, khente* (Z.).
3. Aditza bakarrik
   (*Düntü, khentü* (?) (Z.) *Ari*(d).

gero ez da erraza esatea zenbateraino hitz askatuak diren *arte/tarte, aro/haro, alde/talde, -bera/bera* eta ez ote ditugun aitzizki izandakoen artean sartu behar.

(11) *Thegi* erabili da, elkarte egoitza esateko XIX mendean (ik. gaurko *euskaltegi*) eta Harginbeltzen 'loge' delakoak aipatzeko (*Ziberoako almanaka*, 1897, *Uskaldünaren güthüna*, 1895); gaur; *thegiak hüstü* 'kortak garbitu, txerritegiak garbitu' esangura luke.

Badirudi, halere, ez orain ez lehen atzizki erabileratik kanpo —geuk dakigunez— jalgi ez direnak: *-ada, -di* (ik. *doi, toki*?), *-gin* (?) *-kal, -keta, -kin, -gaz, -tar, zu/tsu, -koitz, -kor, -gailu, -men, -xka* eta beste.

Hizkuntza batek behar baitu, ez bakarrik mailegatu, baina bere aberastasunak oro egari: hona zubereraren xotiltasun batzu, denen onuragarri nahi genituzkeenak, gei badugu gure euskara ahalik eta zehatz, jori eta ederrena izan dadin, bereziki literatura eta liburugintzan saiatzen direnentzat. Gero badakigu eta ez genuke nahi beste euskalkiei gain jarri; ez da egoki, ordea morfologiaren bilakera iturri hori agor dadin eta atzizkiez ez gaitezen balia hitz berriak egiteko, gure aurrekoek egin zituzten lakoak. Ea zelan erantzungo diguten idazleek gure ekarpenei? Erabilpen *zionea* sortzen bada ez dudala alferretan lanean *erauntsi* iruditu ko zait[12].

(12) Gai honekin ez da urrentzen, baina gure hizkuntzaren sorkuntza, harkuntza, aldakuntza ahalbide batzu argitu nahi izan dut, besterik ez.

Modal verbs in Basque and head-movement

JAVIER ORMAZABAL
(UNIVERSITY OF CONNECTICUT)

In this paper I will discuss some peculiarities of modal verbs in Basque. I will argue that these properties are the effects of head incorporation as stated in Baker (1988). Assuming this analysis, it is suggested that some of those properties follow if we adopt the analysis of IP proposed by Laka (1988). Finally, I point out some problem of the analysis*.

Basic Data

Modal verbs in Basque take different types of complement clauses, depending on the relation between the subject of the matrix clause and the embedded subject[1-2]:

(1) a. Jonek$_i$ [e$_j$ ardoa lortzea] nahi du
John-E$_i$ [e$_j$ wine get-TZEA] want Aux-3A-3E
"John wants (somebody else) to get some wine"

b. *Jonek$_i$ [e$_i$ ardoa lortzea] nahi du
John-E$_i$ [e$_i$ wine get-TZEA] want Aux-3A-3E
"John wants to get some wine"

(2) a. Jonek$_i$ [e$_i$ ardoa lortu] nahi du
John-E$_i$ [e$_i$ wine get] want Aux-3A-3E
"John wants to get some wine"

b. *Jonek$_i$ [e$_j$ ardoa lortu] nahi du
John-E$_i$ [e$_j$ wine get] want Aux-3A-3E
"John wants (someone else) to get some wine"

* I am very grateful to Itziar Laka, Howard Lasnik, Jon Ortiz de Urbina, Juan Uriagereka and Myriam Uribe-Etxebarria for interesting comments and discussion. This research has been economically supported by a fellowship from the Department of Education, Universities and Investigation of the Basque Government.

(1) I will limit the examples to the verb *nahi* (want); however, the same basic facts hold, with some slight differences, of other verbs like *behar* (have to), *ahal* (can), *ezin* (cannot),...

(2) Following former works in the literature, I adopt the following conventions: A = Absolutive case; D = Dative case; E = Ergative case; PL = Plural number. -TZEA stands for the infinitival affix.

As is well known, Basque inflection shows Agreement not only with subjects but also with objects and indirect objects. This agreement is represented by assigning a number for the person (1 = first person,... 4 = first person plural,...) followed by the case to which it corresponds.

When the subject of the matrix clause and that of the embedded clause are not coreferential, those verbs take an infinitival clause as their complement (example (1A)). This is not possible, however, when the two subjects are coindexed: this fact is shown in (1b), where *Jon* and the empty subject are coreferential. In that case, the main verb obligatorily takes a clause in which, observationally, the verb appears in its participial form (never in infinitive), as in example (2a). Again, this second strategy is only allowed when both the subject of the matrix clause and the embedded subject are coreferential, but never when they are not (example 2b).

The structures we will be concerned about in this paper are those exemplified in (2), in which the two subjects are necessarily coreferential. As has been often noted in the literature, these structures present a whole range of atypical properties:

First, unlike in their infinitival counterparts, the subject of these constructions cannot be a phonetically realized NP:

(3) a. *Jonek [berak/bere buruak ardoa lortu] nahi du.
John-E [he-/himself-E wine-A get] want Aux-3A-3E.
"John wants himself to get some wine"
b. Jonek [e /berak ardoa lortzea] nahi du
John-E [e/he-E wine-A get-TZEA] want Aux-3A-3E
"John wants him to get some wine"

On the other hand, in spite of the relatively free order of the constituents in Basque sentence, nothing can intervene between the participial form and the matrix verb when those structures appear in the unmarked order; this restrictions also holds for adverbs, as exemplified in (4b):

(4) a. *Ardoa lortu Jonek nahi du
wine-A get John-E want Aux-3A-3E
b. *Jonek ardoa lortu orain nahi du
John-E wine-A get now want Aux-3A-3E
"John wants to get some wine now"

This restriction seems to be similar to that which, as Altube (1923) noted, holds between the verb and the auxiliary:

(5) a. Jonek liburua atzo irakurri zuen
John-E book-A yesterday read Aux-3A-3E-PAST
"John read the book yesterday"
b. * Jonek atzo irakurri liburua zuen
John-Eyesterday read book Aux-3A-3E-PAST
c. * Jonek liburua irakurri atzo zuen
John-Ebook-A read yesterday Aux-3A-3E-PAST

Indeed, that they are subject to the same restriction is also confirmed by the fact that the exemption to that rule is possible, in both cases, in the same contexts; for clarification, compare the following sentences:

(6) a. Ardoa lortu nahi duzu?
wine-A get want Auxt-3A-2E
"Do you want to get some wine'"

b. Nahi duzu ardoa lortu?
want Aux-3A-2A wine-A get?
"Do you want to get some wine?"

(7) a. Jonek liburua irakurri du
John-E book-A read Aux-3A-3E
"John has read the book"
b. Jonek ez du liburua irakurri
John-E not Aux-3A-3E book read
"John has not read the book"

In negative clauses, the negative element appears before the auxiliary and, unlike in affirmative sentences, the VP (but not the auxiliary) is dislocated to the right. Similarly, in some contexts it is possible to dislocate the "participal" sentence, leaving the main verb *nahi* and the auxiliary in their original position[3]. Generalizing, these restrictions can be formalized as in (8), where XYZ stand for any lexical element, with some restriction that are not relevant for the discussion in the case of (8b):

(8) a. * ... V XYZ NAHI ...
AUX
b. .... NAHI XYZ V ...
AUX

There is a third distinction involving these structures: generally, the auxiliary of the matrix sentence in Basque only shows agreement with the complements in its own sentence but never with the complements of the embedded clause. In the structures we are analyzing, however, the auxiliary of the main sentence agrees not only with its subject but also with the direct and indirect objects of the embedded clause:

(9) a. Jonek [e ardoa erosi] nahi du
John-E [e wine-A buy] want Aux-3A-3E
"John wants to buy some wine"
b. Jonek [e aspirinak erosi] nahi ditu
Jon-E [e aspirine-A(PL) buy] want Aux-6A-3E
"John wants to buy some aspirines"
c. Jonek [e zuri ardoa erosi] nahi dizu
John-E [e you-D wine-A buy] want Aux-3A-2D-3E
"John wants to buy you some wine"

A Case of Incorporation

Consider the paradigm in (1)-(2), partially repeated here:

(1) a. Jonek$_i$ [e$_j$ ardoa lortzea] nahi du
John-E$_i$ [e$_j$ wine get-TZEA] want Aux: 3A-3E
"John wants (somebody else) to get some wine"

(3) Examples like (6b), in which the embedded sentence is dislocated and the participial form does not appear adjacent to the main verb are quite marked, but they are generally accepted by most speakers of Basque.

(2) a. Jonek$_i$ [e$_i$ ardoa lortu] nahi du
John-E$_i$ [e$_i$ wine get] want Aux: 3A-3E
"John wants to get some wine"

Baker (1988) proposes that if D-structure is basically a level in which thematic relations are represented, a unified theory of thematic representations should include a principle that constrains the possible well-formed D-structures:

(10) *The uniformity of theta assignment hypothesis (UTAH):* Identical Relationship between items are represented by identical structural relationship between those items at the level of D-structure.

If this principle really plays a role, the two sentences in (1)-(2) must have the same D-structure, since the thematic relations between the two verbs and their arguments are the same. Therefore, given (1a), the structure in (2a) must be, at the level in which thematic relations are represented, biclausal.

As noted in section 1, however, structures like the one represented in (1b) present the particularity of showing agreement between the main auxiliary and the arguments of the embedded clause, a fact that must be explained.

Baker (1988) argues that morphological changes in the inflectional system and, more generally, grammatical function changing processes are the morphological side of more general processes that involve syntactic changes as well. Thus, changes in the agreement relationship among the constituents of the sentence are expected to correspond to changes in the syntactic relationship among those constituents. I will follow Baker in claiming that those processes can be explained without further stipulations by means of general ruels and principles that already apply for independent change processes in natural languages; more precisely these phenomena will be analyzed as instances of the general rule move-a (in this case movements of 0-level elements in terms of X-bar Theory) and they obey the same general principles that hold for other instances of this rule (Wh-movement, NP-raising, and so on).

On the other hand, the particular properties shown by these changes with respect to other syntactic processes are assumed to be the effect of the nature of the element which moves; thus, it would be expected that the effects of the rule move-a when applying to heads are somehow manifested in a different way than those involving movement of maximal projections, this difference being the consequence of the nature of the elements moved.

Assuming the preceding discussion, I will claim that the process involving changes in the agreement of the inflectional element in the structures at stake are the morphological counterpart of a syntactic adjunction of the embedded verbal element to the head of VP in the matrix clause (what Baker calls "Verb-Incorporation").

We suggested above, however, that this movement is not a strange process governed by particular rules 2A but rather it is subject to the same principles that hold for other instances of movement; in particular the trace left by the movement must obey the ECP[4].

(4) For arguments supporting that traces ofo-level elements must be properly governed see Baker (1988: Ch. 2). Observe that this claim seems to be intuitively correct, because for the incorporated element to agree with its arguments in the embedded clause it must govern them also at S-structure, this requirement being met by means of its trace.

This principle poses a very strict locality condition on head movement since, assumed that the head itself does not count as a governor for itself, there is no possible lexical governor for the trace and, therefore, the possible antecedent governor must be in a position close enough to govern this position. In particular, the incorporation process at work cannot take place as in (11), because the maximal projections intervening between the Verb and its trace (namely VP, IP and CP) block the government relation. Thus, this incorporation must be done by means of intermediate steps[5]:

(11) Jonek [[PRO ardoa t] V du.
John-E [[PRO wine-A t] Aux-3A-3E
V V
lortu nahi
get want

(12)



If the process described above is correct, some of the particular properties of the structures we are dealing with come up without further stipulations; in

(5) Observe that even when the incorporation involves intermediate adjunctions to I and C, as in (12), the VP intervening between I and V cannot be L-marked by INFL, a functional head, and, therefore, it counts as a barrier for the trace in V with respect to its governor, the verb in INFL position.

Baker, following Chomsky's (1986) proposal for movement of maximal projections out of VP, suggests that this problem can be solved if we allow V to adjoin to VP in a first step. This strategy, however, is in conflict with Emond's Structure Preserving Constraint.

As it has been pointed out in the literature, many facts suggest that the definition of "government" must be revised so that VP does not count as a barrier between the elements within it and a potential governor outside.

particular, it would explain why the main auxiliary agrees with the embedded arguments, a fact that, under other assumptions, remains unexplained: provided that, as it has been generally claimed, there is a general process of V-to-INFL movement in Basque, the main INFL will contain, apart from its verb, the verbal and inflectional element of the embedded sentence and, in particular, its agreement features.

Although this analysis predicts accurately that the embedded verb must be adjacent to the modal verb, no lexical element intervening between them, it fails however in accounting for structures like (6b) in which the embedded sentence, including its verb, is dislocated to the right, the main verb remaining in its original position. It seems as if those structures showed the morphological effect of Verb-Incorporation without involving the syntactic side of this process, a fact that would contradict our theoretical claims. In the next section I will try to justify a slightly different way of accounting for this fact.

The Structure of INFL

Laka (1988) argues that the arguments in Basque are external to VP, and she proposes the following structure for the inflectional element in Basque[6]:

(13)



Assuming this configuration, the properties of the structures in which, under our analysis, Verb-Incorporation takes place are explained with minimal additional assumptions:

Under Laka's analysis, a device must be provided to allow the verb assign θ-role to each of its arguments which appear, at least at S-structure, in a position external to VP. The simplest assumption seems to be that the elements that bear the θ-role assigned by the verb are generated within VP at D-structure, in a position in which they can get it. In the mapping from D-structure to S-structure, NP-s in those positions have to move so that they can receive Case. Sentences, however, are not subject

(6) For arguments in favor of this structure, based on the morphological pattern of the inflected forms in Basque, see Laka (1988).

to the Case Filter and, therefore, they do not have to move out of VP[7]. This distinction is confirmed by some different facts in the case of Basque sentences:

To begin with, while temporal and infinitival clauses in Basque appear with overt morphological Case that indicates their syntactic function, completive Clauses take a complementizer that shows up to be reluctant to morphological Case markers (see (16a-b) below)[8-9]:

(14) a. pro ez dut ondo jan [[[pro honera etorri nintzen-]]-etik
(I) not Aux well eat [[[(I) here come Aux- [COMP]-from
"I have not eaten well since I came here"

b. [[PRO asko ikaste-]-akez dio gorputzari onik egiten
[[PRO a lot study-to]-E not Aux body-dat good make-ASP
"It is not good for the body to study a lot"

Second, with unergative verbs, the only argument bearing the u-role assigned by the verb appears in Ergative Case and, consequently, the agreement between the auxiliary and this argument surfaces in the ergative morpheme. Although these verbs do not subcategorize for direct objects, the auxiliary shows what traditionally has been considered the third person singular absolutive morpheme[10]; the same is true for the auxiliary form of a sentence in which the verb subcategorizes for a completive clause:

(7) Note that two independent stipulations are assumed here without further motivaton: first, it is assumed that the reason why NP-s must move to their corresponding specifier positions is their need to get Case and that V in Basque cannot assign Case; second, that sentences, unlike NPs, cannot get Case and, therefore they do not move out of VP. Observe, however, that the proposed analysis is independent of both assumptions: suppose that the second assumption shows up to be false and that there is no such a strong constraint on sentences getting Case. Then, provided that the rule move-a is not obligatory, both strategies would be available: either the sentence stays within VP or it moves to the absolutive position. In those cases where the incorporation process must take place, te first strategy is not available, because the embedded CP would not be L-marked in the specifier position and, therefore, it counts as a barrier between the trace and its governor (see discussion in the preceding section). In the remaining cases (completive clauses,...) both strategies would be possible.

In the same way, if the first condition on NP movement turns out to be wrong, we can still maintain the analysis above, as far as the "new" requirement for the movement forces NPs (but not sentences) to move.

(8) As Uribe-Etxebarria (personal communication) observes, however, *"-ela"* Complementizers can (in fact, they have to) get Case when they are in a position that receives genitive case. She notes the following contrast:

(i) a. [pro lana lortuko duzu-la]-ko esperantza...
[(you) job get-fut Aux-COMP]-gen. hope-A...
"The hope that you will get a job"

b. * [pro lana lortuko duzu-la] esperantza...
[(you) job get-fut Aux-COMP] hope-A

(9) Observe that infinitival clauses bear a determiner "-a". This suggests that these constructions in Basque are nominal elements and, therefore, they have to get Case; this would explain the different behavior of infinitival clauses (which, under our assumption, must move up to a Specifier position) and Completive Sentences with respect to Case assignment.

(10) Laka (1988) convincingly argues that the "D-", "Z-" and "L-" which surface on absolutive position in Basque auxiliary when it is third person are not really absolutive morphemes but that third marker is empty and the different morphemes surfacing in this position are assigned by the functional heads TENSE and MODAL.

Note that unergative verbs, in which there is no absolutive argument that could agree with the auxiliary but the corresponding markers show up in absolutive position, provide an independent argument in favor of this analysis.

(15) a. Jonek gaizki hitzegiten du
John-Ebadly speak Aux-3A-3E
"John does not speak correctly"

b. Jonek [pro afaria egingo dugula] esan du
John-E[(we) dinner-A make-FUT Aux] say Aux-3A-3E
"John said that we will have dinner"

Moreover, completive clauses can never appear either as subjects of transitive verbs (i.e. in a position in which they would be assigned Ergative Case), or as indirect objects (i.e. in dative position), as shown in (16). For lack of an independent reason for this fact, we could conclude that, in fact, they cannot appear in absolutive position either and, therefore, they are internal to VP at S-structure as well[11]:

(16) a. * [Jonek liburua du-ela] ez du ezer frogatzen
[John-E book-A Aux-COMP] not Aux anything prove-ASP
"That John has the book does not prove anything"

b. * pro [Jonek gezurra esan du -ela] ez diot inportantziarik emango
(I) [John-E lie-A say Aux-COMP] not Aux importance-A
"I will not give any importance to the fact that J lies"

Finally, an independent confirmation is given by the "incorporated" structures at stake themselves: as examples (9a-c) (repeated here) show, the auxiliary of the main clause agrees with the direct object of the embedded clause and, therefore, changes its number morpheme deppending on whether that object is singular or plural:

(9) a. Jonek [e ardoa erosi] nahi du
John-E [e wine-A buy] want Aux-3A-3E
"John wants to buy some wine"

b. Jonek [e aspirinak erosi] nahi ditu
John-E [e aspirine-A(PL) buy] want Aux-6A-3E
"John wants to buy some aspirines"

If the sentence was in the specifier of Root Phrase (cf. example (13) above) the main auxiliary should agree with it and, therefore, would not be affected by the change in number of the embedded object.

Summarizing the preceding discussion, my claim is that at D-structure, the level at which the thematic relations between the verb and its arguments are represented,

(11) Observe, once again, that (16)'s infinitival counterparts are absolutely grammatical in Basque:

(i) a. [Jonek liburua iza-te-]ak ez du ezer frogatzen
[John-E book-A have-to-]-E not Aux anything prove
"For John to have the book does not prove anything"

b. pro [Jonek gezurra esa-te-]ari ez diot inportantziarik emango
(I) [John E lie-A say-to-]-D not Aux inportance-A give-FUT
"I will not give any importance to the fact that J lies"

these arguments are in a position internal to VP[12], and the structure of the sentences at stake is biclausulal.

In the mapping form D-structure to S-structure, several instances of the rule Move-α take place: the argumental NPs move to the different specifiers of the inflectio-

(17) Nik [PRO zuri ardoa erosi] nahi dizut
I-E [PRO you-D wine-A buy] want Aux-3A-2D-1E



(12) This proposal must be refined so that it explains more accurately the internal structure of VP, in order to account for the properties of NPs with respect to Binding Theory, and the configurational relations between the verb and the arguments bearing the different u-roles assigned by it.

nal heads in order to get Case; the embedded clause, however, must not move and remains in its original position within VP:

On the other hand, head-incorporation takes place: I will claim, however, that it is the auxiliary, rather than V, the element that moves up to the main verb-auxiliary complex, this movement being motivated by the lack of an overt functional head within the embedded inflexion[13].

Since the clause is, by hypothesis, in the position in which it was generated at D-structure (ie. it is a complement of V) it is L-marked by the verb and, therefore, its head (with the lower functional heads adjointed to it) can continue its movement up, properly-governing its trace. Once it gets V, it has to continue up until it incorporates to the main inflectional compound, so that the requirement above is satisfied[14]. The final head will contain, in addition to the main verb and each of the "inflectional" heads, the inflectional elements of the embedded clause and, therefore, it will show agreement with the embedded complements. The embedded verb, however, is not incorporated and, therefore, it can dislocate to the right. Structures like (9) above, in which this element does not appear adjacent to the main verb would then be the consequence of that dislocation.

One interesting question arises related to this analysis, however; observe the following example:

(18) pro nahi diozu Peruri ardoa erosi?
(you) want Aux-3A-3D-3E Peter-D wine-A buy?
"Do you want to buy Peter some wine?"

According to the analysis proposed above, the embedded sentence in (18) must be dislocated to the right, while its inflectional elements are incorporated, via head movement, to the main inflectional complex. But, if this is true, the lowest maximal projection dislocated to the right must be the embedded Modal Phrase, given that the NP in its Specifier position appears also dislocated[15].

Indeed, given that this sentence appears in a position to the right of the auxiliary complex (that we assume to be in the main TENSE), the lowest projection to which

(13) We will assume, with Laka, that Agreement heads are adjointed to the functional heads giving the following morphological compound at S-structure:

(i)



I will also asume that in the structures we are analyzing agreement elements are adjointed to their corresponding heads, as in (i), but functional heads (ie. ROOT, MODAL and TENSE) in the embedded clause have an empty feature matrix in this case.

(14) For discussion about movement V-to-INFL see note 5.

(15) The minimal assumption would be, I think, that the whole embedded clause (CP, if any, or in any case TP) is in that position.

it can be adjointed is TENSE P. But, if so, the traces left by the raising of the auxiliary in its incorporation process are not c-commanded by their antecedent in the head of TP; thus, they are not properly governed, giving rise to a violatin of the ECP. At this point of the inquiry I have not a clear solution for this problem[16].

References

Altube, S., 1923, *Erderismos,* Bermeo (Second Edition 1975).

Baker, M., 1988, *Incorporation. A Theory of Grammatical Function Changing.* Chicago: Chicago University Press.

Chomsky, N., 1981, *Lectures on Government and Binding.,* Dordrecht: Foris Pub.

_____, 1986, *Barriers.,* Cambridge (Mass.): MIT Press.

Goenaga, P., 1985, "Complementización y nominalización en Euskara", *ASJU* , XIX-2.

Laka, I., 1988, "Configurational Heads in Inflectional Morphology: The Structure of the Inflected forms in Basque", *ASJU*, XXII-2.

Levin, B., 1983, *On the Nature of Ergativity,* PhD. Diss. MIT.

Mahajan, A.K., 1989, "Agreement and Agreement Phrases", *MITWPL* 10: 17-252.

Marantz, A., 1984, *On the Nature of Grammatical Relations.* Cambridge (Mass.): MIT Press.

_____, 1987, "Operator Movement and Verb-Second Phenomena in Basque", *ASJU,* XXI-2.

Ortiz de Urbina, J., 1989, *Some Parameters in the Grammar of Basque.* Dordrecht: Foris Pub.

Rizzi, L., 1982, "A Restructuring Rule", in *Issues in Italian Syntax,* Dordrecht: Foris Pub.

Uriagereka, J., 1987, "Government in Basque", *UCWPL,* 1.

Zubizarreta, M. L., 1985, "The Relation Between Morphophonology and Morphosyntax: The Case of Romance Causatives", *LI* 16.2: 247-289.

(16) I am grateful to H. Lasnik and M. Saito for this observation. Ortiz de Urbina (1987) and (1989) claims that focalization phenomena in Basque are instances of WH-movement that in that language take place in the syntax. He provides a device to account for both phenomena in a unitary way, assuming that the focalized element moves, as the WH-phrase does, to the Specifier of COMP, forcing the Verb-Auxiliary compound to move to the head of CP, as an instance of Verb-Second phenomena. If this analysis was correct, there would be no such a problem, since it would be the main auxiliary, instead of the embedded clause, the element that moves up (to the COMP position), the traces created by the head-movement being in a position in which they are governed. As Uriagereka (1988) points out, however, the assumption that the head of CP is on the left in a language that shows head-right configuration needs a strong independent evidence that, in the case of Basque, does not seem to exist.

Izen sintagmaren egituraz

PATXI GOENAGA
(EHU, Gasteiz)

Gai honetaz esateko guztiak esanda daudela pentsa badezake ere norbaitek, bada oraindik aski gai eta —esango nuke— aski iluntasun euskal izen sintagmaren egituraz. *EGLU*-1 oso osorik IS-ri eskainia dugu, baina lan horren helburua ez zen hainbeste IS horren egitura zein ote den eztabaidatzea, IS horren oinarrizko osagaiak zerrendatzea baizik, elementu bakoitza bere sailean kokatuz eta sail bakoitzaren eta sail horretako elementu desberdinen erabilpenari dagozkion oharrak eginez.

Zuzenean egiturari buruz arduratu direnen artean, Rebuschi 1984 aipatu beharko genuke lehenbizi, eta baita Trask 1983 eta 1984 ere. Batez ere azken bi lanotan neronek lehenago proposatutako zenbait erregela eztabaidatzen da. Arrazoiz eztabaidatu ere, baina, esanak esan, oraindik ere badira, nere ustez, zenbait egitura aski korapilatsuak, ematen diren erregelekin nekez azal daitezkeenak. Horregatik hartu nahi izan dut hemen berriro gai hori, argi piska bat gehiago eskaini nahian edo. Gaia agortzeko esperantzarik gabe, noski.

Eztabaida teorikoetan gehiegi murgildu gabe, lantxo honen helburua da izen sintagma deitzen dugun horri dagozkion zenbait eztabaidagai aurkeztea eta egitura horretaz gogoeta egitea. Gainera, izen sintagmen axaleko egituraz arduratuko gara batez ere.

1.– Perpaus bat zenbait morfemaz osatutako katea dela esan dezakegu.

Har dezagun honako perpaus hau, adibidez:

(1) *Aitaren etxe zaharra defendituko dut.*

Morfema horietako batzu morfema lexikalak dira: *aita* eta *etxe* Izen kategoriakoak dira. *Defendi-* aditza dela esango dugu. Gero, badira zenbait atzizki edo: *-ren, -a, -tuko, -d, -t,* e.a. Hauek morfema gramatikalak direla esango dugu. Galdera, hortaz, da ea Perpaus osoaren, alegia, (1)-eko kate osoaren, eta kate hori osatzen duten oinarrizko osakin horien artean ba ote den bitarteko egiturarik. Alegia, ez ote den hor inolako jerarkiarik. Eta bistan da, badela. Adibidez, *aitaren etxe zaharra* bada zerbait, osagai bat, *defendituko dut* bezalaxe. Alde horretatik esaten ahal dugu perpausa zenbait *izen sintagmaz* eta *aditzaz* osatzen dela. Are gehiago, esan ohi dugu, baita ere, zenbait izen sintagmak eta aditzak *aditz sintagma* deitu egitura osatzen dutela. Baina oraindik ere jarrai dezakegu geure galdeketan: sintagma horiek berek ez ote dute egitura jerarkizatu bat? Alegia, kategoria lexikalaren, izenaren, eta izen sintagma deitu dugun kategoriaren artean ez al da bitarteko kategoriarik? *X-barra teoria* deitzen denak dio bitarteko kategoria horiek badirela, eta, gainera, kategoria horiek denak ardaztzat hartzen den X elementu baten "isladapenak" direla esango digu. X hau edozein kategoria lexikal delarik, hots: I(zena), A(ditza) edo Adj(etiboa). Kategoria gramatikalek ere beren isladapenak izan ditzakete, bereziki P(osposizio) dei daitekeenak. Sintagma horiek ardatzak agintzen dituen ezaugarriak izango dituzte. Horrela, posible da bereiztea izen sintagma, aditz sintagma edo adjetibo sintagma, buru edo ardatz desberdina dutelako. Baina, gainerakoan, sintagma guztiek funtsean egitura bertsua izango lukete: X burua, X' isladapena, buruak eta osa-

garriek osatua eta X" isladapena, X' atalak eta espezifikatzaile deitzen ditugunez osatua. Hau da X-barra Teoriaren funtsezko ideia, alegia, hizkuntza guztietan, funtsean egitura abstraktu hau berau gauzatzen dela. Isladapen horiek X^n gisa markatzen dira, *n* hori zenbaki txiki bat delarik. Horrela X^n-ri frase deituko diogu. Eta *n* horrek har dezakeen baliorik nagusiena hartzen duenean, X^{nag} izango dugu edo X-sintagma. Hortaz, esan daiteke X-sintagma oro X-ren gainean, X ardatz hartuta eraikitako proiekzioa, isladapena, dela. Horrela, *Izen Sintagma* deitzen duguna I(zenaren) gainean eraikitako isladapen nagusia izango litzateke: I^{nag}. Eta ardatza den izenaren eta izen sintagmaren edo I^{nag}-en artean ere bitarteko isladapenak izango dira. Alegia, n-ren balio altuena 2 dela onartuz gero, adibidez, ardatzak, X-k alegia, bere osagarriekin batera X' isladapena osatuko luke eta honek bere inguratzaileekin batera X" sintagma:



Izen sintagmaren osagaiak oinarrian hiru motatakoak direla esan daiteke: 1) ardatz-elementu bat, Izena alegia; 2) ardatz horren osagarriak: izenlaguna, izenondoa eta perpausa (erlatiboa nahiz konpletiboa); eta 3) mugatzailea edo determinatzailea. Horixe da hain zuzen gramatiketan eta (cf. *EGLU*-1, adibidez), izen sintagmaren osagaientzat proposatzen den sailkapena: Izena (izenordainak barne); Determinatzaileak eta Adjetiboa (hemen izenondoen eta izenlagunen azpisailak bereizten direlarik).

Izenaren osagarrien zereginik behinena ardatz elementuaren konprentsioa zabaltzea litzateke. Hots: izenak berez dituen ezaugarriei (*etxe* izenari dagozkionei, adibidez) beste batzu erantsi dakizkieke osagarrien bidez. Gure (1)-eko kasuan, esaterako, *gure aitarena* delako zehaztapena erantsi diegu *etxe*-ren berezko ezaugarriei. *Zaharra* delako zehaztapena ere gehitu diogu. Beraz, izenak berez zituen ezaugarri semantikoei beste batzu erantsi dizkiegu. Horrela, zenbat eta tasun gehiago, izaki gutxiagori aplikatu ahalko zaio, erreferentzia zehatzago eginez. Eta zehazte lan hori azken muturreraino eramateko erabiltzen ditugu, azkenik, determinatzaileak.

Hiru klasetako elementu hauek jerarkia batean agertzen direla suposatzeko eskubidea badugu. Euskaraz zer nolako egiturak osatzen dituzten elementu hauek, gramatikaren kategori-osagaiak emango digu. Garai batean sintagma-egitura-erregelak proposatzen ziren egitura horiek sortarazteko. Gaur badirudi sintagma-egitura-erregela horien zeregina erabat murriztu dugula eta, azken batean, sintagmen egiturak bete behar dituen baldintzak ezartzera mugatzen dela konponente hori. Dena dela, teoria mailan bertan hainbat puntu eztabaidagarri bada. Horietako bat, adibidez, *n*-ren balio altuena zein izan daitekeen. Gehienentzat, balio hori 2 da, baina bada 1 dela dioenik ere (Cf. Stuurman 1985, adibidez), 3 eta gehiagoko isladapen nagusiak proposatzen dituenik ere baden bezala. Beste arazo bat da, berriz, ea isladapen nagusi guztiek *n*-ren balio bera izan behar duten. Adibidez, Emonds (1985)-ek aditzaren isladapen nagusia hiru barratakoa dela proposatzen du, izenarena bikoa den bitartean. Bestalde, ez dirudi oso argi dagoenik zein diren isladapenak dituzten kategoriak. Adibidez, determinatzaileak edo zenbatzaileak, esaterako, onartzen al dituzte Det^n edo $Zenb^n$ isladapenak? Alde honetatik, era guztietako proposamenak dira.

Kontua da sintagma-egitura-erregela guztiak funtsean itxura honetakoak izango direla

(2) $X^n \longrightarrow \ldots X^{n-1} \ldots$

Eta errekurtsibitatearen berri eman nahi bada, agian beste hau proposatuko genuke:

(2') $X^n \longrightarrow \ldots X^m \ldots$ (non m=n, edo m=n-1) (cf. Radford 1981: 106 or)

2.– Trask-ek, aurreko lanen kritika eginez, dio euskalari gehienek, edo ez dutela IS bezalako kategoria baten izatea aitortu edo onenean ere, egitura "laua" eskaini diotela, IS hitz segida soiltzat hartuz (cf. Trask 1984: 134). Baina IS-ek egitura jerarkizatua dutela begien bistako gauza da —pentsa, bestela, hainbat eta hainbat sintagma anbiguotan—. Zein litzateke, hortaz, *gizon handia* sintagmaren egitura, adibidez? Trask-ek berez izan litezkeen hiru egituren artean honako hau aukeratzen du:

(3)



Argudioak ere ematen dira. Juntagailu bidez koordina daitezkeen morfema kateak mota bereko osagaiak izan behar dute (cf. Chomsky 1957: 52). Alde honetatik, (4) eta (5) sintagmek funtsean egitura bera izan beharko dute:

(4) *Ikasle eta irakasleak*

(5) *Balio zahar eta asmo berriak*

Eta hauen egitura posible bakarra *ikasle* eta *irakasle*, biak mota bereko osagaiak izatea da[1]. Berdin, *balio zahar* eta *asmo berri*, biek mota bereko osagai izan beharko dute. Eta mota bereko osagai horien koordinatzetik sortzen dena ere mota horretako osagaia izango da. Eta honi, *-ak* mugatzailea erantsita lortuko litzateke izen sintagma. Mugatzailearen aurreko osagai hori, X-barra teoriaren arabera, I-ren isladapena izango da: I'. Beraz, honako egituraren aurrean aurkituko gara:

(6) $_{I''}$ [$_{I'}$ [$_{I'}$ [*balio zahar*] eta $_{I'}$ [*asmo berri*] $_{Det}$ [ak]]]

(1) Dena dela, honekin ere problemak izan ohi ditugu euskal izen sintagma koordinatuetan (cf. Goenaga 1980: 242-243). Adibidez, ondoko perpausetan b) eta c) zilegi izan behar lukete, baina ez:

a. *birigarroari eta zozoari*
b. *?birigarroa eta zozoari*
c. *???birigarro eta zozoari*

Pluralean, berriz, gauzak bestela direla ematen du:

a. birigarroei eta zozoei
b. ???birigarroak eta zozoei
c. birigarro eta zozoei.

Hortaz, bada hemen bestelako debekuren bat ere, agian morfologiarekin zerikusi gehiago izango duena, sintaxiarekin baino.

Beraz, koordinazioak berarekin dituen betebeharretan oinarrituz, frogatuko litzateke I + Adj + Det segidaren egitura honako hau dela:

(7) $_{I''}$ [$_{I'}$ [I + Adj] + Det]

Hala eta guztiz, argudio bera erabiliz bestelako ondorioetara ere iritsi gintezke. Pentsa, bestela, honako adibide honetan:

(8) *Balio zaharrak eta berriak.*

Honen aurrean, norbaitek pentsa lezake (8)an koordinaturik ditugun osagaiak *zaharrak* alde batetik eta *berriak*, bestetik, ditugula. Beraz, honako egitura proposa lezake:

(8') $_{IS}$[$_{I}$[balio] $_{?}$[$_{?}$[zaharrak] eta $_{?}$[berriak]]]

Galde markak jarri baditugu ere, osagai hori, osagai bada, adjetiboaren isladapena izango litzateke, beraz, Adj' edo, agian, Adj". Hori horrela izanik, (3) egituraren ordez, honako beste hau beharko genuke:

(9)



Baina bistan da (3) eta (9) muturka ari direla. Beraz, irtenbideren bat bilatu behar. Irtenbide hori bigarren osagaiaren ardatz izango litzatekeen izena nolabait hutsik dagoela pentsatzea izango litzateke. Horrela, koordinazioaren baldintza errespetatuko litzateke:

(10)



Horretarako, suposatu behar da koordinaturiko bigarren osagaiaren ardatza izango litzatekeen izena hutsik aurkitzen dela. Isiltze kontu hori oso arrunta denez, isilpeko izen horren erreferentea finkatzea testuinguruaren mende gelditzen delarik[2], bidezkoa dirudi (3)-ko eta, horrenbestez, (10)-eko egiturari eustea. Beraz, izenak eta

(2) Koordinazioan horrelakoak oso maiz gertatzen dira. Adibidez:

Peruri sagar gaziak gustatzen zaizkio, neri, berriz, GEZAK. Euskaraz elipsi kontu hauek aztergai ditugu hein handi batean, baina ez dut uste inork uka dezakeenik goiko perpaus horretan *gezak* hori IS dela, eta IS horren muina den izena kasu honetan *sagar* izango litzatekeela, nahiz eta ezkutuan egon.

Bestelako egituretan ere sarri samar gertatzen da izen sintagmaren burua isilpean. Hori da erlatibo "sustantibatu" deituetan ere gertatzen dena, adibidez.

izenondoak (edo adjetibo sintagmak, zehazkiago mintzatzeko, zeren adjetiboak ere bere isladapena izan bait dezake, inguratzaile eta guzti) osagai bat osatzen dutela onar dezakegu: I'.

3.– Baina beste kontu bat ere bada Trask-en lanean eta *izenlagun* deitzen dugunari dagokio. Alegia *gizon zahar horiek* bezalako izen sintagma baten egitura zein den ikusi ondoren, honako honen tankerakoena zein ote den ikusi beharko genuke:

(11) *Baionako gizon zahar horiek*

Trask-en arabera, izen sintagma honen egitura honako honen tankerakoa litzateke, IS elementu errekurtsibotzat hartuz:

(12)



Hortaz, izenlaguna, IS-ren osagai izateaz gainera, bere eskuinera doana ere IS izango litzateke. Egitura hau Goenaga 1980-k ematen duena ez bezalakoa da. Han beste era honetako egitura bat proposatzen zen:

(13)



Oraingoan ere, argudioa egitura koordinatuetan bilatu behar:

(14) a. *Gure liburuak eta diskoak*
b. *Gure liburu eta diskoak*

(14b)-ren interpretazioa ez bezala, (14a)-rena bikoitza dugu: hots, uler daiteke liburuak eta diskoak gureak direla, alde batetik, eta uler daiteke, baita ere, inoren diskoez eta gure liburuez ari garela. (13)-ko egitura proposatuz gero, nekez eman ahalko dugu bi interpretazio hauen berri. (12)-ko egiturak, berriz, ez luke horrelako oztoporik izango. Horrela, (14a)-k dituen bi interpretazioei honako bi egitura hauek legozkieke:

(15) (a)



(b)



Eta hemen ere arrazoia eman behar Trask-i, baldin eta koordinazioan oinarritutako irizpide hori baliozkotzat jotzen bada, C osagai hori ere koordinatutako bigarren atalean hutsik egon daitekeela onartzen ez badugu behintzat. Alegia:

(16) $_{I''}$ [$_{I''}$ [$_{C}$ [*gure*] $_{I'}$ [*liburu*] $_{Det}$ [*ak*] *eta* $_{I''}$ [$_{C}$ [Ø] $_{I'}$ [*disko*] $_{Det}$ [*ak*]

Eta egia esan, zenbait kontestutan, delako izenlagun hori ere, ardatz elementua ez izan arren, isilpean egon daitekeela ematen du. Adibidez, pentsa dezagun (17) perpausa bezalako batean:

(17) *Aitaren adiskideak nik sarrerazi ditut, baina bezeroak, idazkariak.*

Hemen ere, bi interpretazio dira posible *bezeroak* sintagmarentzat: a) "bezeroak" inorenak direla, ez aitarenak. Alde honetatik, bi IS izango genituzke kontrajarriak: *aitaren adiskideak* alde batetik, eta *bezeroak* bestetik. b) bigarren interpretazioan, berriz, suposa daiteke bezeroak ere, adiskideak bezala, aitarenak direla. Horrenbestez, kontrajarriak daudenak *aitaren adiskideak* eta *aitaren bezeroak* izango lirateke. Oraingoan, beraz, posible dela dirudi isilpeko konplementuak ere izatea. Beraz, eztabaidan ditugun bi egituren artean hautatzeko —hautatu behar bada— oinarri sendoegirik gabe aurkitzen garela esango nuke.

Baina gure egituraren antzekoren baten premia ere badela pentsatzeko eskubidea badugu. Horretarako, aski dugu ondorengo sintagman begiak jartzea:

(18) *Kristauen balio zahar eta marxisten bide berri guztiak.*

Trask-en erregelekin ez ginateke gauza izango (18) perpausarentzat egitura aproposa eskaintzeko. Baina koordinatutako elementuak osagai izan behar badute, edo a) *kristauen balio zahar* alde batetik, eta *marxisten bide berri*, bestetik, mota bereko osagaiak ditugu, edo b) *kristauen balio zahar* eta *marxisten bide berri guztiak* ditugu

koordinatutako osagaiok. Baina beti ere, *kristauen balio zahar*-ek osagai izan beharko luke. Eta hau osagai bada, *marxisten bide berri* ere osagai izango da. *Bide berri* ere osagai denez, esan nahi du izenlagunak "anaia"-tzat har dezakeela I'. Edo bestela esan, (13)-ko egituraren antzekoren bat behar dugula. Horrela, izenlagun delako horrentzat bi kokagune pentsatu beharko dira: (13')-koa eta (12)-koa:

(13')



4.– Izenlaguna I'-ren anaia izan badaiteke, eta izenondoa ere bai[3], galde liteke ea zein izango litzatekeen ondoko IS honen egitura:

(19) *Joxeren liburu ederra.*

Izenlaguna IS-ren 'anaia'-tzat eman genezakeeneko egitura (hots: [I"*Joxeren* I"[*liburu ederra*]]) albora utzita, eta besterik frogatzen ez den bitartean, honako era hauetara irudika liteke[4].

(a)



(b)



Eta esan behar da bi egitura horiek justifikaturik daudela interpretazioa ere bi eratakoa izan daitekeelarik: a) -ren interpretazioa honako parafrasi honek idarokitzen duena izango litzateke: "Ederra den Joxeren liburua"; b) -rena, berriz, "Joxerena den liburu ederra". Hau honela bada, *Joxeren liburu* osagai da batean, eta *liburu eder* ere bai bestean. Har dezagun beste adibide hau:

(20) *Nik Joxeren andregai euskaldunak aipatu nituen eta zuk, erdaldunak*

(3) Zeren adjetiboa, dirudienez, ez da subkategorizatutako osagarria eta, horrenbestez, ez litzateke I°-ren anaia izango, I'-rena baizik (cf. Stowell 1981).

(4) Jakina, izenlaguna eta adjetiboa, biak, parean, bakoitza alde banatan ezar genitzake, baina badirudi horrelako "abarreztatzeak" ez direla zilegi, Emonds (1985)-ek dioen bezala: "between the lowest X' and the highest X" in a given X^{max} there can only be one phrasal sister per head (e.g. languages observe binary branching)" (28. or.). Dena den, tankera horretako proposamenak ere egin izan dira.

Erdaldunak izen sintagma da, baina argi dago hor badela zerbait isilpean dagoena: *Joxeren andregai*, hain zuzen. Hutsune horrek "aurreko" edo antezedente hori eskatzen du *erdaldunak* izen sintagma zuzen interpretatuko bada[5].

Beraz, (20)-ko *erdaldunak* IS-ren egitura honako hau izango genuke:

(21) $_{I''}$ [$_{I'}$ [$_{I'}$ [Ø] $_{Adj''}$ [*erdaldun*]]] $_{Det}$ [*ak*]]

Era beretsuan:

(22) *Nik Joxeren andregai erdaldunak ezagutu nituen eta Pellok Andonirenak*

diogunean, *Andonirenak* horretan isildurik daukaguna *andregai erdaldun* litzateke. Hau ere osagai dugu, beraz, I' hain zuzen. Eta hemen, egiazki *Andonirenak* izen sintagmak honako egitura hau izango luke:

(23) $_{I''}$ [$_{I'}$ [$_{C}$ [*Andoniren*] $_{I'}$ [Ø]] $_{Det}$ [*ak*]]

Eta honek ez du inolako misteriorik. Hain zuzen, IS batean adjetibo bat baino gehiago dugunean ere gauza bera gertatzen da:

(24) a. *Arropa zabal gorriak*
b. *Arropa gorri zabalak*

Batarentzat honako egitura hau proposatzen ahal dugu:

(24a')



"Nik arropa zabal gorriak jantziko ditut baina zuk berdeak" perpauseko bigarren atalaren interpretazioa honako hau izan liteke: "zuk *arropa zabal* berdeak":

(5) Hain zuzen, morfema segida bat osagai den ala ez erabakitzeko bi erizpide erabili ohi dira: bata, gorago erabili den koordinazioarena eta bestea, ingelesari gagozkiola *one*-ren erabilera, zeren honek osagai den aurreko bat behar baitu, zuzen interpretatu ahal izateko. (cf. Jackendoff 1977: 58 hh, Radford 1981: 92, edo Emonds 1985: 28). Gure kasuan *one*-rik ez dugu, baina bai Ø, hutsunea, alegia, aurreko baten erreferentziaz "bete" behar duguna.

(24b')



Nik arropa gorri zabalak jantziko ditut baina zuk jantzi itzazu estuak esanez gero, "arropa gorri estuak" uler daiteke bigarren atalean.

Egia da funtsean gauza bera esaten ari garela (24a) eta (24b) diogunean, zeren arropak gorriak eta zabalak baitira, baina egitura desberdina dutela ere ontzat eman daiteke[6].

Bi izenlagun aurkitzen direnean ere gauza bera dugu[7]:

dena dela, hauxe da: gramatikak, edo hobeki esanda, sintaxiak, nolako egitura eskaintzen dio hiztunari egin duen aukera hori perpausean gauzatu nahi duenean? Sintaxilariaren lana da, haatik, egitura horrek bete behar dituen baldintzak zehaztea eta, lehen eman dugun arrazoinamenduarekin segituz, sintaxilari formalak ez badu zereginik testuinguruak eragindako aukeren zergatien esplikazioan, hizkuntza funtzionala ere nahikoa neketan ibiliko da, dudarik ez, sintaxi egitura deskribatzen saiatu nahi duenean. Hortaz, kontzeptu hauek definitzerakoan, sintaxia eta pragmatika, biak, hartu beharko dira kontutan.

Harira itzuliz, zernahi gisaz, aipatu behar da hizkuntzalariak ez datozela bat "mintzagaiaren" eta "galdegaiaren" kontzeptuez aritzen direnean. Eta ez datoz bat terminologiatik hasita, bakoitzak bere modura erabiltzen duelako terminologia hau, gertatzen delarik izen bera agertzen dela sarri askotan autoreen artean kontrako ideiak eta kontzeptuak adierazteko. Lantxo honek, bada, ez du bestelako helbururik: terminologia horren kontraesanak azalean utzi nahi ditu eta terminologia batu bat proposatu, gure artean hain maiz erabiltzen ez den terminologia bat alegia. Halaz guztiz ere, horretaz gain beste zenbait puntu ere ukituko da euskal perpausaren egiturari buruz.

Gaiarekin hasi baino lehenago zehaztapen batzu egin nahi genituzke, dena dela. *EGLU-I (Eraskina)* liburuan (Euskaltzaindia 1987) egiten den moduan komeni da perpausaren egituraz ari garenean bi egitura mota bereiztea: sintaxi mailan *sintaxi egitura* dago, hau da, perpaus baten barnean izen sintagmek hartzen dituzten funtzioak edo aditzarekin ezartzen dituzten harremanen berri ematen digun egitura. Beste maila desberdin batean *mintzagai egitura* berezi behar dugu, esaldi horretan eman nahi den informazio motarekin, ingurunearekin, pragmatikarekin edo komunikazioarekin loturik dagokeena. Argi dago, nolanahi ere, mintzagai egitura hau ere prozedura sintaktikoez baliatuz gauza daitekeela eta, hortaz, neurri batean bederen, baduela eragina sintaxi egituran. Egitura honetan zehaztu beharko dugu zergatik, komunikazio edo pragmatika kontuek agindurik, izen sintagma jakin batek leku hau bai baina bestea ez, har dezakeen. Pragmatikak eraginen lioke hala hiztunari mintzagai egitura aukera lezan. Behin aukera egin ondoren nola gauza daitekeen mintzagai egitura sintaxi mailan, sintaxi egiturak zehaztuko luke.

Nolanahi ere, eta ohi den bezala, perpausaren egituraz mintzo garenean, perpausaren sintaxi egituraz ari garela ulertu behar da, besterik esaten ez denean behintzat.

1. Perpausaren barne egituraz bi hitz

Euskal hiztunak, jakina den bezala, esaldiko IS bat besteen gainetik nabarmendu nahi duenean, badu parada, nahiz ez den hau hartarako erabil dezakeen mekanismo bakarra[2], IS hori aditzaren ezkerrekoaldean jartzeko. Hortaz, bada perpausaren sintaxi egituran leku berezi bat: nahi dugunean betetzen dugu (perpaus galdegaidunetan) eta nahi dugunean, berriz, hutsik uzten dugu (galdegairik gabeko perpausetan).

Perpausaren egituraz ari garela eta, dena dela, batek galde diezaioke bere buruari ba ote duen inolako egiturarik perpausak. Ez al da, esan dezake, euskal perpausa

(2) IS bat nabarmendu daiteke sintaktikoak ez diren mekanismoen bidez ere: doinu aldaketarekin, esate baterako.

besterik gabeko hitz zerrenda bat, nahi dugun bezala hurrenkeratua, horrek esplikatuko bailuke hitzen ordena libroa? Zergatik mintzo gara P-ren "egituraz"? Har dezagun, esate baterako, hurrengo adibide hau:

(1) *Gizon horrek gure etxeko leihoak apurtu ditu*

Jakin badakigu hitz horiek P bat osatzen dutela eta, horrenbestez, esan daiteke hitz kate hori P baten azpian dagoela, hurrengo aurkezpen honetan gertatzen den moduan:

(2) P

gizon horrek gure etxeko leihoak apurtu ditu

Baina kontua, orain, hau da: zer dago P eta hitzen artean? Bada hor inolako egiturarik? Nola aurkezten dugu egitura hori? Esaldi horren aurrean batek pentsa eta esan dezake, adibidez, ez dagoela inolako egiturarik eta perpausa aurkezterakoan hitz guztiak P-tik zuzenean zintzilikaturik daudela, hau da, P-ren hasierako eta amaierako zatiketa honela gertatzen dela:

(3)

Horrela aurkezten badugu P hau, esaten ari garena da P guztiak, azken batean, hitz segida bat besterik ez direla: hartu hizkuntza batek bere hiztegian dituen hitzak eta lerroan jarri denak. Berehala ikusiko dugunez, hori baino zerbait gehiago da P, hitzak ezin baititugu nolanahi jarri lerroan eta halako edo holako baldintza batzu bete behar baitituzte hitz horiek osatzen dituzten kateek. Ondorengo kate hau, esate baterako, ez da gramatikala, nahiz goiko hitz berberak diren:

(4) **Horrek etxeko gizon gure ditu leihoak apurtu*

Beraz, esan liteke hiztunak ezagutzen dituela, noizbait bereganatu dituelako, hitz kateak edo perpausak behar bezala osatzeko erabiltzen ditugun arau batzu. Zein dira arau horiek? Nolakoak dira?

Esan dezagun, hasteko, hitzek nolabaiteko loturak dituztela elkarren artean eta lotura horien arauera jartzen ditugula lerroan perpausean:

(5) [*gizon horrek*] [*gure etxeko leihoak*] [*apurtu*] [*ditu*]

Honekin esan gura dugu *gizon* eta *horrek* badutela halako lotura bat *horrek* eta *gure* hitzek, esate baterako, ez dutena. Delako lotura hori handiagoa dela, esate baterako, *gizon* eta *horrek*-en artean, *etxeko* eta *ditu* hitzen artean baino, e.a. Kako artean jarri ditugun lehenbiziko bi hitz horiek, esaten da, izen sintagma bat osatzen dute (ik. Goenaga 1981).

Egituren kontu hau uste dugun baino nahasiagoa da. Jo dezagun aztertu nahi ditugula hurrengo kakoen artean dauden hiru hitz horiek. Zein da hitz horiek osatzen duten izen sintagmen egitura? Edo, oinarrizkoago galde bat eginen dugu: izen sintagma al da hori? Azkeneko galdera honi erantzuna eman baino lehenago, saia gaitezen ikusten zein izan daitekeen hiru hitz horiek, elkarrekin lotzen ditugunean, osatzen duten egitura.

Hiru hitz horietan lau gauza, gutxienez, berezi beharko genituzke: hiru hitz (*gure, etxeko* eta *leiho*) eta artikulua ere: *a* (pluralaren ezaugarria ez dugu kontuan hartuko hemen). Zein da, bada, egitura? Gusto guztietako analisiak aurkeztu izan dira eta denek badituzte alderdi onak eta alderdi txarrak[3]. Hemen jartzen ditugu analisi posible horietako batzu:

(6)



Horiek batzu besterik ez dira, gehiago ere egon baitaitezke. Jakina, aukera guzti horien artean ez da batere erraza zuzena dena hautatzea. Bere horretan utziko dugu oraingoan auzi hau, aztertu nahi dugun harira ez datorrelako. Esan dezagun, besterik gabe, zuhaitzean jarri ditugun hitz horiek sintagmak osatzen dituztela elkarren artean. Hobeki esanda, izen sintagmak (aditzaz ez gara ari hemen).

Baina izen sintagmak osatzen dituzten ere zalantzan jar daiteke: euskaraz, denok dakigun moduan, sintagmaren buruak edo guneak atzean jartzen ditugu: esaldiaren azkena inflexioa da; sintagma posposizionaletako posposizioa, ezinbestean, atzean doa (*mendia-n, etxe-tik, alabaren baitan, zure ondoan*, e.a.); izen sintagma konplexuetan, izena da azkenean ageri zaiguna (*mendiko lorea*); ber gauza erlatibozko esaldiekin: osatzen duten izen sintagmaren aurrean jartzen dira, burua, beraz, azkenerako utziz. Guzti honetan badira salbuespen aipagarriak: izenondoak, izenaren ondoren daude (*etxe txikia*) eta *bait-* aurrizkiaz osaturiko erlatibozko esaldiak, hauek ere osatzen duten izenaren ondoren baitaude.

Zer gertatzen da izen sintagma sinpleekin? Erakusten diguten ordena, analisi klasikoetan, honako hau da:

(7) *etxe - a*
izena Det

Zergatik ez dugu esaten kasu hauetan ere, logika bera segituz, izen sintagma izan beharrean Determinazio sintagma (DetS) edo horrelako zerbait dugula?[4] Orduan burua edo gunea azkenean izango genuke eta ezkerraldeko hori (*etxe*) izango litzateke Det horren osagarria, bestelako kasuetan bezala:

(3) Ikus, adibidez, R. Trask-ek bere tesian (urterik ez du seinalatzen [baina 1984]: *Synchronic and Diachronic Studies in the Grammar of Basque*, hirugarren kapitulua bereziki (proposatzen duen analisia eta analisi hori oinarritzeko erabiltzen duen argumentazio ahula, nahiz eta egilearen ustez "virtually all of the astonishing claims which have previously been made about Basque grammar are false (...) the language exhibits an unusual and problematic type agreement whose existance has not previously been noted" (sarrera). Apala, ikusten denez.

(4) Euskaraz lau sintagma lexiko izanen genituzke (Izen sintagma, Aditz sintagma, Adjektibo sintagma eta Posposizio sintagma) eta beste lau gramatikal (Inflexio sintagma, Determinatzaile sintagma, Konplementizatzaile sintagma eta Aspektu sintagma).

(8) *etxe* - *tik*
mendi - *ra*
hemengo - *liburua*
etxea - *erosi duzu*
mendi - *a*
... - ...
(osagarria) - (gunea)

Den dena parean geratuko litzaiguke honela (jakina, aldi bakoitzean "gune" edo "osagarri" hori kategoria diferentekoa da). Izan sintagma izan beharrean DetS dela baldin badiogu, egitura honako hau edo honen antzeko zerbait izango litzateke:

(9)



Alde batera utziko dugu oraingoz arazo hau ere. Adibide hauek eman nahi izan ditugu egiturarik sinpleenak zehaztea uste baino korapilatsuagoa dela adierazi nahi izan baitugu. Horrenbestez, halako egiturei, besterik gabe, izen sintagma deituko diegu, gramatiketan egiten den bezala, jakinaren gainean agian beste zerbait dagoela hor. Itzul gaitezen orain berriz ere (5) adibidera: kako artean dauden hitz elkarketek IS-ak osatzen dituztela esan dugu. Baina nola iritsi gara horretara?

Hizkuntzen deskripzioan maiz erabili izan den teknika ezagun bat dela medio: ordezkatzearen teknika deituko dugu guk. Teknika honen arauera hitz multzo bat beste hitz multzo konplexuago batez ordezkatzen ahal baldin badugu eta perpausak ez badu gramatikalitatea galtzen, orduan hitz multzo horrek sintagma bat osatzen duela esanen dugu. Alderantziz, ezin baldin bada ordezkatze hori gertatu, orduan ez lukete sintagmarik osatuko. Ikus dezagun, bada, (5) adibidea hemen (10) bezala ematen duguna:

(10) [*gizon horrek*] [*gure etxeko leihoak*] *apurtu ditu*

Esandakoaren arauera, lehenbiziko hitz multzo hori sintagma baldin bada, beste sintagma bat osatzen duen hitz multzo berri batez edo sintagma konplexuago batez ordezkatzeko gai izan beharko dugu:

(11) [*andreak*] [*gure etxeko leihoak*] *apurtu ditu*

(12) [*ikusi duzun mukizu horrek*] [*gure etxeko leihoak*] *apurtu ditu*

Ikusten denez, sintagmak ederki ordezka daitezke: hor dago *gizon* eta *horrek* osagai bat osatzen dutelako froga. Aldiz, *horrek* eta *gure*-ren ordez ezin dugu ezer ere sar, biek batera ez baitute sintagmarik osatzen.

Egia esan, dena dela, gauzak pixka bat zehaztuago utzi nahi genituzke puntu honetan. Orain arte bildu dugun argumentazio hau da normalean liburuetan agertzen

dena. Hala ere, hemen jarri dugun moduan nahikoa ahula gerta daiteke. Batek esan lezake, esate baterako, 'horrek + gure' hitzek osatzen duten segida hori 'honek + hango' hitz segidaz ordezka daitekeela eta ordezkatzen ahal denez gero, [horrek gure] ere sintagma dela, geratzen zaigun perpausa gramatikala baita.

Agian errazago litzateke onartzea hiztunak badituela intuizio batzu eta intuizio horien arauera perpausaren hitzak bederen bereizteko gai dela: "[mendi] [hau] [beste] [tontor] [hau] [bezain] [zaila] [da] [igoteko]". Hitz horien ordez beste anitz aurkituko ditugu ordezkatzeko gai direnak. Ohart gaitezen perpaus horretan bi 'hau' agertzen zaizkigula: hitzez aparteko beste mailarik bereziko ez bagenu, hori kointzidentzia hutsa izango litzateke. Aldiz, 'mendi hau' sintagma bat dela onartuz gero, 'hau' bat bakarra dugula esan genezake, izena modifikatzen duena edo eta bi sintagmetan ageri zaiguna. Hortaz, 'mendi hau' eta 'tontor hau' klase berekoak izango lirateke, kategoria berekoak alegia. Klase berekoak direnez gero, klase horretako beste multzo batez truka daiteke, beti ere, jakina, semantikako legeak bortxatzen ez baditu behintzat. Intuizioak hemen hain argiak ez diren arren, badirudi distribuzio lege batzu bereiz daitezkeela horrela, izen eta erakuslearen gainetik sintagmak ere badaudela onartuz eta hitzak elkarren artean noalabaitere egituratuz. Baina 'mendi hau' eta 'tontor hau' klase berean sartzen baditugu ere, oso nekez ibiliko ginateke, intuizio mailan eta distribuzio mailan, 'horrek gure' hitz kateak klase bat osatzen duela pentsatzeko. Bada, beraz, halako intuizio bat perpausaren lehen mailako egituraren bereizketak egiteko orduan eta intuizio hori teorikoki oinarriturik geratzen da hitz multzoek har dezaketen distribuzioa ere kontuan hartzen baldin badugu. Gure adibidera itzuliz gero, ez litzateke zail izango 'horrek gure' horren ordez 'honek hango' jartzea baina, ongi ohartuz gero, bi ordezkatze egin ditugu hor, eta ez bat bakarra: 'horrek' ordezkatu dugu lehenik eta 'gure' gero, bi horiek, zein bere aldetik, kategoria berekoak baitira. Ez dugu aurkituko, halarik ere, bi hitz horiek osatuko luketen balizko sintagmaren ordezko hitzik, eta hori oso erraz egin daiteke benetako sintagmetan: 'hemen bizi den gizonak' esan beharrean 'honek' esan dezakegu, besterik gabe. Hori, jakina, ezin egin da 'honek gure'-rekin.

Honela aurkez dezakegu orduan gure perpausa:

(14)



Hemen egitura hierarkiko bat ikusten dugu: behetik hasita, lehenbiziko mailan hitzen kategoria zein den esaten da (izena, determinatzailea, e.a.); berehala ikusten dugu nola lotzen diren hitzak, zein diren osagaiak eta zein ez (aditzaren kontua bereiz uztez dugu oraingoz); azkenik, perpauseraino iristen gara. Analisi honi Berehalako Osagaien Azterketa (= Análisis en Constituyentes Inmediatos) esaten zaio eta gure artean sarri askotan erabilia izan da (ik. Goenaga 1981 eta Sarasola 1977). Iz eta Det dira IS-ren berehalako osagaiak; Izlg, Izlg eta I dira bigarren IS-aren berehalako osagaiak eta IS, IS eta A dira P-ren berehalako osagaiak. Aldiz, Izlg edo Det, neurri batean behintzat P-ren osagaiak izanik ere, ez dira berehalako osagaiak, berehalako osagaiak izateko adabegi batek zuzen-zuzenean eta bitartekorik gabe menderatu behar baititu bere osagaiak. Zalantza bat bakarrik geratzen zaigu orain: hau da P-ren

egitura edo bada beste adabegi bat IS, IS, A eta P-ren artean? Beste hitzetan ere esan daiteke: (3) eta (14) aurkezpenen artean, bigarren hau bestea baino egokiagoa baldin bada ere, hau al da egokiena?

Hemen eztabaida handia dago eta hizkuntzalari batzuren ustetan[5] P-ren berehalako osagaiak IS, IS eta A baldin badira ere, beste batzuren ustez P-ren berehalako osagaiak IS eta AS dira, berehala ikusiko dugun moduan. Arrazoi handiak badaude jarrera baten nahiz bestearen alde (ikus Euskal Herriko Unibertsitateak udan antolatu dituen ikastaroak direla eta, argitaratu ditugun liburuak guzti honetaz), baina bat bakarra aipatuko dugu hemen bigarrenaren alde, hau da, gure adibidera itzuliz, "gure etxeko leihoak apurtu ditu" hitz kateak osagai bat dela osatzen duela pentsatzen dutenen alde. Hemen ere lehen egin dugun aproba berbera egin daiteke (ordezkatzearena alegia) eta berehala ikusten da osagai horren ordez beste bat, luzeagoa nahiz laburragoa, sar daitekeela:

(15) *gizon horrek* [*gure etxeko leihoak apurtu ditu*]

(16) *gizon horrek* [*ez daki ezer*]

(17) *gizon horrek* [*zuk esaten dituzun gauza guztiak sinesten ditu*]

Horregatik esan liteke kako artean dagoen hori ere sintagma bat dela, kasu honetan, aditz sintagma:

(18)



Orain osatu dugu behar bezala P-ren sintaxi egitura: beraz, badirudi P-k baduela egitura bat eta egitura horretan kokatu beharko dugula nola edo hala mintzagai egituraren informazioa. Galdegaigunea, esate baterako, zehaztu behar da hor: hor behar dugu puntu bat non IS bat galdegai denean aditzaren aurrean kokatuko dugun. Zernahi gisaz, puntu honetara itzuli baino lehen esan dezagun beste zerbait. Aditzaren inflexioak (INFL) komunztadura egiten du subjektuarekin ere. Hemen garatuko ez ditugun arrazoiengatik, hizkuntzalariek AS-tik kanpo utzi izan dute INFL, P-tik zuzenean zintzilikatuz. Hortaz, hemen proposatuko dugun egitura honela geratuko da finkatuta:

(19)



Jo dezagun, hortaz, hori dela euskal perpausaren oinarrizko sintaxi egitura. Mintzagaiaz eta galdegaiaz ari garela, eta oraingoz definitu gabe ditugula, zeintzu ote dira

(5) Rebuschi-ren lanak aipagarriak dira puntu honetan. Kontu guzti hau, nolanahi ere askoz ere nahasiagoa da.

mintzagaigunean nahiz galdegaigunean agertzen zaizkigun izen sintagmek hartzen dituzten lekuak? Nola islada ditzakegu leku horiek egitura honetan? Nola lotzen dira, hitz batez, mintzagai egitura eta sintaxi egitura?

2. Aditzaren argumentuak eta A-lekuak

Logikan erabiltzen den terminologiaz baliatu nahi izanez gero, perpausa "proposizioa" dela esaten dugu. Proposizioetan beti agertzen dira "predikatua" (aditza) eta predikatuaren "argumentuak", esan nahi baita, aditz batek halako argumentuak eskatzen dituela beti bere inguruan. Esate baterako, *etorri* aditzak argumentu bat behar du: *norbait* etortzen da beti. *Euria egin* aditzak, ordea, ez du argumenturik behar, ez baitugu esaten "norbaitek" egiten duela euria. Hortaz, subjektuak perpausaren egituran betetzen duen lekua argumentu lekua da. Beste aditz bat hartzen baldin badugu, *ekarri*, adibidez, bi argumentu behar dituela esaten dugu: "norbaitek" "zerbait" ekartzen baitu beti. Objektu zuzenak hartzen duen lekua ere argumentu lekua da. Argumentuak ager daitezkeen lekuak A-lekuak deituko ditugu, perpausaren egituran bai baitira A-lekuak ez direnak ere, hots, aditzak berez proposizioa osatzeko eskatzen ez dituen lekuak.

Sarri askotan ez da batere erraza bereiztea noiz den sintagma bat argumentua eta noiz ez: badirudi subjektu eta objektuekin ez dagoela aparteko arazorik (objektuari "barneko argumentua" esaten zaio eta subjektuari, berriz, "kanpoko argumentua"), baina beste batzutan gauzak zailago bihurtzen dira: zer egin, esate baterako, adizlagunekin? *Bizi izan* aditzak "nonbait" bizitzea eskatzen al du? Edo *joan* aditzak "norabait" joatea eskatzen du? Kontu guzti hauek bere horretan utziko ditugu aztertzeke baitaude oraingoz.

Zertara dator guzti hau? galdegaiaz nahiz mintzagaiaz ari garela eta, hizkuntzalariak saiatu beharko baitu perpausaren egitura nagusian non kokatzen diren biak behar bezala zehazten.

3. A'-lekuak

Itzul gaitezen segidan (19)an ageri den egiturara. Beste nahasketetan sartu gabe, argi dago hor agertzen zaizkigun IS-ak A-lekuetan daudela. Baina guri interesatzen zaigun galdera beste honako hau da: zein da galdegaigunearen lekua? Konpara ditzagun hurrengo bi adibideok:

(20) *Jonek Mikel ikusi du*

(21) *Mikel Jonek ikusi du*

Esandakoaren arauera lehenbiziko esaldia neutroa izango litzateke, oinarrizko SOV ordena segitzen baitu. Bigarrenean, alderantziz, *Jonek* eraman dugu *Mikel* dagoen lekura eta alderantziz. Horrela, jatorriz subjektuaren lekuan dagoena objektuaren tokira eraman dugu eta objektuaren tokikoa berriz subjektuarenera.

Kontua da, ordea, (20) perpaus hori ez dela nahitaez neutroa. Neutroa izango litzateke bat kontaketan ariko balitz eta hor ematen zaigun informazioa dena berria balitz. Baina gerta liteke perpaus hori "nor ikusi du?" galderaren erantzuna izatea eta orduan ez da neutroa. Beste hitzetan esateko: "Mikel" hori aditzaren aurrean dago oinarrian baina galdegai bihurtuz gero beste toki batera eraman behar dugu, hau ere aditzaren ezkerreko aldean dagoena. Jakina, leku hori A'-lekua da, ez baitago, euskaraz, beti galdegaigunea beterik egotea eskatzen duen aditzik: aditz batek subjektua edo objektua eska dezake, baina ez "foku" bat izatea bere inguruan. Esate baterako,

"ikusi" aditzak fokua izatea eska dezake (*nor ikusi du Jonek?* baldin badiogu, adibidez) baina ez da nahitaezkoa (*zer gertatu da gaur?* galderaren erantzuna baldin bada (20) perpausa, adibidez). Aldiz, *ikusi* horrek beti nahiko du subjektua, beti "norbaitek" ikusten baitu. Hortaz, galdegaigunea A'-lekua izango da, nolabaitere aukeran dagoela edo adierazten dugularik horrela.

4. Topikoaren aurreratzea

Guzti hau dela eta, ezinbestekoa dugu hemen R. de Rijk-ek egin dituen lanak aipatzea, bera izan baita, seguruen, kontu hauetaz gehien arduratu denetako bat (ik. De Rijk 1978). De Rijk irakasleak bi prozesu nagusi ikusten ditu euskal sintaxian:

a) Topikoaren aurreratzea

b) Fokuaren ezarketa

Behin eta berriz esan dugun moduan, euskal perpausak ordena asko erakusten digu:

(22) *Jonek Coca-Cola edan du*

(23) *Coca-Cola edan du Jonek*

Jakina, bi ordena horien berri eman dezakegu euskal perpausean irabiatze arau orokor bat dugula esaten baldin badugu: arau horri esker, perpaus bateko hitzek ordena desberdinak har ditzakete. Gero bide bat aurkitu beharko genuke bigarrenean galdegaia ere badugula adierazteko. Baina kontuak piska bat nahasten dira irabiatze arau honen mugak zedarritzeko orduan:

(24) *Coca-Cola botila hori, Jonek esan didate apurtu duela*

Ohart gaitezen adibide horretan ez dela bakarrik hitzak perpausaren barnean lekuz alda daitezkeela, adibide honetan, hain zuzen ere, "Coca-Cola botila hori" IS, azpi azpian dagoen perpausetik kanpora atera baitugu perpausaren mugak gurutzatuz. Argi dago IS horren paper thematikoa (esan nahia) "apurtu" aditzetik biltzen duela eta bere leku naturala, nolabait esateko, ondoko adibidean pintatu dugun marrak zehazten duela:

(25) *Cola-Cola botila hori, Jonek esan didate* [*__apurtu duela*]

Esan dezagun, bide batez, "Jonek" IS ere lekuz kanpo dagoela bere oinarrizko perpausetik kanpora eramana.

Hori horrela izanik, badirudi ez dela irabiatze kontu hutsa, baizik hemen benetako arau sintaktiko bat dugula. Arau honi De Rijk-ek "Topic Fronting" deitzen dio, edo "Topikoaren aurreratzea", Mitxelenaren hitzetan esateko. Arau hau oso arrunta dugu euskaraz eta eraginik garbiena da perpausaren zati bat aurreratu egiten dugula, esaldia perpaus zati horrekin hasiz:

(26) *Sendgile hori, nere anaiak uste du* [*_oso ona dela*]

(27) *Sendagile horri, askotan iruditu zait* [*denek _ beldur diotela*]

(28) *Sendagile horrentzat, beldur naiz* [*hemen _ lanik ez ote dagoen*]

(29) *Sendagile horrekin, behintzat, ez dut uste* [*inoiz _ mendira joango naizenik*]

Adibide hauek De Rijk-en lanetik moldatuak izan arren, edozein euskaldunek ontzat emango lituzke, egunoroko hizkeran erabiltzen baitira horrelakoak. Esan

dezagun, gainera, aurreratze horrek ez duela muga jakinik, perpaus bat izan beharrean perpaus asko "gurutza" baititzake:

(30) *Sendagile hori, ez dut uste* [*inoiz idatzi dudanik* [*zuk esan duzula* [*irratitik entzuna zeneukala* [_*oso ona zela*]

Ikus ditzagun orain ondoko datu hauek:

(31) *That doctor, I don't think I would like him to treat me*
«mediku horrek, ez dut uste nahiko nukeen berak ni sendatzea»

(32) *Las acelgas las preparará María*

(33) *A María la vieron con su novio*

Ikusten da ingelesez eta gaztelaniaz topikoaren aurreratzearekin antz handia duen fenomeno bat gertatzen dela. Adibide horietan ere (ingelesezkoa hitzez hitz itzuli dut eta euskal bertsioa nahikoa kaxkarra izan liteke) mendean dagoen perpaus zati bat aurreratu egin dugu: *las acelgas* eta *A María* IS-en leku naturalak aditzaren eskuineko aldean daude —gaztelania SVO tankerakoa delako—. De Rijk-en ustez, halaz ere, euskaraz beste zerbait gertatzen da, eman ditugun adibide hauek "Left Dislocation" edo "Ezker aldeko destokitzea" besterik ez baitira. Zein da, bada, desberdintasuna? Ezker aldeko destokitzeak bi ezaugarri ditu Topikoaren aurreratzean aurkitzen ditugunak:

1) Destokitzen den IS-ak beti uzten du bere jatorrizko lekuan izenordain bat.
2) IS mugagabeak ezin dira destokitu ezker aldera:

(34) *La comida la prepararé yo*

(35) **Una comida la prepararé yo*

Lehenbiziko adibidean *la comida* IS-ak *la* izenordaina utzi du eta bigarrenean, IS hori mugagabea denez, ezin da ezker aldera destokitu. Euskaraz, ordea, Topikoaren aurreratzea deitu dugun honetan ez da gertatzen horrelakorik deus, hurrengo adibideotan ikusten den moduan. Lehenbizikoan, "mediku horrek" IS-ak ez du, itxuraz behintzat, izenordainik utzi eta bigarrenean partitiboan (beraz, mugagabea) dagoen IS bat aurreratu dugu:

(36) *mediku horrek, ez dut uste inor sendatuko duenik*

(37) *medikurik, ez dut uste hemen aurkituko duzuenik*

Geroago itzuliko baldin bagara ere kontu hauetara, komeni da hemen arazo guzti hauetan erabiltzen dugun terminologiari buruz zer edo zer esatea, nahasketa handia dagoelako hizkuntzalarien artean.

5. Thema eta rhema

Perpaus batean bi egitura mota berezi behar dira: sintaxi egitura eta mintzagai egitura (edo egitura funtzionala). Sintaxi egituraren barnean, bere aldetik, bi osagai aurkitzen ditugu, perpausean halako indar berezia dutenak: subjektua alde batean eta predikatua (subjektuaz dioguna alegia) bestean; mintzagai egituran ere, beste bi osagai: thema eta rhema. Bestelako izen batzu ere aurkitzen dira thema eta rhema dei-

tzeko, hala nola thema eta tesia, topikoa eta irazkina, e.a. (ikusi, honetaz, *EGLU-I*(Er.) Ikus dezagun guzti hau adibide batzutan (adibideok Hernanz-Brucart 1987-n):

(38) *Dalila traicionó a Sansón*

(39) *Jonek Mikel agurtu du*

(40) *John saw Mary*

«Jonek Miren ikusi zuen»

Hiru adibide hauetan subjektua eta thema pare parean daude eta ber gauza predikatua eta rhema, esan nahi baita, osagai bera dugula subjektua edo thema (*Dalila, Jonek* eta *John*) eta osagai bera berriz ere predikatua eta rhema (*traicionó a Sansón, Mikel agurtu du, saw Mary*). Eta normalean hala gertatzen da: subjektua themarekin eta predikatua rhemarekin bat eginda agertzen zaizkigu. Ingelesez ia beti. Ez, ordea, nahitanahiez euskaraz edo gaztelaniaz:

(41) *A Sansón lo traicionó Dalila*

(42) *Mikel Jonek agurtu du*

Bi adibidez hauetan subjektua rhemaren barnean dago (*lo traicionó Dalila* eta *Jonek agurtu du*) eta thema ez da subjektua, baizik objektua (*A Sansón* eta *Mikel*).

Thema eta rhema zer diren behar bezala zehaztea ez da gauza erraza eta gramatika guztietan definizio hurbilkorrak ematen dira. Esan dezagun, Pragako eskolako hizkuntzalariek erabili zuten zatiketaz baliaturik, thema dela aldez aurretik elkarhizketariek ezagutzen duten informazio zaharra edo hitz egingo denaren erreferentzia markoa eta rhema, berriz, elkar hizketa horretan agertzen den edo informazio zaharrari buruz ematen den informazio berria. Halakoak dira normalean gaur egun ematen diren definizioak (ikus, esan bezala, Euskaltzaindiaren Gramatika edo aipatu dugun Mitxelenaren artikulua)[6].

Ez da nahitaezkoa rhema bigarren tokian, themaren eskuinean alegia, agertzea, sarri askotan ordena hori aldatu egiten baita:

(43) *DALILA traicionó a Sansón*

(44) *A SANSON traicionó Dalila*

(45) *MIKEL agurtu du Jonek*

Argi dago hiru perpaus horietan, doinua ere nahikoa markatua dute, letra handitan jarri ditugun hitzek ematen digutela informazio berria eta, hortaz, beraiek osa-

(6) Hala ere, sintaxiak autonomoki duen eraginaren berri eman nahi nuke, halako zatiketak oso arbitrarioak eta hurbilkorrak baitira. Jo dezagun gramatikalari funtzional bat dugula gure artean ikerketak egiten eta, kanpotik etorri denez, ez duela euskara ongi ezagutzen. Jo dezagun halako perpaus bat entzuten dugula:

(1) *kilimaki horiek, nork arraio ligarri ote ditu?*

Ez dago dudarik "kilimiki" horiek identifikatuko lukeela mintzagaiarekin edo themarekin. Zehatzak izanik, eta perpaus honi erantzuna emanik:

(2) *kilimiki horiek, Peruk ligarri ditu*

Peru izango genuke hor informazio berri bakarra. Baina ez dugu uste hizkuntzalari hori behar bezala jabetu denik gainerako guztiaz: hau idatzi duenak, behintzat, ez daki zer izan daitekeen *kilimakia* (nahiz

tzen dutela, neurri batean behintzat rhema (*¿QUIEN traicionó a Sansón?, ¿A QUIEN traicionó Dalila?* eta *NOR agurtu du Jonek*). Konpara esaldi horiek goian jarri ditugun (38), (41) eta (42): oso antzekoak diren arren, esanahia zeharo desberdina da, erdarazko bietan behintzat. Adibiderik argiena (41) izan daiteke, hor ezin baita galdetu *¿A quién lo traicionó Dalila?*, baina (44)ean, hain zuzen, horixe da egiten den galdera. Esan bezala, lehenbiziko hirurak (euskarazkoa barne) themarekin hasten dira eta azkeneko beste hiru hauek, berriz, rhemarekin.

De Rijk-ek bere lanean ongi dioskun moduan, thema (informazio zaharra) leku anitzetan ager dakiguke perpausean eta, hortaz, sarri askotan, zaila da jakitea agertzen zaigun ere. Euskaltzaindiko Gramatikaren planteiamendua ere bide beretik doa. Han esaten denaren arauera mintzagai (thema) isilduak ere izan ditzakegu "etorriko da" bezalako perpaus batean, subjektua isiltzen baitugu hor.

6. Thematizazioa eta rhematizazioa

Behin ikusi ondoren zer diratekeen thema eta rhema, aipa dezagun mintzagai-egitura delako honetan gertatzen diren bi prozesu nagusi: thematizazioa eta rhematizazioa.

Thematizazioa delako prozesuaren bidez thema deitu duguna perpausaren bazterreko leku batera, toki periferiko batera, eramaten dugu; normalean, nahiz ez beti, perpausaren hasierara:

(46) *Las acelgas, María las detesta*

(47) *A María, la vieron con su novio*

Horrek esan nahi du thema leku jakin batera eramaten dugula. Prozesu honek hiru ezaugarri ditu:

1) Edozein sintaxi-kategoria thematiza daiteke
2) Sintagma bat baino gehiago thematiza daiteke
3) Thematizatu den osagaiak badu beti perpausaren barruan berarekin indizekidetasuna duen izenordaina

Ikus daitekeenez, thematizazioa da "ezker aldeko destokitzea" deitu dugun fenomeno bera.

Rhematizazioaren prozesuan ere antzeko zerbait gertatzen da: prozesu hau dela eta, rhema edo rhemaren zati bat (hau da, informazio berria) perpausaren barneko leku nabarmen batera (toki "prominente" batera) eramaten dugu. Leku hau, anitzetan, aditzaren ezkerraldea da:

(48) *Pedro se casará con María*

(49) *CON MARIA se casará Pedro*

Lehenbiziko esaldian "se casará con María" da rhema, lehenago esan dugun bezala, eta rhema horren zati bat rhematizatu dugu bigarren esaldian, CON MARIA hain zuzen ere, aditzaren ezkerraldean jarriz.

---

mintzagai bezala identifikatuko lukeen zalantzarik gabe) ez eta *ligarri* ere, nahiz guzti hori informazio "zaharra" omen den nonbait. Hain zuzen ere, informazio zaharra delako horrek ez luke inolako esanahirik pragmatikaren ikuspuntutik. Esan nahi baita, sintaxiak baduela bere autonomia osoa, egitura kontuetan, arazoak deskribatzeko.

Thematizazioa eta rhematizazioa, hizkuntza askotan bederen, oso antzekoak ditugun arren, badituzte zenbait desberdintasun:

1) Rhematizazioaren kasuan, subjektua atzera botatzen dugu gaztelaniaz:

(50) *En primavera Juan visitó Leningrado* (thematizazioa)

(51) *EN PRIMAVERA visitó Juan Leningrado* (rhematizazioa)

2) Rhematizazioaren kasuan ez da klitikorik uzten:

(52) *A Pedro lo saludó María* (thematizazioa)

(53) *A PEDRO saludó María* (rhematizazioa)

3) Rhematizatu, elementu bat besterik ezin daiteke rhematiza:

(54) *A Pedro, la carta, hay que escribírsela pronto* (thematizazioa)

(55) **A PEDRO LA CARTA escribió María (rhematizazioa)*

Terminologiaz ari garenez, labur dezagun orain arte esandakoa eta jar ditzagun ordenan kontzeptu guzti hauek. Mintzagai-egiturako thema eta rhema kenduz gero (axaleko deskripzioa litzateke), honako hau geratzen zaigu:

1) "Thematizazioa". Prozesu hau da "left dislocation" edo "ezker aldeko destokitzea". Euskaraz ez dukegu, antza, honelakorik.
2) "Rhematizazioa". Prozesu honi "topikalizazioa" ("Topicalización") edo "destokitzea" ("dislocación") deitzen diote hizkuntzalariek. Gure artean "galdegaia" esaten diogu.
3) "Topikoaren aurreratzea". De Rijk-ek ematen dio izen hori: gure artean "mintzagaia" esan ohi zaio.

Horixe litzateke, nolabaitere esateko, terminologia estandarra: Hernanz eta Brucart-ek, aipatu liburuan, hitz horiek erabiltzen dituzte. Radford-ek (1981) "ezker aldeko destokitzea" (gure thematizazioa) eta "topikalizazioa" (gure rhematizazioa) bakarrik erabiltzen ditu. Soames eta Perlmutter-ek (1979) "topikalizazioa" (gure rhematizazioa) besterik ez dute aipatzen. Azkenik, Contreras-ek (1978) eta Dubois-ek (1979), erabilera estandarraren kontra, "topikalizazioa" deitzen dute gainerakoentzat "thematizazioa" edo "ezker aldeko destokitzea" dena. Horra zergatik aipatu dugun kontu hauetan dagoen terminologiaren nahasmendua.

EGLU-n, "mintzagaia" eta "iruzkina" bereizten dira perpausaren barruan, hauexek direlarik, hain zuzen ere, orain arte aipatu ditugun "thema" eta "rhema". Bi elementu horiek beti izango ditugu euskaraz (hemen De Rijk-ek esandakoa biltzen da), nahiz batzutan oso zaila zaigun zein den thema edo mintzagaia jakitea, isildua ere egon baitaiteke, aditzaren eskuinean nola ezkerrean (*berandu etorri da*). Delako mintzagai hori "mintzagai hanpatua" izan daiteke (orain arte "thematizazio prozesua" deitu diogu honi) eta orduan perpausaren hasieran jartzen dugu: hau da, De Rijk-en "topikoaren aurreratzea" eta, seguraski ere, beste hizkuntzetako "ezker aldeko destokitzea". Irazkinaren barnean ere "hanpadura" gerta liteke: hanpatzen dugun osagaia "galdegai" bihurtzen dugu. Hauxe da, jakina, rhematizazioa. Aipatzen ari garen gramatika honetan eskema orokor hau ematen zaigu:

+ mintzagaia + hanpadura	+ mintzagaia - hanpadura	- mintzagaia + hanpadura	- mintzagaia - hanpadura	+ mintzagaia - hanpadura
	Piarresek		esnea edan du	
Piarresek		esnea	edan du	goiz honetan
Piarresek (esnea)		edan	egin du	
	Patxi		etorri da	
Patxi		goizean	etorri da	Parisetik
auto berria		hortxe	erosi dut	
ordiak		entzun	dantzu	
			badator	laguna
	haizea		bada	
nik ordea		ba	dakit	
		asko	dakizu	
jan		ondo	jaten du	horrek
	ama		ohera joan da	
		ama	joan da	ohera
ama		laster	joanen da	ohera

Bi osagai, hortaz, perpausaren mintzagai egituran: thema eta rhema edo mintzagaia eta irazkina. Horrekin batera, bi prozesu: thematizazioa eta rhematizazioa. Thematizazioa bi modutara, gutxienez, gauzatzen da, hizkuntzen arauera: ezker aldeko destokitzea (gaztelaniaz edo inglesez) eta topikoaren aurreratzea (euskaraz). Orain arte esan ez bada ere, seguraski bi prozesu hauek thematizazioari dagozkio: horregatik sailkatu ditugu multzo berean.

Thematizazioko bi prozesu hauek, De Rijk-en hitzetan, desberdinak genituzke, aipatu ditugun bi arrazoiengatik: hasteko, ezker aldeko destokitzean klitikoak uzten ditugu eta, gainera, IS mugagabeak ezin dira ezker aldera destokitu. Bigarren hori badirudi ez dela betetzen euskararen kasuan: zer, ordea, lehenbizikoarekin? Gauzak ez daude hain argi hemen: jakina, thematizatzen edo aurreratzen dugun IS kasu gramatikal batean badago, beti ere esan dezakegu hor isilean dagoela izenordaina:

(56) *sendagile horrek, ez dut uste _ inor sendatuko duen*

Azken batean, izenordain isil horiek hain ugariak ditugunez gero euskaraz, beti pentsa dezake batek hor dagoela klitiko sintaktiko bat, eduki fonetikorik gabea. Orduan, klitikorik uzten duen hala ez jakitzeko, kasu gramatikalean ez dagoen testuinguru bat asmatu beharko dugu. Horixe da De Rijk-ek egiten duena. Hona hemen berak ematen digun adibidea:

(57) **sendagile horrekin, behintzat, ez dut uste berarekin inoiz mendira joango naizenik*

Irakasle honek dioskunez, perpaus hori gramatikala litzateke "berarekin" izenordain hori kenduko bagenu. Egia esateko, nik ez dut hain gaizki aurkitzen esaldia dagoen bezala ere. Dena den, badirudi euskaraz sar daitezkeela direlako klitiko horiek, aurreko IS eta klitikoaren (izenordainaren) artean nahikoa distantzia baldin bada: zenbat eta urrunago izan, orduan eta aukera handiagoa izenordaina sartzeko,

(58) *andre horrekin, ez dut uste egunkariak esan duenik berarekin nahitaez ezkondu behar dugunik*

Utz dezagun, hortaz, puntu honetan kontua: ikusi, nahi izanez gero, Salaburu 1987a eta 1987b. Dena dela, han agertzen den terminologia guztia hemen eman ditugun xehetasun berriak kontuan izanda ulertu behar da, besterik gabe irakurriz gero nahasketak sortuko direlako.

Gaineratu beharko litzateke hemen zer edo zer thematizazio eta rhematizazioaren arteko desberdintasunez euskal perpausetan. Diferentzia asko egon arren, bada bat aipagarria: euskal perpausa ager liteke rhematizazioa eginez bakarrik, topikoa thematizatu gabe. Alderantzizkoa, ordea, ez da egia: zerbait thematizatzen baldin badugu, nahitaezko gertatzen zaigu perpaus horretan beste elementuren bat rhematizatzea. Beste hitzetan esateko, eta aski da goiko adibideak ikustea: ez dugu mintzagai hanpaturik galdegairik ez bada.

Mitxelena ere, gorago aipatu dugun lanean, mintzagaiaz eta galdegaiaz aritua da: beraz ez du bereizten hor mintzagai hanpaturik edo ez hanpaturik. Gure terminologiara itzuliz, esan dezagun Mitxelenaren, eta oro har euskal hizkuntzalarien, "mintzagai" delakoa, "mintzagai hanpatua" dela eta "galdegaia", berriz, rhemaren zati hanpatua. Hortaz, badirudi bikotea ez dela mintzagaia/galdegaia, baizik mintzagaia/irazkina: mintzagaia hanpatua izan daiteke eta orduan perpaus hasieran jartzen dugu de Rijk-en "topikoaren aurreratzea" eginez; irazkinean, berriz, osagairen bat hanpaturik egon liteke eta orduan aditzaren aurrera eramaten dugu, Altubek seinalatu zuenez. Zein den hori egiteko erabiltzen dugun mekanismo sintaktikoa beste arazo bat da eta berehala itzuliko gara puntu horretara. Hemendik aurrera, bada, "mintzagaiaz" aritzen bagara, ekonomi arazoengatik, "mintzagai hanpatua" esan nahiko dugu, hori baita, hain zuzen, sintaxi aldetik interesatzen zaiguna. "Galdegaia", berriz, destokitzea edo rhematizazioa izanen da (kontzeptu korapilatsu hauek ez nahastearren, ez dugu erabiliko "topikalizazio" hitza hemen).

Mitxelenaren lana dela eta, esan dezagun, bide batez, zenbait gauza ez daudela oso xuxen lan honetan. Esate baterako, 75. orrialdean honela dio: "Aurreratze horrek, azkenik galdegaia altxa dezake..." ("mintzagaia" esan behar luke, nere ustez); orrialde berean, berriz ere: "Ez duzue *sendagille ori*, azken perpausaren galdegaia..." (berriz ere "mintzagaia" behar hor), eta hurrengo orrialdean honako hau :"galdegaiaren aurreratza, *topic fronting* delakoa..." (berriz ere "mintzagaiaren" behar du izan). Ez dakigu zergatik egin zituen Mitxelenak huts hauek, hutsak badira behintzat. Agian inprenta kontua da, agian hau idaztean hitzak gurutzatu egin zitzaizkion (eta ez da harritzekoa, erraz nahas baitaitezke) edo, beharbada, kontzeptu hauekin ez zen oso komodo sentitzen errenteriarra. Berak aitortzen digu geroago egindako lan batean (ikus Mitxelena 1987, 483) honako hau (beste artikulu bati buruz ari da) diosku:

> ...mi empleo de 'tema', 'tópico', etc. era por entonces muy laxa, si se me permite el eufemismo. Ahora (y De Rijk, Rebuschi y otros han contribuído a fijar un poco mejor las cosas) tendríamos una clara distinción entre foco y tópico, cuyos equivalentes vascos bien podrían ser 'galdegaia' y 'mintzagaia'

Esan dugun bezala, terminologia honen gainean beste zehaztapen batzu ere egitea komenigarria da, 'galdegaia' eta 'mintzagaia hanpatua'-z ari baikara, erabiltzen diren terminologietako bat euskarara moldatuz.

Aitortu behar da, bestalde, lan honetan ez duela funtsezko gauza berririk esaten Mitxelenak, thema-rhema kontuari dagokionez, De Rijk jaunak aspaldi esanak bil-

tzera mugatzen baita neurri handi batean. Honekin ez diogu garrantzia kendu nahi berez inportatea den artikuluari: han hemenka agertzen dira sakabanaturik ideia franko, gai honekin beharbada zuzen zuzen loturik ez dauden ideiak. Nori berea eman diezaiogun, haatik. Artikulu honetan, Mitxelenaren gainerakoetan bezala, ikerbide bat baino gehiago seinalatzen zaigu, idazlea keinuka ari balitzaigu edo.

7. Topikoaren aurreratzea, mugimendu arau baten ondorio?

Azken puntu bat ere geratzen zaigu hemen: esan dugunez, thematizazioa prozesu sintaktiko nagusi bat da eta horren eraginez perpausaren osagai bat hasierara eramaten dugu. Honek, honela esanda, osagai baten mugimendu sintaktikoa dela adierazten du, zerbait behetik gora eraman dugulako. Jakina, hori ez da prozesu hau esplikatzeko modu bakarra. Agian ez da egokiena ere. Fenomeno honen berri bi modutara, gutxienez, eman baitaiteke:

1) Izen sintagma bat ezkerrera mugitu. IS horren tokian izenordain bat sortu. Izen sintagma eta izenordainari indize bera eman.
2) "Thematizaturik" agertzen den izen sintagma hasiera hasieratik dagoen lekuan sorrerazi berridazketa arauen bidez. Izenordaina ere leku berean sorrerazi. Izen sintagma eta izen ordainari indize bera eman.

A priori ezin esan dezakegu bide bat bestea baino egokiagoa denik. Badirudi, hala ere, mugimendu bat dagoela esateak gauzak nahas litzakeela, mugimendu horrek mugimendu arauek betetzen dituzten baldintzak bete beharko bailituzke. Ikusiko dugu puntu hau. Nolanahi ere, proposatzen diren bi bideen arteko desberdintasuna horretan dago: batean mugimendua behar dugula eta bestean, berriz, ez.

Arazo hau dela eta, batzutan 'topikalizazio' hitza erabili izan da 'topikoaren aurreratzea' gertatu dela adierazteko, hau da, mugimendua izan dela adierazteko. Mugimendurik ez dagoela, hots, IS hasieratik toki berean dagoela adierazi nahi izan denean, "topikoaz' mintzatu izan dira zenbait. Beraz, konparatu orain hitz hauen esanahia goian esandako guztiarekin. Berriz ere nahaspide iturri ugari.

De Rijk-en ustez, mugimendu bat gertatzen de "topikoaren aurreratzea" ezartzen dugunean:

(59) *mediku horrek, ez dut uste gaisoak sendatzen dituenik*

Kontua hauxe da: non dago *mediku horrek* IS? Ikusten denez, ez da A-lekua, goiko perpausaren subjektua *nik* baita eta ez *mediku horrek*. De Rijk-ek uste duenez, IS bat aurreratzen dugunean (topikoaren aurreratzea suertatzen denean alegia) IS hori P-ri adjuntatzen diogu. Adjuntzioak egitea da mugimendua aurkezteko bide bat, IS-ak eta bestelako osagaiak beste kategoria batzuri adjunta baitakizkioke. Nola definitzen dugu adjuntzioaren eragiketa hau?

"B-ri A adjuntatzen diogu A eta B menderatzen dituen B berria sortuz"

Honela aurkezten ahal da eragiketa hau:

(60)

Jar dezagun beste adibide bat. Jo dezagun NP berri bat adjuntatu nahi diogula VP-ri. Ezker aldean dago jatorrizko egitura eta eskuinaldean, berriz, adjuntzioaren ondorioz sorturikoa:

(61)



De Rijk-en ustetan gauza bera gertatzen da topikoaren aurreratzean ere: aurreratzen dugun IS adjuntaturik geratzen da S-ri (S=P; NP=IS; VP=AS; V=A):

(62)



Modu sinpleago batean aurkeztu nahi baldin badugu, hauxe da geratzen zaiguna:

(63)



Aldiz, mugimenduaren ondorio izan beharrean, mintzagai hanpatu hori dagoen tokian baldin bada hasiera hasieratik, honelako zerbait izango genuke:

(64)



Hor ez legoke inolako mugimendurik ez adjuntziorik, eta mintzagaiari (mintzagai hanpatuari, jakina) dagokionez, topikoaren aurreratzea adjuntzio baten ondorioa litzateke De Rijk-en ustetan.

Hala ere, topikoaren aurreratzea delako hau mugimenduaren ondorio baldin bada, badirudi ez dituela errespetatzen sintaxi mugimendu orori eskatu beharko litzaizkioke-en baldintzak, ondoko adibideetan ikusten den bezala:

(65) *Liburu hori, nere buruari galdetzen diot Mitxelenak idatzi ote duen.*

Perpaus honetan ikus daitekeenez, "liburu hori" NP mendeko perpausetik atera dugu perpaus osoaren hasieran jarriz, mugimenduaren bidez esplikatu nahi baldin badira gauzak behintzat. Baina gauza jakina da galde perpausak irla egiturak direla eta ezin dela galde perpausetatik ezer ere atera:

(66) **Zer galdetzen diot nere buruari Mitxelenak idatzi ote duen*

Badirudi, haatik, beste zerbaiten aurrean gaudela. Errazago da pentsatzea "topikoa" deitzen dugun hau (mintzagai hanpatua, thematizazio prozesu nagusia alegia) hasieran dagoela sortua eta beti ere mendeko perpausean aurki dezakeela erreferentzia semantiko bat, izenordain isilen nahiz fonetikoki gauzaturik dauden izenordainen bidez.

8. Galdegaia

Galdegaia da, esan bezala, rhematizazioaren prozedura sintaktikoa. Betidanik esan izan da galdegaia aditzaren aurrean (aditzari joa ezkerraldetik) jartzen dugula euskaraz. Aski da horretako orain arte eman ditugun adibide guztiak ikustea. De Rijk-en hitzetan galdegaia da, perpaus batean, perpausari legokiokeen galde-perpauseko galde-hitzaren pareko osagaia. Beraz,

(67) *Andoni etorri da*

Perpaus honi dagokion galde-perpausa honako hau baldin bada,

(68) *Nor etorri da?*

Orduan, *Andoni* izango litzateke galdegaia. Ez da, hortaz, deus berririk planteiamendu honetan. Ikusten denez, galdegaia da, hiztunaren aurrean, esaldian ematen den informazio berriaren oinarrizko pieza. De Rijk-en analisia IS-etara bakarrik mugatzen da, baina ez dirudi oso zaila izango litzatekeenik analisi hori galdegaia gertatzen den bestelako inguruetara ere hedatzea. Hona hemen Holandako irakasle honek proposatzen duena:

Jo dezagun IS-ek izan dezaketela, beste ezaugarrien artean, [Focus] ezaugarria Sakoneko Egituran. Perpausaren eratorpenaren puntu batean mugimenduzko arau bat izanen dugu ("Fokoaren ezarketa" izenekoa) eta arau horrek eramaten ditu [+focus] ezaugarria edo tasuna duten IS guztiak aditzaren ezkerreko aldera.

Ikusten denez, fokuaren ezarketak badu antz handia ingelesezko NZ-hitzen (*Nor, Zer, zein...*) mugimenduarekin, baina ingelesez ez bezala, mugimenduaren eraginak aditzaren aldera (eskuinera, aditza perpaus amaieran baitago) eramaten digu IS-ak. Horregatik, Fokuaren Ezarketa ez da aurreratze araua, atzerago eramaten baitira [+focus] marka duten IS-ak. Ohart gaitezen ingelesez eta beste hizkuntza askotan NZ-hitzen mugimenduaren ondorioa dela hitz guzti hauek perpausaren hasieraraino eramatea.

Eragiketa hau dela eta, badirudi mekanismo bat izan behar dugula perpausaren sintaxi egituran galdegaia eta aditza elkarrekin biltzeko. Adabegi horrek zuzenean menderatuko lituzke horrela V eta NP[+ foku]. De Rijk-ek dionez, ez litzateke batere bidegabekeria izanen V eta NP (bat edo gehiago) biltzen dituen adabegia VP (aditz sintagma) izatea. Baina hona hemen orain gakoa: VP hau mugimenduaren ondorioz

sortu baldin bada, galdegaia eta aditza biak batera biltzeko, ezin izan dugu Sakoneko Egituran VP-rik izan. Hortaz, Sakoneko egitura laua izango genuke, maila diferentziarik ezarri gabe subjektua eta objektu zuzenaren artean.

Honek ez du esan nahi "subjektu" delako horrek garrantzirik ez duenik euskaraz. Ez, prozesu anitz eta anitz subjektuarekin bakarrik gertatzen dira, baina hori beste kontu bat litzateke: ingelesez "subjektu"-aren nozioa egituratik zuzenean defini baldin badaiteke ere, euskaraz beste zerbait gertatzen da eta beste bideak beharko ditugu "subjektua" bezalako kontzeptuak definitzeko.

Bestela esanda: euskal perpausaren egitura laua da Sakoneko Egituran eta mailakatua, berriz, Azalekoan, "Fokuaren Ezarketa" ezarri ondoren adabegi berri bat sortu baitzaigu egitura horretan. Ondoko irudietan ikus daiteke askoz ere argiago prozesu guzti hau. Jo dezagun "Aitak bihar amari gona gorria ekarriko dio" dugula oinarrian eta "bihar" horrek daramala [+foku] marka. Orduan beharrezkoa zaigu "Fokuaren ezarketa" izeneko transformazioa. Irudietan ikusten dira ondorioak (lehenbizikoan, araua ezarri baino lehenago; bigarrenean, araua ezarri eta gero):

(69)



Hor ikusten dira oso ongi bi pausuak: lehenbizikoa Sakoneko Egiturari legokioke eta bigarrena, berriz, azalekoari. Hipotesi honetan, bigarrenekoan bakarrik daukagu VP.

Esan dezagun, hortaz, De Rijk-ek bi prozesu nagusi bereizten dituela euskal sintaxian: topikoaren aurreratzea eta galdegaiaren ezarketa. Bietan mugimendu arauak ditugu: lehenbizikoan, NP bat (edo gehiago) aurreratu egiten dugu perpausaren hasieraraino, S-rekin adjuntzio bat eginez; bigarrenean, NP bat edo gehiago eskuinera, aditza dagoen lekura, eramaten ditugu, VP adabegi berria sortuz. Hipotesi honek dioenez, euskaraz ez genuke izango, oinarrian, aditz sintagmarik.

De Rijk izan zen, nere ustez, gai guzti hauek pixka bat serioki tratatzen saiatu zen lehenbiziko hizkuntzalaria eta horrexegatik luzatu gara espreski puntu honetan.

Garai batean Jon Ortiz de Urbina, Miren Azkarate eta Andolin Eguzkitza hizkuntzalariek euskara laua zela mantendu bazuten ere, Rebuschi da, agian, egun hipotesi horren alde agertzen direnen bakarretakoa.

A. Eguzkitzak (1986) A-barra posizio bat jartzen du VP-ren azpian eta V-ren ondoan, galdegaigunea seinalatzeko. Ortiz de Urbinak (1986) nahiago du, ordea,

galdegaia COMP-era mugitzen dela mantendu, mugimendu honek aditzari eraginez eta aditza bera ere leku horretara mugi eraziz. Azalpen hau badirudi hobeki konpontzen dela Uztardura Teoriarekin eta Kategoria Isilen Printzipioarekin. Baina guzti hau beste kontu bat da.

Gehiago luzatu gabe bukatzea merezi duela uste dugu: ikusten denez, sintaxi aldetik bakarrik behatuz, mintzagai /galdegai kontu honetan nahasketa terminologiko ugari ageri da. Lantxo honetan nahasketa horien berri eman nahi izan dugu, terminologia egokiago bat proposatu nahirik.

Bibliografia

Altube, S., 1929, *Erderismos*, Bermeo 2. arg. Euskaltzaindia, Bilbo 1975.

Contreras, H., 1978, *El orden de las palabras en español*, Cátedra, Madrid.

Donzeaud, F., 1972, "The Expression of Focus in Basque" *ASJU* VI, 35-45.

Dubois, J., 1979, *Diccionario de lingüística*, Alianza Ed. Madrid.

Eguzkitza, A., 1986, *Topics in the Syntax of Basque and Romance*, UCLA: Doktorego tesia.

Euskaltzaindia, 1987, *Euskal Gramatika. Lehen Urratsak-I (Eraskina)*, Euskaltzaindia, Bilbo [*EGLU*-I (*Eraskina*)].

Goenaga, P., 1981, *Gramatika bideetan*, Erein Donostia.

Hernanz, M. Ll.-Brucart J. M., 1978, *La sintaxis. 1. Principios teóricos. La oración simple*. Crítica Barcelona.

Mitxelena, K., 1987, *Palabras y textos*, Euskal Herriko Unibertsitatea.

———, 1981, "Galdegaia eta mintzagaia euskaraz", Zenbait egile, *Euskal linguistika eta literatura: bide berriak*. Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 57-81. [Orain *SHLV*-n bildua].

Ortiz de Urbina, J., 1986, *Some Parameters in the Grammar of Basque*, University of Illinois, Doktorego tesia [Foris, Dordrecht, 1989].

Osa, E., 1988, *Euskararen hitzordena zeregin komunikatiboaren arabera*, EHU, Doktorego tesia.

Radford, R., 1981, *Transformational Syntax*, Cambridge UP.

Rebuschi, G., 1983, "A Note on focalization in Basque" *Journal of Basque Studies*, 4.

———, 1984, *Structure de l'énoncé en basque*, SELAF Paris.

Rijk de, R., 1978, "Topic Fronting, Focus Positioning and the Nature of the Verb Phrase in Basque", Frank Jansen (Ed), *Studies in Fronting*, Lisse.

3.2.3. *Harako*-k izen sintagmaren barnean hartzen duen tokiari buruz ere balegoke zer esanik. Azken aldiko joeratxo bat alde batera uzten badugu, sintagmaren lehen buruan doa beti *harako*. Izenlagunari dagokion tokia al da hori? Ez beti, nik uste. Izen sintagma soiletan, nolabait esan, edozein izenlagunek hartuko lukeen tokia hartzen du *harako*-k ere:

mendiko aulkia
harako aulkia

Eta, erabilera horretan, *harako*-ren pareko dira *honako* eta *horrako* hitzak ere, ondoko adibide honetan ikus daitekeenez:

(26) Bai al dakizu, aurra, zerekin edo zer gaiaz egin zittuan Jaungoikoak orrako mendi aiek, onako zelai eder auek eta arako itsaso zabal aiek? (Inza *Azalp* 34)

Izenlagun "normala" da, horrelakoetan, *harako* —*honako* eta *horrako* bezalaxe— eta bere aurkezpen-balio deiktikoa gorde egiten du, besterik erantsi gabe.

(7) Bada *OEH*-n oso bitxi eta gainerakoak ez bezalakoa gertatzen den kasu bat: *bat* zenbatzaile mugagabeaz amaitzen dena, alegia: *ikusi ei yuen arako agure gordin bat* (Bilbao, *Ipui B* 56). *Harako* presentatiboaren lekuan ez ote egokiago hor *halako* moduzkoa?

Izen sintagma luzeetan, ordea, hau da, barnean beste izenlagunen bat daramatenetan —hau erlatiboa baldin bada, batez ere—, *harako*-k hartzen duen tokia ez da ohizko izenlagunei dagokiena:

harako urtero egiten zuen ibilaldia

baina

*mendiko urtero egiten zuen ibilaldia

Azken hau beste honetara esango bait litzateke:

urtero egiten zuen mendiko ibilaldia (erlatiboa)

Horrelako sintagmetan, beraz, *harako* tokiz aldatua dagoela-edo dirudi, zegokion lekutik sintagmaren lehen burura ekarria, alegia: *urtero egiten zuen harako ibilaldia → harako urtero egiten zuen ibilaldia.*

Ustezko toki-aldaketa hori gorabehera, dena den, garbi dago horrelako egituran *harako*-ren balio deiktikoa ahuldu egin daitekeela eta sintagmari hasiera ematen dion hitz-tresna bilakatze bidean dagoela. Perpausetik kanpora seinalatu edo erreferentzia egin beharrean, badirudi sintagma luzea datorrela ohartarazten duen hasierako hitz tresna, giltz-hitza, izan daitekeela zenbaitetan.

3.2.4. Azken egitura luzeago honek zalantzarako bidea ere ekar dezake inoiz *harako*-z hasten den sintagmaren luzerari dagokionez. Izen sintagma nagusiak bere barnean beste IS bat daramanean —arrain handiaren barnean txikia, alegia—, *harako* zeini dagokion galdegin daiteke. *Harako ...-a ...-a* egitura, alegia, bitara uler daiteke: [*harako ...-a*] *...-a* edo [*harako* (*...-a*) *...-a*]. Hona, esate baterako, neuk asmaturiko *harako gazteak ekarri zituen arropa haiek* adibidea bitara uler daiteke:

a) [*harako gazteak*] ekarri zituen arropa haiek
(jakineko gazteak ekarri zituen arropa haiek)

b) [*harako (gazteak ekarri zituen) arropa haiek*]
(gazteak ekarri zituen jakineko arropa haiek)

Edo *OEH*-n harturiko beste honetan:

(27) Zer da araku artan dagon gauza gorri (y) ura? (Alz *STFer* 136)

Bi dira, hemen ere, egin daitezkeen irakurketak:

a) Zer da [*harako hartan*] dagoen gauza gorri hura?

b) Zer da [*harako (hartan dagoen) gauza gorri hura*]?

Ahozkoan, egia da, doinuak garbi ditzake zalantza batzuk. Azken adibidean, esaterako, ez lirateke berdin esango, beharbada, a) eta b) aukerak. Lehenbiziko aukeran *araku artan* multzo batean esango litzateke, ondoren tarte-eten laburra eginaz; bigarrenean, berriz, *araku* eta *artan* hitzen artean egingo litzateke tarte-eten hori.

Batzutan, dena den, osagai sintaktikoek berek gidatzen dute aukera: *harako* partikularen eta lehen mugatzailearen artean azken honi ez dagokion elementuren bat sartzen bada, sintagma osoari dagokio hura eta ez tartekoari. Hona, adibidez, *harako liburua erosi zuen mutil hura* perpausa bitara uler daiteke:

a) [*harako liburua*] erosi zuen mutil hura
b) [*harako (liburua erosi zuen) mutil hura*]

Baina tartean *zuenean* sartzen badugu, bakarra da aukera:

[*harako zuenean (liburua erosi zuen) mutil hura*]

Ezinkizun bait da *harako* eta bere sintagmaren artean beste inolako elementurik sartzea: **harako* (zuenean) *liburua*.

Honekin batera eta esandakoaren ildotik, beste zehaztapen hau egin dezakegu aztertzen ari garen egiturari buruz, izen sintagma den aldetik dagokiona: *harako* partikulaz hasten den sintagmaren barnean ezin da sintagmarena ez den elementurik sartu: **harako* Mikelek *liburua* irakurri du; **harako* polita da *Mikelek irakurri duen liburua*...

Zalantza bide hau dela-eta, nik bestela irakurriko nituzke, beharbada, *OEH*-k ematen dituen zenbait adibide. Honako hau, esate baterako:

(28) Arako Karpo Santuak desditxa au ikusi zuenean (Cb *Eg* II 157)

OEH-k ez du perpaus hau *harako ...-(e)nean* sailean sartzen. Honako hauek dira, hortaz, uzten dituen aukerak: a) [*Harako Karpo Santuak*]; edo [*Harako Karpo Santuak desditxa hau*]. Ez bata ez bestea ez dira, ordea, nire ustez, egokiak. Lehena posiblea da, berez, baina ez da oso normala aipamen hurbila izan duen pertsona aipatzean *harako* erabiltzea. Bigarrena, berriz, ezinkizun da, *[*harako* (Karpo Santuak) *desditxa hau*] bait litzateke, sintagmarenak ez diren elementuak sintagma barnean sartuta. Denborazko sintagmarekin lotuko nuke nik, beharbada, *harako*: [*harako Karpo Santuak desditxa hau ikusi zuenea*]n.

Gauza bera esan daiteke beste honako perpaus honetaz ere:

(29) Zu, Jose Antonio, esku-zurdea artuta, zoaz arako an dagoan atx lerdenaren gañera (Ar *Kr* 140)

Nola irakurri behar da testu hori, [*harako han*], *OEH*-k bezala, ala [*harako han dagoen haitz lerdena*]ren gainera?

3.2.5. Sintagmaren elementuen kokapenari dagokionean, bada, azkenik, beste puntu mehe bat Arrueren testu zail bat hobeto ulertzen lagunduko diguna. *Harako*-sintagmaren barnean sintagmarena ez den elementurik ezin sar daitekeela esan dugu goraxeago. Sintagmarenak kanpora atera, ordea? Hau da, *harako...mugatzailea* mugarrietatik at eman al daiteke sintagmarena den elementuren bat? Orainagoko idazle batzuk izenlaguna *harako*-ren aurrean jartzeko joera omen dute. Hau da, eta adibidea nirea da, *harako etxeko gela ilun hartan* esan beharrean, *etxeko harako gela ilun hartan* ere esaten omen dute batzuk. Hortik aparte, ordea, ez dirudi horrelako "kanporatzerik" gertatzen denik.

Arrueren (25). perpausean, halere, badirudi beste mota bateko kanporatze bat ematen dela. Hona perpaus hura hemen berriro emana (mugarriak markatzen dituzten larriak eta sintagmaren luzera markatzen duen etzana nireak dira):

(25) *ARAKO aurrak aditu zuenEAN iñoren beldur-gabe beren kabitxoak eginaz, pozez eta kontentuz beterik kantatzen ziarduten txoritxoen kanta-soñu zoragarria,* ok! deadar egin zuen

Nire ustez, aditzaren aurrean behar luketen aditz sintagmaren elementu batzuk haren ondora pasa dira, perpausari itxura trakets samarra emanaz. Beste honetara garbiago litzateke:

HARAKO aurrak inoren beldur-gabe beren kabitxoak eginaz, pozez eta kontentuz beterik kantatzen ziarduten txoritxoen kanta-soinu zoragarria aditu zuenEAN (...)

OEH-k, ordea, ez du denborazkoen artean sartu eta badirudi, hortaz, honela ulertu duela sintagma, berariaz esaten ez badu ere:

HARAKO (haurrak aditu zuenean) *inoren beldur-gabe beren kabitxoak eginaz, pozez eta kontentzu beterik kantatzen ziarduten txoritxoen kanta-soinu zoragarria*

Irakurketa horrek, ordea, are traskeskeria handiagoa dakar, sintagmatik kanpoko elementuak sartzen bait ditu honen barnean.

3.3. *Harako*-ren balioari dagokionez, zer esan handirik ez dago: denboran edo tokian urrutira bidaltzen du beti partikula honek, gutxiago edo gehiago, baina "jakina", "aipatua" edo "seinalatua" izan den zerbait adieraziz. "El de marras", dio Azkuek, hots, lehen aipatua izan dena. Ez da gaizki. Baina beste hainbat ñabardura ere izan ditzakeela esango nuke nik. Egokiak dira, horretan, Akesoloren azalpenak: "noizbaiko, beñolako, jakiñeko" (151).

Esan bezala, sintagma soiletan beteago gordetzen du *harako*-k adiera hori. Luzeetan, ordea, eta batez ere sintagma barnetik lehen burura "toki-aldatu" den horietan, esandako adiera hori erabat galdu gabe beharbada, sintagma luzea datorrela adierazten duen hitz-tresna, mugarria, bilakatu da.

Eta harira egoki datorrenez, esan dezadan, amaitzeko, zenbaki honetan —eta gerora era maiz— omen eta aipagai izango dugun Mitxelenak berak aski sarri —egungo beste edozein idazlek baino sarriago, seguruenik— erabiltzen duela *harako* partikula sintagma luzeen atari bezala. Argitara eman berri den *MEIG* bilduma eskuetan hartu besterik ez dago, hori frogatzeko. Bi adibide emango ditut, beste hainbaten artean aukeratuak:

(30) Teoria horrek, oker ez banabil, badu beste baten eitea: harako Manuel Lekuona jaunak bere *Literatura oral euskérika*-n azaldu zuen harena (*MEIG* III, 107)

(31) Badu liburu eder honek harako Orixeren *Urte guziko Meza-bezperak* ezagunaren egitea eta antza (*MEIG* III, 127)

Eta besterik gabe, irakurle, "harako aztergai hartu dudan egituraren" azterketa buruturik, hirugarren egitura "berezira" igarotzeko ordu dudala uste dut.

4. bere hura

4.1. Aski maiz erabiltzen du Arruek lehen ikusian horren berezi ematen ez duen baina, bestalde, oso erabilia ere ez dirudien honako egitura hau: *bere* + *hirugarren erakuslea*, tartean izenik ez duela. Gainerako norenkiak ere erabil daitezke, noski, honelako egituran (*nire/zure... -hau/hori/hura*), baina, oker ez banago, Arruek ez du *bere* baizik erabiltzen, aztertzen ari garen liburuan bederen. Erakuslea, jakina, kasu desberdinetan, denetan ez bada ere, ageri da: *bere hura, bere haren, bere hari...*

Normalean, testuan bertan aipatu berri den izen bati egiten dio erreferentzia horrelako sintagmaren erakusleak, beherago aipatuko dugun esamolde egin batean izan ezik.

Hona, ordea, aurrera gabe, egitura hori erabiltzen duten testuen zerrenda (aurreko izena eta egitura bera markatzen dituzten etzanak nireak dira):

(32) *semetxo bat* mundura eman zuen. O, ene biotzeko laztana! *bere hura* besartean estutuaz, esan zion (...) (51)
(33) Gizon au bere ezpata jasoaz, *aurra* besoetatik kentzera joan zitzayon, baña Jenobebak *bere hura* besartean geyago ta geyago estutuaz, esan zion (...) (62)
(34) Pozezko bere malkoak *esnetara* zerizkiola, *bere hura* edan, eta esan zuen (...) (70)
(35) Batzuetan zegoen tokian bertan belauniko jarri, *bere aurra* bularraren kontra estutu, ama baten samurtasun guziaz *bere ari* begira jarri, eta esaten zuen (...) (75)
(36) Lotan zegoen garayan, beti berekin zeukan *gurutzea* eskutik erori zitzayon, eta esnatu zanean, *bere aren* billan abiatu zan (98)
(37) Golok, *ezpata bat* eskuan zuela Jenobebaren gelara sartu, eta onen aurrean bertan Drako tristea *bere arekin* josi eta hillotzik utzi eta deadartzar bat egin zuen (45)
(38) baiña laster beregandu, *bere egurra* artu, eta aoan zekarren ardi gaxoa kendu nairik, *bere arekin* otsoari eraso eta bere indar guziaz kolpe portitz bat buruan eman zion (85)
(39) Orduan, mendiak bera zetorren errekatxoan *arri zorrotz bat* topatu, eta *bere arekin* ardi gajoari narrua ideki (...) (86)
(40) Negar samiñak egiñ ondoan asi zan *bere ezpataren* billan, *berearekin* Golo josteko asmoz (111)
(41) *Oroldio zati batzuek* eskuetan artu, eta leize-barruko arkaitzak, iritxi al zezakean tokiraño, *bere ayekin* leortzen zituen (98)
(42) *Bere lagun guziak* eraiki, eta *bere ayekin* bideari ekin zion (132)
(43) Arri eta zurturik Kondea, bere barrungo naigabeak itobearrik, *silla batean* jarri, eta gauerdia zalarik, ezertzaz oartugabe *bere artan* zetzan (110)
(44) Zuhaitzaren oñean eseri, eta bere semetxoa magalean zuela bere eskuak tolestu, eta *bere artan* itxedon zuen egunsentiraño (67 hh)

4.2. Ez du zailtasun berezirik egitura horren azalpenak: *bere* - (izena) - *erakuslea* gisako sintagma dugu hor oinarrian, gorago esan bezala, izena isilpean duelarik. Eta izenaren elipsi hori da, hain zuzen ere, egiturari bitxi itxura eman eta maiztasun urri samarrekoa egiten duena. *Bere ezpata harekin* gisakoek, izan ere, aise ohizkoagoak dirudite *bere harekin* gisakoek baino. Horrexegatik, beharbada, Arruek berak 1885eko edizioa prestatu zuenean hamabi testu horietatik hamar aldatu egin zituen, egitura eliptikoa saihestuz. Beste zenbaitetan, egia da, lehen edizioan ageri ez zen testuetan sartu egin zuen[8].

(8) Honako bi hauetan, esate baterako; a) *saskitxo bat besoan artu, eta oyean zetzaten eri edo gaxoetara bere arekin joan eta (...) ematen zizten* (8); b) *Baina Wolf bere artatik irten etzan* (120).

Ulertzekoa da, beraz, egitura honek Akesologan sortu duen "harridura". Ohar labur bat eskaintzen dio ia aldioro, bere ustezko azalpena emanaz: "Aurreraxeago aipatutako zerbaiti buruzko izen-ordea *bere hura, bere ari, bere hartan* egiten du, eta ez bera, berari edo bertan" (51; ikus, baitaere, 75, 85, 86, 98, 110 eta 153).

Ikertzaile horren ustez, hortaz, *bera* erakusle indartuak behar luke *bere hura* egitura ageri den testuetan. Ez du, egia esan, argitasun handiegirik eskaintzen bere azalpenaren defentsan. Ez du, esate baterako, berariaz adierazten *berarekin* eta *bere arekin* forma beraren aldakintzat ote dituen, *-e-* baten epentesia tarteko.

Dena den, dagoen dagoenean ere, ez zait erabat betea eta asegarri iruditzen Akesoloren azalpena:

a) Nondik daki, hasteko, erakusle indartuak behar lukeela pasarte horietan, erakusle soila bera aski litzatekeelarik? Izan ere, Arruek mendebaldeko joerari jarraiki (ikus *EGLU*: I, 147-155), *bera* erabiltzeko joera handia erakusten badu ere, ez dira falta haren liburuan aurreko zerbait berraipatzeko erakusle soila erabiltzen duten pasarteak ere:

(45) norbait gaizkitu orduko, hura ikustera berehala an zan (43)

(46) Arrez geroz Kondea aituaz eta urtuaz zijoan; eta laster arenak egingo zuela etsi zuten (112)

Eta Arruek *bere hura* erabiltzen duen pasarte batzuetan, *bera* bezain egokia litzateke *hura* soila ematea, gauzak, batere beharrik ez dagoelarik, aldatzen hasi nahi ez baldin bada.

b) Egiturak, bestalde, desberdinak dira: izenlagun bat galtzen da Akesoloren bidetik. Gisa horretako egiturak, ordea, izen eta guzti dutelarik, baditu Arruek: *bere lore ayen artetik* (144). Eta hortik abiatuz erraz ulertzen da, elipsiaren urratsa emanik, aztertzen ari garen egitura.

c) Eta egitura desberdinak izanik, ezin dira, bestalde, beti-beti ordezkatu *bere hura* eta *bera* gisakoak. Izan ere, beheraxeago ikusiko dugun bezala, moduzko *bere hartan* eta lekuzko *bertan* ez dira parekoak: (44). perpausean, esate baterako, ezin da azken hau haren ordez eman, esanahia aldatu gabe. Hor, gehienaz ere *honela, horrela* edo *hala* eman daiteke *bere hartan* sintagmaren ordez, Arruek bere 1885eko edizioan egin zuen bezala.

4.3. Ez, azalpena ez doa bide horretatik, nire ustez. Azaldu behar dena, izan ere, ez da egitura bera, euskaraz guztiz eginkizun dena, Arrueren liburuan duen maiztasun aipagarria baizik. Eta maiztasun hori izenordainen eta erakusleen genitiboa, eta bereziki *bere*, erabiltzeko joera nabarmenarekin lotua dago. Hona, esate baterako, pasarte bi, joera horren erakusgarri:

(47) Jenobeba bere jauregian bakardaderik andienean bizi zan. Egunsentia agertzen ez al zan, bere leyaurrean jarrita bordatzen zituen loreen gañera malko

goriak ixurtzen zituen. Mezako ezkilla aditu orduko bere oratoriora lasterka joan, eta biotz guziz irazekiaz bere senarraren osasunagatik erregutzen zuen (43)

(48) Bere aurtxoa bere mantelean bildu, bere magalean ipiñi, eta ziotsan (...) (53)

Azken pasarte horrek, batere *bere*-rik gabe balego ere, euskara egokia eta guztiz ulergarria luke. *Bere*-z josia ageri da, halere. Itzulpena izatearen ondorioa izan liteke hori. Oinarrizko testuan, edota testu hori idatzia dagoen hizkuntzan, horrelako posesiboak erabiltzeko joera handia izaki, itzulpena bera ere horretara lerratua gertatu bide da. Hori izan daiteke, nire ustez, arrazoia.

4.4. Gatozen, ordea, noizpait, egitura bera sakonago aztertzera. Nola eta zein baldintzatan gertatzen da sintagma horretako izenaren elipsia? Horrelako elipsiak oinarrizko lege baten pean egoten dira, oker ez banago: gordean geratzen den izenak "berreskuragarria" izan behar du, hau da, testua zeri buruz ari den garbi jakin behar da[9]. Beste era batera esanik, izena ez bada berariaz esaten dagokion sintagman, beharrik ez dagoelako da, aipatu gabe ere zein den badakigulako.

Aztertzen ari garen pasarteetan aski ondo betetzen da lege hori. Testuan bertan aipatua dago, ia beti, piska bat aurreraxeago, isilpean utziko den izena. Eta horiexek osatzen dute aztertzen ari garen egituraren azpisailik emankorrena eta "bereziena": aurretik aipatua dagoelako isilpean uzten duen *bere X hura* egiturari dagokiona.

Bada, halere, egitura bereko beste azpisail bat, egun ere oso erabilia dena eta Arruerenean behin bederen ageria dena (44): *bere hartan* esamolde eginari dagokiona, alegia. Honako kasu honetan, hain zuzen ere, gordean utzitako izena ez da inon ageri, ez testuinguru hurbilean ez eta urrunean ere. Adberbio esaera egina dela esango nuke, modua adierazteko erabiltzen dena. Eta "esaera egina" denez, ez dugu testuinguruaren beharrik isilpeko izen hori "berreskuratzeko". Lexikoa geureganatzen dugun bezala geureganatu dugu "gauzak bere hartan uztea", dauden daudenean, dauden bezala, bere egoera hartan uztea edo horren antzeko zerbait dela. *Horrela* adberbioa da, hortaz, esaera horren ordainik hurbilekoena[10]. Eta testuinguruak besterik agintzen ez badigu, balio horixe emango diogu beti *bere horretan/hartan* sintagma eginari.

Hona neuk asmaturiko adibide hauetan bi azpisailen arteko aldea:

(49) Kutxa handia erosi zuen eta bere hartan gordetzen zituen gauza guztiak

(50) Gauza guztiak bere hartan utzi eta afaltzera joan zen.

(49) perpausean *bere hartan* sintagma *non* galderari dagokio eta aurreraxeago aipaturiko *kutxa* da gordean utzitako izena; (50)ean, berriz *nola* galderari erantzuten dio *bere hartan* sintagmak eta inguruan ez dugu isilpean utzitako izenaren aipamenik aurkitzen, beharrik ere ez bait dago. Alde bera ikusten da Arrueren (43) eta (44) perpausak alderatzen baditugu. Hura lehen azpisailekoa da, hau da, izena testuingurutik berreskuratzen dutenena eta, beraz, *non* balioa gordetzen du: *bere silla hartan zetzan*. Bigarrenean, berriz, *moduzko* esaldi egina dugu, izenaren berreskuratze be-

(9) Isilpean utzi daitezkeen baina, esan gabe ere, perpausean "dauden" elementuak lege eta baldintza zehatzen pean egoten dira askotan. Horietako bat, gordetako elementuaren berreskuratzeari dagokiona da. Ikus horretaz, besteren artean, Mª Lluisa Hernanz y José Mª Brucart, *La sintaxis* (Editorial Crítica, Barcelona, 1987, 112 hh) eta José Mª Brucart, *La elisión sintáctica en Español* (Bellaterra, Barcelona, 1987).

(10) *Bere hartan* aipatu dugu hemen esaera egin bezala. *Bere horretan* eta are *bere horrela* ere entzun daitezke adiera horretan berean. Beste kasuren batean ere erabil daiteke: *bere hartatik irten*, esate baterako.

harrik ez duena, nolarebait lexikalizaturik bait dago: *bere artan itxedon,* hau da, *horrela itxedon.* Arruek berak 1885eko edizioan honela aldatu zituen: (43)aren lekuan *bere jarlekuan* ipini zuen; eta (44)aren lekuan *onela*[11].

Horrenbestez, bada, aurrera egin eta laugarren egitura "berezia" aztertzeari ekin beharko diogu, geure lanari, ahal bada, behar adinako arreta eskainiz, Arruek "bere hari" eskaini zion bezalakoa.

5. -(e)rainoko guzia

5.1. Euskal gramatikan leku garbia duen egitura da hau ere: *-raino* adlatibo bukatuzkoa izenlagun bilakatzen da, *-ko* atzizkia erantsiz: *-rainoko.* Eta, jakina, horrela eratutako izenlagunari izen batek ematen dio segida: IS[(...*-rainoko) I*]. Egitura horretako adibide bat baino gehiago aurki daiteke aztergai hartu dugun liburu honetan ere, eite desberdinekoak gainera (etzana, berriro, nirea da):

a) Noraino sintagma izen baten gainean eraikia dutenak:

(51) eta ala *ezurretarainoko laborriak* arturik (67)
(52) guziai argi egiten dien *eguzkirañoko guzia* falta zat! (48)

b) Noraino sintagma aditz-izen baten gainean eraikia dutenak:

(53) guziak *arritzerañoko jayera,* debozio eta modestiarekin oi zegoan (36)
(54) bazter guziai ikara *eragiterañoko zalaparta* batekin ziegako atea itxirik (54)

c) Noraino sintagma adberbio baten gainean eraikia dutenak:

(55) *oraindañoko guzian* begirik itxi ez det (56)

d) Izenaren ondotik emana, mugatzaile eta guzti:

(56) arpegi triste naigabetu eta semea *izutzerañokoarekin* ari begira jarri (103)

Egitura bera da beti, eite eta itxura diferentetan emana. Horietako bat da, hain zuzen ere, hemen aztertu nahi dudana: noraino sintagma izenaren gainean eraikia duena eta ondoko izenaren lekuan *guzi* izenordaina daramana; goiko (52)aren ereduari dagokiona, alegia. Honako hau litzateke egitura, beraz: IS [$_{il}$*(I-rainoko) guzi*]. Ondoko hauek dira egitura horri dagozkion testuak (etzana nirea da, hemen ere):

(57) nagusiaren lengo serbitzari guziak guziz gogorki artzen zituen, *langilleetarañoko guziai* beren alogera murrituaz (44)
(58) guziai argi egiten dien *eguzkirañoko guzia* falta zat! (48)
(59) gende on ayek, ala gizon nola emakume, eta *aurretarañoko guziak* bidera irten, eta negarrez ziotsaten (...) (107)
(60) ikusi zuen nola bazter ayek eta *zuhatzetarañoko guziak* jendez beterik zeuden (126)
(61) Eta ez diozute begiratzen basauntzari? *Abereetarañoko guziak* nai diote gure Kondesa on maitagarriari (127)

(11) Honela dio (43) perpausaren ordainak 1885eko edizioan: *Sigifredo, estura larriak artu, bere besoak bularraren gaiñean gurutzetu, eta argiak aituaz eta itzaliaz zijoazela alerik oartu gabe, bere jarlekuan zetzan* (95). Eta (44)aren parekoa, berriz, beste honako hau da: *zuaitz beraren oiñean ostera ere eseri, eta magalean zeukan-aurraren gaiñean eskuak tolestu eta negarrezko begiak zerurontz jaso, eta bigaramon egunsentiraiño onela egon zan* (39).

(62) (orazioak) *odeyetarañoko guziak* igarotzen ditu (140)

5.2. Adiera kontuak gerorako utzita, forma aldetik egitura hau antzekoetatik berezten duena hauxe besterik ez da: sintagma nagusiari dagokion izenaren gunea *guzi* hitzak betetzen duela, alegia, eta ez beste edozein izen edo izenordainek. Horrexek ematen dio itxura berezia sintagmari. Zer da, ordea, *guzi* hori: isilpean utzitako izen bati laguntzen dion zenbatzailea ala izenaren lekua hartzen duen izenordaina? Zenbaitetan bata dirudi eta beste zenbaitetan, berriz, bestea: (57) perpausean, esate baterako, aurreraxeago aipaturiko *serbitzari* izan daiteke isilpean utzitako izena: *langileetarainoko* (zerbitzari) *guziak*; (58) perpausean, aldiz, ez da ikusten isilpeko izenik asmatzen ibiltzeko beharrik. Gauzak gehiegi behartzea litzateke, beti elipsiak aurkitu nahian saiatzea. *Guzi* zenbatzaile orokorra, izan ere, bai izenaren determinatzaile bai izenordain izan daiteke, hau da, bai izenaren ondoan bai haren lekuan joan daiteke (ikus *EGLU*: I, 237). Azken kasuan *guzi* bera gertatzen da sintagmaren muina, formalki bederen (*dena*-ren pare, horretan).

5.3. Zein da, ordea, horrelako egituraren erdigunea? Zein da, horrela esan badaiteke, sintagma horien muin semantikoa? Batzutan bederen, (58)an esate baterako, izenlaguna da sintagmaren ardatz nagusia: *eguzkirainoko guzia* sintagman *eguzki* da sintagmaren ardatz nagusia, esanahiaren aldetik: "baita eguzkia bera ere", "eguzkia eta guzti" edo horren antzeko zerbait adierazi nahi du. Egitura enfatikoa da, nolabait esan. Hau da, "baita X ere" modu hanpatuago batez esateko balio duen egitura:

baita langileei (berei) ere
baita eguzkia (bera) ere
baita haurrak (berak) ere
baita zuhaitzetan (beretan) ere
baita abereek (berek) ere
baita odeiak (berak) ere

Beti zehatz eta berariaz adierazten ez bada ere, zenbait elementuz osaturiko multzoa hartzen da gogoan horrelako egiturarekin. Eta multzo horren azken elementuraino iritsi dela esaten da. Horretan, ordea, bi azpisail berez daitezke:

a) Batzutan multzo osoari ematen zaio garrantzia eta multzoa osatzen duten elementu guztiak hartzen dira kontutan, Lardizabalen testu honetan bezala:

(63) burutik oñetarañoko guzia zauri bat egiña (139)

Hor gorputzaren "osotasunari" ematen zaio garrantzia. Gauza bera gertatzen da denborari dagozkionetan ere, Lardizabalen beste testu honetan ikus daitekeenez:

(64) arterañoko bere bizitza-guzia esan zien (212)

Arrueren beste hau ere ildo beretik doa:

(65) oraindañoko guzian begirik itxi ez det (56)

b) Besteetan, ordea, aipatzen den elementuraino iritsi izana nabarmendu nahi izaten da, multzoari garrantzi handiegirik eman gabe edota

multzoa zein elementuk osatzen duten zehaztu gabe ere. Horrelakoak dira aztertzen ari garenak. Argienetako bat aipatzeagatik, (58)a gogoratuko dut berriro ere: *eguzkirainoko guzia falta zait.* Jenobebak gauza guztiak falta dituela adierazi nahi du horrek, baina gauza horiek zeintzu diren zehaztu gabe, ordea: eguzkia bera ere falta duela da nabarmendu nahi dena.

Azken balio hau da, nik uste, Arruek bere testuei eman nahi diena, gorago ere esan dudan bezala, eta horretan dago, hain zuzen, egituraren berezitasuna, balio hori ez bait da ohizkoa.

Bada beste egitura bat, goiko horren antzik baduena, osotoro berdina ez bada ere: *eguzkia eta guzti, zuhaitzetan eta guzti...* Egitura kopulatiboa da azken hau, baina balio enfatikoa duena.

1885eko edizio guztiz berrituan, Arruek berak saihestu egin zuen zenbaitetan hemen aztertzen ari garen egitura hau: gauzak beste era batera adierazten ditu batzutan eta izenlaguna nominalizatu egiten du beste zenbaitetan (*eguzkirainoko, surretarainokoak*...). Inoiz, ordea, bere hartan uzten du lehen edizioko testua (*abereetarainoko guziak*).

5.4. Azken xehetasun bat azkenik, bidenabar bezala, atal honi amaiera eman aurretik. Gaur egun batez ere izenordain gisa erabiltzen dugun *den(a)* zenbatzaile orokorra ez du Arruek ia inoiz erabiltzen. *Guzi* erabiltzen du ia beti, bai determinatzaile eta bai izenordain. Zenbaitetan, egia da, *direnak* erabili hurren dabilela dirudi, honen aintzindaritzat har litekeen egitura batean, baina orduan ere *guzi* agertzen da haren ondotik:

(66) Arritzatzu, diran guziak zuretzat dira (78)
(67) Nik oraiñ diran guziai deitu eta esango diet (...) (91)
(68) Nik aren lekuan egotera, ziran guziak erre eta kixkaliko nituen (100)
(69) Jenobebak ziran guziak ezagutu zituen (127)

Horrenbestez, bidenabar eginiko "azken digresiorainoko guztia" burutu ondoan, hurrengo egitura aztertzen hasteko ordu da.

6. X ote, edo Y den

6.1. Egitura honek min egiten dio Akesolori, bere oharretan behin eta berriz adierazten duenez (etzana, berriro ere, nirea da):

(70) Etzuen begiratzen egitera zijoan gauza *ona ote, edo gaiztoa zan;* baizik irabazi edo atseginen bat emango ote zion ala ez (44)
Akesoloren oharra: "Ona ala gaiztoa (jatorrago)"

(71) agindu didatena baizik egiten ez det: *ona ote edo gaiztoa dan,* Golorekin Kondeak jakingo dute (63)
Akesoloren oharra: "ona ala gaitza, jatorrago"

(72) Desditxadok etzekien *hilla ote, edo lo zegoen* (104)

(73) errua *bere esposa Jenobebak ote, edo bere serbitzari Golok zuen,* oraindik zalantzan zegoen (106)
Akesoloren oharra: "Ote edo: Ala jatorrago orrelako esaeretan"

(74) etzekien alabaña *amesetan ote edo esna zegoan* (114)

Garbi ikusten den bezala, *ala* soila nahiago luke Akesolok *ote, edo* bikote bitxi hori baino. Jatortasunaren bila bada ere, ordea, aldaketa jakingarriak ekarriko lituzke zuzenketa horrek:

a) *Edo* juntagailuaren ordez *ala* ekarriko luke, hasteko. Ez dira berriak euskal gramatikagintzan *edo* eta *ala* juntagailuen arteko aldea ahalik zehatzen azaltzeko ahaleginak. *Ala*-ren erabilera izaten da maizenik azter- eta eztabaidagai hartzen dena. Axaleko edo sakoneko galdera bati dagokion juntagailua dela diote batzuk; disjuntzio esklusiboari dagokiola, berriz, beste batzuk[12]. Batera zein bestera ulertu, dena den, "zerbait" berariaz adierazteko erabiltzen den juntagailu markatutzat dute *ala* gehientsuenek, *edo* markatugabetzat duten bitartean.

Akesolok *ala* hobesten du goiko testuetarako, baina ez dut uste, halere, *edo* lekuz kanpo dagoela esan daitekeenik. Egitura bera da, eta ez *edo* juntagailua, Arruerenean "bitxi" gertatzen dena: *ote, ala*, izan ere, *ote, edo* bezain bitxi gertatuko litzateke.

b) *Ote* partikula modala kenduta, berriz, honek eransten duen ñabardura galdu egingo litzateke. Zalantza kutsua eransten dio partikula horrek galderari[13]. Eta horrelako ñabardura galduta, oso txikia bada ere, aldatu egiten da perpausaren edukia.

c) Eta azkenik, azkena ez bada ere, egituraren aldaketa ere ekarriko luke proposaturiko zuzenketak. Ez da hitz-aldaketa hutsa.

6.2. Ikus ditzagun, bada, aurrera gabe, *ote* partikula daramaten perpausak lotzen dituen koordinazio disjuntiboak har ditzakeen formak[14]:

a) Inolako elipsirik gabea, hau da, *ote* + *aditza* multzoa perpaus bietan agerian duena: *txuria ote da edo beltza ote da?* gisakoa.

(75) (...) bizi ete zan ala il ete zan (Echta *Jos* 153)

b) Perpausetako batean elipsia gauzatzen duena, hau da, aurreneko perpausean edo bigarrenean *ote* + *aditza* multzoa isilpean uzten duena: *txuria edo beltza ote da?* [hau da, *txuria* (ote da) *edo beltza ote da?*] edo *txuria ote da edo beltza?* [hau da, *txuria ote da edo beltza* (ote da)?] gisakoak, alegia. Hauetan, bistakoa denez, elementu errepikagarriak isildu egiten dira bi perpausetako batean, koordinazioan ohizkoa denez[15]:

(76) ittanoz ala zuka berba egin biar ete-eutsun ittaundu daustalako (Otx 131)

edo

(77) atsegin othe da, ala atsekabe? (Ax 514)

(12) Ikus, besteak beste, Villasante 1976, 25 hh, eta P. Altunak hari egindako iruzkina (*Mundaiz*, 7, 1977).

(13) Ikus *EGLU* II, 498 hh.

(14) Egiturari berari begiratzen diot atal honetan eta ez erabiltzen den juntagailuari. Egitura aipatzerakoan *edo* ipiniko dut beti, horren azpian bai *edo* eta bai *ala* irakur daitekeela jakinik, ordea. Adibideak, berriz, *OEH*-tik hartu ditudanez, *ala* daramatenak dira denak, hiztegi hori ez bait da oraindik *edo* berbara iritsi.

(15) Ikus guzti honetaz 9. oharrean aipatu liburuak.

Egitura eliptiko honek badu beste itxura bat ere, aski maiz erabilia: koordinazioa aditzaren ondotik ematen duena, aposizioan bezala (*nolakoa ote, txuria edo beltza?*)

(78) Zein ete zan aren erabagina, guzurra ala egia? (Zav *Fab RIEV* 1909, 31)

c) Elipsia perpaus bietan egiten duena. Hirugarren aukera honetan *ote* + *aditza* multzoa isilpean utziko litzateke perpaus bietan. *Ote* ezin da, ordea, bietan gordean utzi, ez bait litzateke orduan inondik ere "berreskuragarria" izango. Bietako batean bederen agertu behar du, *ote* gabeko perpausak izango bait lirateke bestela biak ere. Aditza bai, bietan isilpean utzita ere, testuinguruaren laguntzaz berreskura daitekeena da. Honelakoak dira, beraz, hirugarren tankera honetako perpausak: *txuria ote, edo beltza?* [hau da, *txuria ote* (da) *edo beltza* (ote da)?] edo *txuria edo beltza ote?* [hau da *txuria* (ote da) *edo beltza ote* (da)?].

(79) Zenbat presuna dire, Bat othe ala bia? (Gç 213)

edo

(80)Zeinek othe du arrazoin? Munduak ala Jesu-Kristok othe? (Dh 113)

6.3. Hiru horiexek dira, beraz, *ote*-k koordinazioan hartu ohi dituen formak eta itxurak. Arruerenean, ordea, bestelako itxura bat hartzen du, batere ohizkoa ez dena, eta horrexek egiten du, hain zuzen ere, bitxi eta berezi samar: aurreneko perpausean aditzaren elipsia egiten da eta bigarrenean *ote*-rena. Honela, esate baterako: *txuria ote, edo beltza da?* Eta egitura "nahasi" hori da bitxi egiten zaiguna, ez *edo* juntagailuaren erabilera.

Esan behar da, baitaere, garrantzizkoa izan daitekeelako beharbada, adizki sintetikoa dugula beti honelako perpausetan eta galdera zeharkakoa dela: *ote, edo ...den.*

Badirudi, bestalde, Akesolok juntagailu bakartzat duela *ote, edo* bikotea eta, horregatik, haren ordez *ala* nahiago lukeela. Kontuan hartu behar da, ordea, hirutan bederen *ote* eta *edo*-ren artean koma ipini zuela Arruek: *ote, edo*. Pentsa daiteke, beraz, etentxo bat badela partikularen eta juntagailuaren artean eta horrek, noski, gorago agertu dudan hipotesia sendotu baino ez du egiten: koma hori aditzaren hutsuneari dagokio nolabait. Edozein kasutan ere, ez da bidezko *ote-edo* lokuzio gisako zerbait dela pentsatzea.

7. -(e)nean, moduzkoa

7.1. Jakina denez, *-(e)nean* atzizkia daramaten perpausak denborazkoen sailean sartu ohi dira normalean, maiztasunari men eginaz, isilpean utzitako izena denborari dagokiona izaten bait da gehienetan: *joan garen (aldi/ordu/garai/egun...)ean* edo horren antzeko perpaus batetik sortu da, izena gordean utzirik, denborazko *joan garenean*[16]. Nominalizaturiko erlatiboa dugu hor oinarrian.

Bere hartan esaeraz gorago eman dudan gisako azalpena eman daiteke hemen ere *-(e)nean* perpausari dagokionez: denborazko balioa "bere" egina du egitura horrek eta testuinguruak besterik adierazten ez badu, balio hori hartzen du beti. Horixe bait da, besterik adierazten ez denerako hiztunek "bereganatua" duten balioa. "Lexikali-

(16) Villasante, 1976, 103 hh, eta, bereziki, 104. orriko Mitxelenaren oinoharra.

zazio" hori da —eta ez testuingurua, zuzenean behintzat— isilpean utzitako izena berreskuratzeko bidea eskaintzen diguna. Eta horrexegatik, ohizko perpaus horietan, denborari dagokion adiera da berreskura daitekeena, baina ez adiera horretako zein izen utzi den zehazki isilpean[17].

Testuinguruak, halere, bestelako balioa eman diezaioke isilpeko izenari eta, horren ondorioz, egitura berari. Horietako bat da, hain zuzen ere, Arrueren liburuko pasarte batzutan ageri dena eta, beste hainbatetan bezala, Akesoloren ohar bat edo beste eragin duena (etzana nirea da):

(81) bada Goloren karta aiñ itxurazkoa, aiñ engañagarria zan (...), non Konde gizajoa zer pentsatu, eta zer egiñ *etzekienean geratu zan* (106)

Akesoloren oharra: "Zer egin etzekienean gelditu (sic): zer egin etzekitela (sic)"

(82) Pozak eta errukiak, izuak eta ikus-gurak, guziak zer esan, pensatu, galdetu eta egiñ *etzekitenean zeuzkan* (122)

Akesoloren oharra: "Etzekitenean: Etzekitela"

(83) Guraso zar biak alkarri begiratuaz, zer gertatzen zitzayen *etzekitenean geratu*, eta gizon santu aren hitzak gorputz guziko ikara eman zien (135)

(84) Dukearekin Dukesaren serbitzari guziak arritu, zurtu, eta zer gertatzen zitzayen *etzekitenean* beren nagusiakgana joan ziran (135)

(85) bakarrik Duke Jaunak eseri, eta zer gertatzen zitzayen *etzekitenean zeuden* (136)

7.2. Bost testu dira guztira eta bostek inguru beretsua dute: *-(e)nean* atzizkia daraman aditza *jakin* da guztietan eta perpaus nagusiarena, berriz, nolabait ere *egoera* adierazten duena [*geratu, egon,* (norbait horrela) *eduki,* (horrela) *joan*]. Moduzko adiera du, beraz, *-(e)nean* perpausak horrelako testuetan, *nola* galderari erantzuten diolarik. Egun, Akesolok ondo erakusten duenez, *-(e)la* atzizkiaren bitartez egiten dira horrelako perpausak: *zer gertatzen zitzaien ez zekitela zeuden*. Eta baita Arrueren garaian ere, Lardizabalen ondoko testuan ikus daitekeenez:

(86) Erantzuera onekin jakintsua utzi zuen, zer esan etziekiela (74)

7.3. Ez da zer harritu, dena den, egitura horri moduzko balioa ematen zaiola-eta, euskal gramatikak zabalik duen bidea bait da. *Egon* eta gisa horretako aditzen errejimena aztertzen badugu, honen barnean *nola* osagarria ere sartzen dela ikusiko dugu eta osagarri hori adberbioen bidez bezala inesiboaren bidez ere, besteak beste, egin daitekeela: *ondo egon; bakean egon.* Azken aukera hau da, hain zuzen, *-(e)nean* egiturak baliatzen duena. *Bakean egon* eta *ez dakienean egon* elkarren pareko lirateke, hortaz, *ondo egon* eta *ez dakiela egon* diren bezalaxe.

Isilpean utzi den izena zein den ezin da zehaztu hemen ere, baina esan daiteke, hori bai, *egoera* adierari dagokiola nolabait: *ez dakien egoeran geratu,* edo horren antzeko zerbait, da *ez dakienean geratu* perpausaren azpian dagoena.

Egitura hori, bestalde, ez da erlatibozkoa, aurreko erreferenterik ez duen izenlagunari dagokiona baizik. Isilpean utzitako izena, izan ere, perpaus nagusikoa da eta ez, erlatiboetan gertatzen den bezala, bai mendekoarena eta bai nagusiarena.

(17) Aurreko oharrean aipatu lekuan Mitxelenak izen batzuk ematen ditu egitura horretako elipsiari legozkiokeenak, baina *vel simile* gaineratuz zerrenda irekia uzten du.

Azken ohar bat egin daiteke, azterketari amaia eman aurretik: mendeko perpausaren aditza *jakin* da beti, gorago esan den bezala. Aztertzen ari garen egitura hau "egitura egina" eta nolabait "finkatua" dela pentsatzeko bide ematen digu horrek, beharbada, *ezjakinean egon* esaeraren pareko forma jokatua.

8. -(e)n(a) bezala

8.1. *Bezala* adberbioaren ohizko erabilera berdintasunezko erkaketari dagokiona da, *-(e)n* atzizkia daraman adizkiaren ondoan emana, azken hau partez edo osoz isilpean utzi ez bada behintzat: *aitak egin duen bezala, aitak egin bezala, aitak bezala.* Moduzko erkaketa da, noski, horrela gauzatzen dena: *aitak egin duen bezala,* hots, *aitak egin duen moduan*[18].

Arrueren liburuan, ordea, bestelako erabilera duten testu batzuk aurki daitezke.

a) Batzuk *-(e)n bezala* forma gordez, moduaz bestelako balioa erakusten dute:

(87) aurtxo au zuk eman didazu (...); bada zure doaya dan bezala, zuri dagokizu, eta zuri eskaiñtzen dizut (52)

(88) eta aiñ ikasia eta jakintsua dan bezala, erregutuko diot, erakus dizadala nola Dukeari eta Dukesari nere enkargua aditzera ongien eman al nizayekeen (132)

(89) bada Ebanjelioak, Jaungoikoaren hitza dan bezela, berez dauka bera sinisten duten guziak doatsu egiteko indarra (141)

b) Beste batzuk, berriz, bai balioa eta bai forma bera ere moduzkoak ez bezalakoak dituzte, *-(e)n* nominalizatu egiten bait da, mugatzailea eta kasu-markak hartuz:

(90) Alaba bat baizik etzuten, eta au Jenobeba zan, zeña biotz guztitik maite zutena bezala, ardura, kontu eta arretarik andienaz azitzen zuten (35)

(91) Jenobebak, Gologan gauza onik etzekusanak bezala, Kondearentzat karta bat eskribatu zuen (45)

(92) Golok bere nagusiaren berri ondo zekienak bezala, ezagutzen zuen, Kondea zuzen, errukitsu eta prestua zala (...) (46)

8.2. Agerikoa denez, balioari gagozkiolarik, perpaus horiek ez dira, zehatz harturik behintzat, konparazioari dagozkionak. Esplikatiboak dirudite, hau da, *-(e)nez* atzizkiaren bitartez edo *partizipio + -ik/ki* egituraren bitartez ematen direnen parekoak: *ondo zekienak bezala, ondo zekienez, ondo jakinik...* Villasantek *-(e)n aldetik* egitura ere aipatzen du, "en cuanto que" adiera duelarik[19].

Erdararen eragina ukaezina da egitura horretan, nik uste, gaztelaniazko *como*-ren balio esplikatiboak erakusten duen bezala. *Nola* edo *zelan* galdekarien bidez ere eman izan ohi dira inoiz horrelakoak: *nola ondo zekien (...).*

8.3. Bigarren multzoko testuetan, berriz, balioarekin batera forma bera ere aldatu egiten da. Deklinatu egiten da *-(e)n* perpausa, aurretik dagokion izenarekiko ko-

(18) Ikus Villasante, 1976, 115 hh, eta Mitxelenaren oinoharra forma mugatuari dagokionean.
(19) Ibid. 116.

munztadura gordeaz: *zeina ... zutena bezala; Golok ... zekienak bezala.* Hor ere, erdarazko "como quien" edo horren antzekoen eragina soma daitekeela uste dut.

Lardizabalenean ere egitura eta balio honetako pasarte bat baino gehiago irakur daiteke:

(93) baña Jesus-ek, ayen berri ondo ziekienak bezala, erantzun zien, eta bere egiña garbitu zuen (50)
(94) Jesus-ek, bekatarien billan mundura etorriak bezela, biotzean ukitu zion (55)
(95) Gero Jainkoari eskatu zioten, guzien biotzak ezagutzen dituenak bezala, iragarri zizayela, bi ayetatik zein aututzen zuen, Judas-en lekuan esertzeko (159)
(96) baña, mundua guzian zabaltzen zijoan Elizaren kontua, bere gañ zeukanak bezala, ibilli-bear andiak izan zituen (224)

Azken oharra

Artikulu hau idatzi eta gero, J. I. de Iztuetaren *Guipuzcoaco Provinciaren Condaira edo Historia* (1847) liburu luze baina interesgarria irakurtzeko aukera izan dut eta han ere aurkitu ditut hemen aztertu ditudan egitura "jakingarrien" adibideak, ISri dagozkionak ugariago eta perpaus elkartuari dagozkionak urriago. Horrela, hasteko, *X-rekin Y* egitura kopulatiboa guztiz maiztasun handikoa da Iztuetarenean ere. Bi pasarte dira aipagarri, batez ere, hemen esandakoa sendotu egiten bait dute; egitura hau bitarikoa dela, alegia, hirugarren elementua juntatzeko ohizko *eta* juntagailua erabiltzen delarik (etzana nirea beti, ondoko aipamenetan ere):

(97) *Donostiarequin Hernani eta Astigarraga* mugatzen diraden toquian (127)
(98) Provinciaco aitzac dauzcate gordeac / *Landare ederraquin berar ta loreak* (166)

Harako, berriz, bi pasartetan baizik ez dut aurkitu. IS luzearen giltz-hitza da bietan ere, ondoren koma daramalarik. Lan honetan adierazitako susmoa sendotu egiten du horrek: izenlagunaren kasuan ez bezala, hitz honen eta segidako sintagmaren artean etentxoren bat gertatzen ote den susmoa, alegia:

(99) Ibai au berpera da *araco, anciñaeraco gauza-azaldari Pomponio Mela, eta Tolomeo jaquintiac beren izcribu gogoangarrietan icendatu izan zutena* (110-111)
(100) (...) eguin izan zuten, *araco, aomen andico ontci* La Capitana del Occeano *deitu izan citzaiona* (126)

Bere hura egitura ere ez da maiztasun handi-handikoa. Behin lehen graduko erakuslea daramala ageri da eta beste hirutan hirugarren gradukoa duela. Lauetan, ordea, gorago esan bezala, erakusleari dagokion izena aurrean aipaturik ageri da:

(101) (...) uztar-idi banaca batzuc (...) eta *beren oequin* itzaiac irten oiciran (178)
(102) (...) beren Erregueren (...) biurtu ziran Errira *beren arequin* arroturic (299)
(103) (...) armac (...) ceintzubec *beren aequin* lasterrean joan ciran (390)
(104) (...) Galeonera eraman eta *beren arequin irten ciran itsas zabalera* (430)

Azkenik, *-(e)rainoko guzia* baino maizago ageri da *-(e)rainokoa* soila, erabilera beretsua duelarik. Goiko kopulatiboarekin batera ageri da behin egitura hau:

(105) cergaitic *ibai andiaquin erreca cistor-etarañoco guztiac* dituen ezcalu mazcar, ainguira ta amorraiz osotoro josiac (201-202)

Erdarazko "hasta"ren oihartzun garbia du, ene ustez, honako testu honek:

(106) Erri onetan *ume chiquietarañocoac* daquite (...) (195)

Egitura honen balio enfatikoa, bestalde, argi ageri da beste honako testu honetan:

(107) ara nolaco carta pozgarria izcribatu izan cion bere escuz *sobre-escritoraño-co guztia* Ondarribiaco Erriari (372)

Perpaus konposatuari dagozkion beste hiru egituretan urriagoa da Iztueta, esan bezala. Inoiz edo berriz erabiltzen du, hori bai, erdararen eragina izan dezakeen *-(e)n(a) bezala* egitura, bai mugagabe eta bai mugatzailea duelarik, balio esplikatiboaz:

(108) Guipuzcoaco Provinciac, bere gauza guztiac garbiroqui *nai cituenac bezala*, igorri cituen Diputaduac ostera Francesagana (393)

(109) eta bertan jaio ta *bataiatua zan bezala*, lurreratua izan zan Alegueriaco Elizan (452)

Bibliografia eta Laburdurak

OHAR NAGUSIA: *harako ...-a* eta *X ote, edo Y den* egiturei dagozkien 3. eta 6. ataletan, ondoko bibliografian jasotzen ez den erreferentzia asko ematen da. *OEH*-n, *harako* eta *ala* hitzetan, ageri diren adibideak dira eta handik hartu ditut laburdurak eta guzti.

Arrue, G., 1858, *Santa Jenobebaren bizitza*, L. Akesolok prestaturiko edizioa (Klasikoak 8, Erein, Donostia, 1987).

———, 1885, Kristobal Schmid, *Brabante-ko Genoveva-ren bizitz arrigarri mingarria* (Itxaropena, Zarautz, 1960).

Azkue, R. Mª., 1905, *Diccionario Vasco-Español-Francés* (LGEV-ren edizioa, Bilbao, 1969).

———, 1925, *Morfología Vasca* (LGEV-ren edizioa, Bilbao, 1969).

EGLU I, *Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak I*, Ik. Euskaltzaindia.

EGLU II, *Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak II*, ik. Euskaltzaindia.

Euskaltzaindia, 1985, *Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak I* (Bilbo).

———, 1987, *Euskal Gramatikaren Lehen Urratsak II* (Bilbo).

Iztueta, J. I. de, 1847, *Guipuzcoaco Provinciaren Condaira edo Historia* (LGEV, Bilbao, 1975).

Lakarra, J., 1983, "Oharrak zenbait arkaismoz" *ASJU* XVII, 41-68.

Lardizabal, F. I. de, 1855, *Testamentu Berriko Kondaira edo Historia*, A. Irigoyen-ek prestaturiko edizioa (Bilbao, 1957) LGEV.

MEIG III, *Euskal idazlan guztiak III*, ik. Michelena.

Michelena, L., 1964, *Textos Arcaicos Vascos* (Minotauro, Madrid) 2. arg. *ASJU*-ren Gehigarriak 11, Donostia 1990.

———, 1978, "Miscelánea filológica vasca I" *FLV* X 29 [= *PT*, 363 hh].

———, 1987, *Orotariko Euskal Hiztegia, I, A-Ama* (Euskaltzaindia, Bilbao).

———, 1989a, *Orotariko Euskal Hiztegia II, Ame-Asd* (Euskaltzaindia, Bilbao).

———, 1989b, *Euskal idazlan guztiak III* (Klasikoak 23, El Mensajero, Bilbao).

OEH, Orotariko Euskal Hiztegia, ik. Michelena.

Villasante, L., 1976: *Sintaxis de la oración compuesta* (Colección Eleizalde 4, EFA, Oñate).

Baldintzazko esaldi batzuen berezitasuna

LINO AKESOLO

Baldintzazko esaldi batzuek euskeran duten erabilera berezi samartxo bat aurkeztu nai nuke Mitxelena zenaren omenezko lan-bilduma onetara. Gure egunotako euskera bizian eta gure literatura osoan bizi bizirik ikusten dugun erabilera da.

Gaia mugatuz, esan dezadan *ba-* aurrizkia, baldintzazkoa, aurretik daramaten adizkiz osatutako esaldiak aztertu nai direla emen: *banintz, bazina, balitz, banu, bazenu, balu,* eta berauen sailekoak, alegia. Eta auen artean zerbait *nai izatea, naiago izatea, obe izatea* eta adierazteko esaldiak, ain zuzen.

Gure gramatika liburuetan, nik dakidala, edo aipamenik ez edo argitasunik gutxi emaiten zaielakoen nago, Lafitte zenaren gramatikan izan ezik. Euskal idazle eta gramatikalari onek, iraizean bezala, bere ikututxoak egin zizkion gai oni bere Gramatikan, onelako adibideak emanez:

> Nahi nuke jin baledi; bekatu litake ez balitz apheztu; dohatsu nintake, berak aithor balezat; nahiago nuke ez banu behin ere ikhusi; nahi nuke, egin baleza (Ikus aren *Grammaire Basque,* n. 721, 724, 866).

Naia, naigabea, urrikia eta olakoen inguruko sentierak adieraztekoak direla dio Lafitte gramatikalariak. Are geiago esan du: Baldintzakotzat ezik, delako sentiera adierazteko duen aditzaren osagarrizko esalditzat (konpletibotzat) ar daitezkela. Eta au argitzeko bezala berak, goian aipatu ditugun esaldiak prantzesera aldatu dituenean, aurreko aditzaren konpletibotzat itzuli ditu.

Gramatika gai onek azterketa argigarriagoa merezi duelakoan, ene lantxo onek saiotxo bat egin nai luke, ea gai oni ematen zaion baiño arreta eta jaramon andiagoa eman bear zaiola ikusten dugun. Gai onen muina, au da, baldintzazko esaldion erabillera ez da bakarrik euskerarena. Laster ikusiko dugu beste izkuntza askok ere berena dutela; baina euskeran beste inguruko izkuntzetan baino errotuago eta indartsuago aurkitzen dela esan daiteke.

Adibide argigarri bat

Esan dugunaren argigarri adibide bat eman dezagun aurre aurretik, Europako izkuntza andien eremuan oso ezaguna dena, Mateoren Ebangelioan Judasen salduker iari dagozkion itzak. Liturgirako itzulpenetik jaso ditzagun: "Gizon orrek obe zukeen jaio ez balitz" (Mat. 26, 24). Itz auek, beren jatorrizko izkuntzetako testuan, bai grekoz eta bai latinez, baldintzako esaldia egiten dutela daude, euskeraz dauden bezala. Baiña, gure auzoko erderetan, konpletibo egiñik aurkitzen ditugu ia beti:

Más le valdría a ese hombre no haber nacido gazteleraz; eta frantsezez: *Mieux eût valu pour cet homme-lá de ne pas naître*. Olaxe Jerusalengo Biblia delakoan, gure inguruko bi izkuntzetan. Esaldi ori konpletibo egin dute, ez baldintzazko. Gure auzoko bi erderak bide ori artu dute, XVIgarren mendetik asita. Calvinok, asiera batean testu ori baldintzazko egitera jo bazuen ere, azkenengo itzulpenetan, konpletibo egin zuen; baina Leizarragak, Testamentu Berria euskeratzean, ez zuen or zalantzarik izan: itzez itz eutsi zion baldintzazko bideari: *On çuqueen guiçon hark baldin sorthu içan ez balitz*. Eta geroko euskal itzultzaile guztiek bide beretik jo dute, bai protestanteek eta bai katolikoek, gure egunotara arte. Eta ez dira gutxi. Ala ere gure egunotararte esan dugu. Izan ere, gure mende onetan bi itzultzaille izan ditugu osoan inguruko erdaldunen bidea arte dutenak: Olabide eta L. Léon. L-Léonek onetara: *Hobe zuken harek sekulan ez sortzea*. Eta Olabidek beste onetara: *Obe litzayobe alakoari yayo ez izana*. Bata eta bestea lotuegi azaltzen zaizkigu erdal itzulpenei eta indarra kendu diete Jesusen itzei. Askoz jatorrago iduritzen zaigu baldintzazko egin dituztenen bidea, liturgiako itzultzaileen bidea bera.

Argigarritzat ipiñi dugu gure lanaren asieran Ebangelioko testu ain ezagutua. Lafittek bere gramatikan eman zituen esaldiek euskera bizitik artuak dirudite eta egokiak dira.

Eta gure literaturan, euskeraren lekukotzat dauden idazleen artean ez ote da olako esaldien aztarnarik, lorratzik? Bai, aurkitzen dira eta ez gutxi ere. Eta au egiaztatzeko, gainbegiratu bat egin nai diogu gure literatura idatziari, amaseigarren mendetik asita, azkenez, erri-literaturatik zenbait adibide jasotzeko.

XVIgarren mendean: Etxepare, Leizarraga

Mende ontakoa da euskera idatzia leenengoz plazara dantzari atera nai izan zuen idazlea, Etxepare, bertsozko liburu batean euskaldunei beren izkuntzaren asikiñak (*Linguae Vasconum Primitiae*) opatu nai izan zizkiena. Liburu ortan esaldi argiak irakurten ditugu, gure gramatika lege onen jatortasuna eta zabalera ikusteko. Oraingo ortografian joango dira Etxepareren itzak, Patxi Altunaren argitaralditik artuta, bakoitzaren orrialdearen zenbakia emanez:

1) *Ixil bazinite nahi nikezu* (117)
2) *Amorosak nahi nuke honat beha balite* (84)
3) *Nik hura nola nahi nuke hark banenza onhetsi* (142)
4) *Minzatzeko zurekila gau bat nahi nikezi hilabete kunpliturik hura luza baledi* (203)
5) *Geldi bazinite nahi nikezu* (207)

Ain liburu txikian agertzeko, ez dute kopuru txikia egiten. Eta erderetara itzultzen saiatu direnek baldintzako esaldiok konpletibo, osagarrizko egin bear izan dituzte. Beste bein edo bestetan konpletibo egitera ere jo du Etxepare onek: *Ixil ladin nahi nuke halako den guzia. Ixil endin nahi nikek, ala ene fedia*, bata "Emazten fabore" izenekoan emana, eta bigarrena "Amore gogorraren despita" izenekoan. Baina bertso neurriak ala eskatu diolako egin du, noski. Geienetan, berenez, baldintzako naia errazago sortzen zaiola dirudi.

Urrengo idazle ain ezaguna Leizarraga da amaseigarren mende ortan. Ona emen orain bere Testamentu Berriko testu auek:

6) *On zukeen gizon hark baldin iayo izan ezpaliz* (Mat. 26, 24)
7) *On zukeen gizon hark baldin iayo ezpaliz* (Mark, 14, 21)
8) *Ezta beraz gauza handia, baldin haren ministreak ere iustiziaren ministretan transformatzen badira* (II Cor, 114). Erdal itzulpenetan gaur erraz joten dute testu ontan ere konpletibo egitera: no es mucho que también...)
9) *Hark hobe luke baldin errota harri bat leppoaren inguruan ezar baledi eta egotz ledin itsarorat.* Emen, noski, *ezar baledi* orrek *ezar balekio* izan bear zuen, eta *ledin* ori ere *baledi* egin; baina onelako akatsetan askotan erorten da Leizarraga; bi esaldi ari berekoak, elkarren kideak izan arren, ala ez balira bezala itzultzen ditu ia beti.

Lukasen Ebangelioan baldintzazko egin duen testu bardintsua, Mateo eta Markosenean konpletibo egin ditu.

Beste adibide bat, mende berekoa, aipa dezakegula uste dut, mende orren azken urteetako esaera zaarretakoa:

10) *Gaixtoa bainzate, oba* (*RS*, 293gna)

Euskerak eurrez erabilten ditu onelako esaldiak: *Obe, ixiltzen bazina,* eta antzerakoak. Erdaldunak beste onetara esango luke: *Más te valdría que te callaras.* Euskaldunak baldintzapean maiz botako ditu erdaldunei barre eragiten dieten onelako esaldiak: *Mejor si te callarías!* Euskalduna ortara egiña dago, amaseigarren mendeko esaerak argi dioenez.

Amazazpigarren mendean

Mende hau Iparraldeko euskal-literaturaren loraldikoa da. Axular, Sylvain Pouvreau, Oihenart, Harizmendi, eta Argaiñaratz ekarriko ditugu baldintzazko esaldi berezion lekuko.

11) *Badirudi* [*denborak*] *trabatzen gaituela anhitzetan, ezpagendu nahi gendukeiela* (Villasanteren arg. 225, Flors, Barcelona)
12) *On lizate orai ere halakoekin hala egin baledi* (Id, 70)
13) *Ethortzen zaitzu erhokeria, heken urrikia, eta egin ezapazinitu nahia* (Id. 396).
14) *Urthean behin bedere* [*kofesa*]. Bedere *erraiten du aditzera emateagatik nahi zukeiela gehiagotan ere egin bagindeza* (Id. 679)
15) *Deabruak... eragiten derauskitzun bekhatuak ixil, eta sekretu eduki bazinitza nahi bailluke* (Id. 683)
16) *On zukeien sorthu ezpaliz, edo sorthu eta berehala... ez deus bihurtu baliz* (Id. 750)
17) *Nahi nuke iben bazinitza begiak, huni beha baziniazo, haur konsidera bazeneza... zuk ere gauza hunetzaz, zenbait aldiz bedere, hausnaur eta gogoeta egin bazeneza* (Id. 756-57).
18) *Nahi luke damuatuak / balitz zuen lekuan; / gau egunak penatuak / laramazke munduan.* (Argaiñaratz, *Ama Birjinaren hirur Officio,* Vinson-en edizioan, 13. or.)

19) *Munduak saindu estima edo fama bazinitza nahiz [sakramenduen] errezibitzea da hipokrisia (Deboten Brebiarioa,* Vinson-en edizioan, 103, or.).

20) *Desira nuke hartara bere antzea ekar balezate berokiago nihork hunerainokoan egin duen baino* (Sylvain Pouvreau, *Philothea,* "Aitzinsolasa")

21) *Nahi nuke hainitz aldiz ixil egon baninz, eta konpainietan sartu ezpaninz. (K. Imitazionea,* I, 20, 2)

Gogotan artzekoa da testu onetan itzultzaileak ez duela Kenpis-en liburuan oinarririk aurkitu baldintzazko tankera horretara joteko. Kenpisek bere latinean onela dio: *Vellem me pluries tacuisse et inter homines non fuisse.* Ala ere Sylvain Pouvreauk eta gure itzultzailerik geieneak baldintzazko gurpilla eman diote Imitazioko puskatxo oni. Ala Haraneder, Etxeberria, Olabide, Pi Abak eta Abarrek. Zubererako itzultzaileek eta gure egunotako L-Leon-ek utzi dute baldintzazko bide ori. Zubererako leen itzulpenak onela dio: *Untsa nahi nikezu hanitxetan ixilik egon nintzan, eta gizonen artean enintzan izan* (1757). L. Leon zenak lapurdierara berdintsu egin zuen, eta, egia esan, hauen bion itzulpena beste baldintzako tankerara jo dutenen aldean, motel samar gelditzen zaigu.

22) *Zer da mira ardiak otsoari ihesari badira* (Oihenart, *Atsotitzak,* 706gna).

Emezortzigarren mendean

23) *Nahi nuke presuna gehiago entseiatzen balitz... munduko yendei hortarako bidea errexago eta zelhaiago presentatzera...* (Haranader, *Philothea,* "Aitzineko solhasa").

24) *Nork ere gaitzbiderik emanen baitio nitan sinhesten duten ttipitto hautarik bati, on lizate harentzat, lephotik ihara harri bat estekaturik, itsasorat aurthikia balitz* (Haraneder, *Mark,* 9,4).

25) *Hobe luke hark lotzen baliote lephotik ihara harri bat dilinda, eta aurthikitzen balute itsas ondarreraino,* Id. *Mat.* 18,6) Lukasen Ebangelioan berdintsu. Testamentu Berri au Haraneder-Harrietena da.

26) *Ala nahi bainuke hañitz orduz egotu baninz ixillik, eta jende artean ez baninz kausitu* (Id. *Imit,* I, 10,1).

27) *Hobe zukeen baldin egundaino sorthu ezpalitz* (*Math.* 26,24)

Emeretzigarren mendean

Orainartean ia adibide guztiak Iparraldeko idazleenak izan dira. Ordu da Bidasoaz emendiko batzuk ere ekartzeko.

28) *Ze kontu txarra emongo dozun zeure semeaz... Obe zan etxean sarturik gorde bazendu!* Añibarro, *Nekea arindurik* (B. Urgellen arg. *ASJU XXI*-1, 1987)

29) *Naiago leuke modu onetako pekatariak Jaungoikorik expaleuko.* (J. Cruz Renteria (1804-1874). *Platikak,* argitaragabeak, 69. or.)

30) *O zorigaiztoko gizona eta jaio ezpaziña obe zendukeana.*

31) *Nahi nuke anaia bakhotxat bere zakhukoak sartzen baliotza Elizari, nihor ezagutu gabe.* Hiribarren, *Eskaraz egia*, 19

32) *Hari [atso zaharrari] aditu diot ixtorio bat, ene iduriz ederra: nahi nuke guzien gogarako izan baladi.* (Duvoisin, *Zazpi Liliak*, 61)

33) *Nola deseatuko duten orduan lurrak iretsi balitu, ez ekusteagatik lantze lotsagarri arretan* (J. M. Satrustegui, *Euskal testu zaharrak*, 213. or.)

34) *Egin zazu orai orduko nai duzuna egin izan bazinu* (Id. 213.)

35) *San Krisostomoren hitz batzuek nai nuke argitzen balituke zuen entendamentuek.* Id. 141.

36) *Hobe zuketen ez balute zuzenbidea ezagutu, ezen-ez ezagutu ondoan gibelerat egitea.* Duvoisin, *Bible Saindua*, II *Pet-ri*, 2,21. (Leizarragak konpletibo egin testua).

37) *Obe luke lepotik lotzen baliote errotarri bat eta botatzen balute itsasoko zolara*, B. Echenique, *Mat*, 18,6)

Aski bitez eman jaso ditugun adibideok, gure literatura idatziaren bidea ikusteko. Baina esandako guztiaren osagarri, jo dezagun gure Folklorera eta bertsolarien artera, adibide gutxi batzuen billa. Bertsolarien itzak noiztik onakoak diren jakin dezakegu; erriak gorde dituen kantenak ez.

38) *Txeru kartzelan dago / damia kanpuan, / Txeruk gure leukela baleuko albuan.* ("Txeru", errikanta.)

39) *Obe zukean ikusi ezpalu / Berdabioko atea.* (Azkue, *Cancionero*, 407gna.)

40) *Sudurra ere luzatu zaigu / kokotza baiño berago, / nere etxean biar baiño gaur / illa banengo naiago.* Azkue, *ibid.* 372gna.

41) *Iru ta iru sei dira eta, beste seirekin amabi. Neska zar bat baiño oba genduke ardoa merke balebil.* (Markiña aldeko kanta).

42) *Lengo oiturak maite dituzu, / ez dituzu utzi galtzera; / naiago nuke ni ere igual / izango banintz zartzera.* (Txirrita, *Bertsolariya*, 249.)

43) *Urreratu ezpanintz askoz obe nuan; ostikoaz jo nayok / belaunen buruan.* Enbeita anaiak "Bei zarra", *Bertsolariya*, 30)

Emen eman nai diogu azkena adibideen saillari. Naikoa diralakoan gaude eta naikoa argigarritzat dauzkagu. Euskeran olako esaldiek sustrai sendoak dituztela erakusten digute.

Lafitte zenak begia argi eta zorrotza erakutsi zuen olako esamoldeei bere gramatikan leku emon zienean. Zerbaiten naia, zerbait gertatuko balizko edo ez gertatua balizko naia, gertatu delako edo ez delako miña eta urrikia adieraztekoak dira. *Nai izan, naiago izan, on izan, obe izan* aditzekin loturik azaltzen dira geien batez. Baiña beste sentiera batzuekin batean ere erabili izan eta izaten dira: *Miretsi, miraz egon, arritu, min artu, poz artu* eta olako aditzekin ere entzuten eta erabiltzen dira. Eta batzuetan baldintza *naia* izen utsarekin ere bai. Axularren esaldi batean eta Harizmendiren beste batean argi ikusi dezakegu: *Bekatuak egin ezpazinitu nahia, munduak saindu estima bazinitza nahia.* Beste gure inguruko izkuntzetan ikusten ote da olakorik? Eta ez dezagun uste baldintzazko nai ori, euskeran ola adierazten den ori,

nai aula, Axularrek esango luken bezala, desirkunde utsa denik. Etxeparek bere emakumeen agotan jarri dituen arako: *ixil bazinite*, edo *geldi bazinite nahi nikezu*, borondate oso sendoaren adierazgarri dira, noski. Baina, Lafittek ongi ikusi zuenez, jendetasunez, begirunez, agertutako borondate ziña datza or. Orixe, jendetasuna ikusi du Lafittek onelako esaldietan. Berbalagunari zerbait opatzen, eskatzen edo agintzen dio; baiña lagunaren borondatea beartu nai izan gabe. *Nai nuke, eskertuko nizuke biar gurekin bazkaltzera etorriko baziña*, edo olakoren bat esaten diogunean, benetako naia da lagunari adierazten dioguna, ez dugu beartu nai, baina benetako naia da, eta onartu eza min emango ligukena da adierazten dioguna. Ez da ala olako nai ustela, itxura egiteko, jendetasun osozko eta miñezkoa da.

Gure literatura guztian, idatzian eta agozkoan bizirik dirauen baldintzazko esan molde onek, euskal gramatiketan zor zaion arretarik eta lekurik izan ez duelakoan gaude. Gure egunotan ez dira liburu gutxi plazaratzen edo ikastoletaratzen, edotariko esaldiz orniturik, bear denean edotariko esaldiak asmatzen ikasteko. Emen aipatu eta azaldu nai izan ditugun esamolderik dakarrenik ez dugu ikusten. Gramatiketan Lafitte zenak asitako bidearen jarraitzaille eta osotzaille izan nai duenik ere ez. Utsune au bete bearra dagoela uste dugu. Lan onetan jaso ditugun adibideak, geienak beintzat, lan izango genuke aipatu ditugun idazleek egin duten baiño jatorrago eta biziago eta indartsuago idazten. Baldintzazko esaldiok euskeraz konpletibo edo osagarrizko egiñaz ez genuke esan nai dutena ain garbi eta zeatz eta indartsu adieraziko.

Eta euskal gramatikalari eta irakasleek on egingo lukete eta guztion esker ona irabaziko luketelakoan gaude, noski, baldin gai au aztertzen eta argi uzten saiatuko balira. Eta, jakina, argi jartzea lortuko balute.

Lexiaren inguruan Euskal Herriko atlas linguistikoaren inkestagintzan

XARLES VIDEGAIN
(Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa)

0. Sarrera*

Iduri luke azti izaiteko dohaintasuna erakutsi nahi zuela Spitzer-ek (1928) ondoko lerro hauk idazten zituelarik, Euskal Herrikoaren kasua espreski aipatu zuelarik:

> Si vous avez la possibilité de faire et un atlas linguistique et un dictionnaire (plus une grammaire) faites les deux, mais d'abord le dictionnaire (plus la grammaire).

Alabaina, hori da gertatzen ari dena gaurko egunean, Euskaltzaindiaren lan-egitarauak erakusten duen bezala. Euskal Gramatika eta Hiztegia jadanik argitaratzen ari dira, Euskal Herriko Atlas Linguistikoa zer nahi gisaz berantago agertzekoa delarik, Spitzer-en aholkua jarraituz hala beharrez.

Artikulu honetan gramatika bazter utzirik, lexikoaz ariko naiz gehienik. Ezaguna da hizkuntzalaritzaren historian izan den eztabaida, atlasa eta hiztegia elkarren kontra zein gehiagoka har-arazi nahiz, bataren ala bestearen abantailak eta lorpenak goraipatuz. Besteen artean irakur daitezke, Spitzer 1928, Iordan 1977, Alvar 1982.

1928an berean, Meillet-ek munduko hizkuntza guzien atlas baten obratzeko azaldu zuen proiektu kari, atlasgintzaren metodologia eta partikulazki Gilliéronen postulatuak aski gogorki erasiatu zituen orduan Spitzer-ek. Honek azpimarratzen zuen nola, Gilliéron-en ustetan, lekukoaren erantzun bakar bat behar zen entzun eta jaso, "réponse du premier jet" esaldi famatuaren araberako metodologian mugatuz: erran nahi baita lekukoak deblauki emandako lehen erantzun hura bera kontuan hartu behar zela, besterik jasotzeko asmorik gabe.

Honetan arrazoi du Spitzer-ek. Lekukoa ekibokatu delarik, galdera gaizki ulerturik edo eta beste erantzun zehatzagoa piska bat geroago bururatu aintzin, Gilliéron bezalako inkestaegileak ez dio denborarik eman nahi, ez zuzentzeko ez eta osatzeko lehenik erranikakoa. Erran gabe doa, estatus dialektalean hain pisu handikoa den polimorfismoa errotik baztertzen dela, horrela lekukoaren hitz-jarioa moztuz. Bes-

* Eskertu nahi ditut atlasgintzan ari diren lagunak, artikulu hau ez baitnuen eginen, osatzen dugun taldean lan-moldea ahalaz homogeneo izan-nahiak ez banindu bultzatu han eta hemen egindako oharrak elgarri lotzera. Milesker beraz G. Aurrekoetxea lankideari; I. Atutxa; I. Etxebeste; K. Segurola, denbora osoz; A. M. Echaide, J. M. Etxeberria, arteka inkestagintzan dabiltzanei, proiektuaren arduraduna delarik J. Haritschelhar. Bestalde J. L. Fossat-i zor diodana aitorturik, ez nezazke ahantz ere, nahiz ez ditudan izendatuko, gure lanerako ezinbestekoak diren lekuko maitagarriak.

talde, eta ez naiz horretan luzatuko, Gilliéron-en beste postulatu bat baztertu nahi zuen Spitzer-ek. Gilliéron-en eritziz, inkesta ongi egina izatekotan, inkestaegilea ez zen bertakoa, ez zen indigenoa izan behar. Hori gaurko egunean nehork guti onartzen du. Nik hasteko afrikar guti ezagutzen dut frantses dialektoei buruz lan anitz eginda denik. Eta aldiz, Afrikako hizkuntzetan berezitu diren frantses guziak ez ditzaket aipa.

Beraz, erran daiteke, Gilliéronen garaiaz geroztik dialektologiak hobekuntza zenbait ekarri diola atlasgintzari, linguistika orokorrean teoriaren aldetik izan diren asmaketa berriak neurri batez kontuan hartuz (ez gehiegi halere), eta teknikaren aldetik, magnetofoiak emaiten duen eta bideoak eman lezakeen errextasuna baliatuz, informazio zehatzago, fidagarriago eta baliagarriagoa biltzeko asmoz.

Lexikoari buruzko galdakizunarengatik berarengatik hiztegiaren alorra unkitzen du nahitaez atlasak. Lerro hauetan, atlasak eta hiztegiek zertan duten eite eta zertan diren diferenteak aipatu nahi nuke gaingiroki; edozein atlas edo hiztegiren ordez, gerta liteke ene gogoan izaitea bereziki *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren (*OEH*) eta *Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa*-ren (*EHHA*) eredua.

Biltzen den forma linguistikoa lexia deitzen dut; "lexia" diodanean, Rey (1977: 15) segitzen dut: "lexie désigne toute unité lexicale, mot ou non". Gauzak errextu nahian, esaerak eta atsotitzak, partikularzki Pottier-ek (1985: 267) deitzen duen "lexie textuelle" hura, hemen lexiaren inguruan baizik ez ditut aipatuko.

Galdakizun mugatu baten arabera biltzen den lexia bakoitzarentzat, horra *EHHA*-k biltzen dituen informazioak: forma fonetikoa; grafia, beharbada, baina zer nahi gisa forma fonetikotik idoki ahalko dena da; lokalizazio zehatza; alor semantikoa; sinonimia, neurri batean; kategori gramatikala; erabilera gramatikalari buruz ez du informazio sistimatikorik emanen, batzutan lexia hutsa biltzen delakotz, atlasaren inkestagintzaren era dela medio, baina testuingurua frangotan agertuko da. Hori lexiari berari buruz.

Fraseologiaz, eta horren bilketa lexiari berari buruzkoarena bezain sistimatikoa ez izanik ere, aipatuko dira: konparaketak eta metaforak, esaerak, etnotestuak; gainera, etimologiari buruz eta metahizkuntzari buruz ere, zerbait entzuten eta jasotzen da lekukoak erranik. Ikusten denez, hiztegi baten sarrerapean dagoenarekin pareka daiteke.

Aipatzen den atlasaren desabantail ezagunena dena da mintzaira baten sondeoa baizik ez dela. Spitzer-ek ere hala pentsatzen zukeen atlasaren sarea ez dela aski fina deitoratuz. Ideia horren pean dagoen ikusmoldeak aditzera emaiten du, mintzaira dela multzo bukatu bat, mea, zenda edo harrobi mugatua, osoki jaso behar litekeena. Badakigu orokor-zaletasun hori ezinezko dela, lehenik mintzaira ez baita bukaturik den multzoa. Beraz, Atlasak, eta Hiztegiak, ez lezakete beren sareetan hizkuntza guzia sar-araz. Inportantagoa liteke agian, jakitea ea atlasek bildutako datuek nahiko berri emaiten duten mintzairaren funzionamenduaz. Atlasen jaugina izan da deskripzio hutsean murgiltzea, esplikazioez gehiegi axolatu gabe. Ondorioz, atlas zenbaitetan bildutako gordailua lo dago, interesatuko dituen ikerlarien menturan.

Ohart naiz ere *OEH*-ek eta *EHHA*-k badutela beste puntu amankomuna. "Ezezko datuez" ari naiz. Atlasen metodologian, Ravier-ek (1965) famatu egin duen izendapen horren pean dagoena da onomasiologiaren laguntzaz baliatzea galdera semasiologikoak bere fruitua eman ondoan edo huts egin ondoan. Bestela erranez, lekukoak lehenik emandako erantzunaz gain, proposatzen dizkiogu geroago beste hitz zenbait, eta kontuan hartzen dugu zer dioen haietaz. *EHHA*-n sistimatikoki erabiltzen dugun metodologiak harrigarriko aberastasuna eta konplexotasuna ekartzen ditu. Bidenabar erran dezadan Ravier-ek dialektologiari aplikatu dion metodologia famatu hori jadanik

dato etnografikoen kartografiari aplikatu ziola folklorista famatuago batek: Van Gennep-ek (1934) hain zuzen. Ravier-en merezimendua izan da, zientzien historian emankor ageri den fenomenoa jarraituz, alor baten metodologia beste bati egokitzea, etnografiatik eta etnokartografiatik jauzi egin baitu geografia linguistikoraino.

Bainan *OEH*-ek ezezko datoak baliatzen ditu berak ere azaltzen duenean esplizitoki hitz bat nork erabili duen eta ere nork ez duen erabili, bigarren honen berri ukaitea oso inportanta baita. Esaerak dioen bezala, ixiltasuna bera oso adierazkorra izan bait diteke.

Halere, eta zuzenki ez bada ere, ezezko datu hauen ildotik, *OEH*-ek kezka normatiboaren beharria erakusten du. I. Sarasolari (UZEI-k 1988-V-ean antolatu jardunaldietan) entzun diot erraiten, *abandonatu* hitza hartuz adibidetzat, nola *OEH*-k izendatzen dituen, *abandonatu* hitza erabiltzen ez duten entzute handiko idazleak. *Abandonatu* baliatzen dutenak "de importancia menor o ligados a la tradición oral" baizik ez dira. Ez da harritzekoa beraz bere burua normatiboa duen hiztegi batek "gutxi erabiltzen den hitz edo adiera" oharra ekartzea *abandonatu* sarreran eta ez bakarrik, dirudienez, Iparraldera mugatua delako batik bat (Sarasola, 1984).

Aldiz, Atlasak ez du holako kezka normatiborik, partikulazki idatziari buruz. Erregistroaren aldetik ez da hiztegia bezain ido izaiten, nahiz lekuko ainitzek bat batean ere badakiten erregistro bat baino gehiagoko formak emaitea. Bainan normak emaitea ez da atlasaren helburua.

Abandonatu hitzaren adibidea ezin dut hartu "abandonner" ez baita sartzen *EHHA*-ren galdakizunean. Sartua izan balitz, eman dezagun: "les parents n'ont pas voulu abandonner leur enfant" esaldiarekin eta ikertzen ditudan BN, L, Z, probintzietan, *abandonatu* agertuko zen araiz pisu handiz herri hainitzetan, *utzi bere gisarat* eta beste forma batzuren ondoan, nahiz gutarik bakoitza, idazten duenean entseatuko den *abandonatu* hitza ez erabiltzera. Gerta liteke forma lexikal batek gehiengoa osoa eukitea *EHHA*-ren 145 pundu-inkestetan eta forma hori ez hobetsia izaitea ikusmolde normatibo batez. "Berger" itzultzeko *pastore* balitz forma erabiliena, *EHHA*-ren arabera, ez luke erran nahi *artzain* ez litekeela izan behar normak hobetsiko lukeena. Adibide diskutigarriagoa hartuz, "pomme de terre, patate" galderari egindako erantzunek erakuts balezate ere *patata* litekeela lehenbiziko postuan; *pumaterra*, bigarrenean, eta *lur-sagar* azkenekoan, halere eta normatiboa izan nahian, *lursagar* proposa nezake bi frantses formetarik bataren ("pomme de terre") kalkoa dela oharturik ere; eta *patata* proposa nezake bainan konotazio gutietsgarri batekin. Diodan berriz, puntu hau atlasaren problematikarik hurbil ez dudala ikusten. Hizkuntza estandarizatuaren eraikikuntzan, atlasak ez du azken hitza hartu beharrik.

Bildutako datuen kopuruari buruz, jakina da atlasak eta hiztegiak ez direla elgarri konparatzen ahal. Hiztegiak alor semantiko guziak ditu aztertzen, oraiartinoko atlasek (*EHHA* barne) laborarien mundua dute gehienik ikertzen, gauza konkretuak, eta ez hainbeste, abstrakto direnak. Hitz arrunt zenbait *EHHA*-ek ez ditu zuzenki tratatzen, ahantziak izan direlakotz hala nola: "ciel, poisson, lune, broche, s'endormir, talon" etabar.

Aldiz, tratatzen dituen alor tekniko zenbaitetan segur naiz atlasek datu berri frango ekartzen dutela, hiztegi ez berezituek ez jasoa. Bilketa honen balioa ez du guti laudatzen Alvar batek (1982) eta uztaren kopuruak arrazoi emaiten bide dio.

EHHA eta *OEH*-ren artean ikusten dudan beste pundu amankomuna ez da linguistikoaz barnekoa, baizik eta kanpokoa. Biek presa handia bazutela erran nahi dut, baina presa hura arrazoi desberdinengatik ikusten dut.

OEH, oso nahikatua zen gizartearen aldetik, merkatuan tira handia ukanen duen iduri luke, honelako tresna premiatsua lehenbaitlehen nahi eta behar zutelakotz

euskaldungoak eta komunitate zientifikoak, gostarik gosta. Atlasak ere premia gorria badu, baina lan-katearen beste pundu batean; alabaina, galduak izaiteko ez dute neholako arriskurik hiztegiak tratatzen dituen testu gehienek: Leizarraga, Axular edo Txillardegiren obrak araiz gordeko bait dira luzaz. Aldiz besterik da Atlasak biltzen dituen dokumentuen iturrien zortea; ahozkoak izanik, biziki galkorrak dira; lekuko zaharrek emanik dira eta lekukoak hilkorrak dira; mundu tradizional bati buruzkoak dira eta mundu hori kanbiakorra da oso. Beraz aldatuz doan giro batean hiltzera doazen lekuko zaharren ahozko emaitzak biltzeko presa handia badu atlasak, biharko iturriek mila infiltrazio berrik iragazitako beste ur bat emanen dutelakoan. Gaur ixurtzen ari den ura, garden ala türbüts, guri doakigu biltzea eta ez biharkoei.

Sarrera honen bukatzeko aipatu nahi nuke artikulu honen idazteko era, apunte-aire baitu pasarte bat baino gehiagotan. Hain zuzen *EHHA*-ko lankideentzat egindako apunte desberdinak baliatuz egina da. Halere dagoen bezala argitaratu nahi dut, J. Lakarraren gomitari esker, inkestagintzan agertzen zaizkigun traba eta koropiloen miraila delakoan baitnago. Hilabete hauetan eta egin ditudan inkestetan ageri fenomeno zenbaitek merezi luketen tratamendu teorikoa axean emaiteko ez naiz aizinant izan. Aizkora-ukaldika ariko naiz beraz, xixelaren lana gerorako utziz.

Bi ataletan azaldu nahi ditut lexikoaren aldetikako atlasaren arazoak. Lehenik lexiaren beraren mailan direnak; bigarrenekorik, lexia baino goragoko fenomenoak, erran nahi baita, fraseologia, hizkuntzari dagokionez; informazio etnografikoa, entziklopediari dagokionez; eta bildutako narrazioen arteko aldakien arazoa.

1. Lexiaren heinean

Lehen parte honetan, aipatu nahi ditut *EHHA*-ren inkestagintzan eta galdera lexikal bakoitzeko zein diren biltzen diren informazioak lexiari berari buruz.

Hasteko, lexiaren kategori gramatikala emaiten dugu; izena delarik, forma mugagabea bilatzen dugu; partizipioa, aditza delarik, ahalaz diatesiaren berri emanez. Bestalde, zehaztasuna bilatzen dugu erreferenteari buruz, partikularzki lexiko berezituetan, edo sobera zabalak diren galderetan, edo esperientzi-mailak emandako interferentziek eragiten dituzten galderetan.

Informazio beharrezko izan arren, eta Humboldten ondotik Mitxelenak aipatu "indistinción gramatical" hura ahantzi gabe, kategoria gramatikalak ez du askotan traba haundirik emaiten, zuberotarrez ager ditezkeen *-ka* atzizkiarekilako hitz zenbaitetan ez ezik. Erran gabe doa gure erantzun-kuadernoan hitz bati emaiten diogun kategori gramatikala alda litekeela beste inguru batean. Guk apuntatzen duguna da erantzunean agertu dena. Adibidez "aveugle" galderari Zuberotarrez emandako erantzun gehienak horrela agertzen dira: *ütsü dük*. Adjetiboa dela emaiten dut fitxan. Bainan adjetibo atributoak forma mugagabea hartzen duteneko erantzun hauen ondotik, izen gisa agertzen dela markatzen da ere, hala nola ondoko erranaldian: *bost itsu ikusi d(it)ut*.

Etnologiaren aldetik ere interesgarria da azaltzea hitz zenbait beti pluralean agertzen dela untsalaz: *hilherriak*, "le cimetière": edo izen propio gisa agertzen dela: *Anderekottagorri*: "la coccinelle".

Erle hitzak beste arazo bat aurkezten du: kolektiboarena. *Bost erle, erle bat* erranez, lekukoak ez digu deus adierazten errannahiaren aldaketaz. Testuinguruak diosku aldiz ea *erle* "abeille" den, edo "kofointara bat" den edo "kofoina" bera den, edo baita ere "erlumea" ("essaim", "enjambre") den. Nik ez nion kasurik eginen polisemia honi, ezti frango saldu zueneko lekuko bati ondoko hau ez banio entzun: *etxean bagindixin ehun erlez goiti*. Gero nintzen ohartu, erran nahi zuena ezin zela ulertu "plus de cent abeilles"

sasi-itzulpenarekin. Nola entzunkeran ez nintzen deusetaz ohartu, ondoko bisitan nion esplika-arazi zertaz ari zen eta berak zehaztu zuen "kofoin batean kokatua den erleen multzoa" zela, frantses hitza gehituz: "une ruchée".

Forma mugagabearen bilaketak badu beste ondoriorik. Lehenik, lekukoak lexia bera errepikatu behar duelakotz, eta zenbait aldiz bi eratan ahoskatzen duelakotz, partikularzki elokuzioaren abiadura emekiago edo zaluago emaiten duelarik: palatalizazio-kontua ager daiteke (eta ez beti "adierazkorra" deitutakoa), edo kontsonantetrukaketa: *espalakoin/eskalapoin; dailu/tailu.* Polimorfismo hori interesgarria da nahiz kartografia ez duen erraxtuko. Baina aipatu nahi dut beste fenomeno bat, Zuberotarrez ainitzetan agertu zaidana, landare edo zuhainen alor semantikoan. Lexiaren lehen forma mugaturik agertzen da hala nola *leixarra, elhorrixuria, erramüa* (fr. "le frêne", "l'aubépine", "le laurier"). Forma mugagabea nahi dut. Lekukoak orduan emaiten dituenak hauek dira: *bost leixartze, elhorrixuritze, erramütze.* Forma mugagabeak *-tze* atzizkia badauka, forma mugatuak ez zeukana. Forma mugagabean (*leixartze,...*) eta numeral batekin, iduri luke /+kontagarri/ tasuna agertzen dela, eta aldiz forma mugatuan, *leixarra,...* , /– kontagarri/ tasuna badagoela.

Ikus frantsesez ere "le frêne/du frêne" bikotea zeinetan lexia ez baita aldatzen. Bainan batzutan ere, *-tze* atzizkiak badu beste eginkizuna. Balio du adibidez fruitua bere arbolatik bereizteko *sagar* = "pomme" / *sagartze* = "pommier". Beste lekuko batek, Sohütakoak konparazione, *-tze* atzizkia baliatzen du kolektiboa adierazteko: "lieu planté de...". Zaila da generalizazioa asmatzea. *Sagar* entzuten da ere "pommier" adierazteko.

Aditzari dagokionez, ahalaz partizipioa lortu nahi dela erran dut. Diatesiaren berri emaitea komeni da bereziki euskarazko lexema bat bera delarik erdarazko bi adierazleren aurrean. Gogoan dut adibide arruntena, frantsesezko "mourir / tuer", bikotearena, euskaraz diatesiaren bitartez osatzen dena *hil,* (Too) *hil du / hil,* (Ioo) *hil da,* nahiz Zuberotarrez kasu honetan bi adierazle badiren; *hil* (Io) ala *eho* (Too). Ohartaraztekoa da ere diatesia ondoko bi kasu-mota hauetan: *iditu,* (Io), eta *atzartu,* (Too). *Iditu* (Io) formak erran nahi du "xahal, aretxe edo ergi deitu aberea *idi* bilakatu" dela. Aldiz *atzartu* (Ioo) formak erran nahi du aktante batek, "laborari-hazleak ardi bat atzar bilaka-arazi" nahi duela, atzar izan dadin geroko; ez baita batere gauza bera.

Halere, gramatikazko puntu hauen gainetik, agertarazi nahi nuke gure inkestagintzan, eta lexikoari buruz, zailtasun gehien duen informazioa erreferenteari dagokiola.

Inkestagileak arreta handiz so egin behar du ea lekukoak zehatz erantzuten duen gure galderari. Alabaina, batzutan guk prestatutako galdera ez da egokiena izan eta horrek erantzuna ilun izaiteko zortea erraxtu du. Kasu ainitzetan (agian gehienetan) galdera ongi egina izan da, aurretik bait genekien zer desberdinketa-mota ager zitekeen.

Adibidez "à l'abri" galdera bikoiztu ginuen: "à l'abri du vent" eta "à l'abri de la pluie" proposatuz, ezagutzen genuelakotz, *haizolbe, haizemalda / aterbe* bezalako bikotea.

Era berdinean, etxe-animaleen urrixaren beroaldiari buruz, behiarena, behorrarena..., galdegiten dugu, hiper-desberdinketa hori oso ezaguna baita euskaraz (*susara, giri, arkara* etabar). Baina beste kasu batzutan karrika egin dugu. "Tourbillon" galderak ez du zehazten haizeaz ala uraz ari garen eta Jutsiko lekukoak beste askok bezala bereizten ditu *askaot* ("tourbillon de vent") eta *zirimola* ("tourbillon d'eau"). "Gouffre" galdera, asma daitekeen bezala, iluna da, *leize, zenterna, gorga, osin, losko, lüo, laminzilo,* inkesta-egileak ez bait ditu elkarretarik beti aise bereizten. Iduriz neholako arazorik ez zukeen "montagne" galderak agert-arazten ditu *mendi* eta *borthü.*

Bien arteko diferentzia ez dela xoilik goratarzunaren araberakoa baizik eta lur-jabegoaren araberakoa ere, ez dudala berehala kontuan hartu aitortu behar dut.

Galdera zabalegi izaiteak zer konplexotasuna dakarren ikusteko "ravagé, détruit" galdera proposatzen dut. Untsalaz, harriak, zerutik jautsi harriak baratzean egiten dituen kalteez ari ginen. Halere, erabilera horren barnean ez baitira mugatzen lekukoak, erantzun desberdin ihaurri emaiten dituzte. Gauza bera "le temps s'obscurcit" edo "éclaircie" galderetan. Edo eta "humide" galderarekin. Kasu honetan ez ginuen aski kontuan hartu semantikaren aldetik badela mailakatze bat, eta ez oposizio polarrik. Ondorioz, Larrañeko lekukoak adibidez 10 erantzun eman dizkit: *busti, heze, bella, mardo, ümüxka, ezti, eztixka, eztitüxegi, handi* (ikus *hantu*), *phezü*. Mementuan berean analisis semikoa egin behar du inkesta-egileak; entseatzen da zehaztera hamar erantzunetarik zein den lurraz erraiten dena, arropaz, etxe batez, belarrez, ea /intentsitate/ tasuna erizpide gisa har daitekeenetz eta abar. Analisis semiko hori *ad hoc* egiten da ere "rivière" "averse", "giboulée", "tempête" galderekin, etabar.

Gertatzen da aldiz galdera sobera zehatza izaitea eta adierazle berezirik ez agert-araztea, biziki lekutan. Ondoko galderak egiten ditugularik: "panne", "saindoux", "graisse", lekuko ainitzek ez dituzte aise bereizten, ez gauzak eta ez hitzak. Halere Zuberoko lekuko zenbaitek ez dute dudatzen *gantz, uingei* eta *uin* emaiteko, laugarren bat gehitzen dutelarik: *koipe* "couche de graisse se formant à la surface de l'eau ayant servi à la fabrication des boudins, utilisée aussi pour graisser l'axe des charrettes et pour soigner la peau des mulets". Lekuko haientzat lau hitzak ez dira sinonimoak.

Badira ere erantzun zuzenik eskaintzen ez duten galderak. "Fille-mère" galderak kasik beti eragiten du *bastart* edo antzeko erantzuna: "fils naturel, bâtard".

Galdakizunaren sarrerak espainieraz eta frantsesez eginak dira. Bi hizkuntzak kontuan hartuz, ñabardurak egitera bortxatuak izan gara, bereziki erdara bataren adierazle bati, bi adierazle dagokiolarik beste erdaran, hala nola "oiseau"// "pájaro", "ave" edo "escalier, échelle"// "escalera". Onugarria da. Baina "adiskide faltsuen" zepoan ez erortzea ez da beti erraz izan: adibidez nahi nuke jakin hiztun arruntentzat gauza bera den "confiture" eta "confitura".

Bestalde, gerorako uzten dugu ikustea auzoko erdarek izan duten eragin zuzena, gauzak ez bait dira beti mekanistak izan. Adibidez, eta barka Hjelmseven adibide higatua hartzen balinbadut, espainierazko *leña/madera* bikoteari, frantsesezko *bois* dagokio bakarrik (*bois d'oeuvre, bois de chauffage* barne). Alta, eta oro har, badirudi *egur/zur* bikotea fermukiago atxiki dela frantsesaren pean dauden herrialdeetan espainieraren pean daudenetan baino, gaskoinerak badukeelarik hemen bere eragina.

Ikusmolde diferent batez so egin behar diogu beste galdera-multzo zenbaiti, ohartzen garelarik lekukoa, erreferente bati lihoakiokeen adierazle bat ezin zehaztuz ari dela. Euskaraz, beste hizkuntzetan bezala, badira nozio zenbait elkarretarik bereizgaitz direnak, hala nola ondoko bikote eta hirukoteetan: *veine/ nerf; reins/ lombes; louchon/ borgne* (ikus Jaberg 1936); *jabot/ gésier; trachée-artère/ oesophage; jambe/ pied; fenêtre/ volet; équidé/ hongre; cordon ombilical/ nombril; cheveu/ poil; grotte/ caverne; foudre/ éclair; poitrine/ sein; ongle/ pouce/ orteil/ doigt; cuire / brûler / griller; limite /bord / levée / baradeau; pré / prairie; vallée / ruisseau/ chemin/ ravin.* (Azken adibide horretaz ikus Bouvier 1982). Etnologoek ongi ezagutzen dute fenomeno hau. Aipa dezadan adibidez Houis (1968):

> Il est à noter aussi l'indistinction, souvent attestée, entre la main et l'avant-bras, entre le pied et la partie inférieure de la langue, entre les veines, les artères et les tendons, entre les seins et le lait.

Iduri luke hizkuntza naturalen ezaugarri bat dela alor zenbaitetan oso zehatza ez izaitea, eta utopia da pentsatzea beti zehatz izan behar litekeela (ikus A. Schaff 1967).

Kurioski, hiztegi berezituak ez dira traba gehienik ekartzen dutenak, segur aski esandako teknika baten munduan lexia bati adierazi bat baizik ez zaiolakotz emaiten. Erlazio unibokoa da adierazle eta adieraziaren artekoa. Adibide zenbait emanen dut xehetasunetan sartu gabe. Eskuin, frantses hitza; ezker, euskaraz lekuko batek bereizten dituen lexemak, beraz sinonimoak ez direnak:

"châtrer": *osatu/gezteratu/xikitatu*
"crépir": *zartatu/emokatu*
"traîneau": *arba/liña*
"chien": *hor/zakhur*
"saillir": *estali/arkhaldu/jokhatu*
"billot": *orkhei/pikhadera*
"balai": *itxuski/erratza*
"laver": *ikhuzi/garbitu*
"travail": *ferrade/kornadis* (ikus "cornadis" in *Larousse Agricole*)
"répandre": *eskarpitü/ihaurri*

Kontuz hartzekoa da, bereziki tresnen izendapenean, ezaguna den metonimia eta sinekdokaren eragina. Tresna osoaren izena eta bere zati funzionalaren izena bereiztea gaitz dirudi edo ez da egiten. Adibidez *dailu* izaiten ahal da bai "faux" (tresna osoa) eta bai "lame de la faux" (tresnaren parte bat). Zer esanik ez, tresna-mota batek aldaketa teknologiko asko jasan dituelarik mendeetan zehar, etsenplu ezagunena delarik golde-nabarrarena.

Poxelu handiena, batzutan, inkesta-egilearena da, alor tekniko batean inkonpetentea izaitea ez baita bekan gertatzen. Aurreko zerrendatik lehen adibidea hartuz, aitortzen dut banekiela guti gorabehera "châtrer" zer den. Baina horren egiteko, leku ainitzetan bi teknika-modu diferente badirela, eta beraz bi lexia, gero ikasi dut. Gero dut ikasi ere xerramari edo ahardiari obarioak (*arnellak*) kentzen ahal zaizkiola eta hirugarren lexia batez adierazten dela. Desberdinketa hauk bizirik diren lekuetan, hiru lexiak nahasteak inkonpetenteen klasean sar-arazten ninduen; eta jakina da lekukoak (erakasleak bezala) atsegin eta gogo gutiago baduela bere gaiaz sakonki mintzatzeko, ohartzen delarik aurrean duen lagunak ez diola gauza haundirik ulertzen.

Ber eremu teknikoan, hizkuntza amankomuneko lexia bat baliatzen ahal da, adiera berezi batekin:

itzuli: revenir en chaleur
puta: vache "nymphomane"
liburu: Bastidako lekukoak dio hori dela behiaren organo bat, tripakiak (fr. "gras-double") egiteko baliatzen dena, eta liburu bat bezala idekitzen omen dena. Mementoko ez dut zehatz identifikatu zein den organo hori, motibazioaren iturburutzat, itxura, forma daukana. Fr. "la feuillette" deitzen dena ote denetz ezin dut segurta.

Irakurri, tripak irakurri: Pagolan, Larzabalen entzuna, "trier les boyaux du porc, pour les séparer du mésentére"(?). Ene buruari galdegiten diot ez ote den hemen bilatu behar aintzineko pratika dibinatorio edo azti-jakitatearen aztarna. Gaur "irakurri"-k duen adiera zabala: "leer, lire", sekundarioa izaiteak ene hipotesia ez du asko laguntzen. Baina Azkuek badakar ere "desgranar", *bihitu, urkuldu* adiera bizkaieraz. Eta nonbait Van Gennep-ek aipatzen du bihiak, garauak, hain zuzen baliatzen zirela etorkizuna igertzeko.
zerratu: bête qui a "mis" toutes ses dents.

trenpatu: action de plonger la semence de blé dans un liquide destiné à la protéger des insectes.
xilhatu (edo) *loskotu:* percer, creuser, trouer, terme technique désignant chez une bête près de mettre bas le symptôme qui se manifeste par une dépression qui se forme de chaque côté de la vulve.
mehatu: aiguiser une lame (de faux,...).
hautsi: dépecer.
ezai: "mettre" les dents.
urthuki: esnaur urthuki: "perdre" la rumination.
taphatu: "couvert", terme technique de boucherie, critére de bonne viande.

Irakurleak ez dezala pentsa aurreko lexia gehienak zuzenki bilatu nahi zirela galdera berezi baten bitartez. Frangotan agertu dira uste gabetarik, lekukoak bere erantzunaren garatzearekin. Lexia hauek oso ezagunak dira berenaz, baina ez hemen agertzen den adiera berezia. Horrengatik diot inkesta-egilearen zeregina dela ahalaz adiera eskapatzera ez uztea, jaso gabe.

Zenbait aldi, aski argi eta habila da lekukoa, beti erantzun batenbat emaiteko, galdera zeinnahi izanik ere. Lekuko-mota hori interesgarri bezain lanjeros da bere tranpa ez baita beti susma-errexa. Aipatu nahi dudan fenomenoaren izandatzeko, B. Quemada-k nonbait eman duen hitza oso egokia zait: "palliatif". Lexia zehatzik eman gabe, haren orden "paliatibo" bat edo "baliokide" den zerbait ateratzen digu lekukoak, inkesta-egileok irensten duguna deusetaz ohartu gabe; ez beti, halere, amua sobera handia izaitea gertatzen baita. Tranpa larriena, eta beraz lekukoek guti erabilia, daiteke hiperonimoa emaitea hiponimoaren ordez. "Mésange", "chardonneret", "bouvreuil" itzultzeko nehork ez dit *xori* erran; "truite", "chevesne", "loche" itzultzeko, inork ez dit *arrain* proposatu non ez den beste arrazoi batengatik. Santa Garaziko lekukoak *arraña* erraiten dio "truite" delakoari, euskaraz hiperonimotzat hartzen den *arrain* hura Santa Garazin hiponimoa delakotz. Modu berean, Mugerren, *arraina* da "la morue salée". Jutsiko lekukoaren arabera *zaldi* ez da "cheval" baizik eta "équidé" bere aitak erraiten baitzion *astoa ere zaldia duk*. Beraz, hor ez da tranparik.

Taxinomiaren aldetik, erran nezake lekukoak guk galdakizuna egiteko tenorean pentsatzen genuen baino zehatzagoak direla. Aipa dezagun "vairon" galdera: *xipa* ezagunaren ondoan, lekuko zenbaitek bereizten dute ere *burgoatxa* (Larzabale) eta *erregaliza* (Sohuta). "Grive" galderarekin berdin: *biligarroaz* gain, *trida* da askok aipatzen dutena (fr. "grive, draine"). Ezaguna da bestalde taxinomia herrikoia eta taxinomio zientifikoa ez datozela beti bat. Lekuko askorentzat, *huntz* eta *kaheka* ez dira bi espezie diferente, baizik eta espezie bereko arra eta emea. Bitxiagoa da ere Biarnon ezaguna omen den sinestea eta Jutsiko lekukoak aipatu didana lehengoei entzunik: *kukua* handitzen delarik, ekainetik landa, *flakoin* (fr. "faucon") bihurtzen da. Bi hegaztinek hegal-kolpean antza ukaiteak eta kukua ekainetik harat desagertzeak esplika dezakete "sailkapen" hori. Baina kontuz: ixtiologia ezagutzen duen eta Oztibarreko hiztuna den J. Casaubon adiskideak ohart-arazi dit *xipa*-ren kasuan ez dela honela ulertu behar: *xipa* eta *burgoatxa* ez dira bi arrain diferent. Bainan arragatzeko edo erditzeko denboran adartto garratz zenbait egiten dira xiparen buruaren gainean. Eta itxura berezi hau daukan denborako xipari *burgoatxa* deitzen zaio. Lekukoak zioen bi arrain mota zirela. Orai arte, nik ere hala sinetsi behar. Oker nengoen.

Dimorfismoak esplikatzen du ere atlasetik kanpo Ziburun bildu dudan bikotea: *aien* ("labre mâle") eta *erregin* ("labre femelle"). Aski da bi erreferenteak ikustea Muus-Dahlstrom-en liburuan (1981: 129) desberdinketa horren ulertzeko.

Hitz paliatiboen gaiari itzuliz, zailago da ohartzea paliatibo den ala ez, lekukoak emaiten duen lexia, berez esplikatiboa, ulergarria edo motibatuta delarik. "Milan" baten

irudia ikusi eta, *xita-jale* emaiten balinbadu lekukoak, onart nezake ez baneki besterik badakikeela. Lekukoa zirikatu eta, *miru* edo *ülhaintxa* emaiten du. Baina gerta daiteke lexia ulergarriaz aparte beste lexiarik ez izaitea. *Hezur-jale* da "gypaète-barbu"rentzat kausitu dudan eta lekukoak ezagutzen dukeen lexia bakarra. Edo *kaka-jale*, "labbe"; edo *behien bideko emazte xüria* izena "circaète" edo "pernocptère"arentzat. Lexia hauetaz kanpo, lekukoak ez dauka besterik. Baina sasoinetik kanpo sortu den axuria *berantiar* deitzen dela erraiten zaidalarik, ez da gezur osoa ez eta ere erantzun oso zehatza: lekukoak *axuri-kuku* izendapen zehatzagoa emaiten ahal du, kukua martxoaren bukaeran kantuz hasiz geroztikako axuria delakoan motibatua baita. Inkesta-egileari dagokio ikustea lortu den lehen izendapenarekin kontentu behar den, ala ez ote den oraino beste izendapenik.

Forma paliatibo hoiei lotzen diet forma tautologikoen arazoa. Gertatzen da lekukoak ez daukala bete-betean lexia berezirik, adibidez tresna baten izendatzeko. "Sinonimia azaltzaile"-ren sokorria baliatzen du orduan besterik ezean. Goldenabar bat ikusiz, erran lezake *"hori lur-iraultzeko da"*. Inkesta egileari dagokio esprabitzea erantzun hori eraikuntza sintagmatiko libre den ala eraikuntza kodifikatua. Leku ainitzetan, ez da onartua izanen *lur iraultzeko berri bat erosi dut* bezalako esaldia: eta beraz *lur-iraultzeko* eraikuntza kodifikatua ez dela adierazten du. Aldiz *kafe-ehotzeko, arbi-xehatzeko* agertzen ahal dira eraikuntza kodifikatu gisa, "moulin à café", "hâchoir à raves" itzultzeko. Eta inkestagileak legezkoa du pentsatzea orduan egiazko lexia jaso duela. Ikus horretaz Rey-Debove (1978). Sailkapena ez da beti begien bistakoa. *Goizeko izarra* zer da? edozein izar goizean ikusia, ala "Vénus" bakarrik?

Fenomeno bera azaldu dit Larzabaleko lekukoak "faisselle" frantses galderari buruz. (=gazna egitean, haren inguruan tinkatzen zen zurezko modea). Izendapenaz ezin oroituz, lekukoak emaztea deitzen du: *"Errazu ama, zer du izena gasna-axalak? Badizi beste izena, kotxino!"*. Huni esker nintzen ohartu *gasna-axal* ez zela bertako lexia zehatza, banekielarik alta beste leku zenbaitetan ez zela beste lexiarik, "faisselle" adierazteko. Geroago zehatzago zeukan lexiaz oroitu zen lekukoa: *zortze* (apart utz dezagun *kotxino* bertako sakreñoaren arazo interesgarria: "un cochino" zer den ez bait daki lekukoak nehundik ere).

Mota honetako dudamudatik hurbil ikusten dut lekukoak eman glosak beti ongi ulertzea. "Glosa" hitzaz, izendatzen dut jadanik produzitu duen testuari lekukoak egiten dion komentarioa, izan dadin bere kabuz jina, ala inkesta-egileak akulaturik jin-arazia (ikus Culioli apud Fuchs, 1982). Adibidez, Azkuek dio bere hiztegian, *umetoki* sarreran: "matriz, bolsa del feto que arrojan las vacas justamente con las crías". Erdal adierazlearen ("matriz") eta bere glosaren arteko kontradizioak dudatan ezartzen du adierazlearen zehaztasuna. Aldiz *umoi* sarreran, "matriz" eta Azkuek emaiten duen zitazioa ondo dihoazkio elkarri. Gure inkestagintzan ere, glosak nahasbidea salatzen edo sortzen ahal du, edo bestalde lexiaren errannahia ilustratzen eta aberasten ahal du. Glosak adierazten duena, datu iraunkor bati ala gertakari kontingente bati buruz egina den bereiztea oso gaitz izaiten ahal baita.

Motibazio zeharkakoa ere izaiten ahal da hitz paliatiboen beste sorbide bat. "Chevreau" nola erraiten den galdegiten dudalarik, Benafarrako herri batean entzun baneza *ahuntzkume* forma, motibazio zeiharkako duen lexia, onargarri liteke, kontuan hartuz euskalki batzutan ez dela besterik lortuko. Halere ikusi behar nuke *ahuntzkume* soluzio bakarra den (*zakurkume* kasuan bezala), ala ez, ea *ahuña* ez den ezagutzen (eta ez dakit, ez jakin beharrik ere, lekukoak hitz hori kontzienteki *ahuntz*-etik eratortzen duen), eta azkenik, ea motibatua ez den *pittika* ezagutzen den. Leku batetik bestera soluzioak aldatzen dira. Inkesta-egilea bego erne!

Aise trenkatzen ez diren kasuak ere badira, bereziki biak batean agertzen direlarik forma ez motibatua eta beste "forma etnografikoa" deit nezakeena. Horra adibide bi: "salamandre" deitzeko, Baigorriko lekukoak emaiten dizkit: *arrulu* forma aski ezaguna (ik. *arlui, arrubi*), baina lehenik *berrogeiorenetako*. Jadanik Bonapartek aipatu forma hau justifikatzen du lekukoak, ihize horrek ausikitzen omen duen jendea berrogei orenen buruan hiltzen omen delakotz. Edo "grésil" galderan, Baigorriko gizon berak emaiten ditu *baazuza* eta *ahuntz-hitzailea*. Bidenabar, erran dezadan Baigorriko forma honek gogo-arazten duela espainierazko *matacabras*: "viento bóreas" Moliner-en arabera eta irakurtzen dena adibidez Delibes-en *Diario de un Cazador* liburuan. Erran gabe doa bi formak direla kontuan hartzekoak inkesta-egilearentzat.

Gehiago dena, zenbait aldiz "forma etnografikoa" bakarrik dago. Adibidez eskuko erien izendatzeko lexiarik ez dut lortzen Benafarroko eta Zuberoko leku gehienetan, "pouce" eta "auriculaire"-ez aparte, non ez den izendapen ludiko bat, gehienetan gaskoina, eskuko bost eriek osatzen duten mikro-narrazio edo mikro-drama kondatzen duen formula baten bitartez. Erien formulak oso ezagunak dira lan etnografikoetan. Euskarazko formula bat emaiten du Larrañeko lekukoak bost erien izendatzeko: *txo(r)ia, atzamailia, pelazalia, erreazlia, jalia;* eta kaskoinetik ateraia: *janphantzart, janpetit, lekatupi, matapedulh* eta abar. *Mata pedulh* ordez agertzen da ere *zorri-hiltzailea*. Eta horrelako formularik ez dakitenek ez dute hitzik bost erien izendatzeko. Gauza bertsua gertatzen da ainitz ikertua izan den haizeen izendapenarekin. Askotan, izen etnikoa hartzen du haizeak, nondik jiten omen den eta hango jendeen izena baitu, hala nola *labeda* Zuberoan eta *manex*. Hiztegiek ez dute aipatzen *manex* dela mendebaletik datorren haizearen izena eta horrek argibide emaiten dio Zuberotarren esaera enblematikoari: *manexetik, ez haize hunik, ez jente hunik!* (Ikus Iribarren: "De Aragón, ni viento ni varón" etabar).

Gerorako uzten dut "forma etnografikoak" duen inportantzia landaren izendapenetan, (ikus Séguy 1953, eta Guiraud). Erdal adibide bat emaitekotan ikus "quita meriendas" deitutako landarea (Iribarren 1952). Alor horrek monografia behar du, nahiz baden lan eginik, Irigaray-ren edo Bergarako euskarari buruzko ikerketak lekuko.

Hitz paliatibo horiek utzirik, baina zehaztasunari berme egon nahiz, beste alderdi bat aipatu nahi dut laburzki; J. L. Fossat-en ondotik (1971), "esperientzi-maila" deituko dut.

Fossat-ek (1971), haragiaren alor lexikala ikertu du bost maila desberdin agert-araziz erreferente bakar baten izendapenari buruz:

1.maila: kabalea bizirik: makiñunaren, tratulariaren maila.

2.maila: animalea hilik, dilindan: "chevillard" delakoaren maila.

3.maila: animale hautsi eta, pusketan emana: buxeraren maila.

4.maila: sukaldariaren maila.

5.maila: gainerateko maila, hala nola anatomikoa.

Erakusten du Fossat-ek, gaskoinerazko lexiak lekuko, bost adierazle diferent agert daitezkeela eta ez direla sinonimoak. Baina badio ere adierazle batek 1, 2, 3 mailari lihoakiekeela, diasistima konkretu batean, eta kontsultatzen den lekukoaren posizioaren arabera: makiñunaren eta merkatura doan eroslearen ikuspuntuak ez dira berak.

Bestalde, esperientziaren mailako desberdinketa horrek sinonimiarantz bultzatzen du, esperientzi-mailak aldatuz, nahastuz eta urtuz doazelarik, haragiaren mundua

unkitzen duten aldaketa sozio-ekonomikoak direla medio eta diglosia dela medio. Gaskoin-herrian agitu dena ez dut uste euskararen eremuan ez dela gertatu.

Fossat-ek azpimarratzen du funtzio diakritikoa betetzen dutela hitz-elkarketak eta eratorketak (atzizkiek sustut, euskaraz). Ikus nola desberdintzen diren euskal lekuko batentzat *uringei/uringatzgabe/urin* adierazleak fr. "panne", "saindoux", "graisse" adierazteko. Esperientziaren araberako mailakatze horrek badu ere bere jokoa, adibidez fr. *duodénum, colon, caecum du porc*, galdegiten dugularik eta agertzen direlarik *tripot-herse/lukhainka-herse/andoila-herse*; maila batetik bestera antizipazio bezalako zerbait badugu funtzio diakritikoa laguntzen duena eta "contenant/contenu" edo "jasailea/jasana" bikotea kontuan hartzen duena. Gizaki-bertsioan halako izendapenik ez dela agertuko erran beharrik ote da?

Zilegi bekit parentesis baten egitea antropologiaren aldetik: ikertzekoa liteke nola gaur ere gure gizarteetan urdearen organo baten izendapena lotua zaion erlijio edo sagratuari: *jaungoikoa, jaun piro, sainduak* eta erdaretan ere: fr. *sacrum, jésus*; gaskoinez *diubiban* etabar (Ikus Fossat 1971 eta kontsultzatzeke utzi dudan Vernant).

Parentesis hau zerraturik, gehitzen dut esperientziaren araberako desberdinketa gurutzatzen ahal dela hiperonimoen eraginarekin. Adibidez: *Zer duzie afaltzeko? Xingar eta arraultze!* entzutearekin, ez du emaiten deus anbiguo denik. Baina, demagun Oztibarren, delako *xingarra* jan nahi duenak jasta dezake edo *artekia* (frantsesezko galdakizunean *ventrèche*-ari doakiona) edo *sobalda* (aintzineko *besoa*, frantsesez *épaule* polisemikoa) edo *azpia* ("gibeleko besoa", "ixterra", frantsesez *jambon* deitzen dena, baina *azpia*-k "cuisse" erran nahi du ere). *Azpiaren* haragia preziatuena izanik, haren jastatzeko beste izendapen espezifikoa agertu-beharra da: *trantxa!* Iduri luke beraz *xingar* hiperonimoa gisa har daitekeela. Lekuko argiak aitortzen digu anbiguitate-arriskua badagoela, baina anbiguitatea errax altxatzen badakiela, duda mikorik ez baitu egiten komeni zaion izendapena selekzionatzeko kontestuaren arabera.

Hitz-biltzaile generalista, euskal hiztun eskalapuina, eta gastronomo traketsa naizen neurrian, ene buruari erran niro aipatu den hedadura ttipiko alor semantiko honetan dauden desberdinketa iheskorrak axolagabeko ñabardurak baizik ez direla. Alta, ez da egia. Aurkezten ahal den estakurua da atlas batek ezin duela kausitu monografia batean bilatzen den zorroztasun hura. Inkestak egiteko denbora urriak eta euskal lexikologian eredu guti izaiteak ez digu parada soberarik emaiten lege horien azal-arazteko zuzen eta zalu. Askotan, lekukoekin mintzatuz, iduritzen zait esploradore-talde gisa bagabiltza lurralde "incognita" baten gainean, baina horretaz ez naiz batere pleinitzen, paregabeko esperientzia baita. Baina inkesta-egileak bere buruari ulert-arazi behar dio bederen, atlasak halabeharrez gaingiroki tratatzen dituen alor lexikaletan barna, badaudela lege aski bihurriak, lexiaren bilketaren orduan ez-usteak eta fenomeno konpreni-gaitzak eragiten dituztenak.

Ildo beretik, aski ezagunak dira erdarazko bikoteak *beef/ox; pez/pescado; du boeuf/le boeuf*. Kasu hauetan ikusten denez, diferentzia adierazten da edo bi lexema desberdin hartuz (*beef, ox*) edo eratorri baten bitartez (*pescado*) edo era gramatikal baten bitartez (*du, le boeuf*). Gorago jadanik ikusi dugu bigarren soluzioa —eratorriarena— agertu zaigula *leixar/leixartze* bikotean. Bi lexema diferent ere agert daitezke, baina horretarako, galdakizunaren metodologiaren aldetik, munta badu galderen ordena sekuentzi logiko batean sartzeak, hitza ager dadin ahalaz bere esperientzi-inguruaren barnean. Bizirik den urdearen "colonne vertébrale" nola deitzen den galdegin eta, *bizkar-hezur* forma lortu ondoan, beste inguru batean galdegin behar da ea hausten ari den urdearen "colonne vertébrale" hura bera nola deitzen den eta

Zuberoko lekuko zenbaitek orduan *khorro* emaiten dute, erreferentea postmortem-ekoa delakotz. Ez da beti erraxa "tronc d'arbre", "billon" bikotea agertaraztea, adibidez *nadi, trunko/ billun,* bikotearen bitartez. Baina Sohütako lekukoak ez du dudatzen *matxarde* eta *urkhat* elgarretarik bereizteko. *Urkhat* darabila zuhainean oraino bizirik den bi adar lodiren junta deitzeko, (fr. "fourche d'un arbre") eta *matxarde* edo *arkhütx*, junta hura bera, orgetako zurezko pieza delarik (fr. "armon"). Aldiz, inkestatzen ari naizen lekuetan *entsalada* baizik ez dut jasotzen, dakigularik beste euskalki batzutan ongi bereizten dela, bi lexemekin, baratzean den landarea, mahainean emaiten den janaritik. Gertatzen da erdal bikote batek, hala nola "foin/herbe"; "heno/hierba", ez duela kasik kiderik, inkestatu ditudan lekuko gehienentzat.

Esperientzia-mailaz gain, inkestaegileak zehaztasuna bilatzen du erregistroaren aldetik. Dudarik gabe, pundu honetan, hiztegiak bezainbat informazio ez du emaiten atlasgintzak. Halere, bildutako dokumentuek ahozkoaren erregistroa badutela erraiten ahal bada ere, badira lekukoak bereizketak beren kabuz egiten dituztenak. Erizpideak dira, besteak beste:

– haur-hizkuntza/adinekoen hizkuntza, hala nola *txitxi/haragi; ttotto/jarri.*

– gizaki-bertsioa/ animale-bertsioa: *haurra galdu/ ilhortu; haurra ukan/ erdi; haur/ hime, ume; beitharte/ mutur* etabar. Tolerantzia-maila aldatzen da lekutik lekura. Nonbait *uzkorno* selekzionatua da animale-bertsioan (fr: "croupion"); beste nonbait, gizaki-bertsioan ere onartzen da (fr: "coccyx").

Bestalde *arima salburik eta* bezalako formula batek transgresio bat badela salatzen du eta ber denboran transgresio hori posible egiten du.

– eufemismoak: *borthako, urde*-ren ordez; *kadan, ondoko*-ren ordez; *zendu,* eta beste asko *hil*-aren ordez. *Hil* aipatzen baitut azaldu nahi dut Larzabaleko lekukoak eman didana *kalitu* hitzari buruz. Ezaguna da suge bat ez dela *hiltzen* baizik eta *kalitzen*, baina lekukoak gehitu duena ez nuen ezagutzen: norbaitek suge batez *hil* erraiten balin-badu eta ez *kalitu*, ondoko gauetan ametsgaixtoa egiten du delako suge harekin. "Tabou" kontzeptua ez da beraz urrun eta aipatzen dudan datu hau ezaguna da urruneko jendaldeetan (Frazer 1890).

Erregistro arazoan sartzen dut ere lekukoek emaiten duten bigarren forma, frantsesez "appellation plaisante" deitzen den horietako bat. Adibidez "vomir" galderari, Isturitzeko lekukoak *goitika ari* erran ondoan, hauxe gehitzen du: *Ahurtirat oihuka ari.* Baionako frantsesez entzuten dut ber zentzuan: "aller à (h)Urt". Era berean *ohe* ondoan *jokhadera* agertzen da; "syphilis" adierazteko *orhoitzapenarekin jin* perifrasia; *arrail* eta *ordi* ondoan, *pottoka etxerat ekharri* eta *ximinotu*. Horrelako izendapenak ez dira guti; ohargarri da gorputz-funtzio zenbaitek monopolizatzen dutela sorkuntza hori. XVII.mendean, "précieuses"-ek egiten zutena prozedura bera ("fauteuil/ commodités de la conversation") darabila lekukoak, baina binperrez, izendapen arruntago edo irrigarri emaiten duelakotz edo auzoko herritarren bizkar egozten duelako, halanola Santa Garaztarren bizkar. Fenomeno horri lot nezaioke J. Rey-Debove-k (1978) deitzen duen "connotation autonymique". Lekukoa lotsa bezala agertzen da daukan erantzuna eman aintzin, eta ondoko formula bezalakoak agertzen dira, abisu gisa emanik: *"barkha, bena* kaka-barbalot *erraiten dizügü"* edo *"eztuzu pollit bena* behi putatia *dizi izena"*.

2. Lexia baino gorago

Bigarren parte honetan, *EHHA*ko inkestek, lexia baino goragoko mailan, ekartzen dituzten informazioak zein diren erakusten da. Hizkuntzaren aldetik: esaerak, konpa-

rataketak, ohar metalinguistikoak; entziklopediaren aldetik, jakitate enpirikoak eta etnografikoak. Azkenean aipatu nahi ditut bildutako narrazioek eta bere aldakinek emaiten dituzten arazoak. Alta ez dut ahanztekoa atlasaren helburu nagusia: hizkuntza bat eremu geografikoan nola aldatzen den erakustea. Eta lehen partean, lexiaren beraren mailan egon naiz orobat, lexia batek har lezakeen forma zehatzenik bildu nahian; *kuku* ala *kükü* erraiten den, *aratxe* ala *xahal*, hori da jakin nahi duguna bederen. Baina darabilagun metodologiak gauza gehiago eskeintzen digu, lexiaren gainetik, fraseologiaren mailan, eta agertzen diren emaitza hauek ez tratatzea, gure uzta inpoiltatzea litzateke.

Lehenik, lekukoak lexiaren inguruan eman dezakeen esaera jasotzen dugu. "Esaera" diodanean, sailkapen zehatzagorik gabe sartzen ditut hor errefrauak, konparaketak, ditxoak etabar, esaldi batean mugatzen direnak, gehienak aski ezagunak. Adibidez:

Lipia bezain gormanta.
Phika bezain ohoina.
Fuña bezain habila.
Zartain zaharra bezain gormanta.
Oilo-haga bezain zikhina.
Oilo-haga bezain garbia (antifrase batez).
Mundu huntan apho dena bestin krepaut (sinonimoarekin jolastuz).
Urdeek e huu eiten die khantin igaitian (beste norbaiten ondotik iragaitearekin agurrik egiten ez duenari erraiten zaiona).
Barbalot ari zaik lanian? ("burutik joana haiza?").
Laratzean phikoa (Ustegabeko gertakari baten aurrean).
Kharrika egin ("huts egin" birla-jokoan edo bestela ere).
Süskera benedika, sügea lahardeka.
Txintximariak ikusi tik ("ainitz pairatu dik").
Xakhurrak eztu lukhinkekin estekatzen ("oso xuhurra edo lukurra da").
Eztiagu ehun kilo gatz elgarrekin jain ("ez gara luzaz ongi konponduko"). Azken bi etsenpluak, Bastidan bilduak, kaskoinez ere eman dizkigu lekukoak bai eta ere "escoute-pluye" esaera. Horrela deitzen omen da gaskoinez norbait, alegia deus ere, haren inguruan zer erraiten den entzutera tematzen dena, hor ikasitakoa errepikatzeko beste nonbait. Garbi uzten du lekukoak errannahi bereko hitzik ez duela ezagutzen euskaraz. (Mugerren, hitza bera ezaguna da toponimo gisa).
Lasto-meta altxatuz geroz, atsazkaria utzi behar da. ("Lastoa bilduz geroztik, ez da gehiago arratsalde-askaririk kanpoan egiterik"; urtearen egutegiari buruzko kontsinak ainitz dira).
Okilo errekara, har ezak kapitxoina kahaillan. (euria eginen duelakoan).
Belatza hor delarik, urzoak fini.

Eta azken erran bat jakitate enpiriko baten itxura hartu nahi duena!:

Ahuntza ez kabale,
Ametza ez mairan,
Emaztia ez jende.

Azken esaera honek ikerketa berezia hartze luke, bere egitura hirukoitzarekin: animaleari buruz, landaretzari buruz, "gizaki"-ari buruz. Garbi agertzen da bi zuta-

bek markatzen dutela, ezker, Natura; eta eskuin, Kultura. Ohart-arazten dut —zer nahi gerta— hiru mailegu seguruak eskuineko zutabean daudela (*caballus* it. *caballa; materiamen; gentis*).

Erran hau *maiasturu* batek (="zurgin", "charpentier") eman didala jakin-arazten dut pundu metodologiko batengatik: erran honen agertarazteko probabilitaterik haundiena *ametza* eta *mairan* lexiei zoakieen. Ametzari egozten zaion kalitate entraaleko edo tzarra ez zen agertuko ez balitz galdegin ere zerbait *haitz* eta *arra(r)i* zuhainez; *mairan*-ek duen konotazio positiboa ez zuen erakutsiko *zur/egur* bikotearen berri ez balitz fitsik galdegin. Arrazoi asko direla medio, erran hau ez zen aise agertuko *ahuntz, kabale,* are gutiago *emazte* lexiekin. Horrek erakusten du galdakizun zehatz eta berezitu baten balioa, kontzeptu abstraktoak edo kulturalak ateratzen ahal bait dira, alegia deus ere, oso konkretu eta mugaturik diren gauzetatik.

Aipatu behar da esaera ere, lexia bezala, aldakorra dela lekutik lekura. Adibidez, Santa Garazin *axeria igan* esaera erabiltzen da adierazteko luzaz lagun edo adiskide ziren bi jende samurtu edo aharratu direla. Konpara Larrañeko lekukoak dioenarekin:

> L.– Axeria igan da; bi pertsuna gazte elhaide elgarrekin, lüzaxko egonik elhaide, ezkuntzaliak, eta zerbait agitzen beita büiltaka, algartaik ophortzen beitira, ordian erraiten da *axeria igan zaie artin*.
>
> I.– Hori aizuen artean.
>
> L.– Ez, gazteen artin ordenarioski, thermañü hura. Aizuen artin, adixkidantza handi batetan bizi eta gio hosdüa: büztana i(r)o(r)i zaie, olloai buztana ioi, erranen da, thermañü hura, atx, atx atx!
>
> I.– Uste nuen lüma galdü zaio, beste...
>
> L.– Ah, ez lilia galdü, hura ba...

Beraz Santa Garazin bi jendeen arteko samurgoaz ari den esaera, Larrañen hertsiago da: bi "ezkuntzale"-ren arteko hausturaz baizik ez da erabiltzen.

Aipa ditzadan ere errannahi figuratuen edo metafora higatuen adibide zenbait, zeren eta iduritzen baitzait ez direla hauek kontuan hartzen, mintzairaren beste maila askotan deitoratzen direlarik diglosiak eragindako ondorioak.

Besteak beste, ezaguna da hizkuntza guzietan animaleen izenek bereziki sortarazten dituzten konparaketak: *apho, arranok, futre, erroi, otso, axeri, xoxo, kuku, itxain, zipa-lolo, ükhül, euli, xinhaurri, bare, arlui, kaikuburu* etabar. Interesgarri da modu horrekin lexiaren konotazioa jasotzea: edo konotazioa alda bait daiteke inkesta-puntu batetik bestera nahiz lexia bera ez den aldatzen, edo eta erdaretan ezagutzen ditugun adierazleek ez bait dukete beti konotazio hura bera.

Azken kasu hau azal dezadan; entzuten dudalarik: *gizon hori arranoa duk,* erran nahi du lekukoak: *"gizon hori dirugose duk"*, eta frantsesez ez luke kanorerik orduan erraiteak: "Cet homme est un aigle", euskarazko *arrano* eta frantsesezko "aigle" adierazleek konotazio desberdina dutelakotz. Binperrez "ce n'est pas un aigle" esaera ezin hitzez hitz itzul. (Hemen ezin aipa *arrano* "rapace", leku batzutan jaso dudan lerraketa).

Beste kasu bat: *xinhaurri*-arena. Frantsesez, "fourmi" hitzak konotazio ona badu, frantsez eskoletan ibili garenentzat, La Fontaine-ren ikasi-beharrezko alegiak ilustratu diguna. Euskaldun ainitzek konotazio bera badukete euskaraz, Goyetche eta Oxobi alegia-egileek behintzat bai. Nahiz Rousseau batek ez duen onartzen, xinaurria langile prestu eta karan agertzen da. Baina euskaldun guziek ez dute horrela

senditzen; Zuberoko lekuko batek *üñhürri-lana* erraiten duelarik, *balio gütiko lana*, erran nahi du. "Fourmilière" hitzak aktibitate handia konotatzen badu frantsesez, Larrañeko lekukoak dio: *ez mütsa egin* (*müts* = "fourmilière") norbait alferra delarik edo ez trenpuan lanean aritzeko. Konotazioa zeharo bestelakoa da.

Nahiz ezin izan hain sistimatikoa, konotazioaren bilketak argitzen ahal du kate metaforikoen mugimendua euskararen lexikoan.

Xehetasunetan ezin sartuz, aipatzekoa dut lexia bat balia dezakeela lekuko batek esaera batean, lokuzio batean eta ez bere "lehen" adieran. *Txintximariak ikusi ditu* lokuzioa darabilaten lekuko gehienek *txintximaria* "sangsue" daitekeela ez dakite.

Lipia bezain gormanta dio Sohütako lekukoak, *lipia* zer den jakin gabe. Euskaraz ere fosilizazioa edo eiharketa gertatu da fraseologian.

Fenomeno horri lotzen diot lexia baten erabilera mugaturik egoitea errannahi "figuratu" batean. Zuberoko herri frangotan "veine/nerf" adierazteko *zain* edo *zañ* lortu ondoan gertatu zait *sirats* proposatzea. Lekuko ainitzek diote beste zerbait erran nahi duela: frantsesez "sort, heur, chance, (bonne ou mauvaise)". Makiñunek abereei min emaiteko omen duten begigaiztoa aipatzen da. Baina odola iragan-arazten duen "veine" hura ez dit nehork *sirats* deitu; beraz adiera konkretua galdua da. Funtsean frantsesez eta espainieraz gertatu den lerraketa bera gertatzen da. "Il n'a pas de veine" erraiten da eta "veine" hori markatua da konotazio positibo batez, frantsesez. Eta hain zuzen, Zuberoko lekukoek dudak azaltzen dizkidate *sirats* hitza ez ote den polarizatuz joaiten, erran nahi baita, *sirats* hitzak adierazten duela gero ta gehiago "malheur" ala "bonheur": bietarik bat, eta ez "heur" neutroa: ikus kasu bera fr. *succès* hitzarekin.

Beste adibide bat lehen adiera eta errannahi figuratuaren arteko harremanaz. Dendari edo jostunen lana aipatzearekin, "ourler" adierazteko *aspildu* bezalako forma agertzen da. Baina laborari zenbaitek esplikatu didate hitz bera baliatzen dutela hauxe ulert-arazteko: landako bazterretako gari edo belar-sail bat moztea dailuz, mekanika sar-arazi aintzin. Makinismoa jin gabe, lan molde hori ez zatekeen, ez eta ere orduan *aspildu* hitzaren adiera hori. (Ikus kasu huni paraleloa den *orillar* in Iribarren 1984, Moliner-ek ez dakarrena).

Modu bertsuan *bastan ezarri* lokuzioak, teknikoki "faufiler" erran nahi du baina esaera ere bada, konotazio ezezkorra duena: *lana bastan utzi*, erran nahi baita, "*lana hasi eta hartan utzi*", edo azkeneraino egin gabe, ez untsa egin:

> hesolak ezarri tik bai, eztik bastatu bezik, kabalak berriz pasatuko zazkok.

Etimologia herrikoiaren alorra ez dut luzaz aipatuko. Apuntatzen dut lekukoak dioena, zeinnahi izan dadin ene ikusmoldea berak emaiten didan lexia baten motibazioari buzuz. *Zothaleguna* (latinak esplikatzen duena) askok esplikatzen didate *zothal* hitzarekin. Jutsikoak hala dio:

> Nik eztut sinisten bena, zothala da belharra erroaekilan. Iduri luke belharrain erroak tienez gioz, urthiain erroak thien, amabi egun hartan.

Esplikazio etnografikoak hemen ere erraxten du adierazlearen aldaketa, paronimia dela medio. "Grain de beauté" adierazteko, *sort-señale* eta *sos-señale* konkurrentzian daude. Batak dio "sortzetikakoa" dela eta ilargiaren mugimenduaren araberakoa dela (ikus *lunar* eta iritzi bera ematen dutela Bluteau-k eta Covarrubias-ek apud Corominas); besteak marka on dela, aberats izaiteko eta "sos" ukaiteko (Azkuek dakarren sinestea da).

Ezaguna da ere *sagarroi* ("hérisson") hitzaren kasua: lekukoek ez diote ahaidetasunik ikusten, *sagu, sator, saturdin* formekin baizik eta *sagar*-rarekin. Askok diote sagarroiak sagarrak eramaiten dituela bere bizkarreko elorrietan. Haiduru nago ikusteko gauza bera alegatuko duten *sagarroi* ordez, *triku* edo *kirikiño* erraiten dutenek.

Azkuek aipatzen baitu badela sineste bat zeinen arabera ile edo bilo bat iturrira joanik suge bilakatzen omen baita, sineste hori ez dut nihon jaso. Jutsiko lekukoak zerbait entzun du, eta delako biloa erroekilakoa izan behar zela gehitzen du. Baina *suge-bilo* lexia jaso dut; hain zuzen honela deitzen du lekuko batek ur geldian dagoen hari mehe itxurako animaltxoa.

Adibide hauek konfirmatzen dute lege ezaguna: lekuko eta hiztun gehienen nahikundea dela zubitik edo uretik motibazio emaitea adierazleari: (ikus Szemerényi 1962 apud Baldinger 1984: 10) eta *osa mayor, grande ourse*-aren etimologiaren gorabeherak.

Gertatzen da ere lekukoak gogoan duen lexia baten motibazioak bere eragina ukaitea lexiaren errealizazioan, ainitzetan nahikunde didaktikaren ondorioz: *ermuga* ordez *erdimuga* dio; *supazter* ordez, *subazter*, etabar. Halere denek bereizten dute *artzain* eta *ardizain*. Forma bikuna agertzen da usu, lekukoa ohartzen delarik naizen inkesta-egileak ez duela ongi konprenitu forma laburtua: errepikatzen du beraz, baina hitz-elkartuen arauak bazter utzirik.

Hemendik aintzina lexiatik beretik gehiago urruntzen da garatu nahi dudan gaia, baina atlasgintzaren alderdi ezinbaztertuzkoa unkituz. *Palabras y textos* dio formula kausitu batean Mitxelenaren lan zenbait biltzen duen liburu aberatsak. Hitzak eta testuak. Hitzez jadanik zerbait erran dudalarik aurreko lerroetan, ordu da ez nadila ixilik egon atlasgintzan bildutako testuen aurrean.

Lekuko frangori gustatzen zaie guk atera-arazitako lexiaren inguruan diskurtso baten borobiltzea, ahozko testu baten emaitea, luze ala labur. Askotan, jakitate bat, istorio bat, sineste bat, mito bat kondatzen dute lexia bat oinarritzat edo abiapuntutzat harturik, edo lexiak eraginik. Inkestagintzak erakusten du leku batetik bestera aldakiak agertzen direla, eta ez soilik hizkuntzaren aldetik baizik eta edukinaren aldetik ere. Bestela erranez, aldakortasunak ez du bakarrik maila linguistikoa unkitzen, izan dadin fonetika-fonologia, morfosintaxia edo lexikoaren aldetik. Maila horrez gain, diskurtsoaren mamia, errannahia bera, aldakorra da neurri handi batez. Erran gabe doa aldakortasun-mota honek ekartzen dituen fenomenoak oso interesgarriak direla antropologiaren aldetik. Orain arte egindako atlas linguistiko gehienek tituloan "etnografiko" dakarte eta ez ustegabetarik. Nahita-ez, datu etnografikoak atxikiak bait dira datu linguistikoei, jakina den bezala. (Boas, Whorf, Sapir, Haudricourt, etabar).

Inkestagintzan, eta lexia bat dela medio, agertarazten diren ahozko testuak itxura desberdinetakoak dira. Frantses dialektologo ainitzen eskola segituz, erran nezake testu hauek guziak "etnotestuak" direla, Bouvier eta Ravier-ek zabaldutako hitza errepikatuz. Etnotestuaren lemapean sartzen dena oso zabala da, zabalegia. Alabaina, etnotestuak dira ahozko produkzio guziak (idatzizko zenbait ere), hala nola kantuak, atsohitzak, errefrauak, errezetak, kantu-kahierrak, bertso-paperak, kontu-liburuak, ipuinak, etabar. Ikusten denez, mugagaitzeko eremua.

Nahiz, mementoko, definizio hau, besterik ezean onartzen dudan, bi atal nagusi emaitea proposatzen dut, atlasgintzan bildutako ahozko produzioak *ad hoc* egindako aurre-sailkapen batean banatzeko.

Aipa ditzadan lehenik nahas-mahas biltzen diren testu-mota zenbait:

1.– Azalpen teknologikoak: hala nola orga-errota nola egiten zen, antzarrak nola galkatzen diren, etabar luze bat.

2.– Pratika sozialak: ezteiak nola iragaiten diren, tzintzarrotsak, meza-denboran jaten zen ogia eskaintzeko auzoen arteko antolamendua...

3.– Narrazio pertsonalak, historiari buruz edo politikari buruz: 36.ko, 39-45.ko, Algeriako gerla, Beilh kontsularen epopeia, bizitza-kontaketak: kontrabanda-istorio, etabat.

4.– Sineste bat aipatzen duten testuak, bereziki etorkizunaren igertzeari buruzkoak, eguraldiari eta uztari buruzkoak, Zotalegunak, Karta-denborak, Erramu-igandeko ebanjelio denborako haizea, etabar.

Ondoko hau aipatuko dut, igertze-jakitatean sartzen dena eta jaso gabea. Ba dago landare bat, *errebelhar, suge belhar, xinhaurrosto* deitzen dena ("arun maculatum" fr. "gouet, pied de veau"). Jin-berrian, baratzetako *kala* edo *arum*-arekin antza du. Realia ikus daiteke in Tomanova 1981, 293. Lekukoek kontatzen dute haren ale bat idekitzen dutela primaderan; landarearen barnekaldeak erakusten ditu lau parte, bakoitzak antza duelarik gari, belar, mahats eta artoarekin. Parte bakoitza nolakoa den, jori ala argal, eta doakion uzta halakoa izanen da. Beraz analogiaren printzipioari bermatuz hartarik ezagutzen du laborariak nolako emaitzak ukanen dituen ondoko hilabeteetan.

Beste bi adibideren bitartez, erakutsi nahi dut ez dela beti errax testu baten informazioa sinestearen zaku ilunean ezartzea ala jakitate enpiriko eta zientifikoaren balda ordenatuetan.

Bururat jiten zait alta Foucault-ek (1972: 141) XVII. mendeko zientziaz eta historioaz dioena:

> Le partage, pour nous évident, entre ce que nous voyons, ce que les autres ont observé et transmis, ce que d'autres enfin imaginent ou croient naïvement, la grande tripartition, si simple en apparence, et tellement inmédiate, de l'Observation, du Document et de la Fable, n'existait pas.

Egia erraiteko, lotsa haundiz aitortu behar dut atlasgintzan biltzen ditudan testuen arteko "partage" hura ez zaidala gaur ere beti "évident" agertzen.

Bat: Etnografoak badaki nola lekuko ainitzek aipatzen duten ba omen direla sugeak behiak batzen dituztenak, nola behiak ez omen duen esnerik eman nahi nausiarentzat, etabar. Biltzen dut Orozkon, Isturitzen, nonnahi. Lekuko batek dio lehengo jendeari entzun diola; beste lekuko batek berak ikusi duela; beste batek sugea berak kalitu duela, eta delako behia pikolako igorri duela dion lekukorik atzemaiten da. Beraz, testigantza guzien konkordantzia ez da eskasa. Baina datu enpirikoa dela apuntatu behar duta? J. M. Satrustegi eta J. San Martin-ekin horretaz ari ginelarik, azkenak aipatu zigun J. M. Barandiaran-ek, duela aspaldi, kontsultak egin zituela (ahantzi dut norengana) eta atera zen diagnostikoa izan zela testigantza hauek aipatzen dutena fisiologikoki ezinezkoa dela: suge batek ezin omen du esnerik hurrupatu behiaren errapetik. Non sar orduan testu horiek? Mitoen munduan, egiaren kolorea badutelarik?

Bi: lekuko zenbaitek diote ez zaiela gustatzen behi bat erditzea bizkiekin, bi xahalak sexu berekoak ez direlarik. Urrixa dena, antzu, dehota, mando, umerik ezin ekarriz geldituko omen da. Horra Altzaiko lekukoaren hitzak:

> Gio erraiten düte: biak ürrüxak badira, biak hun direla; bata oots eta bestia ürrüxa balinbada, eztiela balio begiratzia, biak khotxoak direla. Leheneko erran xaharra da.

Delako "erranxahar" hau non ezar? sineste, sineskeria, sinesketa, superstizioekin, ala obserbazio enpirikoetan? Kasu honetan behintzat badakigu lekukoek aipatzen duten fenomenoa errepertoriatua dela abelkuntzan eta genetikoan; frantsesezko *Larousse Agricole*-k sarrera berezi bat eskaintzen dio "free martin" titulupean (dirudienez frantses adierazlerik ez izanik, ingelesetik hartua dute). Beraz, bigarren adibide hau, jakitate enziklopediko baten adar batean sar nezake.

Hobe duke orduan inkesta-egileak (eta nihaurk lehenik) ez gehiegi kezkatzea apuntatzen dituen testuak "egiazkoak" ala "faltsuak" diren baieztatzeaz. Frantsesez deitzen duten "une réponse de Normand" delakoan arras sartu gabe, aski genuke erraitea biltzen ditugun testuek kultura baten elementuak osatzen dutela. Bi abantail lituzke zuhurtzat daukadan urrats horrek: alde batetik, egia/ez egia, zientifiko/ez zientifiko bikotearen gainetik egoitea, eta bestaldetik, euskal lexikografian oso inportanta litekeen "kultur-hiztegi lokalizatu" bati kontribuzioak ekartzea. Eta ez dut uste XVIII. mendeko Enziklopedisten lana gaizkiago eta berantegi errepikatzeko arrisku haundirik baden.

5.– Hizkuntzari buruzko burutapenak, kontzientzia linguistikoari buruz, etabar.

6.– Testu "etno-zedarritzaileak" deitzen direnak, hitz-joko baten bitartez edo quidproquo baten inguruan eraikiak. Adibidez Santa-Garaztar batek bere etxen lo egin beharra den gomitatuari galdegiten dio *beharrondoko* bat ego biga nahi duenetz. (*Beharrondoko*, "gifle" da Zuberotar gehienentzat, baina "oreiller" erran nahi omen du Santa Garazin). Holakoak ihaurri bil daitezke Santa Garazin ez ezik. Eta etnografian ezaguna da nola komunitate batek kristalizatzen ahal dituen auzokoen burlak eta trufak (Adibidez, Elorriok edo Mallabiak, entzun dudanez, eta beste ainitzek).

Oraixtian aipatzen bait nuen hitz-elkarketak eta eratorketak funtzio bereizlea bete zezaketeela, hiztunek badakite aski dela katearen elementu bat bera kentzea edo lekuz aldatzea elgar-ulerketa trabatzeko. Adibidez, horra Isturitzen alor semantiko hertsi batean bizirik den serie bat:

galtza(k): "pantalons"

galtxon: "jambière", "chaussette épaisse recouvrant les pantalons".

galtzerdi: "chaussette" edo "bas".

galtzerdi-motx: "chaussette à mi-mollet".

galtxuna: "caleçon", "culotte", "slip".

Lekuko gehienek, guk fitsik galdegin gabe, aipatzen dute beste nonbait ez dela ber sistima baliatzen. Eta kasik beti aipatzen dute istorio bat bi sistimen arteko diferentzia ezagutzen ez duen protagonista ridikulizatzen duena.

Beraz, zeinnahi hiztunek ukan behar lukeen gutieneko konpetentzia linguistikoa ez menperatzeak ekartzen dituen ezbeharrak kondatzen dituzten testuak dira, ber denboran testu etnozedarritzaileak izanik ere.

7.– Kantuak, gutitan baizik jasotzen ez ditudanak. Ez ahantz gainera kantu ainitz ez datozela beti zuzen "tradiziotik". Barkoxeko lekukoak eman dizkit Etxahunen kantu zenbait, aitortuz Larrasquet edo Haritschelhar-en liburuetarik ikasi zituela buruz, erakutsiz ikertzailearen lana izan dela galdurik zegoen tradizioa arra-txertatzea. Agitu da ere lekuko frango ez direla aise kantuz ari.

8.– Atsotitzak, esaerak, Zuberoan "errefrau" edo eta "erran" deitzen direnak. Hauen mota bereziak litezke Zuberoko "epistolak", frantsesez "blason" deitzen direnak. Produkzio-tipo hauen bertako taxinomia herrikoia jasotzeko dago.

9.– Jokoetako formulak, asmaketak. Gutitan baizik ez ditut bildu. Harritzen nau zein guti dakiten euskaraz BN, L, Z-ko lekukoek haurzaroko jolasez ("osselets, saute-mouton, fronde", etabat). Eskolarengatik?. Aldiz *urdainka, urdaoka* deitu jokoaz dato frango emaiten dute.

10.– Hizkuntzari buruzko jokoak eta istorio irrigarriak. Adibidez hona *eskalapuin* pare bat egin nahi duen laborari urgulutsu baten balentria kondatzen duen historiaren erorketa: laborari horri lagun batek maliziaz dioelarik: *To! baño iten balinbauk, paria izain ziizte!* (*Eskalapuin*=gizon trukesa, malestruka).

11.– Egia enpirikoa ilustratu nahi duen anekdota bat.

12.– Ipuiak, mitoak zeinen pertsonaiak landareak edo animaleak izaiten baitira.

13.– Ipui zenbait, mundu mitiko baten oihartzuna edo arana entzun-arazten dutenak: Uztarbeko llaminaren istorioa, Ibarlako laminaziloarena, makur-osinarena, Urdiñarbeko Estañtzekoarena, eihera-kokotsaren segretua debruari ebatsia; heietarik zenbait badira, jaso gabe direnak. Lege ezagun bat jarraituz, (ikus Ravier 1986) ipui hauek kokatuak dira eta aktualizatuak lekukoaren inguru hurbilean, bertako mikrotoponimoetan, batzutan bertako jendeez.

Indibiduaren beraren bizitzaren gora beherak emaiten dituzten narrazioak aparte utzirik, hala nola gerlako oroitzapenak, bi atal nagusitan sartzen ditut aurreko testu guziak, kontsideratzen dudalarik gizarte baten funts kolektiboaren miraila direla.

Lehen atala osatzen dutenak "ahozko testu didaktikoak" deit nitzakeen produzioak dira. Horrekin erran nahi dut testu hauek badutela oroz gainetik eta lehen graduan asmo didaktiko bat. Dokumentarioak dira, zerbait erakutsi nahi dute, ikasgai-elementu bat daramate; mota honetakoak dira adibidez:

– Teknologiari buruzkoak: orga-errota, ikatza, odolkia, lur-iraultzea, nola egin behar diren kondatzen duten testuak.

– Bizimoduari buruzkoak: herri-medikuntza, haur-jokoak, "rites de passage" delakoak etabar.

– Jakitate enpirikoak, hala nola ohar meteorologikoak, iduriz obserbazio enpirikoaren fruituak direnak.

Testu hauetan emaiten den informazioa, berez interesgarria da eta begien bistakoa, gardena, lehen gradukoa; lekukoak modu zuzen batez zerbait erakutsi nahi digula erran dugu.

Eta biltzen ditugun mota honetako testuek berek ere aldakortasuna eskaintzen dute; ondorioak baditu honek maila linguistikoan, *uztarria*-ren adibide arruntak erakusten duen bezala. *EHHA*-ko galdera bat bada "anneau du joug, aro del yugo" deitzen dena. Delako pieza burdinezkoa delarik, Zuberoan eta Benaparroan bereziki, *hudigo, hodi* bezalako forma biltzen da: *hede* ez da agertzen. Aldiz pieza hura larruzkoa delarik, hala nola Lapurdin (edo Bizkaian) *hede, urtede* agertzen da. Tresnaren ekaiak izendapena eragiten du, frangotan lekukoek goraipatzen dutelarik berek darabilaten teknologiaren abantaila. Lapurdin *kaskoin-uztarria* deitzen dute burdinezko uzteia duen uztarria; Zuberotar ainitzek diote burdinezko piezak ez liroela karga atxik larruzkoa baledi. Beraz *hede* eta *hodia* ren artean aldaketa linguistikoa balinbada, Atlasak agert-araziko du, baina aurretik aldaketa teknologikoa badagoela aipatzea ezinbestekoa izanen zaio.

Gehiago dena, aldaketa teknologikorik ez delarik ere, aipatu beharko da, maparen irakurleak jakin dezan aldaketa linguistikoa eragin duen faktorea ez dela izan teknologiarena. Hauetaz guziez badago lan frango eginik etnolinguistika orokorrean.

Testu didaktiko hauek ez ditut beti hitzez hitz transkribatzen. Emaiten duten informazioa laburbiltzen dut, eta kasuan kasu, interesgarri zaizkidan hitz edo egitura zenbait baizik ez dut apuntatzen, ene iduriko, testu hoien egitura bera ez baita hain interesgarria, ez bait dute jarraikitzen neholako narraziogintzako legerik. Ohizko sailkapen zaharra arra-hartuz, mamia da interesatzen zaidana, eta ez forma edo azala.

Bigarren atalean sartzen ditut, zuzenki edo nagusiki didaktikoak izaitea bilatzen ez duten ahozko produkzioak, "narrazioak" deituko ditudanak. Hauetan sartzen ditut mitoak, ipuiak, istorioak, kantu-mota zenbait etabar. Oro har, narrazioek, norberaren eta gizartearen irudimenaren berri emaiten digute eta narraziogintza-lege zenbait jarraikitzen dute, nolaz ez.

Kontuz: nahiz narrazioak testu didaktikoetan ez ditudan sartzen, ez dut erran nahi interes dokumentariorik ez dutenik, urrunik ere. Badakigu gizarte bati buruz mito batek dioena ez dela testu didaktikoak dioena baino pobreagoa. Baina informazio dokumentarioa era mugatu eta garden batez emaitea ez du helburu deklaratua delako narrazioak.

Gehitu behar dut narrazio hauetan ez dudala nihaurk arrangura estetikazalerik eta ez dudala halakorik bilatzen ere lekukoaren baitan.

Gainera, ahozkotasunak produzio bati emaiten dizkion ezaugarri guziak ez ditut baztertzen, erran nahi baita entzundako testua ez dudala orraztatzen "euskara eder" batean emanez. Horretaz, zorrotzki eta gogor mintzo dira Claire-Benveniste & Jeanjean (1987).

Aldiz apuntatzen dut zer sineste-maila agert-arazi nahi duen lekukoak bere kontaketari buruz. Gertatzen da lekukoa bera trufatzen dela erran duen testua zerratzen duelarik holako formula batez: "etxi zutik egoiten"; "c'est comique, ça". Aburu ezezkor horiek ez diote baliorik kentzen testuari berari.

"Narrazio" deitzen ditudan testuen definiziotzat proposatzen dut Houis-ek (1971 apud 1978) eman duena "texte de style oral" lemapean.

> ... texte qui est fixé par une trame en tant que structure mnémotechnique et soutien pour l'attention, qui de plus actualise et valorise le consensus manifesté par autrui (en vue) d'accueillir et de conserver un certain contenu sémantique conforme à une tradition partagée et acceptée.

Derives-ekin batean, (1980) susmoa badut zerbait erraten digutela testu hauek gure gizarteaz.

> (Le texte) au-dessus du contenu narratif intelligible, constitue une forme de langage distinct, servant un discours sur les rapports pas toujours conscients des membres de la société avec leur propre système de valeurs: justification, idéalisation, rejet cathartique, souvent sans intérêt documentaire.

Bildu ditudan narrazio batzu aipatuko ditut narrazio diren neurrian eta aldakortasuna erakusten duten neurrian.

Aparte uzten ditut jadanik aipatutako kantuak, testu hiperkodifikatuak baitira, nahiz aldakin zenbait badaukaten ere. Aparte ere formula labur batzu hala nola *andere kottagorria*-rena. Lekuko gehienek diote euria ala eguzkia markatzen duela

andere kottagorriak. Formularen egitura aldagaitz dela dirudi. Dauden aldakinak lexikalak dira soilki. Batek *ebi* dio, besteak *euri*; batek *ekhi*, besteak *eguzki*, baina formularen mugimendua eta errannahia ez dira aldatzen.

Besterik da ipuin eta mito zenbaiten arazoa. Ondoko lerroetan aipatuko ditut okiloaren, melduaren, hustu belarraren eta maikolaren kasuak. (Datuak behin behinekoak dira).

Hona lehenik Azkainen bildutako ipuin baten laburpena ene hitzetan emana (hango transkribapena ez baitut eginik).

> Behin, hiltzera zihoan eri handi baten ikustera joan-beharra izaki herriko erretora, ostia sakratuarekin abiatu zen eriaren etxerako bidean. Bidea istiltsua baitzen, apezak galdegin zion laborari bati bere artolandatik igaiten ahal zenetz. Arto landaren nausiak ezetz zion erran. Orduan aphezak erran zion egitate horren marka egonen zela nolazpait laborariaren funtsetan. Eta orduan arto-zangoetan goiti hazten baitzen ilarra, edo Azkainen erraiten den bezala, ma(r)ikola, geroztik ohartu ziren jendeak etxalde horren maikola-bihi guziek ba zutela markaturik bihotz sagratuaren itxura ("pio sakratua" dio lekukoak).

Beraz, ipuin honetan, bihotz sakratuaren irudia ez da sari bat, baizik eta gaztigu bat, estigmata bat, soraiotasun eta gaixtotasunaren ordaina.

Orain arte ez dut bildu ipuin honen beste bertsiorik. Baina horra Sébillot folkloristak bildu ipuia Bretañan:

> Un recteur de l'Ille-et-Vilaine qui portait le viatique, ayant voulu passer par un champ ensemencé, parce que la route était mauvaise, celui à qui il appartenait lui défendit de fouler sa récolte; mais un autre laboureur l'invita à traverser son champ où il avait semé des haricots; ceux qui, à maturité, furent cueillis à l'endroit où avait passé le Saint-Sacrement, avaient tous l'image d'une hostie.

Ikusten denez, eite haundia badute bi narrazioek baina interpretazioa desberdina da. Bretañako narrazioaren interpretazioan, irudi sakratua sari bat da, Azkaingo narrazioarenean, infamia-marka.

Hori gertatzen da geografikoki elgarretarik urrun diren bi narraziotan. Ongi ulertu balin badut, Dumézil-ek (1987: 134) kasu bertsua kondatzen du bi aingeruri buruz, mitologia batean lorian bait daude eta bestean lohian eroriak.

Beraz narrazioaren elementu baten errannahia uzkail daiteke, azkenean lexia zenbaiti gertatzen zaion bezala, bat batean kontzeptu bat adierazten duelarik, eta kontzeptu horren beraren kontrariokoa (adibidez, "aiher").

Bigarren adibidea da hustebelarraren kasua. Aldakiak ere eskaintzen dituzte ondoko lau bertsioek, ene ustez orain arte jasogabe zirenak. Lehen pista eman zidan Jutsiko lekuko zoragarriak, *EHHA*-tik aparte egindako lan batean, *khardoa* aipatu zidalarik ondoko narrazioan.

> Ephailiak ene gainetik igaiten ahal tuk; khardoak erraiten zien hustu-belharrari, khardoak erran zien hustu-belharrari eta "a, ephailiak igan zaizkuk", khardoa aiseta beitzen mozteko dailluz eta aldiz hustu-belharra, hura pleatuta egoiten zen, hura nekhe beitzen eta hak erran zakola: "ene gainian igan ahalko tuk!", bana hura etzen moztia ono. Hustu-belharra, la fétuque. Nekhia beita pikhatzeko. Hau aldiz, gaizoa, berehala, luze beita.

Geroztik beste bertsio bat bildu nuen Altzain. Honetan ere hustu-belarra da dailuaz trufatzen dena motz-aiseta ez delakotz. Baina ez dakigu zuzen nori mintzatzen zaion eta narrazioa ez da oso garbia.

Hüstü-belharra bada. Hartaik egiten da sahua. Gaixto da pikhatzen.
Baziren belhar süerte bat oai marddoak
"Heben aide dük" hüstü belharrai erraiten, phorogatzen gitie.
"Bo, apresibitü tiat, ba, igan diela, "hüstü-belharrak", apresebitü tiat, ba, asmatü tiat ba igan diela".
Hak büria aphaltü zien.
I.– Nori erraiten?
L.– Beste belhar gizen bati. Hura büria aphal eta, aintzina jun zen.
I.– Zer du izena eskuaraz?
L.– Eztakit, basa daktila?
I.– La fétuque?
L.– Bena, "la fétuque sauvage", solamente basa düzü.

Beste bertsio bat Urdiñarben bildu nuen. Antza handia du egituraren aldetik aurreko biekin eta bereziki Jutsikoarekin baina hemen hustu-belharraren laguna edo partida ez da kardoa baizik eta *ardimihia*:

Ardimihia izigarri aisa da muzteko eta belhar huna arresen, eta ardimihik erran zoon hüstü-belharrai: "egün ephailiak izan zizkük". Eta bestiak erran zoon: "Bai ameka onetan boogatü diat ba zerbait gañetik igaiten ja". Hura gaixtua da süstüt idorraekin.

Azkenean, laugarren bertsioa Isturitzekoa da. Hauxe da aldakin handiena ekartzen duena, hustu-belharra ez baita aldi honetan dailuaz trufa daitekeena baizik eta dailuak aiseago moztua dena *mando-bilho* deitu belarraren aldean. Mando-biloa da beraz nagusi, eta hustu-belarra galtzaile:

Hustu-belharra lekhu mehetan eta mando-bilhoa pentzetan, beste belhar tzar bat. Gio elgarri erraten zuten: "izan zaukuk phentzian belhar-pikhatzailia". "Ba, ikhusi diat pasatzen". Mando bilhoa laburro bitzen eta hura ezpitzi(r)oten phika. "Ikhusi diat pasatzen". Hustu-belharra beti luxeño zen, mando-bilhoa laburra.

Ez da leku aproposa hustu-belarraren narrazioaren morfologia zehazki ikertzeko, Propp edo Lévi-Strauss-en ildotik. Halere lau bertsioek erakusten dizkigute aldaezinak diren elementuak eta aldakorrak direnak.

Aldaezinak dira ondoko elementuak:

1.– Dailuaren eta belar-epailearen lana.
2.– Bi belar mota.
3.– Belarren arteko elgarrizketa.
4.– Belar bataren hiltzea eta bestearen iraupena.
(5.– Komentario bat belarren motzgarritasunaz.)

Aldiz, protagonistak edo pertsonaiak aldatzen dira. Aise mozten den belarra, Jutsin *khardoa* da; Urdiñarben *ardi-mihia*; Altzain, ez dakigu zuzen zein den; Isturitzen *hustu-belharra*. Bizirik irauten duena hustu-belarra da hiru bertsiotan, eta mando-biloa Isturitzen. Ikusten denez, azken aldaketa hau inportantagoa da aurrekoak baino. Bestela erranez, kardoa ala ardimihia izanik moztua den belarra, in-

portantzia gutiagoko aldaketa da, bizirik irauten duen belarraren funzioaren protagonistaren aldaketaren aldean. Batean bizirik dirau hustu-belarrak, bestean hiltzen da.

Ondorioz, eta diskurtsoaren aldetik, Isturitzeko bertsioa da gehienik apartatzen dena besteetatik. Baina, eta hori azpimarratu nahi dudan gauza da, diskurtsoaren aldetik den diferentzia edo distantzia, independientea da narrazio hauetako hizkuntza mailako ezaugarriek erakusten duten distantzia linguistikotik.

Dudarik gabe, fonetikatik hasi eta morfosintaxiraino, elkarri hurbilagoak dira Isturitzeko eta Jutsiko narrazioek baliatzen dituzten mintzairak, euskalkiak, ezen eta ez Jutsiko eta Urdiñarbekoenak. Alta, diskurtsoaren aldetik eite gehiago daukate elkarren artean Jutsiko eta Urdiñarbeko narrazioek ezen eta ez Jutsiko eta Isturitzeko narrazioek.

Sintomatikoa da *hustu-belharra* izaitea Jutsiko eta Isturitzeko forma lexikala eta *hüstü-belharra* aldiz Altzaikoa eta Urdiñarbekoa. Fonetikaren aldetik, bi formen arteko arroila garbi ikusten da. Baina diskurtsoaren aldetik, narrazioen arteko desberdintasun haundiena dakarren elementuak ez du muga hori jarraikitzen.

Maila horretako aldakortasuna atlasak nola trata lezakeen, ez da errax zehaztea. Baina narrazio-mailan marrazkitzen diren eremuak ez gindiro nihondik ere gutiets.

Hirugarren adibidean, *meldu*-aren edo *pheldo*-aren kasua aipatzen dut (frantsesez "menthe"). Narrazio hau ere ez da jasoa izan, nik uste. Lehen aldiz horrela entzün nuen Altzain.

> Etxe batetaat ezkuntü geia zen neskatila bat, eta aita ütsia zen, eta lekhü gizenetan die melduak, ezta gio harri hartaik melduik sortzen eh! eta ordian ütsia joan zen, jun behar zien etxe hartaat eta bisitaen egitea, eta sohun erraiten doo erran den beau-perageiaekin beitzen. "Ze meldu ürrin huna" ütsiak. – "Ah, heben eztizügü melduik". – "Ah ordian ene alhaba eztüzü hunako". Historio hala da; ütsik espres erran zoon "ze meldu ürrin huna", düdagabe ezbeitzien senditzen. "Heben eztizügü melduik". "Ah ordian eztüzü ene alhaba hunako".
>
> I.– Ez zelakotz lur ona...
>
> L.– Ah, hori zien erran nahi.

Pagolako bertsioa aski nahasia da. Lekukoaren dudamudak interesgarriak dira, azaltzen bait dute lekukoaren segurtasun-eza, berak ez bait daki zein den lur gizena seinalatzen duen landarea. Azkenik, hautatzekotan, uste du axuna dela lur jorietan jiten eta meldua lur mehetan. Beraz aurreko hustu-belarrarekilako narrazio-motan bezala, protagonistaren funtzioa uzkailtzen da. Melduak Altzain lur ona seinalatzen du, eta Pagolan lur tzarra. Bestalde, Pagolako narrazioak aipatzen duen pertsonaia alarguntsa itsua da, jakin nahi du axunarik badagoen bere alaba "bakhotxa" (=bakarra) ezkondu-beharra den etxaldean.

Axuna eta hustu-belarraren arteko uzkailtze hori ulertzen da Isturizeko lekukoak dioena entzuten delarik, bi landareek ber funtzioa betetzen baitute bertsio honetan.

> Pheldo ta axuna, lur gizena den lekhian. Norbeit esposatzen bazen, emaztegea ta gizongea, han ikhusten bazuten funtsetan pheldoa eta axuna, "hori etxe gizena, uzten ahal diuk gustian gure semia edo alhaba".
>
> I.– Ez bazen?
>
> L.– Joan nahi bazen? Amodiotik khonda.

Irakurleak ikusi duen bezala, Isturitzen ez da egiazko narraziorik. Kondatua dena ez da egiazko istorioa, nahiz estilo zuzeneko esaldi bakar bat baduen. Iduri luke

beraz pedologiari buruzko jakitate bat daramala testu honek, funts bateko lurra emankorra den ala ez jakiteko erizpide bat eskainiz. Peldoa ez da seinale bakarra, axuna ere maila berean agertzen baita, Altzain ez bezala.

Analisis finago bat beharko da egin bi maila bereizteko narrazioan: funtzioen maila eta protagonisten maila. Propp, Brémond, Larivaille arra-bisitatu behar lirateke horretako. Protagonistak, funtzio bat betetzen dituzten pertsonaiak, funtzioak baino aisago aldatzen dira.

Melduaren narrazioetan agertzen dira ondoko elementuak:

- Ezkontza baten mentura.
- (Itsu den) buraso baten bisita.
- Galdera-tranpa bat landare baten presentziari buruz.
- Ezkongeien zortea erabaki-arazten duen erantzun "inoxenta".

Ikertzekoa litzateke zergatik dagoen itsuaren pertsonaia, beraz, bistarik gabe, ontasun baten balioa estimatzen dakiena, eta ber denboran, iduriz edo itxuraz on ez den landare baten alderdi ona (axuna eta peldoa Isturitzen, axuna Pagolan, meldua Altzain) ala txarra (meldua Pagolan), baita ere iduriz edo itxuraz inportantziarik gabeko galderari emandako erantzunaren pisua. Iduri luke "itxura/egiazko izakera" bezalako bikotea dela jokoan narrazio honetan.

Itsuari dagokionez hain zuzen, Foucault-ek (1972: 145) azpimarratzen du naturzientziaren historian, partikularzki botanikaren historian, ikusmena izan dela luzaz erizpide kasik esklusiboa taxonomia baten antolatzeko orduan, Linné, Tournefort, Adanson-ekin. "L'histoire naturelle, ce n'est rien d'autre que la nomination du *visible* (nik azpimarratua), dio Foucault-ek XVIII. mendeko botanikari buruz. Urrunago gehitzen du: "L'aveugle du XVIII^me^ siècle peut bien être géomètre, il ne sera pas naturaliste". Ezintasun hori gainditzea da bildu dugun narrazio herrikoiaren itsuak erakusten diguna. Eta irabazle ateratzen den transgresio honen errannahi kukutua ez dut oraindik zehatz ikusten, ez bait dut uste mugatzen eta kokatzen dela jakintsuen taxonomiaren eta herri-taxonomiaren arteko konfliktu hipotetiko batean.

Baina halere azpian badago elementu bat meldoaren narrazioaren irakurketa berezi baten egitera gomitatzen gaituena. Bertsio guzietan ezkontza da aipu, izan dadin "emaztegea" eta "gizongea" (Isturitzeko diptongoaren tratamendua interesgarri delarik, bestalde, fonetikaren aldetik) edo alaba bakotxaren ama "alarguntsa" Pagolan, edo delako "beauperageia" Altzain.

Ikusten da ezkontza sartzen dela funts onetaz jabetzeko estrategia kalkulatu batean. Isturitzekoak zorrozki markatzen du estrategia horren aplikatzea eta "amodiotik khonda" ezkontzea bi gauza direla. Beraz, narrazio eta testu hauen irakurketa historikoa eta soziologikoa egin daiteke, zerbait erraiten digutelakoan gizartearen antolamenduan eta ontasunen jabegoan hain inportante den ezkontzaz. Ikus Leroy-Ladurie (1980: 161) eta areago Bourdieu (1972), apud Leroy-Ladurie (1980), preseski Biarnoko ezkontza-estrategia ikertu duena.

Gehiago dena, narrazio honen arrastoa atzemaiten dut Iribarren-en obran, Nafarroan eta Araban gaztelaniaz jaso dituen esaeretan. Lehenak lurraren kalitatea aipatu bide du.

1.– Campo que tiene ebrus y mendas no lo vendas (Otsagabikoa)

2.– Bigarrenak itsu baten abilezia aipatzen du.

Un ciego fue a ver un campo. Iba con su burro y su lazarillo. Le dijo a éste. Ata el burro a un jebo. – No hay jebo. – No me interesa el campo.

3.– La tierra que cria jebos
no se la des a tu *yerno*;
y dale la del halecho
que no será de provecho. (Arabakoa)

Arabako bertsoak, ezkontzaren itzala erakusten du *yerno* hitzarengatik, Altzaiko *beau-pera geia* berehala gogaraziz. Eta lehenik ezkontzaren estrategiaz erran dudana zabalduz, erran nezake narrazio-tipo honetan jabegoa dela oinarrizko elementua, ezkontza delarik ontasun gehiagoz jabetzeko medioetarik bat.

Azken adibidea eman nahi dut okiloari buruzko narrazio eta testuekin, honen inguruan bildu informazioek aldaketa-mota hainitz erakusten dutelakotz eta aurreko hiru narrazioak baino askoz konplikatuagoak direlakotz.

Okiloaz (fr. "pivert"), ezagutzen nuen Azkuek (1959: I, 112) dakarrena Gipuzkoako narrazio batean. Ez nintzen ohartu bertsio bertsua bazekarrela (I: 101-102) baina belea hartuz protagonista gisa. Nik, lehenik Jutsin, eta *EHHA*-tik kanpo, ondoko narrazioa bildu nuen.

Erten da: "to, okiloa ai duk arbolari kokha, okhiloa egarri, euri inen dik". Okhiloak etziela nahi putziain xahatzen ari eta gio okhiloa egarri zela eta edaten zien bakharrik gisala ostoetarik erori ura, euria ari zelaik bakharrik eta koskaka ari delaik arbolari: to egarri uk, euri nahi fite" – Okhiloak zangoak biziki garbi ditu; etzielakotz nahi putzuain xahatzen ari. Eta gio, ahatik, egarri ederrik pasatzen. Erten, erten. "Eztuk nahi zikhindu, egarriaekilan egoin hiz". (Jutsi).

Beraz mito bat gisa aurkezten da testu hau eta lotura bat egiten da okilo eta euriaren artean.

EHHA-ko inkestetan hastearekin, ohartu nintzen bi xori-mota desberdintzen dituztela lekuko zenbaitek, Larrañekoak adibidez *ükhülberde*, eta *ükhülbeltz* eta Baigorrikoak *okhiloa* eta *koskotari*. Taxonomia-arazoa zen, lexiaren mailan egoiten zena.

Baina lexiatik gora, Zuberoan ohartu nintzen *ükhül* lexiaren konotazioa markatua dela, metafora gisa baliatzen baita. Ez da konplimendua *ükhül* erraitea gizaki batez. Hona zer dion Sohütakoak:

Fundantzia txipiko norbeit, hanitx balio extiena.

Edo Larrañekoak:

Bo, hüntza bezala, da, ber zentzüsia, eztela ardit batere, espiritüz mantsoxka edo.

Eskiülakoak:

Gizun hil bat, ükhül bat, büru txipi bat.

Altzaikoak:

1.– Axtoxka denai, ükhül, edo ixilik aise egoiten eztenai.

Zuberoan beraz, aski hedatua da konotazio hau; justifika lezakeen arrazoia lehenik Santa Garazin entzun nuen, hango lekukoak erran zidalarik *ükhül*-ak usai berezia

baduela. Zilatzen ari den zuhainean bizpahiru moko-ukaldi eman bezain laster, eta lodia izanik ere delako trunkoa, *ükhül*-a badoa adarraren bestalderat zura zilatu duenetz ikustera. Informazio hau obserbazio enpiriko gisa zetorren eta Larzabalen ere gauza bertsua entzun nuen.

> Khur, khur, khur, khur, moskoarekin eta bestalderdirat joan zilhatia denetz arrunt.

Larrañen ere bai:

> Bi kusk emaiten dü eta bestaldirat dua zalhe deus e higitzen den.

Gero ohartu nintzen fenomeno hau aski ezaguna dela etnografian Euskal Herritik kanpo, Roland-ek (1877) faunari buruz bildutako testuetan gauza bera aipatzen baitu:

> 1.– "Le pic vert donne un coup de bec dans l'arbre et passe de l'autre côté voir s'il est traversé". Finistère, Souvestre.
>
> "A chaque coup de bec, les pics vont voir derrière s'ils n'ont pas traversé l'arbre" Saintonge Jonain.

Balzac-ek ere, irakurri-berri dudan *Les Paysans* nobelan aipatzen du. Okiloari prestatzen zaion egitate honetatik atera zitekeen metaforaren konotazio hitsa: ukul izaitea da auher izaitea, hartze gutiko izaitea.

Baina Sohütako lekukoak kontrako interpretazioa eman zidan, okiloaren mugimendu horri buruz zioelarik, okiloaren defentsan:

> "Baduzü ikhustera üñhürri denetz, hartakotz baduzü ez eta jakiteko xilho denetz ez. Ez tüzü esprabi kholte baten jotia? üñhürri behala elkhiko düzü barneti. Hartakotz. Eztüzü sobera ukhül ez.

Lekuko honek dio, hitz-joko batez, *ükhüla* ez dela batere *ükhül*. Beraz, egiazkotzat hartzen den ber egintza, bi modutan interpretatzen dute lekukoek. Batzuentzat, adarraren bestalderat berehala joaitea *ükhülkeria* lizate, besteentzat abilezia handia. Horra hor beste aldakortasun-mota bat.

Azpimarratzekoa dena da, azken interpretazioa ez didala eman ornitologo batek baizik eta besteak bezalako lekuko batek. Azpimarratzekoa diot, zeren eta hain zuzen Rolandek interpretazio hau bera emaiten baitu nota batean baina bere baitarik ateraia, erran nahi baligu bezala: "ni, jakintsu naizen Roland jaun honek, ohart-arazten diot irakurleari zein den okiloaren mugimenduaren egiazko arrazoina".

> "Le pic, en réalité, va voir si le bruit de ses coups de bec n'a pas fait sortir de l'autre côté quelque insecte".

Aldiz, gure kasuan, interpretazio hau ez da lekukoen "gainetik" norbaitek emanik, baizik eta lekuko batek; ez baita gauza bera.

Ez zen horretan bukatzen okiloarena leku ainitzetan okiloak zerbait ikustekorik bazuela euriarekin ohartu bait nintzen. Euria diot baina euri-eza edo idortea ere izan daiteke.

Hona Larrañekoak zioena:

> – ükhül berdiak markhatzen dik ebia, nabetan sartzen dük ebia ari denian.

Edo Sohütakoak:

– Erraiten dizie ba ai delaik kaxkan, euria izanen dela.

Aldiz Azkainen, kontrakoa bildu nuen:

– Erraiten dute, kantari delarik, idortea.

Beraz euri ala idorte. Melduarekin gertatu dena errepikatzen da, eta ikusten da ahaidetasun-mota berezi bat baizik, edo hurbiltasun-mota berezi bat baizik ez dela honelako antonimia. Bai ala ez, baina beti euriari.

Azken hiru testuek obserbazio meteorologikoen itxura badute. Forma kodifikatu batean ez dira emanak. Aldiz Urrüstoiko lekukoak informazio bereko testua emaiten du forma kodifikatua duen atsotitzaren bitartez:

– ükhüla errekan, harrezak kapitxüna kaallan"; ükhüla errekan, marka ebia dela. (Kaalla=orman den ziria).

Baigorriko lekukoak onomatopeia aipatzen du:

Okiloak ez du mihia ateratzen egarri delarik kanporat. Füi, füi, füi, hola kurritzen da biziki seko delarik. Idorte handi delarik, mihi holako luze bat du, eta ihitzarekin edo airean bildu nahi dik humiitatia.

I.– Punitia baliz bezala?

L.– Punitia ez. Idortea du señalatzen. Lehengo xaharrer hola aditu deet..

Ohartuko da irakurlea lekukoa zirikatu dudala ea mito edo ipuirik ezagutzen duen. Debaldetan, lekuko honen jakitatea ez baita hedatzen mitoaren mugetan gaindi.

Kurioski, entzuten nuen ere bazegoela okiloaz bestalde beste hegazti-motarik euri gaztiga liroenik eta gehienetan hegazti hau harrapakari-motakoa zela, hala nola Isturitzen, *belatxa* aipatzen baita:

Belatxa ari bada itxasorat giilka, euria jinen; lekhiain geinian artzen beita: itxasorat giilaz, ordian denbora gaixtoa heldu. Leheneko xaharrek meteoa kabaletaik zuten. Barrukian behiak inharrosten badira, denbora txarra heldu.

rrelako itzulpenak, musika berberarekin kantatzeko moduan egin ere; pieza estimagarriak mami zitzakeela, eta, behar bada, nahiko erraz ere irteten zitzaizkiola horrelako itzulpenak eta abar. Hitz batean, prestakuntza bat bazuen Orixek aspaldikoa, neurtitzon itzulpena hasi zuenerako, zernola jokatu behar zuen erakusten ziona.

Neurtitzon aurkezpen soila egin dezagun: *Sacris solemniis,* 2 (1917), 54-55. or. Itzulpen honi nahikoa eusten zaio misaleko aldaeran. Hala ere, aldaketa aipagarriak datoz bigarren honetan, batez ere hiru estrofa poliki aldatzen dituelako eta lexiko alderdia ere ukitzen duelako.

Te Joseph celebrent, 2 (1917), 88-89. or. Lehenengotik bigarren aldaerara edukinean badator gauza berririk, argitasunaren eta sendotasunaren amorez, noski. Landuagoa du eliz lexikoa, eta beteagoa ere bai bigarrenak.

Jesu dulcis memoria, 2 (1917), 108. or. Oso laburra, bi lehenengo estrofak besterik ez datoz. Aurrenekoa berdintsua dugu hemen eta misalean, nahiz eta perpaus adbertsatiboa modu desberdinean ematen den. Eta zeharo aldatzen da bigarren estrofa lehenengotik bigarrenera, eraikuntzaz eta hiperbatonaz.

Memorare, 2 (1917), 137. or. Otoitz hau *Oleki guziak* alean dator, baina ez da sartzen gure itzulpen poetikoaren arloan[5].

Te dicimus praeconiis, 2 (1917), 154. or. Sorta hau Leon XIII.arena da, baina ez da misalean sartzen.

Cor arca, 2 (1917), 185. or. Gorespenetako gorazarrea denez, ez da misalean sartzen, baina bai *Liber usualis* gregoriar kantu-bilduman.

Adoro Te devote, 2 (1917), 280-281. or. Aldaketa arretagarriak hemengotik geroko aldaerara, batez ere puntu aberatsagoak, tinkotasun beteagoa, esaldi argiagoa ekarriz.

Verbum supernum, 2 (1917) 311-312. or. Hari beretik bi bertsioak, baina konkrezioa bilatuz, eta esaldiak argituz bigarrengoan.

Ubi charitas, 3 (1919) 113-115. or. Aldizkarian datorren aldaki hau, gero aldatuxe dator misalean, Ostegun Santuko eliz kantuan.

Hitz bitan, Orixeren ingurugiroa, gorazarre, sekuentzia eta eliz-kantuak egiten hasi zenekoa, gauza jakina zela esan daiteke. Eliztarren misala tokian tokiko hizkuntzan eman beharra zegoen. Eta gorazarre, sekuentzia eta eliz-kantuok hitz lauz itzul zitezkeen, eta hala egiten ziren gainera, eskuarki behintzat.

Bestela gertatu zen, ordea, Orixeren kasuan. Olerki testuok neurkeran jatorrizko gregoriar melodian kantatzeko moduan itzuli zituen, silabetan, etenalditan eta puntutan latinak zeraman musika beraz abesteko eran. Benetan estimagarria zen euskal poeta honen saiakera.

Letraren aldetik lortu zuen eliz testuen mamia zuzenean kantatzea; eta musikaren aldetik lortu zuen, baita ere, gregoriar musika, Pio X.ak gomendatzen zuen musika, "santu, eder, eta unibertsal" hura[6], eliz kantutegi herrikoian erabiltzea. Eta arrakasta-

(5) N. Ormaetxea, "Orixe", *Euskaldunak eta olerki guziak,* Editorial Auñamendi, Donostia, 1972, 653. or. Erabiliko dugun laburdura: *OG.*

(6) Pius X, *Tra le sollecitudini,* (Motu proprio de musica sacra, 22 nov. 1903), in A. Bugnini, *Documenta pontificia ad instaurationem liturgicam spectantia, (1903-1953),* Edizioni Liturgiche, Roma, 1953: "La musica sacra deve per consequenza possedere nel grado migliore le qualità che sono proprie della liturgia, e precisamente la *santità* e la *bontà delle forme*, onde sorge spontaneo l'altro suo charattere, che è l'universalità" (14. or.). "In particolare si procuri restituire il canto gregoriano nell'uso del popolo, affinché i fedeli prendano di nouvo parte più attiva all'officiatura ecclesiastica, come anticamente solevasi" (16. or.).

ren aldetik lortu zuen, azkenik, bere ekarria ontzat emana izan zedin bere garaikoen artean. Horregatik, *Jesusen Biotzaren Deia*-ko bizikizunek eraman zuten misalean ere saiakera beronen bideari eustera.

II. Dagokigun neurtitz saila

Eliz liburuei bagagozkie, *Liber usualis* oinarri hartzen dugularik, hiru sailetakoak lirateke eliz olerki kantagarri hauek: 1. gorazarreak, 2. sekuentziak eta 3. eliz-kantuak.

1. *Gorazarreak*

Misalekoak 40 ditu Orixek, eta beste 2 *Jesusen Biotzaren Deia*-n datozenak, hala nola *Cor arca legem continens,* gorazarretakoa, eta *Te dicimus praeconiis,* berau *Hymni instaurandi* bilduman datorrena, Vaticano II.aren eraldaketekin, baina ez misalean[7].

Bestalde, 4 gorazarre dira bai misalean eta bai *Jesusen Biotzaren Deia*-n agertzen direnak: *Jesu dulcis memoria,* baina biotan ere oso estrofa gutxi datozkigu: 5 misalean eta bi aldizkarikoan, nahiz eta gero, A. Mokoroak eskatuta, gorazarre hau osorik edo ondu zuen, *Olerki guztiak* bilduman eskaintzen zaigunez[8]; gero *Sacris solemniis* legoke; hirugarren *Te Joseph celebrent;* eta laugarren *Verbum supernum.* Baina azkeneko hiruroi buruz ez dugu oharrik egin beharrik.

2. *Sekuentziak*

Zenbait festaburutako neurtitzok, eliz egutegiaren arabera emanik, hauek ditugu: *Stabat Mater,* Ama Doloretakoarena, 20 estrofa: *Victimae Paschali,* Bazko egunekoa, 8 txatal dituena; *Veni Sancte Spiritus,* Bazkoa Maiatzekoa, 10 estrofa dituena; *Lauda Sion,* Jesusen Gorputz-odol Santuen egunekoa, 24 estrofakoa, eta azkenik, *Dies irae,* hildakoen mezetakoa, 19 estrofak osatua.

3. *Eliz-kantuak*

Liturgiako denboraldi eta debozio jakinei loturiko kantuak ditugu. Eta ohizko sailkapenean emanik, huetxek genituzke:

Adoro Te devote, Sakramentu Txit Santuari, *Jesusen Biotzaren Deia,* supra.

Aroetako abesti bereziak: *Adeste fideles,* eguberritakoa; *Attende Domine,* garizuman; *O filii et filiae* bazko garaikoa; *Rorate,* abenduan kantatzen dena.

Jesusen Bihotzari, itzuli gabea.

Andre Mariari birleloak: *Ave Regina coelorum, Inviolata,* eta *Salve Mater misericordiae.*

Ubi charitas et amor, bi aldaeratan du Orixek emana: misalean bat, eta *Jesusen Biotzaren Deia*-n bestea[9].

Gure lanerako aukera bat egitarakoan, eta olerkigintzari begiratuta, bi multzo nagusi hartuko ditugu gogoan: gorazarreak eta sekuentziak. Bi hauek arakatuz gero,

(7) *Himni Instaurandi Breviari Romani,* Libreria Editrice Vaticana, Città del Vaticano, 1958, 199. or.

(8) N. Ormaetxea, "Orixe", *Euskaldunak poema eta olerki guziak,* 623. or.: *"Meza-bezperak* eliz-liburuan datorren kantuzko otoitz au, Aita J. M. Mokoroak eskatuta osatu zuen "Orixe"k. Alare, laugarren kopla Aita Mokoroa berarena da" (oharrean).

(9) "Liber Usualis Missae et Officii pro dominicis et festis I. vel II. classis, cum cantu Gregoriano, ex editione Vaticana adamussim excerpto et rhythmicis signis in subsidium cantorum a Solesmensibus Monachis diligenter ornato".

uste dugu gainerako eliz-kantuei buruz ere esanik legokeela, mezurik eta ezaugarririk aipagarriena. Izan ere, berauetan nabari da batikbat Orixeren gaitasuna eta maisutasuna hitz neurtuzko itzulpen lanetan.

III. Liturgiako metrikaz

Liturgi poesian, esku-liburu zaharretan ikus daitekeenez, bi eratako bertso-lerroak daude: batzuk, kantitate silabikoaren, eta arsis-tesis erritmoaren oinarritan eraikitakoak; eta beste batzuk, nahiz eta latinezko ahotsez konposatuak izan, ez dira silaben kantitatez arautzen, silaben kopuruz eta errimaren azentuz baizik.

Gorazarrerik zaharrenak kuantitatiboak dira *(metricus hymnus),* eta berriagokoak, berriz, silabikoak *(rhythmicus hymnus).* Eta poesiaren eraldaketa hau ez zen bapatean egin, ezarian baizik, latinaren barruan egosten ari ziren lege fonetikoen ondorio gertatuak, latina oraindik hizkuntza bizia zen garaietan.

Latinaren azentuak kuantitatea ahazteko joera zeraman, eta herriaren ahotan galdu ere egin zen gerora. Hala ere, bizirik iraun zuen oraindik ikaskuntzak egiten zituzten ikasien artean; baina azkenean, usarioa atera zen garaile, eta ez ikasien joera.

Hain zuzen ere, krisialdi luze honetakoak ditugu gorazarreak. Berauek kuantitatiboak diren aldetik, krisialdian hutsegiteak ager ditzakete. Izan ere, mintzaeratik kuantitateak bereiztea galdu zenetik, ez da harritzeko zenbait gorazarreri kuantitate mailako hutsak isurtzea, oharkaitzak zirenez bai gorazarregilearentzat, bai herriarentzat.

Silaba luze eta laburren bereizkuntza ezabatu eta galdu zenetik, honela laburbildu daiteke bertso-lerroen neurkera:

1. Bertso-lerroaren neurria silaben kopuruari egokitu zitzaion ezinbestean.
2. Silaba azentudunei luzeen balioa eman zitzaien erritmoaren efekturako.
3. Elisioak kenduz eta asonantzia sartuz, bertso-lerro kuantitatiboak erabat silabiko bihurtu ziren.
4. Azkenik, asonantzia bera errima izatera iritsi zen XI. mendearen erdi inguruan, eta honenbestez, metrika kuantitatiboa erabat metrika silabiko gertatzen da[10].

Gure helburua, beraz, hau baizik ez da: Orixek euskaratu duen gorazarre sail jakinean zein neurkera eta erritmo eredu sartzen diren ikustea; gero, eredu bakoitza *himnus metricus* edota *rythmicus* denean, Orixek zer tratamentu ematen dien bereiztea; eta azkenik, Orixek, euskararen amorez, sartzen dituen bereizkuntzak adieraztea.

Horrela argi daiteke Orixeren metrika liturgi olerkietan.

IV. Azterketak

1. Dimetro ianbikoak

1.1. *Metricus hymnus*

Lucis Creator optime,	Argiaren Egille on,
Lucem dierum proferens,	eguna pizten duzuna,
Primordiis lucis novae	munduan sortuz, argia
Mundi parans originem.	egin zenu(e)n lênik, Jauna (*OG*, 615. or.)

(10) M. Ayala López, *Gramática latina,* Rafael Y. de Aldecoa, Burgos, 1923: "Métrica litúrgica", 305 et ss.

Eskema metrikoak:
8-, 8-, 8-, 8- (L).
8-, 8A, 8-, 8A (E).

1.2. *Rhythmicus himnus*

Te lucis ante terminum,	Otoi, guzien Egille,
Rerum Creator, poscimus,	Argiak aldegin baitu,
Ut pro tua clementia	oben illunetik, Jauna,
Sis praesul et custodia.	zaindu ta gorde gaitzazu (*OG*, 614. or.)

Eskema metrikoak:
8-, 8-, 8-, 8- (L).
8-, 8A, 8-, 8A (E).

Verbum supernum prodiens,	Aitagandik irten gabe
Nec Patris linquens dexteram,	ba dator bere lanera
Ad opus suum exigens,	Itza. Jainkoaren Seme,
Venit ad vitae vesperam.	biziaren atsaldera (*OG*, 637. or.).

Eskema metrikoak:
8A, 8B, 8A, 8B (L).
8A, 8B, 8A, 8B (E).

Hau lehenengo estrofan. Hurrengoetan 8-, 8A, 8-, 8A egiten du (E).

Iesu dulcis memoria,	Jesus, poz oroigarria,
dans vera cordis gaudia,	biotzen asegarria:
sed super mel et omnia	ezti ta beste gaiñekoz
eius dulcis praesentia.	Zure aurpegia bai poz! (*OG*, 618. or.).

Eskema metrikoak:
8A, 8A, 8A, 8A (L).
8A, 8A, 8B, 8B (E).

Hau lehenengo estrofan. Hurrengoetan 8-, 8A, 8-, 8A egiten du (E).

1.3. *Oharkizunak*

a. Silabak zehazki neurtzen ditu: zortzi latinezkoan, eta zortzi euskarazkoan. Silabaren bat gehiago balego, ahoskeraren kontrazioz esplika daiteke, edota neumaren eraginez.

b. Puntuak: latinak errima eraman edo ez eraman, Orixek beti puntua jartzen du bertso-lerro inpareetan. Eta latinak *Rhythmicus hymnus* deiturikoetan errima aberatsagoak erabiliko baditu, hala hola, 8A, 8B, 8A, 8B edota 8A, 8A 8A, 8A, estrofaren eraikuntzan berdin egin zezakeen Orixek, baina beti 8-, 8A, 8-, 8A eskemara jotzen du, lauko zortzi-silabadunak egitera.

c. Etenaldi markaturik ez du gordetzen Orixek, eta iktusetan nahikoa du euskarak berea duen malgutasuna, latinaren erritmo musikalari euskal testua egokitzeko.

d. 31 gorazarre dira dimetro ianbikoak, luzaz ugariena den eredua, latinezko himnodian gertatzen denez.

2. Safiko eta adonikoak

2.1. *Metricus hymnus*

Iste Confessor Domini, colentes
Quem pie laudant populi per orbem,
Hac die laetus meruit beatas
Scandere sodes.

Eliz osoak egun aipatzen dun
Jainko Jaunaren siñes-aitorlea,
gaurko egunez igo zan zerura.
Zer zoriona! (*OG*, 660. or.).

Eskema metrikoak:
(5/6)-, (5/6)-, (5/6)-, 5- (L).
(5/6)-, (5/6)-, (5/6)-, 5- (E).

2.2. *Oharkizunak*

a. Silabak zehazki neurtzen dira, hamaikana silaba safiko estrofikoak eta bost adonikoak.

b. Punturik gabe.

c. Etenaldi markatuak, (5/6) multzoak bertso-lerro safikoetan eginez. Adonikoak (3/2) erritmoa markatzen du, latinezko oinei atxekia.

d. Bi gorazarre ditu neurri honetakoak, eta biek *metricus hymnus.*

3. Asklepiadeo eta glikonioak

3.1. *Metricus hymnus*

Te, Joseph celebrent
agmina caelitum.
Te cuncti resonent
christiadum chori,
Qui clarus meritis,
junctus es inclytae
Casto foedere Virgini.

Jose, aingeruek
ospatu zaitzate,
zerutarrek oro
poz-oiu begite,
elkartasun garbiz
elkartu baitzera
Birjiñaz bat egitera (*OG*, 655. or.).

Eskema metrikoak:
(6/6)-, (6/6)-, (6/6)-, 8- (L).
(6/6)A, (6/6)A, (6/6)B, 8B (E).

3.2. *Oharkizunak*

a. Silabak berdinak eta zehazki emanak, asklepiadeo txikiak (6/6), eta glikonioak zortzi.

b. Puntuak, berriz, hasierakoan bi sartzen ditu lehenengo estrofan, baina gerora ez.

c. Etenaldi markatuak, latinak bezala.

d. Bi gorazarre edo dira horrelakoak.

4. Tetrametro trokaikoa

4.1. *Metricus hymnus*

Pange, lingua, gloriosi
Lauream certaminis.

Kanta dezagun Jesus'en
jatorki garaitzea.

Et super Crucis trophaeo
Dic triumphum nobilem:
Qualiter Redemptor orbis
Inmolatus vicerit.

Bera illik, gu pizteko
jasan zun Gurutzea;
etsaiari kendu zion
galdu gaixo-taldea (*OG*, 628. or.).

Eskema metrikoak:
8-, 7-, 8-, 7-, 8-, 7- (L).
8-, 7A, 8-, 7A, 8-, 7A (E).

4.2. *Rhythmicus hymnus*

Pange lingua gloriosi
Corporis mysterium,
Sanguinisque pretiosi,
Quem in mundi pretium
Fructus ventris generosi
Rex effudit gentium.

Gertaera arrigarri bat
ospatzen dugu egun,
Jainkoak sabel garbian
aragi artu baitzun;
ogi-ardo, gorputz-odol
gugatik egin zitun (*OG*, 637. or.).

Eskema metrikoak:
8A, 7B, 8A, 7B, 8A, 7B (L).
8-, 7A, 8-, 7A, 8-, 7A (E).

4.3. *Oharkizunak*

a. Silaben zenbakia gordetzen da zehazki.

b. Puntuetan, ordea, aldea dago: latinezkoan 1, 3, 5. ek hoskidetza gordetzen dute, eta 2, 4, 6.k beste hoskidetza bat, oso aberats gertatzen dela, inpareak inpareekin eta pareak pareekin hoskidetuz. Euskarazkoan, berriz, inpareen hoskidetza galdu egiten da.

c. Erritmoaren alorrean, bai konpasaren denborak markatzeko, bai erritmo libreko iktusak markatzeko, euskararen malgutasunak emango dio Orixeri, zailtasunak kenduz testua erritmo desberdinetara egokitzeko aukera.

5. Tripodio trokaikoa

5.1. *Rhythmicus hymnus*

Ave, maris stella,
Dei Mater alma,
Atque semper Virgo,
Felix coeli porta.

Agur, itsas-izar,
Jainkoaren Ama,
beti gazte garbi,
zeruko sarrera (*OG*, 650. or.).

Eskema metrikoak:
6-, 6-, 6-, 6- (L).
6-, 6A, 6-, 6A (E).

5.2. *Oharkizunak*

a. Silabak zehazki neurtzen dira ohi denez.

b. Puntuak pareetan jartzen ditu eskuarki, oso zehatz ez dabilen arren hoskidetza hauetan: *Ama/sarrera, duzu/biurtuz* eta *garbiz/garbi* egiten duenean.

c. Eredu bakarra dugu horrelakoa.

6. Strophae sequentiarum

6.1. *Rhythmicus hymnus*

Veni, Sancte Spiritus,
Et emitte coelitus
Lucis tuae radium.

Veni, pater pauperum,
Veni, dator munerum,
Veni, lumen cordium.

Zatoz, bai, Gogo Guren
eta bial zerutik
Zure argi izpia.

Zatoz, gaixoen aita,
zatoz, biotzen argi,
zatoz, doai emaile (*OG*, 635. or.).

Eskema metrikoak:
7A, 7A, 7B; 7C, 7C, 7B (L).
7-, 7-, 7-; 7-, 7-, 7- (E).

Oharkizunak

a. Silabak zehaztasunez jasoak daude, latinaren arabera.

b. Puntuak, eman ditugun estrofetan, ezabaturik daude euskarazkoan, nahiz eta gerora, eta zehaztasunik gabe, punturen bat edo beste jartzen digun autoreak itzulpen testuan; baina oso gutxitan Orixeren jarrera orokorrari begiratuta.

c. Eredu bakarra, noski.

6.2. *Rhythmicus hymnus*

Lauda, Sion, Salvatorem,
Lauda ducem et pastorem,
In hymnis et canticis.
Quantum potes, tantum aude:
Quia maior omni laude,
Nec laudare sufficis.

Sion, goretsazu Jauna,
Salbatzaille ta artzaia,
eresi ta lelotan.
Al aiña gora ezazu
motx geldituko baitzera
Aren gorespenetan (*OG*, 638. or.).

Eskema metrikoak:
8A, 8A, 7B; 8C, 8C, 7B (L).
8-, 8-, 7A; 8-, 8-, 7A (E).

Fracto demum Sacramento,
Ne vacilles, sed memento
Tantum esse sub fragmento
Quantum toto tegitur.

Otâmena puskatzean
osoan aiña zatian
dagola siñetsazu
..... (*OG*, 640. or)

Eskema metrikoak:
8A, 8A, 8A, 7B (L).
8a, 8a, 7B (sic) (E).

Bone Pastor, panis vere,
Jesu, nostri miserere.
Tu nos pasce, nos tuere,
Tu nos bona fac videre
In terra viventium.

Artzai on, egizko ogi,
Jesus, erruki zakigu,
jan ontaz bizkor gaitzasu
ta betiko atsedena
zeruan emaiguzu (*OG*, 640. or.).

Eskema metrikoak:
8A, 8A, 8A, 8A, 7B (L).
8-, 8A, 8A, 8-, 7B (E).

Oharkizunak

a. Silabatan zehazki landua, beti bezala.

b. Puntuen erabilkera nahikoa aldatzen du Orixek jatorrizko testutik. Ikusi dugu latinak sekuentzia honetan hiru estrofa mota sartzen dituela, eta Orixek ere molde bakoitzari bere egokiera ematen diola euskal itzulpenean.

b1. Lehenengo moldea:
Latinezko puntuak: AAB; CCB.
Euskarazkoak: —A; —A.
b2. Bigarren moldea:
Latinezko puntuak: AAAB.
Euskarazkoak: aaB (sic)
b3. Hirugarren moldea:
Latinezko puntuak: AAAAB.
Euskarazkoak: —AA—B.
Puntuetan ezabatzeko joera garbia nabari da.

c. Bistan da latinezkoak etenaldiak zehatz egiten dituela zortzi silabetako estikoetan, (4/4) garbi markatuz. Ez hala beti Orixek, berriro ere euskararen malgutasuna ongi egokitzen zaion musikaren erritmoari, inolako beharkuntzarik gabe.

6.3. *Rhythmicus hymnus*

Stabat Mater dolorosa
Juxta crucem lacrimosa,
Dum pendebat Filius.

Cujus animam gementem,
Contristatam et dolentem,
Pertransivit gladius.

Zutik Gurutze ondoan
Ama samiña zegoan,
ta Semea zintzilik.

Aren anima ituna
ezpatak urratu zuna,
an zegoen larririk (*OG*, 648-49. or.).

Oharkizunak

a. Silabak beti zehazki emanak.

b. Puntuetan latinezkoaren eredu berbera jarraitzen du, inolako alderik gabe, hiru puntu erabiliz.

c. Etenaldiak zehazki latinak 8 silabetako estikoetan (4/4); ez hala beti Orixek. Euskararen malgutasunak erraz hartzen du musika gregorianoaren erritmoa.

6.4. *Rhythmicus hymnus*

Dies irae dies illa,
Solvet saeclum in favilla:
teste David cum Sibylla.

Egun gorri egun ura,
Jainkoaren aserreak
auts biurtuko du lurra (*OG*, 664. or.).

Eskema metrikoak:
8A, 8A, 8A (L).
8A, 8—, 8A (E).

a. Silabak zehatz, latinaren arabera.

b. Puntu bat gutxiago sartzen du Orixek latinak baino, bigarren bertso-lerroa puntu gabe utziz.

c. Etenak zehatzago latinezkoan, iktusak euskarak erraz salbatzen dituelarik.

7. Zenbait ondorio

Gorazarreen latinezko eta euskarazko estrofen eskema metrikoak erkatu ondoren, ondorio hauetara iritsi garela esan dezakegu:

7.1. Orixeren asmo nagusia da, gorazarreok musika gregorianoaz baliaturik kantatzea.

7.2. Honek, egokitze lana eskatzen du: euskal testua latinezkoari atxeki; baina, aldi berean, estrofagintza euskal izaerari ere egokitu, euskal kantutegiaren legeak errespetatuz.

7.3. Bertso-lerroen silaba kopuruak zehatz-mehatz errespetatzen dira, batez ere musika silabikoa denean. Salbuespenen bat egon daiteke, gregorianoan neumaren bat aurkitzen denean.

7.4. Puntuei buruz, berriz, jokabide desberdinak aukeratzen ditu, estrofa mota desberdinen arabera.

a. Laukoak direnean, silabez berdinak eta errimarik gabeak, orduan bertso-lerro inpareek, 1 eta 3, ez dute punturik eramaten, baina pareek puntua daramate, euskal kantutegian egin ohi denez. Latinak ez du punturik, euskarak bai.

b. Laukoak ez direnean, edota ez behintzat berdinak silabez, eta errimarik gabeak direnean, baina erritmo oso markatua dutenean (safiko eta adonikoak, asklepiadeo eta glikonioak), orduan Orixek ere ez die estrofei punturik jartzen.

c. Latinak errima daramanean, zehazki ez ditu jarraitzen Orixek latinaren ereduak, puntuak ezabatzeko joera duelarik.

Pange lingua gloriosi corporis: Latinak pareetan errima bat du, eta inpareetan bestea; Orixek inpareetakoa ezabatu egiten du, eta puntu bakarra darabil, pareetakoa.

Veni Sancte Spiritus: Latinak hiru errima ditu, AAB, CCB konbinaketa eginez. Orixek puntu denak ezabatzen ditu eskuarki.

Lauda Sion Salvatorem: Latinak hiru errima ditu, AAB, CCB konbinaketan, eta euskarak errima bakarra, AA eginez; edota AAAAB konbinaketa —AA—B bihurtzen du, latinaren zama arinduz.

Stabat mater: Latinaren errimak erabat betetzen ditu.

Dies irae: Latinaren hiru errimak bira jaisten ditu Orixek.

7.5. Etenaldiei buruz esan dezakegu, hemistikioak zaintzeaz gainera, etenaldiak ere zaintzen direla baina ez, behar bada, latinaren zehaztasunarekin beti.

7.6. Erritmoaren tinkapenek ez dirudi Orixeri egokitze-lan berezia eskatzen diotenik, iktus horiek hitzaren edozein silabatan jartzeko adinbat malgutasun euskarak berez baduenez, inolako zailtasunik gabe.

7.7 Ohartarazi nahi genuke, baita ere, nolako zailtasunak dituen latinezko poema bat, beronen silaba-kopuruak puntuak eta estrofa egitura errespetatuz euskarara itzultzeak.

Gauza jakina da, testu itzuliak, eskuarki, jatorrizkoak baino silaba gehiago behar izaten dituela. Baina hemen silaba kopuru berdinez, mamiz ere gauza berdina eskaini nahi izan da. Eta lortu ere lortu du Orixek itzulpen oso bikaina mamitzea. Benetako lan harrigarria.

V. Itzulpen lanaz

Ez da gure asmoa Orixek latinezko gorazarreak itzultzeko erabiltzen duen sistemaz aritzea. Metodologia egoki batek azterketa luzeak eskatuko lituzke, eta zehaztapen arretatsua ere bai ondorioak finkatzerakoan. Baina ez da hau gure egitekoa, baizik eta, Orixeren gorazarre itzulpena aipatzen dugunez, langintza honen alderdi bat aipatu nahi genuke. Eta zera da.

1. *Itzultzaileen axioma bat*

Eliz gorazarreak euskarara itzultzen aritu izan garenontzat, axioma bihurtu zitzaigun hau: jatorrizko testua estrofatan emana izanik, itzuli ere estrofatan egin nahi denean, orijinalarenak baino silaba batzuk gehiago beharko ditu itzulpenaren bertsolerroak, jatorrizkoaren ñabardurak tajuz jaso nahi badira estrofa berrian. Bestela bertan behera galtzen dira hainbat eta hainbat ñabardura. Bide bat da hau.

Baina jatorrizko estrofa mota bera erabiltzen denean itzulitako hizkuntzan, silaba berak, puntu berak, etenak berak, orduan, dena sartzerik ez dagoenez eskuarki, aukera bat egiten du itzultzaileak: jatorrizkoaren zenbait ñabardura hartu gabe geratzen da, zenbait apaingarri ezabatu egin ohi da hain beharrezko ez denez, edota orijinaleko forma abstraktuak konkretu bihurtzen dira, edota balio berdineko indarra duen itzulpena erabiltzen da, berdintasun dinamikoari eutsiz. Bigarren bidea da hau.

Eta bigarrena da, zehazketa gehiagokorik orain egin gabe, Orixeren kasuan liturgi olerkien itzulpenetan hartzen den bidea.

2. *"Jesu dulcis memoria"*

Latinezko bertsioa eta Orixerena, musika beraz kanta daitezke. Hala ere, puntuetan latinak lau errima dituen arren, Orixek (lehenengo estrofan izan ezik), bi puntu erabiltzen ditu, zailtasuna arinduz eta ñabardurak zehatzago hartzeko posibilitateak areagotuz.

San Bernardok egina omen den, baina autore ezezagunarena den gorazarre honen[11] estrofaren bat edo beste arakatuko dugu, gorago aipatu axioma hori Orixegan ere egia dela ikus dezagun. Ez dugu, jakina, inolako ondoriorik aterako azterketa hauetatik, baizik eta erakusbide bat eskaini nahi genuke, orexarraren saiaera bikaina nolarebait usma dezagun.

Hiru lekutan agertzen zaigu testu hau Orixeren idazkietan: *Jesusen Biotzaren Deia*-n, gorago ikusi dugunez, bi estrofa bakarrik argitara ematen dituelarik. Gero *Urte guziko meza bezperak* liburuan, bost estrofa dituelarik, liturgiari dagokionez. Eta azkenik, *Euskaldunak Poema eta olerki guziak* liburuan, 49 estrofetan gorazarre osoa agertuz, Aita J. Mokoroaren eskabidez.

a. *Lehenengo estrofa*

Iesu dulcis memoria,	Jesus, poz oroigarria,
dans vera cordis gaudia,	biotzen asegarria:
sed super mel et omnia	ezti ta beste gaiñekoz
eius dulcis praesentia.	Zure aurpegia bai poz! (*OG*, 618. or.).

(11) *Hymni instaurandi...*, "Saepe adscriptus s. Bernardo, cuius spiritum refert; auctor ignotus —saec. XII ex.— Rhythmicus", (121. or.).

Oharrak

"dulcis memoria", "poz oroigarria": "memoria" "oroigarria" esatea, bete-beteko itzulpentzat har daiteke; "dulcis" hartzeko, *poz* hori mugagabean sartzen digu, hitza zehaztu gabe utziz, *pozen* oroigarri, *pozezko* oroigarri esan-araziz.

"dans vera cordis gaudia", "biotzen asegarria": "dans" hori *garri* atzizkiak ematen digu; *cordis,* "biotz" esanik zuzenean emana; eta "vera gaudia" "asegarri", kausaren lekuan efektua sartuz. Agian hemengo "gaudia" hori, lehenengo bertso-lerroaren *poz* horretan legoke...

"sed super mel et omnia", "ezti ta beste gaiñekoz": "sed" hori sartzen du *Jesusen Biotzaren Deia*-koan: "bañon ezti ta ganekoz". Hurrengo osagaiak ongi hartzen dira: "super" = "gaiñekoz", "mel et omnia" = "ezti ta beste gaiñekoz".

"eius dulcis praesentia", "Zure aurpegia bai poz!". "Eius", "haren" edo beharko lukeena, "zure" egiten du, "bestea" konkretatuz, eta mintzalagun bihurtuz. Gainerakoan, "praesentia" "aurpegi" esanez itzultzen digu. Hitzak euskaran duen zailtasuna gainditzen du, eta berriro ere konkretura jotzen du, metafora erabiliz. "Dulcis" = "poz".

b. *Bigarren estrofa*

Nil canitur suavius,	Ez, Jesus izena baiño
nil auditur iucundius,	biguñagorik kantatzen,
nil cogitatur dulcius,	entzuten legunagorik,
quam Iesus Dei Filius.	gozoagorik pentsatzen (*OG*, 619. or.).

Oharrak

"Nil...quam Iesus Dei Filius", "Ez, Jesus izena baiño", hau du hitzetan aldaketarik haundiena: latinaren "Jesus Jainkoaren Semea" eman beharrean, "Jesus izena" esaten duela, festaburuari amore emanez. Izanetik izenera iragon zaigu Orixe, eta festaren konkreziora jotzen digu, testu jatorretik aldenduz.

Gainerako hitzen itzulpenetan zehaztasuna eta egokitasuna agertzen ditu, ezer bortxatu gabe.

"Ez, Jesus izena baiño" esatean urruntzen da beste joskera honetatik: "ez da ederragorik Madalentxo baino", molde ezagunetik, edota "nik zu zaitut maiteago/txoriak bere umeak baino" klitxe arruntetik.

Aipagarria da, latinak 1, 2, 3. bertso-lerroak paralerroak dituela; ez hala euskarak, a/b, b/a, a/b ordenan ematen dituenez bertso-lerroetako adiektiboak eta aditzak. Maisuki sartzen du aldaketa hori, puntuaren nortasuna gordez.

c. *Hirugarren estrofa*

Iesu, spes poenitentibus,	Damutzean itxaropen,
quam pius es petentibus,	Onbera, guk eskatzean,
quam bonus te quaerentibus,	billa zaitugunean on,
sed quid invenientibus?.	baiña zein on arkitzean! (*OG*, 619. or.).

Oharrak

Deikia ezabatzen du: ez dirudi hain beharrezko, eta bi silaba irabazten ditu.

"spes", "itxaropen" zuzenean emanik. Baina "poenitentibus", partizipio aktiboa, infinitibo nominalizatu bihurtzen du, denboraren marka ezarriz, hau da, "damutzen direnentzat" esan ordez, "damutzean" dator. Laburtasuna dakar eta denboraren konkrezioa.

"quam" esklamazioa ezabatzen da. Gero, "pius" "onbera" itzultzen du. Eta "petentibus" "eskatzean", lehengo partizipio aktiboarekin egin duen bezala.

"guk eskatzean", "zaitugunean", pertsonaldu egiten da aditza, lehenengo pertsona plurala sartuz.

"Quid" galdera "zein" esklamaketa ematen digu, "on" adiektiboa sendotuz.

d. *Laugarren estrofa*

Nec lingua valet dicere,
nec littera exprimere:
expertus potest credere
quid sit Iesum diligere.

Oharrak

"Nec", ezezkotasuna, "ezin" eta "inork" horietan adierazten da; "lingua", ergatiboa, "inork agoz" dioelarik Orixek, latinezko "mihiak" "norbaitek eta ahoz" bihurtzen delarik, ñabardurak gehituz.

"expertus", "gertatu zaionak" itzultzen digu, eta "credere" "daki" esanez adierazten. Gaur hain maite dugun "esperientzia" hitz abstraktua, hemen konkretu bihurtzen da: "maitatzea gertatu zaionak", hark daki "Jesus maitatzea zer dan". Badirudi Orixek "credere" bere sustraizko esanahian hartzen duela: "daki", "quasi cretum do" hura, alegia.

e. *Bostgarren estrofa*

Sis, Jesu, nostrum gaudium,
Qui es futurus praemium:
Sit nostra in te gloria,
Per cuncta semper saecula.

Ezin esan inork agoz,
idatziz ere ezin eman;
gertatu zaionak daki
Jesus maitatzea zer dan. (*OG*, 619. or.)

Oharrak

Doxologia hau ez dator "Iubilo" deituriko gorazarre honetan[12]. Beraz, itzulpena *Urte guziko meza bezperak* liburuan dator[13].

Latinezko "Jesu" deiki soilak, posesiboa du euskarazkoan; baina Jesus geureganatze horren zergatia deboziozko liturgi kontestuan aurki daiteke, edota zakigu horren zamaz.

"futurum" hori "zeruetan" dugu, etorkizun abstraktua zeru konkretutzat hartuz.

"Sit... in Te", "Zugan izan bedi" hori, "zakigu Zu" ematen digu, aditzean nor-nori forma sartuz. Jaunaren baitan gure argitasuna eskatu ordez, Jauna bera gure argitasun izan dadila esaten da, harremanak pertsonalduz.

3. *Itzulpen honen zenbait ezaugarri*

Azterketa honetatik ez daiteke inolako ondoriorik atera, llaburra delako eta Orixegandik hurbilago egiten delako berau, bisigotiko garaiko beste zenbait gorazarretik baino. Hala ere, adibide modura probetxugarri gerta daiteke, itzulpen mota berezi honen erakus-aukera edo muestreo antzera. Orixeren itzulpen senaz, askatasunez eta esku onaz lekuko eta testigantza bat eduki dezagun.

Lehenik eta behin esan behar duguna da, latinezko esaldiak euskarazko esaldi jatorretan emateko Orixek duen grazia. Andima Ibinagabeitiak aitormen zuzena egiten digu honi buruz:

(12) Ibid.

(13) N. Ormaetxea, "Orixe", *Urte guziko meza-bezperak*, 106. or.

> Gure izkera eta letraren artean dagon aldea aundia da, izan ere, itzul-lanaren malkar eta arantzak, aldiz, larriegiak... Euskaltzalez gainera, Orixe latin-zale ere bait zaigu, eta Latiko izkuntzaren zirkun-zarkun ta gurpillak iñork ez bestean dazagutzi. Ori dala bide, lan oso ta garbala burutu digu[14].

Itzulpena latinaren musika berarekin kantatzeko denez, zailtasun berria ezartzen zaio itzulpengintzari. Molde estura egokitu beharrak eramaten du Orixe euskararen esaldi labur, argi eta indartsuenak bilatzera.

Kantuak utziezinezkoa duen berezkotasunari amore emanez, zenbait prozedura sartzen ditu, jatorrizko testuan zuzen emanik ez daudenak, baina euskal testuari ederki datozkionak, bizitasunaren amorez etorri ere. Hara zenbait kasu.

Dinamizazioa bilatzen digu hirugarren pertsona bigarrena bihurtuz: "haren"/ "zure"; "eskatzen dutenentzat"/ "guk eskatzean"... Edota deklinabide kasua kenduz: "Zugan"/ "Zu"...Edota lehenengo pertsona pluralaren adiektibo posesiboa gehituz: "gure Jesus"...

Konkreziora jotzen digu: "Jainkoaren Semea"/ "Jesus izena" esanez festaburuaren amorez; abstraktua konkretu eginez: "praesentia"/ "aurpegia"; "etorkizun"/ "zeruetan" deklinaturik gainera... Partea dena "mihia" oso eginez, "lingua"/ "inork ahoz" osatuz eta zehaztuz.

Beharrezkoak ez diren hitzak ezabatuz: deikiak, esklamaketak... Edota ikurrak aldatuz, galderei esklamaketen marka ezarriz...

Saiatzen zaigu latinaren guna euskara biziaren adierazpenik jatorrenetan ematen, tradizio zehatza eta aberatsa erabiliz. Ekonomia egitera beharturiko testuan, jokatzen dizkigu baliapiderik egokienak, euskal testuaren mesedetan.

Azkena

Orixek hizkuntza bezain ongi menderatzen zuela bertsogintza esango digu Mitxelenak. Eta Orexakoa itzultzaile bikaina izan zela beti adierazteko, gorazarre jakin bat oinarri hartuz, aitorpen hau egiten digu: "ha conseguido en verso... el milagro de una versión absolutamente fiel de *Lauda, Sion, Salvatorem* en la misma medida que el original —en realidad, la traducción tiene dos versos menos—, sin soslayar ninguna de las dificultades que ofrecía ese comprimido teológico"[15].

Bestalde, *Orduen liturgia*-rako gorazarreak aukeratzen eta egiten aritu ginenean, ikusi genuen nola "versión absolutamente fiel", "en la misma medida que el original", "sin soslayar ninguna de las dificultades" horiek, neurri handi batean egia izanik ere, asko zehaztu beharrezkoak zirela oro har, eta ñabardurez hornitu beharrezkoak, Orixek liturgi olerkiez eginiko itzulpengintzari buruz iritzi tajuzkorik eduki nahi bada.

Eta hau izan da ikaskuntza honen egitekoa: denontzat itzulpen harrigarria omen dena datuez zehatzagotu, iritzi-ñabardurez jantziagotu. Liturgi kantu hauen itzulpenetan Orixek erakutsi duen maisugoa eta lan bikaina garbi erakutsi, baina gaiak dakarren egiazkotasun beteagoan emanik.

(14) A. Ibinagabeitia, ibid., 276. or.
(15) L. Michelena, *Historia de la literatura vasca,* Minotauro, Madrid, 1960, 150. or.

Fokalizazioa *100 metro*-n

MARI JOSE OLAZIREGI
(EHU, Gasteiz)

0. Sarrera: nobelaren aukera

Euskal narratiban jadanik "klasiko" bihurtu den nobela honek, "nobela elebiduna", "nobela modernoa", "gaizki irakurritako nobela",... eta ez dakigu zenbat kalifikapen jaso ditu. Lau hizkuntzatara itzulia, 7 argitalpen ezagutzen dituena, filme bat,... eta Fakultateetako hainbat klasetan Kritika "zientifikoak" (tonu ironikoan esanda, noski) deitutakoak aplikatzeko testu aparta.

Dena dela, topikoak alde batera utziz, argi dagoena zera da, nobela honek baduela oraindik orain gaur egungo irakurleari erakargarria egiten zaion eskaintza, eta hau dela eta, hamahiru urteren buruan (hamahiru urtetako epea gure narratiba modernoaren eremu mugatuan nahikoa izanik ahanzturan erortzeko) oraindik gai gara nobela hau eskuartean harturik gure irakurketaren bidez bertan eskeintzen zaigun mezu edo eduki hori zerbaitetan gauzatuz gozatzeko. Eta gauzatu diogu ezen irakurlea baita, azken finean, literatur-testuaren berridazketaren bidez honi zentzua emango diona, eta ondorioz, "efektu estetikoa" deiturikoa gorpuztuko duena.

60ko hamarkadan Alemanian Constanza-ko Unibertsitatearen inguruan sortutako Harreraren Estetikaren ("Rezeptionsästhetik") ildotik irakurleak duen garrantzi hau gogoratzea ezinbestekoa dugu. Bestalde, nahiko inozoa litzateke, eta gaur egun erabat baztergarria, Literatur testu baten berezitasuna ("literaturtasuna" hitzaz izendatua izan dena) idazketa-modu zehatz batean dagoela defendatzea, bere garaian norabide inmanente bateko Kritikak defendatu zuen bezala.

Beraz, eta batez ere autore beraren hirugarren nobelarekin gonbaratuz, nola esplika daiteke *100 metro* nobelaren arrakasta? Ez dugu uste, *Ene Jesus* (1976) nobela baino "errazagoa" izateak hau esplikatzen duenik, ezen Nouveau Roman delakoaren bidetik idatziriko nobela honen errekurtso teknikoen aberastasunak ez bait du inondik ere erraza dela esaten uzten.

Erantzuna ez dago, gure iritziz, arrazoi ez-literarioetan ere, eta zentzu honetan liburu honen argitalpenaren inguruan sortutako iskanbilek (zensura arazoak direla medio), edo zenbaitzuk nobelan ikusten zuten mezu politikoak zailtasun gehiegirekin esplikatuko luke oraindik gaur egun duen harrera ona. Halaber, euskal Literaturaren irakurlegoaren motibapenak ezagutzen ez ditugun une honetan, harrera honen arrazoia betebehar akademikoetan ikusteari ere gehiegizkoa deritzogula esan behar.

Argi dagoena da, nobela honen baliapide aberastasunaren atzean, bertan narratzaileak eraikintzen duen "irakurle-inplizito"aren irudia nahiko identifikagarria gertatzen zaiola gaurko euskal "irakurle enpiriko"ari. Esan daiteke, nobela honetan

plano desberdinen tartekatzearen azpitik, badirela guztiari batasuna ematen dioten elementuak eta irakurketa zentzu batean egitea baldintzatuko duten ezaugarriak. Bertan, egoera diglossikoaren salaketarekin batera Hezketa zapaltzailea, Donostiako giro turistiko kirtena azaltzeaz gain militante baten ihes ikaragarria kontatzen zaigu. Eta guzti horren atzetik ingelesezko eta frantsesezko kantek etengabeki munduko odol ixurketa gogoratzen badigute ere, iheslearen heriotza (sakrifizio gisara kontsideratua) egunerokotasunaren errealitate izugarrian ezabatzen da. Azken batean, nobela bukatzen duen "It turns the earth..." kantaren paragrafoak bizitzaren jarraipena gogoratzen digularik... gainditzen gaituen errealitatean murgildurik egote hori adierazten digu. Eta uste dugu hementxe aurki daitekeela nobela honen irakurgarritasunaren gakoa: narratzaileak bere begirada zabalaren bidez, ingurune latz horretan kokatua egote hori gugan senti arazten du, eta interpretapen sinpleegiak baztertuz, esan daiteke aurkezten zaizkigun "flash" hauek gure aurrean eskenatoki batean bezala pasatzen doazen gertakizun horien ikusle izatearen zentzazioa sortzen dutela.

Eta irudiak, "flash"ak, begiradak, aipatu ditugunez hementxe kokatu nahi genuke *100 metro*-n Fokalizazio edo Ikuspuntuaren arazoak duen garrantzia. Esan daiteke, nobela honetan erabilitako teknika guztien gainetik etengabeki hurbiltzen edo urrutiratzen doan fokoaren mugimenduak, pertsonaien barru ezkutuenak zeharkatzen dituen fokoaren presentzia iraunkor horrek, sujetu-mundua lotura hori erakusteaz gain, gerora guk dastatu beharreko filme bat bailitzan elkarren ondoan itsatsi beharreko irudien joanetorria eskeintzen digula. Alabaina, itsaste ekintza hori gu gabe ezinezkoa denez, *100 metro*-ren irakurle izaten jarraitu beharrean gaude.

1. Ikuspuntua edo Fokalizazioa dela eta

Azterketa praktikora pasa baino lehen, ezinbestekoa deritzogu azterkizun dena argitzeari eta, beraz, kontzeptu honen inguruan zenbait esateari.

"Ikuspuntua", "idazlearen begirada", "mundu-ikuskera",... seguraski hainbat aldiz entzundako hitzak. Baina hitzak hutsaletik sortzen ez direnez, edo izana-izena dikotomia onartuz, esan daiteke Literatur Teorian eta Kritikan ikuspuntuaren arazoaz hitzegiten hasi zirenetik ordurartean ezezagun zitzaien alderdi batez ohartu zirela. Horrela, arazo honen auzia XIX. mende bukaeran sortu zenean (*British Quartely Review* zelakoan 1866an jadanik "point of view" hitza aipatzen da) testu narratiboei berezkoa zaien teknika honetaz kezkatzen hasi ziren haiek ez zuten inondik ere esperoko gai honek emango zuen zerresan guztia, baina harrigarri gerta badaiteke ere, XIX. mendeaz geroztik teknika narratibo guztien artean Ikuspuntuarena izan da aztertuena, eta hau frogatzeko teknika honen inguruan sortutako bibliografia eta izen multzoari "begirada" bat bota besterik ez dago (esate baterako: "point of view", "focalisation", "point of observation",... ditugu tradizio ingelesean).

Gauzak horrela, ezinezkoa litzaiguke honelako artikulu batean Ikuspuntu Narratiboaren inguruan sortutako tirabira eta ikerlan guztien berri ematea, eta bestalde, gure helburua Literatur Kritikaren esparruan egun arazo honen inguruan proposatzen den paradigma metodologikotik abiatuz *100 metro* nobelaren azterketa egitea izanik, kontzeptu teoriko honen bilakaera historikoaz ihardutea baino, askoz ere interesgarriagoa iruditu zaigu bere atzean gordetzen diren kezka-galderei buruz zerbait esatea (honetarako XX. mendeko Narraziogintzaren garapenaz zenbait ohar egitea itzuriezinezkoa bada ere).

1.a Ikuspuntua edo fokalizazioa: teknika narratibo honen inguruko azterketen bilakaera

Errusiar Formalistez geroztik Testu narratibo orok bi alderdi dituela onartzen da: testuak berak kontatzen digun istorio edo edukia (FABULA) eta istorio hori kontatua dagoen modu berezia (INTRIGA, Todorov-ek 1965eko bere itzulpenean "Sjuzet" hitzaz izendatzen duena). Geroago, testua narraziozkoa izan dadin narratzaile batek kontatua egon behar duela kontsideratuz Frantziako Kritikari Estrukturalistek banaketa horretan ahazten zuten hirugarren alderdia gehituko dute.

Banaketa hirukoitz honetan Ikuspuntua kontaketa moduari, hau da, eduki narratiboa azaltzeko moduari dagokio, eta Harreraren Estetikaren kritikari garrantzitsuenetarikoa den Wolfgang Iser alemaniarrak *El acto de leer* bere liburuan dioen bezala, "estrategia" desberdinen artean Ikuspuntuarena da, dudarik gabe, interesgarriena.

Garrantzi hau serioski azpimarratu zuen lehenengoa Henry James (1843-1916) idazle ifarramerikarra izan zen. Honek 1907-1909 urteetan bere nobelen sarrera gisara "Critical Prefaces" (Sarrera Kritikoak) direlakoak idatziko ditu eta hauetan "post of observation" (Behaketagunea) delakoaz hitzegingo du lehenengo aldiz. Aipatu sarreretan eta jadanik 1884an argitaraturiko *The art of Fiction* liburuan, nobelak literaturaren barruan duen lekua definitu nahiko du. James-en lanetan nobela bizitzaz dugun inpresioa dela baieztatzen zaigu, eta horregatik, bere iritziz, inpresio hori sinesgarriagoa izan dadin narratzaileak pertsonai baten ikuspuntutik kontatu behar du istorioa.

Dakusagunez, XIX. mendeko nobelagintzaren ezaugarri zen "narratzaile dezimononiko" edo "orojakile"aren oinarriak zalantzan jartzen dira eta, ondorioz, Jainko baten modura dena dakien eta dena ikusten duen izakirik ez dagoenez (Nietzsche-k Jainkoaren heriotzaz hitzegiten zuen XIX. mendean) nobelagintza sinesgarriago bat lortzearren ikuspuntuaren auzia garrantzitsua izango da.

Henry James-en baieztapen honek edukiko dituen ondorioak ezagunak zaizkigu eta egun nobelagintza modernora daraman bide luzearen barruan esan daiteke ikuspuntuaren arazo hau (hots, narratzaile orojakilearen ukapenetik sortzen dena) izan dela, seguruenik berrikuntzarik nabarienetakoa.

James-en lanek oihartzun itzela eduki zuten eta bere jarraitzaile sutsuenetarikoa izan zen Percy Lubbock kritikariak zera zioen:

> The whole intricate question of method in the craft of fiction, I take to be governed by the question of the relation in which the narrator stands to the story (apud Gnutzmann 1984: 119)

Lubbock-en lana dogmatikoegia zela kontsideratu zuten garaiko zenbait idazlek, bertan objetibotasunaren izenean narratzaileari kontzientzi gune zehatz batetara mugatutako ikuspuntuarekin kontatzea eskatzen zitzaiolako. Jarrera kritiko hau azaltzen zutenen artean E. M. Forster-en *Aspects of the novel* (1927) aipa dezakegu eta ildo beretik doa ere Ifarrameriketan "Chicaco-Critics" taldeko partaide zen W. C. Booth-ek beranduago idatziriko *The Rethoric of the Fiction* (1961) liburua.

Aipatu ikerlariekin batera, XX. mende erdialdera teknika narratiboak, eta orokorki nobela aztergai duten lanak ugarituz doaz, eta esan daiteke garai hauetan azaltzen joango diren azterketetan Ikuspuntu narratiboaren auziak sailkapen eta abiapuntu teoriko desberdinak sortuko dituela. Batzu aiapatzekotan: Ifarrameriketan Cleanth

Brooks eta R. P. Warren-en *Understanding Fiction* (1943an), N. Friedman-en "Point of view in fiction" artikulua 1955an, Alemanian F. K. Stanzel-en *Die Typische Erzahlsituationen* (1955an).

Dena dela, esan daiteke autore horiek proposatzen dituzten sailkapen desberdinetan, nahasketa ugari agertuko dela, eta orokorki narratzaileari dagozkion arazoak (hala nola, erabilitako pertsona narratibo desberdinen berezitasuna, edo kontaketa-modu desberdinen sailkapena) ikuspuntuari dagozkienekin tartekaturik azalduko direla. Maila honetan Frantziako Kritika Estrukturalistaren eskutik sortuko diren ikerlanak hedatu arte (eta zehazkiago 1969az gero "Narratologia" deituriko Testu narratiboen azterketa estrukturalista agertu arte) ez da sistematizaio seriorik egongo.

Baina Frantziako Kritika aipatu badugu ere, badira zenbait lan Ikuspuntuaren eremu mugatuan aurrerakuntza garrantzitsu gisara ikus daitezkeenak. Horrela Frantzian Bigarren Mundu-Gerraren ondoren Ifarrameriketako "Lost Generation" delakoaren partaide ziren idazleen (Hemingway, Dashiel Hammet,...) obrak itzultzen direnean, hauen arrakasta handia izango da eta ondorioz Literaturari buruzko, eta zehazkiago, teknika berriei buruzko liburuak sortuko dira: hala nola, C. E. Magny-ren *L'âge du roman américain* (1948), Jean Pouillon-en *Temps et roman* (1946) eta J. P. Sartre-ren *Situations I* (1947) eta *Situations II* (1948).

Aipatu idazle horien ezaugarri nabarienetakoa (zinetik hartutako zenbait teknikaren erabileraz gain) kontaketa mota "behaviorista" delakoa da. Mende haseran ematen zen aldaketa nabariena kontzientzia gune batetik abiatuz eraikitako fikzioaren idazketa bazen, orain, autore hauek idatzitakoaren bidetik, objetiboki behagarriak diren gertakizunak azalduko zaizkigu nobelan. Geroago "zine-kamara" edo "narrazio objetiboa" deitu izan zion teknika honen oinarrian, Teoria Konduktistaren ideiak ditugula ezin ukatu. Azken honek psikearen barrubizitza ukatuz, instrospekzioa baztertuko du ikerketa-metodo bezala. Sartre-ren hitzetan:

> El novelista puede mostrarnos el curso íntegro de los acontecimientos a través de los ojos de sus personajes y, de esta forma, hacernos compartir sus límites de visión, la imperfección de sus puntos de vista, como sucede, por ejemplo, en el caso de Joyce o de Henry James, o puede retener por completo esta realidad subjetiva y psicológica, y ofrecernos tan sólo las acciones externas, las palabras y los gestos de sus personajes, a la manera de la novela "conductista" estadounidense de los años treinta, la novela de Hemingway o de Dashiel Hammet (apud Simon 1984: 212).

Kontaketa mota objetibo hau izango da Frantzian 1950 inguruan sortu zen Nouveau Roman mugimenduaren ezaugarri nabarmenetakoa ("Nouveau Roman"en inguruan mugitzen ziren autoreen haserako lanetan bederen). Begirada hotza dugu gauzetara heltzeko bide bakarra. Gauzak, mundu-objetiboa,... egia absolutu baten irudi ez diren neurrian, gizakiok gauzak munduan egote hori adierazteko begirada dugu baliapiderik egokiena. Hau dela eta, Ikuspuntu berezi honen erabileragatik "Ecole du régard" (Begiradaren eskola) deitu izan zaio mugimendu honi. Robbe-Grillet idazle famatuak hain ongi azpimarratzen digunez:

> En el lugar de ese universo de "significados" (psicológicos, sociales, funcionales) habría pues que intentar cosntruir un mundo más sólido, más inmediato. Que sea ante todo por su presencia por lo que se impongan los objetos y los gestos, y que esa presencia siga luego dominando por encima de toda teoría explicativa que tratara de encerrarlas en un sistema cualquiera de referencia, sentimental, sociológico, freudiano, metafísico, etc. (1973: 24).

Gizakia munduan egoera batetan, situazio berezi batetan dagoenez, irakurlearengan egoera hori sentiaraztea izango da idazlearen zeregin nagusiena. Dagoeneko, nobelagintzaren garapena emana dela dakusagu, izan ere jadanik nobelak mundu bukatu eta definitu baten azalpena baztertuz, nobelaren sorketa bera bihurtzen bait du gai nagusi. Ricardou-ren hitzak gogoratuz nobela abentura baten idazketa izatetik idazketa baten abentura izatera pasa dela esan dezakegu eta ondorioz, irakurlearen partehartzea aktiboagoa bihurtu dela.

Kritikaren arlora itzuliz lehenago aipatu autore aintzindarien lanak islada zuzena edukiko dute Estrukturalismoaren barruan Ikuspuntuari buruz egingo diren azterketetan. Alabaina, esan daiteke azterketa hauek ez direla hain oparoak izango eta ikuspuntuari dagokionez Gérard Genette-ren *Figures III* (1972) izango dela lanik sakon eta interesgarriena.

Genette-k, aipatu liburuan, ordurartean Ikuspuntuaren arazoa aztertzen zuten lanen oinarrian hutsegite nabarmena zegoela salatuko du: "Nork ikusten du?" eta "nork kontatzen du?" galderen, edo bere hitzetan esateko, Modu eta Ahotsaren arteko nahasketa. Bere iritziz, kontaketa modu batek edo pertsona gramatikal baten erabilera zehatzak ez du Ikuspuntu mota bat baldintzatzen. Ikuspuntua narratzaileak kontatzen diguna aurkezteko darabilen pertzepzio modua dela esan daiteke.

Hortik abiatuz, Genette-ren beste ekarpena "Ikuspuntu" hitza "Fokalizazio" hitzaz ordezkatzea izango da. Hitz honen jatorria zinearen eta fotografiaren arloan koka badaiteke ere, Brooks eta Warren-ek jadanik 1943an teknika narratibo honetaz hitzegiteko erabili zuten. Honetaz gain, Genette-k Fokalizazio hitza hobesteko bazuen arrazoi garrantzitsurik, batezere "Ikuspuntu" hitzak Historian zehar eduki duen erabilera zabalari begirada bat bota zionean honek bereganatzen dituen adierazi desberdinez ohartu zenean.

Hiru Fokalizazio mota bereiziko ditu Genette-k bere sailkapenean:

a) *Narrazio ez-fokalizatua edo Zero Fokalizazioa* (Pouillon-ek "vision par derrière" deiturikoa eta Todorov-ek narratzailea > pertsonaia gisara aurkezten diguna). Kasu honetan narratzaileak edozein pertsonaik baino gehiago daki, Narratzaile orojakile honek inongo informazio murrizpenik egiten ez duenez, esan daiteke Fokalizaziorik ez dagoela.

b) *Barru-Fokalizazioa* (Pouillon-entzat "vision avec", Todorov-ek "narratzailea = pertsonaia" berdintasunaren bidez adierazia). Dena pertsonaiarengandik abiatuz azaltzen zaigu, narratzaileak ez daki pertsonaiek baino gehiago, edo hobe esanda, pertsonaiek dakitena bakarrik daki. Honen barruan azpisail desberdinak bereiz daitezke:
   b.1 *Barru Fokalizazio Finkoa:* nobela guztia pertsonai baten ikuspuntutik aurkezten zaigunean.
   b.2 *Barru Fokalizazio Aldagarria:* nobela berean pertsonai desberdinen ikuspuntuak tartekatzen direnean.
   b.3 *Barru Fokalizazio Anitza:* Aldi berean ikuspuntu desberdinak aurkezten zaizkigunean (Gutun-nobeletan).

d) *Kanpo Fokalizazioa* (Pouillon-entzat "vision par dehors", Todorov-entzat narratzailea < pertsonaia). Narrazio objetibo edo "behaviorista" delakoa. Narratzailea kasu honetan ez da Pertsonaien sentimendu edo pertsamenduetan murgiltzen, Kanpotik, hau da, zentzuek soma dezaketeena bakarrik deskriba dezake.

Sailkapen hau dugu seguraski Kritika Estrukturalistaren eremuan hedatuena eta onartuena. Alabaina, gure ustez badago bertan zenbait iluntasun. Esate baterako, Barru-Fokalizazioaz ari garenean zer adierazi nahi dugu zehazki?: fabula barruko pertsonai bat dela Fokalizazio ekintza horren subjektua edo eta Fokalizatzen den hori psikeari (sentimenduak, pentsamenduak,...) dagokiola?, ala biak? Erantzuna, Genette-ren lanari begiratuz gero badirudi nahiko zaila gertatzen dela, eta berak ere Barru-Fokalizazioa definitzeko Barthes-ek proposaturiko narrazioaren "modu pertsonal"era jo behar du (hau da, testua lehenengo pertsona gramatikalera pasa daitekeen neurrian bakarrik esan daiteke Barru Fokalizazioa duela).

Orokorki onartua izan den paradigma honen akatsak zuzentzeko laguntza handia eskeintzen digute Estrukturalismoaren bidetik doan Mieke Bal kritikari holandarrak proposaturiko zuzenketek. Honek bere *Teoría de la narrativa* (gaztelerazko itzulpena erabiliz) liburuan eta *Poetique* aldizkariko "Narration et Focalisation" artikuluan kritika gogorrak egotzi zizkion Genette-ren sailkapenari, eta oraindik orain bi kritikari hauen arteko eztabaidak zutik badirau ere, esan dezagun oso interesgarria deritzogula Bal-en planteamenduari.

No se trata, ni mucho menos, de predicar una «vuelta» al realismo; de hecho, la literatura, como el arte, nunca vuelve; recrea, reformula, reconstruye.

Que el novelista recupere la fe en la posibilidad de contar historias no quiere decir que haya resuelto la problematicidad misma de la escritura novelesca. Mucho menos todavía —y refiriéndome ahora a la novela vasca— que piense que el lenguaje narrativo está suficientemente inventado y verificado.

Desde esa reducida estancia con barrotess, un espejo en el techo y una cama, seguramente no se pueden contar muchas más cosas que las que nos ha contado Saizarbitoria en *Ene Jesus*. O a lo mejor sí; porque se podría continuar indefinidamente la serie de los múltiplos de siete, a partir del 77 —*hirurogeitamazazpi*— en que termina la novela...

Es la reducción al absurdo de la problematicidad inherente a la escritura novelesca, a toda escritura. Pero no se puede estar siempre escribiendo sobre la imposibilidad de escribir. Aunque en todo escritor hay un nuevo Sísifo, tratando eternamente de levantar el texto hasta la cumbre del sentido, sin conseguirlo nunca, al menos de modo satisfactorio.

Quisiera terminar esta deslabazada incursión al texto de *Ene Jesus* volviendo —la circularidad también del lenguaje crítico— al punto de partida: la recepción del texto transgresor, o lo que es lo mismo, su función en la vida de un sistema literario como el euskérico.

Ene Jesus marca, con una lógica y un rigor implacables, el camino recorrido por el autor en una andadura novelesca larga en años y corta en títulos. Saizarbitoria publica —no nos atrevemos a decir escribe, porque no nos consta— muy poco: una primera novela en el 69 y dos en el 76, aunque *100 metro* retrasó su aparición por dificultades con la censura. Después —doce años—, silencio. y, para el crítico y el lector, el suspense de una cuarta novela que, se dice, está ya escrita y sale en cada feria del libro vasco o acontecimiento literario importante que va desgranando el calendario. Entretanto, «esperoan», como el protagonista de *Ene Jesus.*

Espectantes ante lo que el autor haga, después de un texto que, si es novela, es también metanovela, e incluso antinovela.

Ene Jesus no abre caminos a la novelística vasca ni a la de su autor: es un experimento irrepetible, pero que tenía que hacerse. Después de *Ene Jesus*, no se puede, no se debe seguir escribiendo como antes. No desde luego Ramón Saizarbitoria, pero tampoco los otros narradores vascos.

Ene Jesus es la verificación, en lenguaje narrativo euskérico, de los cambios profundos que en el universo de la novela —la teoría y la práctica— se han producido en los últimos años. Es la toma de conciencia de que el euskara, la narración en euskara, debe aceptar los desafíos que otros lenguajes narrativos han aceptado.

No por mimetismo, sino por pura necesidad de supervivencia literaria. Si se quiere al menos que la literatura sea significativa de su momento: el de la lengua y el de la realidad.

El novelista debe asumir ese reto. Aunque tenga que hacerlo en solitario, porque los lectores, la mayoría de los lectores, no sabrán seguirle y los críticos a lo peor no se dan cuenta. Sabiendo que sirve a una minoría que si hoy es ínfima, será inmensa mañana o pasado mañana.

La única condición es que se haga con rigor y coherencia. En el contexto de esa necesaria búsqueda de lenguaje narrativo a la medida de las necesidades individuales y sociales que el novelista deberá convertir en universo de ficción. Y en el contexto también de esa ineludible catarsis personal de escritura a que todo escritor consecuente debe someterse.

Es esto lo que legitima al texto transgresor, y no los índices de lectura, que serán necesariamente bajos mientras la transgresión no funcione como modelo.

Ene Jesus, o, por citar otro ejemplo, *Manu militari*, se justifican sobradamente, inscritos en la trayecatoria literaria y narrativa de sus autores: son puntos decisivos en esa búsqueda de lenguaje, en esa investigación sobre la escritura misma que con tan riguroso esfuerzo se han planteado Saizarbitoria y Arrieta. La verificación de los resultados sólo será posible desde otros textos que todavía no han sido escritos. El experimento nunca es autosuficiente; sólo sirve en la medida en que puede ayudar a descubrir y a crear nuevos modelos.

El texto transgresor no sólo es legítimo, sino también higiénico e incluso, en algunos momentos de la evolución literaria, necesario.

Pero la vida, la vida de la literatura o la vida *tout court*, no puede establecerse sobre la transgresión permanente.

Euskal poesia berriaren teknika zenbait: Teresita Irastortza

LUIS M. MUJIKA URDANGARIN
(EHU, Donostia)

Gerraosteko poesiaren belaunaldi gazteenetako baten adibide bat hartu nahirik, Teresita Irastortzaren poesigintzara makurtuko gara. Aukera honek ez du esan nahi antzeko bideak eta balioak egungo beste poeta gaztetan aurki ez daitezkeenik; zorionez, bide sinbolista eta umotu antzekoa topa daiteke beste poeta zenbaitengan ere. Gu gaur, ordea, gunearen arazoa dela eta, T. Irastortzaren sorkuntza aztertzera mugatuko gara[1].

T. Irastortzaren azterketa literarioa egiterakoan bere *Hostoak* poemara hertsiko gara, *Gaia eta gau-aldaketak* izeneko obra albora utziz[2].

Azterketa hauek hasimasiak baino ez dira izanen, gaiak sistematizazio eta luzadura gehiago eskatuko lukeelako, Lizardi eta Miranderen poesigintza aztertzerakoan egin genuen bezala[3].

Gaian sartu baino lehenago, hau esan nahi dugu, Irastortzaren poema honetan badagoela gaztetxoen obran atzematen den akats bat, alegia, eskematismo gehiegikoaren akatsa. Gauza batetik bestera errazegi saltatzea, eskematismo gehiegi erabiltzea (xinpletasunaren aitzakitan) errazkeriara joatea izan daiteke. Baita (nahiz hau zilegizko opzioa izan) neurri eta puntutik poesian sistematikoki ihes egitea (euskal poesia gehiena 1960 arte —eta poesia hoberena— neurtuan egin delarik) guretzat errazkeriazko labainkeria izan daiteke. Eraikuntza modernoa eta tinkoa ez dago, nahitanahiez, neurriarekin desuztartuta (eta, gutxiago, euskarak neurgintzarako eskaintzen dituen erraztasun formalak ikusita). Poesia modernoa Europan, hein handi batean, neurtuan egina dago (adibidez, 27ko belaunaldiaren produzio nagusi bat); bide horretatik, ia beti, ihes egitea errazkeria eta disziplina estetiko-eza da guretzat, nahiz-

(1) Esan behar dugu T. Irastortzak, bere lehen poema zela-eta, Krutwig-engandik kritika gaiztoa jaso zuela. Kritika beti beharrezkoa da, baina kritikak ez dauka tremendista izan beharrik (onerako ala txarrerako). Gure ustetan, orri bat ala bira mugatzen den kritika "tremendistak" ez-objetiboa izateko arriskua dauka, behar duen gunea eta sakontasuna falta zaiolako, askotan.

(2) Gure aipamenak beti original honetatik: *Hostoak*, Caja de Ahorros Municipal de Bilbao, 1983.

(3) Euskal gizon ala literato bati buruz lan bat egiteak ez du ahitzen ikusmira osoa. Batek egina besteak beste alderdi batetik ikus eta azter dezake. Gaztelaniaren esparruan, adibidez, Garcia Lorca-ren poesigintzaz (ikusmira eta tematika desberdinetatik) hogei bat lan kritiko nagusi daude. Berdin gertatzen da Machado, J. R. Jiménez, Neruda, J. Guillen, eta bestetaz. Mugatasun gehiagoz, berdin gerta daiteke euskal eremuan ere.

eta, noski, poesigintza balioztatzerakoan beti barneko hariak eta irudi-munduak garrantzi handiagoa eduki. Hauek ziren, bada, Irastortzaren edergintzan sartu aurretik egin nahi genituen ohartxoak. Poesia neurtuak guregan tradizio handia dauka, eta disziplina jator horretatik ibili dira, ez poeta zaharrak soilik, baita XX. mendeko Lizardi, Lauaxeta, Orixe, S. Mitxelena, Gaztelu, Iratzeder, Aresti (alde nagusi batean), Mirande, etab.

Irastortzaren poesigintza berrian (eta, zehazkiago, aipaturiko poemetan, lehen alditako sorkuntza gainditzen eta aberasten etorri delako) irudigintzak eta mamidura formalak itzal asko jasotzen du. Irastortza ez dabil (gaur ere konstata daitekeen) estetika mespretxatzen duen *esperimentalismo* poetiko hutsaren ildotik. Eta hori hainbeste marginalismo dagoen mementoan positiboa deritzaigu, ezen-eta egungo edergintza marginal baten oldeak maiz estetika trinkoa ito egiten du. Estetikan, noski, arlo aunitz subjetiboa da, baina gaztetxoek, maiz, *ona* "aurrerakoi eta txokanteenekin" uztartzeko arriskua daukate, "txokanteena" (baina disziplina estetiko eta lanketa sakonik gabekoa) "hoberenarekin" nahastea zalantzagarria baita. Kreakuntza estetikoan "bitxi eta txokanteena" ez da, nahitanahiez, "hoberena". Maiz, "bitxikeria" esperimental hori gauza errepikakor eta antzuetan gelditzen da. *Marginalismo esperimentalistan* murgiltzen den sorkuntza musikalak, poetikoak, piktorikoak "txepelkeriaren" eta ezfuntsaren arriskua dauka, azpian *lanketa*, pazientzia eta disziplina estetiko aunitz falta baldin bada. Eta disziplina estetikoa ez da anakronismoa, seriotasuna, lana eta ederraren bilaketa sakona baino.

1. Irudien teknikak

T. Irastortzaren irudi bildumek argitan uzten dute bere poesigintzaren kera "erdi-surrealista" eta molde irrazional bortitza. Bertan ikuskizun-irudiak, metaforak, parekaketak, sinestesiak ugari dira. Metaforen eremuan tipologia aunitz dago; adibidez, A B denean ("muino gainean ilargia (A) gazta (B) da"; B A-tik sortzen denean ("zelaiaren (A) danborean (B) zaldia harrapaladan" (irudi hau hurbiletik G. Lorca-k "El jinete se acercaba/tocando el tambor (B) del llano (A)" dionean). Beste batzuetan metafora oposaketa hutsean egon daiteke. Adibidez, "txoriaren eztarria (A) likido kizkurra (B)". Bi elemenduak alboezarrita daude, inolako loturarik gabe. Baita mintzatuak gara beste lan batean C tipologiazko metaforez[4].

Metaforetan ez bezala, konparaketetan elemendu parekatzailea presente egon ohi da (eta elemendu horiek izan daitezke: *antzo, gisa, iduri, bezala, bailitz,* etab.). Lizardik, adibidez, *iduri* elemendu parekatzailea aunitzetan erabiltzen zuen; *iduri* hori (*irudi*-ren metatesia delarik), ordea, ez da Lizardik asmatua, lirika zaharretako kantetan ere azaltzen delarik[5].

Irudien eremura etorririk, eta maila *ezrealean* sartuta, A-ren oposizioan B-ren ondoan beste irudi ezrealen multzoak egon daitezke, alegia, A = B, C, D, E, F taldeak. Horko B, C, D, E, F irudi-multzoak maila ezrealekoak dira, noski. Tipologia hau aztertzerakoan, funtsean, C. Bousoño-ren urratsak jarraituko ditugu.

Metaforaren eremuan ematen den fenomeno aunitz metonimikoa da, metonimiaren bitartez (eta elisiozko prozeduren medioz) "osoa" *atal* batez adierazi ohi dugu,

(4) Ikus gure *Lizardi-ren lirika-kideak*, I, 88 ond. C. Bousoño, *Teoría de la expresión poética*, op. cit. 82 ond.

(5) Tradizioko lirikatik kasu batzutarako ikus gure *Euskal lirika tradizionala*, IV, 569-598. or.

eta, alderantziz, "atala" *osoa*-ren bitartez. Hemengo kontzeptuak kontutan edukirik sar gaitezen "Hostoak" poema nagusiaren orrietan barrena irudi adierazgarrienak atzematera.

Hona lehenengo kasua:

Zure mototsak (A), zuhaitz usain (B), erretsin hots (C)[6].

Hemen alboezarrita A eta B, C mailak iruditeria bejetalaren ildo sugerigarrian.

Poema berean beherago:

> Errepara zaitez:
> ilea (A) buruatzean ixtean (a^1)
> aldaizearen miztoa (B) bera liztaz josiko bazenu lez (b^1),
> lainoen hatsak (C) atzekoz aurrera jazten dituzu (c^1),
> kotoi usaina ketara jausten (D)[7].

A = B (b^1), C (c^1), D

Z (emozioa)

Elemendu "irrazionalak" (ezrealak) hemen *aldaizearen miztoa* (B), *lainoen hatsak* (C), *kotoi usaina* D.

Hona beste adibide bat:

> Ahosabaiean (b^1) katiatu zait (B)
> egarria, (1)
> arratsari ertzetan (c^1)
> argi izpiak (A)
> txintxetatzean;
> ozpinezko ezintasunez (d^1) zetorkidan,
> asun azkura amilgaitzez
> azpiak ozpin (D),
> bizi izpi
> zure ahosabaiean... (b^1)[8].

A (*egarria*) (*argi izpiak*) = B (*katiatu*) b^1 (*ahosabaiean*), C (*txintxetatzean*) c^1 (*arratsari ertzetan*), D (*azpiak ozpin*) d^1 (*ozpinezko ezintasunez*).

Z emozioa pasarte poetiko honetan *ezinak* eta *garraztasun* existentzialak bizian sortzen duen *keru gaitza* da.

(6) "Errepara zaitez", op. cit. 11. or.

(7) Ibidem.

(8) "Ahosabaiean katiatu zait", op. cit. 15. or. Mintzo poetiko honen zertzelada onirikoak, ilogikoak, etab. hobeto balioztatzeko eta ausnartzeko hona V. Aleixandre-ren irudi-multzo bat: "De un gris enérgico suavizado en las sienes", "Un rosa romano", "los ojos... en aquellas *cocidas* calidades daban una luz negra, *carbón* para quemar ensueño", "un cielo mezclado con azul turbio, con indescifrable gris de arcano", "qué fresco vientre, donde su curva oculta/ leve musgo de sombra romuroso de peces!", "como un árbol que depone su luto rumoroso,/ su mate adiós a la tristeza", "llegaste alegre, /ligeramente rubia, resbalando en lo blando/del tiempo". Iruditeria hau, dudarik gabe, espainiar poesiak XX. mendean jasan duen eragin *irrazional* gaitzaren ildotik dabil. Hemengo aipamen gehienak "Los encuentros" eta "La destrucción o el Amor" poemetatik. Ikus Concha Zardoya, *Poesía española contemporánea*, Ed. Guadarrama 1961, 437-598. or.

Goazen beste pasarte bat ikustera:

Lermaturik (A)
lumero atzeraturen (b^1) baten belenoa (B)
heldu zait (c^2)
ilargiaren limoitasun garratzak (C)
heldu nau (c^1)
lehertezinaz
lermaturik (A)[9].

A (*lermaturik*) = B (*belenoa*) b^1 (*lumearo atzeratuak*), b^2 (*belenoa heltzen* bezala), C (*limoitasun garratza*) c^1 (limoitasuna *heltzen* edo *atzematen* gisa)

A = B b^1, C c^1
\ /
Z (emozioa)

Hemengo emozio-sentipena (Z) sentsazio existentzial batzuen *mikaztasuna* da, oroitzapen galduen urrats apaletan galdua.

Ikus dezagun beste adibide eder bat, irudi kosmikoak pasarte subjetibo batean ahokatuta:

Zure gorputzean (A) hustuko dut
gauari osturiko (b^1) izar katea (B),
banan banan
kolkoratuko dizkizut
neure usteak (C), esperantzak (D)
baina
zu ez bazina
konpitaz (e^1) konpondu beharko nuke
bizitzaren koilarea (E)
kolore guztietako konpitaz (f^1)
koloregabeko zuloa (F)[10].

Elemendu errela (A) (*zure gorputza*) = Elemendu ezrealak B (*izar katea*), C (kolkoratzen diren *usteak*), D (kolkoratzen diren *esperantzak*), E (bizitzaren *koilarea*) e^1 (konpitaz), F (koloregabeko *zuloa*) f^1 (kolorezko *konpitaz*).

(9) "Lermaturik", op. cit. 17. or. Hurrengo pasartea konplexuagoa da: "Bai hatzamar haundiak (A^1) dituela / zure ausentziak (B)/ eta hortz ortz azkarrak! (A^2) / Bai ahula nire bizkarra (A^3), / ttipia gorputza (A^4) / zure ausentzia (C) gordetzean (C^1) , / goizetan eta / lehengo gaua (E) jeikitzean (e^1) / badakit / ez dituzula argi izpiak (F) behatz huntz (A^5) itzaliko (f^1). Hemen maila erreala bost elemendutan $A^{1,2,3,4,5}$ (*hatzamar, hortz, bizkarra, gorpua, behatz*) hedatzen den katea, eta maila ezrealean (irrazionalean) *ausentzia, gau jeikia, argi izpiak*... Poema hau 21. or.

(10) "Zure gorputzean hustuko dut", op. cit. 19. or. Hona beste adibide konplexu bat ere: "Espero/zaitut (A)/ sari guztiak/saretzen dituen (b^1)/zorotasun zoruan (B^1) isladaturik, /hilzorian (C); /gauek gaitzen dituzten (d^1)/ gaitz gaineko /gonapean (D), /gozotasuna gazitatik/ gauzatuz, (E) /orduak ardotan (F) / ordituz (f^1(/espero zaitut (A)" ("Ezin zain egonik", 25. or.) Hemen A maila errealean eliditutako *maitalea, "zaitut"* delakoan azaltzen dena; maila ezrealaren eskema da = B (b^1), C, D (d^1), E, F (f^1). Ondorengo pasarte poetikoa, nahiz-eta olerkarisa mintzo sinbolikotan ibili, ez da irrazionalitate handikoa, ezen-eta "makinapean gorderiko hitzak" hitz *idatzi* gisa uler daiteke; "kitarra harietako hautsa" ere hauts *fisiko* antzo ere interpreta daiteke; baina, noski *irrazionala* da "hautsontzietako irri eraila" (sonrisa asesina la de los ceniceros). Hona testua: "Pilaturik daude /kitarra harietako hautsa, /hautsontzietako irri eraila, /idatz makinapean gorderiko hitzak, /hutsartean, /hats hotsetan" ("Pilaturik daude", 27. or.).



Hurrengo pasarte poetikoan ere nabaria A maila errealetik maila ezrealetara (B, C...) dagoen jauzi irrazionala:

Denboraren jarioa (A)
tanta (B^1)
guardabiziaren (1) bizkar irristakorrean (D^1)
Denboraren jarioa (A)
tantan (B^2)
kotxeko leiho itxiak
gorde dituen (C^2)
itxaropenetan (D^2)
Denboraren jarioa (A)
tente (B^3)
zuhaitz lerdenaren
itzalak lehortu duen (C^3)
izerditan (D^3)[11].

Irudien jauzi kaulitatiboak aski gardenak dira denboraren joana (A) (hemen jarioaren irudian) *likidoa* bailitzan tantaka (B) ezertzean (ala zutunik B^3 kasuan), eta kotxearen itxaropenak eta zuhaitz-itzalaren lehorketak (D) tartekatzean.

Beraz, A mailan denboraren *joana* = B mailan *joan* hori *tantaka* (ala zutunik) dagoen jarioa da, C mailan genitiboan ala erlatibozko perpausan sostengatutako irudiak, D mailan erlatibo ondorengoak.



Hurrengoan iruditeria testuinguru kosmikoan txertatzen da:

Izarrak (A) inausi (B) nahi zenituen
ordulari orratzak orraztuz (c^1)
erraztu, (C)
minutu mingainaz miaztuaz (d^1)
miatu (D)[12].

Hemen ere jauzi kualitatiboak A mailatik (izarrak) B, C, D mailetara, ezen eta izarrak (maila erreala) zuhaitzak gisa inaustea "irrazionala" baita, eta berdin erloju gisa erraztea (C maila), ala minutu-mihiez miatua (D maila) izatea.



(11) "Denboraren jarioa", op. cit. 33. or.

(12) "Izarrak inausi nahi zenituen", op. cit. 35. or. 41. orrian beste adibide hau: "Sentimendu entzun gaitzak (B) / noten barnean (b^1): / biolinaren kajaz (c^1)/ eten ezinezko malkar jarioak (C) /sentimendu entzungaitzak (B) / noten iraupenean (b^2). Hemen eskema hau atzematen dugu: (maila eliditua edo *NI* pertsonala) = B (b^1) (b^2), C (c^1).

Poematxo honetan A mailak lau lekutan adierazpen bera ($A^{1,2,3,4}$), eta irudi "irrazionaletan" honelakoak: "emakumeen sabela izarrez betetzeko", "lehoi gosetien gose tximatsua orrazteko".

Pasa gaitezen hurrengo testura:

> Zatoz nirekin (A)
> ibaiek isaladaturiko eternitate
> iheskorretik, (b^1),
> zoko, bazterrak miatuz (b^2)
> basamortu-ertzen bila (B),
> ilargiaren aurpegi izkutuan sorturiko
> adaxkatik (c^1)
> hega berrion eta
> haga zaharren laguntzaz, (c^2),
> agortzen ez den lehortea
> barru barrutik lehertzera (C)[13].

Perpaus luze honetan, beste askotan bezala, alde errealak (A) eta ezrealak (irrazionalak) elkar saretuta daude, gurutzaturik. Saredura horiek ez dira norabide berdinean ematen, nerbatura bihurrietan tartekatuz joaten baino. Mintzo poetiko modernoan, beraz, surrealismoaren katea zeharo konplikatzen da, kateamenduak beste *sub-kateetan* adarkatuz. Kasu honetan maila erreala elidítutako "zatoz nirekin" aditzaren *ZU* pertsona da; gero pertsona horren predikamenduak norabide ezrealetan doaz ("ibaiek isladaturiko eternitate iheskorretik" (b^1) "basamortu-ertzen bila" (B), "ilaragiaren aurpegi izkutuan sorturiko adaxkatik (c^1) "agortzen ez den lehortea /barru barrutik lehertzera" (C).



Irastortzak, bestalde, asko maite du bere olde sinbolista-surrealistan arlo somatikotik ateratako irudiak bilbatzea, elemendu psikologiak eta somatikoak nahasian txertatuz. Adibidez, "pentsamentuak ... ile-adatsetatik jiraka" adieraztea joku hori egitea da. Aplikapen bera min somatikoei dagokienez ("baita hari ere minak".) Hona testua: "pentsamenduak (A) biraka (B) hasi zitzaizkion /baita hari ere /minak (A),/ezpain-estuturik (b^1)/ile-adatsetatik (textuak *ile, adatsetatik* ipintzen du) jiraka" (B)[14].



"Ezpain-estuturik" irudia bitxia eta jatorra gertatzen da sena "exozentrikoz" hornitua dagoelako, herri-hizkeran, tipo "ezpain-estua" pertsona urduri-nerbioso bati deitzen baitzaio. Z emozioa, berriz, kasu honetan gozadura somatikoan bilduriko amodiozko atsegina izan daiteke.

(13) "Zatoz nirekin", op. cit. 53. or.

(14) "Lore gainean leku egin zion", op. cit. 55. or. Antzeko bidetatik beste hau ere: "Gauaren hasieran/ lantokietako sirenotsek lehen nagiak ateratzean, /zenbaitek azken egiak ardotara isurtzean, /askok betiko egunaren eztarria /nabari ez zelarik; /gauaren hasieran" ("Gauaren hasieran", 57. or.) Guztiz *irrazionala* da, noski, "azken egiak ardotara isurtzean", "egunaren betikotasunari /azken maratila jasotzean" (azken

Sinbolismo bera ager daiteke paisajismo umotu baten andanan, bainan sinbolismo hori ez da hain gaitza eta surrealista izanen kasu batzutan; horietan bisemiazko kerak, olde "irrazionalak" baino, bortitzagoak izanen dira; beraz, bisemia paisajistikoa lortzeko ez da beharrezkoa bide oso "irrazionaletatik" ibiltzea (adibidez, A. Machadoren kasuan bere mintzo poetikoa ez da oraindik 27ko belaunaldiarena bezain gaitza eta bihurria "irrazionalismo" sinbolikoaren eremuan).

T. Irastortzak "Paisaia" izeneko poeman eskaintzen digun paisajea ez da koadro hain surrealista gune batzutan; adibidez, makalak zerumugan *akuilu* gisa ezartzea, ala ibai-bizkarren ispilua euren *eskuz* hornituta deskribatzea. Poema horretan, ala ere, ihesketa garbiak mintzo surrealistago batera (kasu, "ur almidoztatuak" dionean). Beste paisajismo gozo eta erraz baten adibideak lirateke: "Erreka-ura /hodei beltzen hondakin /nigar-unetan...", "basoak, koloretako bertso eginik", "hosto hori, gorri, eroriak/ zama eta bizi xingurrien harat-hunetean"[15].

Poemaren soinean, bataz beste, irudiak malguki doaz: *Makalak* (A) *akuilu* (B) paisajean, *erreka-ura* (A) *fereka*[16] *losintsu* (B), *basoak* (A) *koloretako bertso* (B).

Ikuspen sinbolikoetan maila irudikatua beste egituretan ere adieraz daiteke. Adibidez, C. Bousoño-k J. R. Jiménez en "El cual lobo hecho oveja, temblorosa y perdida /volvía por el campo, balando, mi amargura" pasarte poetikoa egitura honetan eskaintzen digu: A mailari (*amargura* delakoari) E-ri dagokiona egozten zaio, E hori maila irudikatua delarik, hots, *ardia*; horregatik "*balando*, mi amargura"). Joku guztiok profitaturik, Bousoño-k formula hauek ere proposatzen ditu:

A [= B = C =] Z emozioa kontzientzian

E [= D = C =] Z emozioa kontzientzian

B taldeak (b^1, b^2, b^3, etab.) A-ren (maila errealaren) kualitateak adierazten ditu eta Z adierazpen sinbolizatua eta emozioa da; Z taldeak, berriz, E-ren kualitate ezrealak expresatzen ditu. Z, aldi berean, E-ren (maila ezrealaren) emozioa ere bada. Honela Z A eta E-ren emaitza litzateke. A-tik datorkiguna logikoa eta erreala da, eta E-tik datorkiguna, berriz, ezkonszientea eta "irrazionala"...

Irudiak surrealistagoak diren heinean sentsazio estetikoak ere bizkorragoak, oparoagoak eta "gutxi gorabeheragoak" bilakatuko dira. E maila gorpuzten eta mamitzen doan eran "ikuskizun irudikatuak" bereziagotu eginen dira.

Gure olerkarisarengana itzuliz, eskema berriaren arabera, azter dezagun hurrengo adibidea:

Maitearen belar adatsak
belarri atzean...
Musika kutxaren zisne dantza,
mahai gaineko telazko loreen
naturaltasuna,
maitearen musu eta karizien
osin sakona,

irudi hau, nolabait, euskal etnologian errotutako adibidea dugu) adieraztea. 59. orrian ere honelako irudi ezlogikoak: "Tristura... poztu beharrez *pitzatu*", "egun/belaun ilun/izar biztuak bezten dituena!", "arrabia hodeiz inguraturik /lehertezina!".

(15) "Paisaia, op. cit. 65. or.

(16) Cfr. C. Bousoño, *Superrealismo poético y simbolización*, Ed. Gredos 1978, 49. or.

sarrerako ispiluaren
begiratze gardena,
gardentasun deikorra,
dena
triste,
ezer
poeta hiltzean[17].

Poetisak (*olerkarisak*, nahi baduzu) hemen Dámaso Alonso-ren "Cuando murió el poeta se quedaron tristes todas las cosas pequeñitas que él cuidaba" glosatzen du, ideia nagusia iduri-sorta bereziz bilduz. Irudi hauen irrazionalitate estetikoa (eta onirikotasuna ere) intentsitatez (bortiztasunez) desberdina da. Adibidez, "ispiluaren /begiratze gardena" irudia ez da ileadatsak "belar" gisa belarri ostean ikustea bezain ausarta eta ezohizkoa.

Gorago aipaturiko eskema *berria* jarraituz A mailan "lorearen hostopeko / goiztantak" ipiniko genituzke, eta B-ren eremuan "irristakorrak" epitetoa. Berdin, A mailan "telazko loreak", eta B mailan "naturaltasuna" A-ren kualitate antzo, eta, berarekin "dena triste" delakoa, "triste" hori A-ren B kualitatea ere delarik.

E maila *ezrealean*, berriz, "belar adatsak" ezarriko genituzke, baita "musu eta karizien /osina", "sakona" epitetoa hor E-ren D kualitate ezreala delarik. Era berean, E bezala "ispiluaren begiratze" delakoa, ezen-eta ispiluak propioki ez baitezake begira (hortaz, hemen ere maila ezrealean gabiltza), eta E-ren D kualitate ezreala "gardena" epitetoa da. Bi planu horien emaitza Z emozioa da, hots, A eta E-tik jariatzen dena. Z da irudikatua, eta A eta E-ren ondorioa. Irastortza-ren poema irakurririk, sorgintasunez bilduriko sentsazio ituna edo tristea gelditzen zaigu, poetaren heriotzea dela-eta.

Beraz eskema hau eskaintzen zaigu:

A [= B = C =] Z emozioa kontzientzian

E [= D = C =] Z emozioa kontzientzian

Pasa gaitezen beste pasarte poetiko batera:

Zenbat pexkixa
begi dardartietan
lehen esku hartzeak
epelgintzan,
zenbat argi ziri
zori ezpainetan
ilargia okotz tartean
gal zedin...[18]

Pasarte honetan nahastekaturik irudi somatikoak ("begi dardartietan" "zori ezpainetan") eta kosmikoak ("ilargia okotz artean"). Mundu hau ere aski onirikoa da, irudi surrealista oro den gisa.

Eskema tradizionalean A = B (b^1, b^2), C... gisako emaitzak. Maitasunezko ebokazioak hemen bi planutan saretzen dira, somatismoaren elemendu gehienak irudi "irrazionaletan" endreatuz (*begi/pexkixa, esku/epelgintza, ezpainak/argi-ziria, oko-*

(17) "Komuneko lorearen hostopeko", op. cit. 69. or.

(18) "Zenbat pexkixa", op. cit. 73. or.

tz/hilargia). Beraz, elemendu somatiko orori (eta elemendu horiek zerbait *erreal* dira A gisa hartuta) korrespondentzia E mailan. Mintzo sinbolista eta oniriko honetan klimax garaia edo gailurra, agian, "ilargia okotz tartean /gal zedin" delakoan (adierazpen guztiz irrazionalera iritsiz). Honela A-k (alde somatikoa eta erreala) eskema ohizkoan B elemendu (ezrealak) lituzke:

A *begi* (a^1 dardartiak) = B *pexkixak* (irudi psikologikoa)
A *esku* = B *epelgintza* (irudi existentzial-psikologikoa)
A *ezpainak* = B argi-ziri (irudi kosmikoa)



Eta giltzazko eskema-eredua harturik beste hau:

A [= B = C =] Z emozioa kontzientzian
E [= D = C =] Z emozioa kontzientzian

Azter dezagun hurbiletik beste pasarte labur eta adierazgarri bat:

Irekia zure itzalaren atea,
erraina itzalia
gure egunen haria etenik
bakartatera kateatua
bakartatean![19]

A mailan *atea*, B *irekia*, A-ren kualitate erreal gisa; E mailan (maila ezrealean) *itzala* (itzalak *ez* baitauka ez *aterik* ez leihorik). A mailan, berriro, *errainua* eta *itzalia* B bezala (A-ren kualitate erreal gisa). Hala ere, "erreinua itzalia" elemendu sinbolizatu antzo ere uler daiteke[20], olerkarisa bertan *amodioaren* egiaz (elemendu erreal eliditua denaz) mintzatzen ari baitzaigu. Hirugarren lerroan "gure egunen haria etenik", bertan A (*egun*) = E (*haria*) D *etenik* (azken hau elemendu ezrealaren kualitate gisa). Mintzo hau "irrazionala" da, noski, egunak ez baitu ez *hari* eta ez *lokarri* fisikorik; baina, pasartean elemendu zenbait A gisa interpreta daiteke (hots, *atea, errainua, eguna* "amodioaren" karakterizazio bezala). Eta, azkenik, E (*bakartatea*, egoera existentziala) eta D *kateadura* (E-ren kualitate erreal gisa, bakartatea ez baidaiteke *kate* batez lot.). Z emozioa, berriz, A (B kualitatez) eta E (D kualitatez) mailen ondorio bezala sortzen da. Emozio hori kasu honetan *amodioak* suposatu duen transposizioa edo aldaketa animikoa izan daiteke.

Har dezagun, azkenik, hurrengo kasua:

Iritsiko naiz
orri hauetan neure minak irristatuz
gero,

(19) "Irekia zure itzalaren atea", op. cit. 75. or.

(20) Esan beharrik ez dago analisi honen egitekoan, irudi "irrazionalen" esparru konplexuan dihardugularik, interpretapena, batzutan, anbiguoa dela, aztergai den mundu oniriko eta sinbolizatuaren izaera bereziagatik. Horregatik, interpretazioaren aldetik irudi edo pasarte batek irakurketa *desberdin* zenbait eduki dezake, baina maila *erreal/ezrealak* analisian, gehienetan, atzemangarri gertatzen dira. C. Bousoño-k ere ohar berbera egiten digu gaztelaniazko testu zenbaiten aurrean.

partxisean galduriko
egunak sorbaldan,
ilunabarrean
sartaldeari irekiriko
zauri ateetan zehar[21].

Hau irakurrita V. Aleixandre-ren pasarte poetiko ezagun eta argigarri bat datorkigu gogora testuak duen keru kosmiko-onirikoagatik:

Mientras tus pies remotísimos sienten el beso postrero del poniente,
y tus manos alzadas tocan dulce la luna,
y tu cabellera colgante deja estela en los astros[22]

Hemen, irudi somatikoen bitartez, ikuspegi kosmiko-oniriko bat eskaintzen zaigu, beraz, *pies* eta *poniente*, *manos* eta *luna*, *cabellera* eta *astros* uztartzen ditu, irakurlearengan halako emozio kosmiko bitxia sortuz. Irastortza-ren testua askoz apalagoa da, baina iruditeria antzeko ildoan doa:

egunak/sorbaldan
sartaldea/zauria

Pasartea hurbilagotik ikusirik, planu hauek: A (*iritsiko naiz*, *maitalearen* aipua elidituz), E (*horri hauetan*) D (*minaz irristatuz*), E-ren karakterizazio edo kualitate gisa. Berriro A (*iritsiko naiz*, elliditua) E (*egunak sorbaldan*, maila guztiz ezreala), E (partxisean *galduriko*, E-ren karakterizazio *kualitatibo* antzo), eta azkenik A (*iritsiko naiz*, berriro elidituta) E (*zauri ateetan zehar*) D (sartaldeari *irekiriko*, E-ren azken karakterizazioa eskainitako pasartean). Vicente Aleixandre-k "beso postrero del poniente" dio, eta Irastortza-k "sartaldeari irekiriko /zauri ateetan zehar". Bietan irudiaren ardatzak aski hurbil. Batak (Aleixandre-k) elemendu kosmikoak (*poniente*, *luna*, *astros*) *handitasunezko* Z emozio berezia sortzeko, eta besteak (Irastortza-k) gertakizun *existentzial* bortitz baten inpresioa emateko (ez ahaz "Hostoak" poemaliburuan *udazkena* eta *heriotzea* dabiltzela azpigai, aunitzetan). Beraz:

A [= B = C =] Z emozioa kontzientzian
E [= D = C =] Z emozioa kontzientzian

Bertan Z emozioa interpreta dezakegu *maitalearen* etorrerak sortzen duen amodiozko gertakizun existentzialaren egoera *berezi* bezala.

Emandako testuek guk hainbestetan baietsitakoa konfirmatzen dute, alegia, euskararen eremuan "irrazionalismo" estetikoa indartzen etorri dela Mirande ezkeroztik, baitipat, eta olde hori bortitzagoa dela, dudarik, gabe, 1975 urtea ondoren.

2. Gainezarketak edo superposizioak

Miranderen poesigintza aztertzerakoan gainezarketez jardun ginen, eta besteren artean, *egunezko*, *denborazko*, *egoerazko* eta *metaforazko* gainezarketa-motak aztertu genituen[23].

(21) "Iritsiko naiz", op. cit. 77. or.
(22) V. Aleixandre, "El poeta", *Sombra del paraíso* poema nagusian.
(23) Luis M. Mujika, *Mirande-ren Poesigintza*, II, 66-70. or.

Mintzo poetikoaren kerak konplexu eta gaitzagoak bilakatzen diren eran barne-sareak ere bihurriagoak gertatzen dira, eta barneko saredura horiek (eta irudi pilaketak) arakatzea aztergai suertatzen da. Bousoño-k Aleixandre-ren poesigintzaz aritzean dio: "Esta arborización de que hablo es tan connatural a las modernas figuraciones que no podemos considerarla como elemento barroquizante de ellas, aunque sí como algo complicador de su estructura externa. Diríamos entonces que las figuras de lenguaje aleixandrinas son "naturalmente complejas"; aunque su misma esencia les prohibe la simplicidad".

Beraz, soiltasun-eza da irudi "irrazionalen" egitate bat. Estetika dena konplikatzen eta barnesaretzen etorri da (zama emotibo bortitzagoak lortzeko). Hona V. Aleixandre-ren zati berezi bat:

> Oh, estrellas mías, vino celeste! Dadme toda vuestra hermosura, dadme vuestros bordes lucientes.
> Mis labios saben siempre sorberos, mi garganta se enciende de sapiencia, mis ojos brillan dulces.
> Toda la noche en mí *destellando ilumina* vuestro sueño, oh dormidos, oh muertos, oh acabados[24].

Hemen jalgi den iruditeria maila ezrealean mamitzen da, ezen-eta *izarrak* (A maila erreala) *ardo* gisa (B maila ezreala) aurkezten dira, eta, ezkoherentzia hori onartuta, ondoriozko koeherentzia bat ematen da, alegia, izarrak *isuri* egiten direla (C maila ezrealean) ("Mis labios saben siempre sorberos"). Mirandek ere antzeko zerbait egin zuen "zuen begi-aintziretan /ezinbertzez gainbetheak /hondatzen naiz, ithotzen naiz" zioenean. Bertan *begiak* (A maila) laku edo aintzira antzo interpretatzen ziren, eta, gainezarketa hori eginda gero begiak *urgai* edo *likido* gisa (B maila) hartzera eta beraietan (b^1) *itotzera* zetozen.

Orain igaro gaitezen Irastortza-ren poesiara, berriro, gainezarketa horiek atzemate-ra. Gainezarketaz edo superposizioez mintzatzean ez ahaz emozio poetikoa aztertze-rakoan desplazamenduen edo deslekutzeen fenomenoetaz esandakoak. Emozio berrie-tara iristeko poetak irudi zenbait bere lekutik atera ala albora dezake. Alboratze horiek irudimenaren mundu sorgin edo aztian soilik egin daitezke. Mirandek, adibidez, estankeko igelak *ilargia jaten* ipintzen zituen, hilargiaren islada uretan ezrealitatearekin nahastuz. Hor desplazamendu garbia dago, eta tokizkoa edo gunezkoa gainera, ezen-eta hilargia ez baitago lakura (aintzira) eroria, ortzean baino, bainan hilargiaren ur-islada erorketa fisikoa gisa interpretatzen da Miranderen poesian ("Aintziko ure-rat/ilhargi-laurden bat erori zen.../Igelek jan dute, igeltxo igeldariek"), eta, logikoki (baina aurresuposatzen den *deslogikaren* barnean) igelek estankeko edo lakuko hilargia *jaten* dute.

Gainezarketen arloan ere iruditeriaz esaten genuen gauza bera baieztatu behar dugu, alegia, honetan irrazionalismo bortitza (gutxi gora-behera) 1975 ezkeroztik ematen dela, eta 30eko gure olerkarien belaunaldiak eta gerraoste hurbilekoek (S. Mitxelena, Gaztelu, Zaitegi, Monzon, etab.) sospetxatu ere ez zutena gerora ohizkoa eginen dela, zorionez, gure artean.

a) Gunezko gainezarketak

"Gunezko" (espacio) gainezarketak pasarte poetiko batean *tokiaren* norabidean ematen dira, eta maila desberdinen pilaketa-ondorioak dira. Pilaketa horiek, noski, *gunearen* esangura espresiboan ematen dira.

(24) V. Aleixandre, "Los dormidos", *Sombra del paraíso* poema nagusian.

Hona adibide bat:

Zure gorputzean hustuko dut
gauari osturiko izar katea,
banan banan
kolkoratuko dizkizut
neure usteak, esperantzak...[25]

Kasu honetan "gauaren" norabidean bi kontzeptu dimentsional dabiltz maitea dela-eta, bat maitearen *gorputz* edo *soin* espaziala, eta bestea izarrez beteriko ortzea. A gunea (maitearen soina) B gunez (izarrezko ortzez tartekatua da, bi maila espaziala ezarriz pasarte poetikoan). Irudi horien Z emozioa *sorgintasunezko* sentsazioa da. Beraz, maitearen gune somatikoan (gorputzean) emango den katea *izarrezkoa* izanen da. *Izar-kate* hori, aldi berean, maitasunezko egoera baten usteon eta esperantzazko sinboloa da.

b) Denborazko gainezarketak

Goian *gunearen* eremuan ematen zena orain *denborarenean* eskainiko da, maila desberdinetan kokatuz eta elkar-saretuz. Bertan *ordezkatzaile/ordezkatu* elemenduak atzeman beharko dira, adibidez, *oraina* eta *geroa* nahastekatzen eta gainezartzen direnean, oraina *geroan* ezarriz, ala geroa *orainean* interpretatuz, eta berdin (bere kasuan) *iraganari* edo *joanari* dagokionez.

Bai hatzamar haundiak dituela
zure ausentziak
eta hortz ertz azkarrak!
Bai ahula nire bizkarra,
ttipia gorputza
zure ausentzia gordetzean
goizetan eta
lehenengo gaua jeikitzean
badakit
ez dituzula argi azpiak
behatz puntaz itzaliko[26].

Hemen, lehen esan dugunez, "gune" (hatzamar) eta "egoerazko" elementuak tartekatuta kontsidera daitezke, ezen-eta *ausentziak* "hatzamarrak" dituela esatea ez baita arrazionala edo logikoa.

Bigarren zatian, berriz, "denborazko" aldi desberdinen gainezarketa atzeman daiteke. Hor *argi-izpiak* bi memento dauzka distira zabaltzeko, eta, bestalde, "behatz puntaz" itzaltzeko. Denborazko superposizioa "goizetan eta lehenengo gaua jeikitzean".

Beste kasu batzutan, "oraina" *geroa* gisa interpretatzen da, adibidez, itxaropenaz edo esperantzaz mintzatzen denean (eta hori *denborazko* gainezarketa egitea da, oraindik *heldu ez dena* soilik espero baidaiteke, eta ez, dagoeneko *lorturik* dena).

(25) "Zure gorputzean hustuko dut", op. cit. 19. or.
(26) "Bai hatzamar haundiak dituela", op. cit. 21. or.

c) Egoerazko gainezarketak

Egoera, noski, situazio gisa ulertzen dugu, eta delako egoera fisikoa, psikologikoa, emozionala, sentimenduzkoa, existentziala, etabar izan daiteke. Beraz, egoera errealak (A maila) eta ezrealak (B maila) gainezarketak suposa ditzakete, adibidez, B egiazkotzat (errealtzat) eta A ameskotzat (ezrealtzat) hartuz.

Lehenengo pasarte honetan gainezarketazko interpretapenak egin daitezke:

> Zertarainoko tristura
> azken sokan
> poztu beharrez pitzatu,
> poztu,
> poztu beharrez behartzen gaituna![27]

Hemen tristura (pozaren ordez) *puztu/pitzatu* dela esatea *gainezarketazko* mintzoa erabiltzea da. Bainan superposizio gardenagoak hurrengoan:

> Emaidazu
> zeuretik,
> zeure plateretik
> behar dudan indarra,
> behar duzun negarra
> zure ahuleziatik
> Emaidazu
> zeuretik
> zeure isiltasunez
> ahotsa,
> zure haserrez
> irria,
> zeure amorez
> eman zaitez[28].

Hemen gainezarketa edo superposizio sentimental-existentzialak:

1) natura/ahulezia
2) isiltasuna/ahotsa
3) haserrea/irria

Olerkarisak *egoera* animikoak isladatzen diren karakterizazioen gainezarketaz jokatzen du.

e) Metaforazko gainezarketak

Gainezarketa hauek, logikoki, iruditeriaren eremu zabalean ematen dira. Beraz, Z tipologiazko metaforetan desplazamendu eta gainezarketa aunitz dago. Sinestesien kasuan nabariak dira jauziak zentzu batetik bestera. Hurrengo kasuan *zaborrari* dagokiona "garraxi kutxaz" esaten da, *garraisiak* zabor gisa eramangarri bailiran. Espresaera hau guztiz metaforikoa da.

(27) "Zertarainoko tristura", op. cit. 59. or.
(28) "Emaidazu", op. cit. 93. or.

Hitzak bil itzak
itzalak hitzak
mila dituk...
jaso dizkiate / basura boltsetan...
Kargatu dituk
garraxi kutxak
begi ketsuak
kamioi kaminoetan...[29]

Zabor-boltsetan biltzen diren gauzak *hondakinak* dira (hots, *zakarrak*), ez noski, *garraisiak*. Hor olerkarisak ezarria hau litzateke: A *zaborra* (a^1 *espaloietan*, a^2 *boltsetan*, a^3 *kamioetan*), B *hitza*, C *itzalak*, eta, bestalde, "garraxi kutxak", funtzio espresibo berezia egotziz.

3. A eta B arteko elkar tindaketa

Hirugarren prozedura, noski, lehenengo bien ondorioa da. Beraz, emozioen arloan gaitza gertatzen da muga analitiko berezgarriegia A eta B artean eraikitzea. Iruditeria klasikoan eta "arrazionalean" muga horiek egokiago egin zitezkeen (hots, XVI, XVII, XVIII. mendetako poesian), bainan XIX. mendeko erromantizismoaren sentimendu-oldea ezkeroztiz hesiak apurtu, txikitu egin dira eta iruditeria "irrazionalaren" desmadre aberatsa eta joria etorri da (XX. mendean areagotuko dena).

Beraz, metaforen arloan A maila B mailaz tindatua sentituko da, eta B maila A mailaren kualitatez bestainbeste. Surrealismo gaitza saredura bitxiak eraikitzen ibiliko da mende honen zehar, eta Z mailako emozio-ondorioak bi mailen emaitzez ukituak egonen dira, logikoki. Emaitza onirikoen sareetan horrelako elkar tindaketa aunitz topa daiteke "tu desnudez se ofrece como un río escapando" pasartean A maila (neskatxaren *bilustasuna* edo *desnudez*) *ibai* gisa (*como un río*) ulertzen da, eta, gainera, "escapándose" b^1, eta B-ren kualitateak A-ren mugimendu-sentsazioa busti eta areagotu egiten dute. Honela, pasarte poetiko baten A mailan a^1, a^2, a^3, a^4 sub-sailak badaude bere isladapen kualitatiboa islada daiteke B mailara (b^1, b^2, b^3, b^4 kasuetara), testu poetikoak aski paraleloak baldin badira. Guk Miranderen kasuan "haien beso luze-luzeek /niri eresiz ziostaten /ziraun-poema samin bat" pasartean b^1 zonaldearen gune *desantzezkoan* "Eresi poema ez-beso bezala" interpretatzen genuen, eta b^2 zonaldearen gune *antzekoan* "eresiak *besoak* bezala luzatzean" ikusten[30].

Hau guztia izan da, bada, guk euskal poesia modernoaren irudi-ibilbidea aztertzerakoan atzeman duguna[31]. Gure egitekoa orri hauetan poeta zenbaitek, ohargabeki eta garaiko olde estetikoari jarraituz, eginikoa analizatzea izan da. Oraindik bada autore eta poesi-lan aunitz gure artean aztergai dena. Gure egitekoa, oraingoz, Aresti, Lasa, Lekuona eta Irastortzaren produziora mugatu da prestaturik dugun lan batean. Autore horietan guri interesgarri zaizkigun arloak *soilik* ukitu ditugu, beste

(29) "Mihiz josirik", op. cit. 39-40. or.

(30) Ikus honetaz gure *Miranderen Poesigintza*, II, 95-99. or. Toki horretan b^1 zonaldea *antzeko* bezala, eta b^2 zonaldea *desantzeko* gisa erabiltzen genuen.

(31) Olde irrazionaletik dabil euskal poesian ere J. M. Lekuonaren produzio zenbait, Eizagirre, Zabaleta, B. Atxaga, eta gure produzio poetiko aunitz, batez ere, gure *Hitzak ebakitzean*, *Zortziko Hautsiak Lehenaren ur sakonetan (Egan*, 1981) eta *Aire neurtuak* poesi-liburuetan eman dugun gehiena. Azkenaldean, poesia modernoaz eman den antologia batzutan olde "irrazional" honi ez zaio behar bezalako garrantzirik eman.

ikusmira eta sakonketak ere zilegiak direlarik. Gure literaturaren historia sakontzeko ez dago beste biderik, alegia, sakonketa edo azterketarena baino; ostera, gure artean garaile egon den partzialkeria hazitzen eta garatzen joan daiteke. Guztien onerako euskal literaturak lan monografikoak behar ditu ildo ziurrak egiteko. Gure gaurko eginkizuna euskal edergintzaren bide berriak sakontzea izan da. Helburu hori burutzea osoki lortu ez badugu ere, ahalegindu gara, behinipein.

Obabazkoak. Alegoria topologiko baten irakurketa politikoa

JOSEBA GABILONDO
(UCSD, San Diego, AEB)

0. Prolegomena*

Jesus Maria Lasagabasterrek, beti izan ohi duen zolitasun kritikoaz, euskal narratibaren antologia baten sarreran, euskal narratiba garaikidearen lirikotasuna azpimarkatzen zuen ezaugarri nagusitzat (Lasagabaster 1986)[1]. Lirikotasun horren bidez euskal narratibak gizarte "errealitatea"-rekiko zuen urrunketa ageri zuen. Azkenik, errealismo eraberritu baten beharra adierazten zuen urrunketa horren irtenbidetzat. Beste artikulu batean orobat, Antton Azkargortak Bernardo Atxaga, Joxe Mari Iturralde, Ruper Ordorika eta de la Casa anaien ikuskizunaren, *Henri Bengoa Inventarium*-en, analisia egitean (Azkargorta 1987: 64)[2], kritika hegeliar eta lukácsiarraren ondorio den errealismo ezkertiarraren eredu kritikoaz baliatuz, ikuskizunaren jite modernista salatzen zuen eta, azken finean, modernismoari berezko zaion "errealitatea"-rekiko urrunketa

* Artikulu hau Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Saileko doktoradutzarako dirulaguntza bat jasotzen ari naizelarik idatzi izan da. Eskerrak eman nahi nizkieke ondorengooi: Mikel Agirreazkuenaga, Jessica Rothschild, Jesus Maria Lasagabaster, Iñaki Aldekoa, Marijose Olaziregi, Inaki Camino eta Aizpea Aizpurua.

(1) "Hay una marcada preferencia por los universos interiores o en todo caso por someter al filtro de la conciencia de un yo narrante la experiencia de lo real.

Se diría que hay una especie de terror a lo exterior, a decirlo en su desnuda objetividad, como si el escritor, más allá de lo que a él le pasa, apenas tuviera otra cosa que contar.

Y a fin de cuentas, uno tiene la impresión de que nuestros narradores no nos han contado casi lo que hemos sido, lo que somos y sobre todo lo que nos gustaría ser. El stendlaliano (sic) espejo de la novela vasca apenas ha pasado todavía por el camino de nuestras experiencias y de nuestros sueños". (36, 43. or.).

(2) "Liburu horiek ere [testuan aipatuak], Inventarioak dira (egiturak Egituraren barruan): gizakiaren jakintza eta gizakia bera totalizatzen eta sailkatzen saiatzen diren obrak dira; errealitatea agortu nahian. Maisuak zioenez 'Dena dago liburuetan' (Dena dago Parlamentuan), eta hortik kanpo ezer ere ez.

Horrelako literatura alienagarria da, zeharo. Eta noiz hasten da alienazioa? Bada, argi eta garbi: Ausentearen frogak idazlearen indarrak gainditzen dituenean; Presentzia Errepresentazioan, literatura hutsalean, galtzen denean: Ausentzia onartu eta "subjektoa" hutsunez eta hutsunearen kontrako defentsaz definitzen denean. Orduan eta ordutik aurrera hasten da alienazioa".

eta eskapismoa. Azkargortak leporatutako egozpena, hain zuzen, subjektuaren eta objektuaren ausentzia testuak sortarazten eta zilegiztatzen zuela zen[3].

Artikulu honetan, Bernardo Atxagaren (alias Joseba Irazu) ipuingintza aztertuko dugu eta orain artean inon jaso ez den bere obraren bibliografia bilduma emango amaieran. Azterketa hau exenplutzat hartuz, aurreko bi kritikek adierazitako "errealitatea"-rekiko urrunketa beste termino batzutan birdefinituko dugu: alegoria topologikoa. Urrunketa fenomenua topologikoki eta alegorikoki birdefinitzeak urrunketari berezko zaizkion zenbait ezaugarri erabakior orain arte aztertugabe azaleraziko ditu. Ezaugarri hauen azterketak, aldiz, "urrunketa" euskal narratibak hartu duen aukera politikoa dela azaleraziko du Atxagaren kasuan. Beraz, artikulu honek "urrunketa" euskal narratibaren aukera politiko bat izan dela frogatzea du lehen helburu.

Azkenik, aukera politiko honen gizarte birtestuinguraketak gaur egungo bloke hegemoniko[4] abertzale tradizional barnean eta kanpo (HB-tik PNV-ra arteko blokea) sortzen ari den jarrera politiko ez-abertzalearen (zentzu historikoan) aldarrikatzaile dela frogatzen saiatuko gara. Alegia, aukera honek ideologia abertzaleak orain artean Euskadin baztertu dituen gizarte subjektu ez-abertzaleen aldarrikapena suposatzen duela defendatu nahi dugu[5].

Behean gararazi dugun analisi hau ez da erabatekoa. Irakurketa politiko honez gain, literatur espazioaren tipologia historikoa eskeintzen du eta euskal literatura moderno/postmodernoaren historizazioaren eztabaidarako proposamen teorikoa. Ondorio zehatzak eta azterketa zoliak baino interes eremu eta eztabaida puntu berriak euskal literatur kritikaren eremu hain agor honetan sortaraztea da lan honen xede.

1. Topologia, alegoria, teoria postmodernoak

0. *Topologia.* Teoria kritiko postmodernoak zentzu zabal batean eritzi dakiekenaren ezaugarri berezienetakoa beren erretorika epistemologikoaren izaera topologikoa da[6]. Azken paradigma teoriko modernoen, alegia, marxismoaren, fenomenolo-

(3) Azkargortarena bezalako kritikak objektuaren eta subjektuaren presentzian eta presentzia honen adierazpenaren posibilitatean sinesten du. Jakina, presentziaren adierazpenak (edo errepresentazioak) modernitatea definitu duen errealismoa du iturri epistemologiko. Azkargortak Althusser eta Lefévre aipatzen ditu oinarri teorikotzat. Althusser estrukturalista dela ahantziz, autoreak ez du kontutan hartzen Althusser-ek berak (1969) subjektua ideologiak sortzen duen ekoizpen ideologikoa dela aldarrikatzen duenik. Honetaz gainera Althusser-en ikasle zen Pierre Macherey-k (1966) hasi zuen pentsamenduaz gero, literatur arloan serioenetakoak diren kritiko marxistak, hala nola Fredric Jameson (1981), errealitatea diskurtsiboa dela onartzetik abiatzen dira, diskurtsu hau beti ere ideologiak hierarkikoki eta historikoki egituratzen duela aldarrikaturik. L. Goldman (1964) ere faktu honetatik abiatzen da. Errealismoaren presupostu epistemologikoetatik literatur kritika egitea Lefévre eta Lukács-en garaietara itzultzea da aipatu ekarpen berriak enoratuz. Azken finean hegeliarra izatea da. Ene eritziz Ernesto Laclau-k (1986) eman du ikuspegi post-marxista batetik marxismoaren eraberritze epistemologiko baten kontu erarik interesgarrienean. Bada garaia euskal literaturaren kritika ezkertiar edo marxista egin nahi bada presupostu epistemologiko errealista hegeliar eta lukácsiarrak alde batera uzteko.

(4) Jakina, analisi honek, Euskadira mugatzen denez, ez du arazoaren beste muturra ikutzen: Espainiako bloke hegemonikoaren ideologia zentralistaren jite abertzale (nazionalista) espainiar tradizionala (PSOE-tik PP-ra). Ikus 7. puntua *Marginalia.*

(5) "Bloke hegemoniko" kontzeptua teoria post-marxistatik mailegatzen dut. Ikus Laclau 1986.

(6) Teoria postmodernoa bezala, Nietzscheren, postestrukturalismoaren (Foucault, Derrida, Deleuze, Baudrillard, Lacan), filosofia analitiko wittgensteinarraren eta Heidegger-en fenomenologiaren kritika epistemologikotik abiatzen diren teorien espektro zabala ulertzen dut: dekonstrukzioa (Derrida...), feminismo post-lacaniarra (Armstrong, De Lauretis, Irigaray, Spivak...), kolonialismoaren kritika (Said...), post-marxismoa (Laclau...) eta abar luze bat.

giaren eta psikoanalisiaren "sakontasunezko" eredu epistemologikoak (*models of depth*) ez daude indarrean jadanik. Oinegitura/gainegitura (marxismoa), subkontzientea/kontzientea (psikoanalisia) eta fenomenoa/kontzientzia (fenomenologia) ereduek deskribapen-postulatu bezala errealitatea sakontasunezko bi maila gainezarritan deskribatzea hartu dute. Sakoneko maila beti ere ezkutua da eta azalekoa sortzen du teoria hauen arabera. Berauen helburua sakoneko mailaren egiazko esplikazio unibertsala ematea litzateke, errealitate sakon horren jakile bakar eta unibertsaltzat beren buruak zilegiztatuz[7]. Sakontasunezko eredu epistemologiko moderno hauen aurka, teoria postmodernoek azalerazko eredu epistemologikoetara jo dute. Lyotard-en hitzetan, hiru paradigma arrazional moderno hauek errealitatea kanpotik (gainetik) esplikatu nahi zuten *meta*diskurtsuak baziren, teoria postmodernoek ez dute sakoneko eta azaleko mailarik bereizten errealitatean eta, ondorioz, sakoneko errealitate egiazko bakarra deskribatzeko gauza izatearen legitimazioari uko egin diote, metadiskurtsu izateari utziz. (Cf. Lyotard 1979) Ondorioz, teoria hauek beren buruak ere errealitate bakar batean barneratuta daudela onartzen dute. Ondorioak hiru dira nagusiki: teoriak errealitatearen planu berean kokatzen dira, teoriek ez dute barneratzen dituen errealitatea osotasunean esplikatzen eta, beraz, teoria hauek unibertsaltasunaren zilegiztapenari uko egiten diote. Bestela esateko, teoria postmodernoak lau, partzial eta legitimazio-unibertsalgabe bihurtu dira. Partzialtasunak eta lautasunak teoria postmodernoak azalerazko erretorika hartzera bultzatu ditu, azalerazko eredu epistemologiko bihurturik (*flat models*)[8].

Jakina, aldaketa honen zergatia, hizkuntzaren agerpena da. Teoria postmodernoak Saussure-z gerozko semiotika/semiologiak arrazionalismo modernoari eraginiko kritika epistemologikotik abiatzen dira. Errealitatea beti ere diskurtsu edo testu dela onartzeak arrazionalismoaren legitimazio epistemologikoa desegin du. Ez da "sakoneko errealitaterik" azaleko errealitate diskurtsibotik harantzago: ez sakoneko errealitate objektibo materialistarik (Marx), ez sakoneko errealitate subjektiborik (Husserl, Heidegger), ez eta sakoneko errealitate irrazionalik ere (Freud). Lévi-Strauss-ez gerozko entseiu teoriko gehienek errealitatea diskurtsu edo testu moduan deskribatzea hartu dute erabaki epistemologiko. Onarpen honen ondorenik zuzenena, teoria hauen erretorika topologikoa izan da. Errealitatea diskurtsu lau bihurtu da, eta diskurtsu hau deskribatzeko tresneria erretorikoa topologikoa izan da. Teoria postmodernoek errealitatea leku edo planu bezala deskribatzera jo dute.

Lacan-ek "erreferentea" deuseztatu duenetik, psikoanalisiak desira diskurtsu moduan deskribatzen du. Lacan-en (1966) psikoanalisiaren bi kontzeptu giltzarri, desplazamendua eta kondentsazioa, topologikoak dira. Foucault-ek, *Archéologie du savoir*-ez gero seguruenik, botere arazoak diskurtsiboki ulertu nahi izan ditu. Bere *Histoire de la sexualité* adibidetzat hartuz, sexualitate modernoa diskurtsu sexualaren banaketa topologiko bezala deskribatzen duela ikusta dezakegu. Gizonezko heterosexualaren diskurtsua erdigunetzat eta emakume, haur eta homosexualen diskurtsuak bazterrekotzat (*marginel*) eratu dituen diskurtsu topologikoa da sexualitate modernoaren instituzioa Foucault-entzat. Orobat Deleuze-k, bere *Capitalisme et squizophrénie*-n, kapitalismoa lurraldez etengabe hedatzen den makina dela aldarrikatzen du. Halaber, Laclau-k aldarrikatzen duen postmarxismoan, gizartea ideologia bati esker kondentsatzen diren interesen erdigune diskurtsiboan eratzen den hegemonia diskurtsibo bezala deskribatzen da (Laclau 1986). Derrida-ren (1967) dekonstrukzio-

(7) Jakina liguistika sortzaile ortodoxoaren eredu epistemologikoa (azaleko egitura, sakoneko egitura) ere eredu modernoan oinarriturik dago. Alegia, arrazionala eta zientifikoa izan nahi du.

(8) "Flat models", "models of depth" kontzeptuak AEB-etako teoria kritikotik mailegatuak dira.

an mendebaldeko filosofia —metafisika— hizketa eta idazketaren hierarki desplazamendu bezala azaldu nahi da, desplazamendu hau beti ere diskurtsiboa izanik. Adorno-ren azken lanek (1973) ere, konstelazioaren metafora espaziala iradokitzen dute.

1. *Alegoria.* Jakina, teoria postmodernoak eta errealitatea azalera diskurtsibo berean dautzan planuak badira (hizkuntza bereko diskurtsuak, ez metadiskurtsuak) erlazio epistemologiko hau ezin da sakontasunezko eredu modernoan bezala deskribatu: errealitate ezkutu eta azken batek eta berari buruzko egiazko diskurtsuak eratzen duten erlazioa. Diskurtsuek distantzia kritikoa galdu dute, ezin dira egia izan eta, beraz, alegoria bihurtzen dira. Diskurtsu kritikoak, errealitate diskurtsiboaren zati baten itzulpena, traslazioa eta berregituraketa beste diskurtsu batean baino ez dira. Diskurtsu kritikoak alegoriazko erlazioa dute errealitatearekin: diskurtsu beraren (errealitatea) berregituraketa kritikoak baino ez dira. Azken finean azalerazko ulerkera epistemologiko topologikoak diskurtsu guztiak alegoriko bihurtzen ditu. Alegorikotasunak, azkenik, diskurtsuen indar politikoa birpentsatzera bortxatu du. Egun diskurtsu kritikoek, egiazkoak edo salbaziozkoak baino, estrategikoak, partzialak eta eraginkorrak izatea dute xede.

2. *Literatura, postmodernitatea.* Eta hain zuzen literatura modernoak ere abangoardia historikoetan ezagutzen duen amaieraz gero, errealitatetik kanpoko fikzionaltasunaren espazio autonomoa galtzen du eta alegorikoki jokatzen. (Cf. Bürger 1987)[9]. Beste hitz batzutan esanda, literatura ere errealitatearen diskurtsu orokorrean barneratzen da. Nolabait, topologikotasuna eta alegoria izatea batera datoz literatura postmodernoetan, ez bakarrik teoria kritikoan. Dena den, literaturaz zabalago arituko garenez, ez gara ideia honen ondorioetan hedatuko. Nolabait, topologia eta alegoria kontzeptuak XX. mendeko eraldapen epistemologikoetan errotuta daudela adierazi nahi izan dugu. Bertatik euskal literaturaren ikuspegi berri bat deseina dezakegu.

2. De vasconum topologica

0. Euskal literaturaren azterketa topologiko batek, ondorio berezia emango liguke: euskal literatura modernoaren amaieraren deskribapena. Deskribapen honetarako, J. A. Greimas-ek ematen duen espazio narratiboaren deskribapenaz (Greimas 1979) baliatuko gara, literatura modernoak espazio literarioa nola banatu duen ikusi asmoz. Bertatik euskal literaturaren azterketa topologiko bat entseiatuko dugu. Gure tesia zera da, literatura modernoaren amaiak espazioa beti ere protokolo berei atxekirik adierazi duela eta, beraz, espazio protokolo horien deskribapenak amaiera hori zehaztu eta ulertzen lagunduko digula.

1. Greimas-ek espazio narratiboa bitan banatzen du: topikoa eta heterotopikoa. Espazio topikoa, aldiz, beste bitan: paratopikoa eta utopikoa. Espazio topikoa ekintza gertatzen den lekuak osatzen du, leku hau inguratzen duen espazio ez-ekintzazkoak, ostera, espazio heterotopikoa. Esan bezala, narrazioaren ekintza gertatzen den espazio topikoa bi azpi-espaziotan banatzen da. Heroiak bere hezkuntza, jakintza eta erabakiak (konpetentzia) hartzen dituen espazioari paratopikoa deritzo Greimas-ek. Espazio paratopikotik abiatuta, heroiak egiten dituen ekintza, froga eta borroken (performantzea) espazioari utopikoa deritzo. Frogak zuzen gaindituz gero, heroia espazio paratopikora itzultzen da eta espazio utopikoan lortutako jakintza edo aberastasunez espazio paratopikoa berrindartzen edo konpontzen du. Adibide arrunt bat hartzeaga-

(9) Bürger-ek Walter Benjaminek trajedia alemaniar barrokoaz egindako azterketaren kontzeptu giltzarria, alegoria, bereganatzen du abangoardia deskribatzeko.

tik, Marierrauskinen etxeak eta dantzara doan jauregiak, bi lekuek, espazio topikoa osatzen dute. Etxea eta jauregia inguratzen dituen erreinua espazio heterotopikoa litzateke. Marierrauskinek etxean jasaten dituenez dantzara joateko eraldaketak (jantzia, beirazko zapatak, karrosa, ederketa...), etxea espazio paratopikoa da. Printzearekin dantzan egin eta hura maitemintzeko ekintzak jauregian gertatzen direnez, jauregia espazio utopikoa da. Eskematikoki emanez,



Geure tesiaren arabera, literatura modernoaren amaia hiru espazioen (paratopikoa, utopikoa eta heteropikoa) mugen banaketaren deuseztapenak markatzen du, atopia (espazio-eza) orokorrean amaituz. Beti ere, heroiak ez ditu espazio utopikoko frogak gainditzen eta hutsegite honek hiru espazioen banaketaren zentzua deuseztatzen du, atopia sortuz. Hain zuzen, atopikotasunak ondarrik, literatur modernoaren ezintasuna eta isiltasuna dakar azken ondoriotzat, idazketa bera bihurturik azken espazio atopiko honen okupatzaile bakar. Baudelaire eta Rimbaud-gandik Joyce eta Beckett arteko literatura, amaierako atopia honek bereizten duela defendatuko dugu. Aurrerago berriro puntu honetara itzuliko garenez, oraingoz euskal adibide batez baliatuko gara.

2. Seguru aski Saizarbitoriak emango liguke sintomatikoki euskal literatura modernoaren amaieraren adibiderik garbiena. Bere bigarren elaberrian, *100 metro*-n, oraindik heroiak hiru espazioak ondo bereiz ditzake: espazio paratopikoa, utopikoa eta heterotopikoa. Hiru espazio hauek elaberriaren maila guztietan ikusta daitezke. Hiru espazioek banaketa geografiko eta ideologiko zehatza dute: Euskalerria, Espainia eta Europa, hurrenez hurren. Linguistikoki testua hiru espaziotan banatzen da: euskara, gaztelera eta hizkuntza atzerritarrak. Hiru espazioek gizarte distribuzio berezitua dute: familia, herria, atzerria. Banaketa psikoanalitiko egokia zera litzeteke: ama, amorantea, aita. Denbora banaketa ere hiru espaziootan eman daiteke: lehena, oraina eta geroa. Elaberriaren narrazio-pertsonak ere hiru espaziotan hedatzen dira: ni, hi/zu, hura. Eta azkenik, elaberrian kondatzen den persekuzioa ere hiru espaziotan banatzen da: plaza, plaza inguratzen duten arkupeak eta kaleak, Donostia. Planu hirukoitz guzti hauek topologikoki batzen dira testuaren azal bakarrean. Grafikoki honela emango genuke:



politika e.	euskalerria	espainia	europa
hizkuntza e.	euskara	gaztelera	hizkuntza atzer.
gizarte e.	familia	herria	atzerria
famili e.	ama	amorantea	aita
denbora e.	lehena	oraina	geroa
pertsona e.	ni	hi/zu	hura
narrazio e.	plaza	arkupeak	kalea

Hala, Saizarbitoriaren *100 metro*-ko heroiak espazio paratopikotik espazio utopikora maila edo planu guztietan dagien inkurtsioa da. Inkurtsio honen emaitza heroiaren hondaketa da. Heroiak ez du espazio utopikoaren froga gainditzen eta, beraz, inkurtsioak espazio paratopikoa berrindartu beharrean, eremu egituraketa guztia desegiten du. Heroiak norabide topologikoa galtzen du, elaberriaren azken kapituluan, atopian amaituz. Norako topologikoa galtzea, topologiak barneratzen dituen maila guztietan irakur daiteke. Funtsean hiru espazioen banaketaren norakoa galtzen du heroiak; eremu paratopikoak bere paratopikotasuna galtzen du, eta eremu utopikoak izaera atzerritarra galtzen du, espazio berri definigaitz beraren parte izateko. Ondorioa azken kapituluetako atopia da.

Topologia honek barneratzen dituen maila guztietatik, hemen politikoa aztertzen ari garenez, *100 metro* euskal eta espainiar abertzaletasunek sortu duten ideologi eremu banaketaren amaiera bezala ikusta dezakegu. Heroia ETA-ko partaide zela jakiten dugu elaberrian. Espazio banaketara itzuliz zera esan dezakegu, Euskadi eritzi dakiokeen ideologiazko gizarte paratopikoa defendatzearren, Espainiak suposatzen duen eremu utopikoan barneratzen dela heroia, borroka harmatuaren bidez, froga bat gainditzera. Eremu utopikoan poliziak heroia persekutatzearen faktuak osatzen du heroiaren froga. Narrazioa eta froga aurrera doazen neurrian irakurleak *100 metro*-ren heroiak eremu banaketa ideologiko horren zentzuan sinesteari uzten diola jakiten du. Heriotzarantz hurbiltzen den neurrian, bere zentzugabetasuna ulertzen du heroiak eta beronen hondamenarekin batera elaberriak zentzugabetasun horren testigantza ematen digu. Nolabait *100 metro*-k euskal eta espainiar abertzaletasunek suposatzen duten ideologi eremu banaketak heroiagan jasaten duen krisiaren testigantza ematen digu. Azken finean, heroiak ideologi eremu paratopikoa (Euskadi) harmaz defendatzearen zentzugabetasuna ulertzen du bere heriotzan. Zerbait izatekotan, *100 metro* elaberri anti-biolentoa eta biolentzia hau zilegizta dezakeen ezein abertzaletasunen aurkakoa da bere maila politikoan. *100 metro*-ren emaitza atopia ideologikoa da elaberriaren maila politikoan. Elaberria oinarritzen zen eremu ideologikoa heroiaren hondamenak desegiten du.

3. Saizarbitoriaren azken elaberria, eta antza denbora luzerako azkena, *Ene jesus, nouveau roman* itxurakoa eta beckettiarra dela esatea topiko zaharra da. Alabaina, erreferentzia horrek berriro ere zein topologia moetatan gauden aztertzen lagunduko digu. Eremu beckett/robbe-grilletiar gehienetan bezala, testu topologia elaberriko subjektuaren espazio mental edo psikologikoan oinarritzen da, beti ere eskizofreniaren mugetan. Hala, *Ene Jesus*-en ere *nouveau roman*-en espazio bera ikusta dezakegu, hots, gizarte espaziorik ez duen testu espazio bakarra. Alegia, gizarte modernoaren eremu tradizionala, *100 metro*-koa bezalakoa, abandonatzen duen heroiak —espazio modernoaren zentzua galtzen duen heroiak— bere buru barnearen espazioan topatzen du abaro. Eremu hau ez dago hiru zatitan (paratopia, utopia, heterotopia) banatzerik. Ez da eremu finkatu eta iraunkorrik; dena aldakor suertatzen da nobelaren orrialde batetik bestera. Hain zuzen, espazio honen ezaugarri bereziena, gizarte/kultura forma orotik kanpora erotasunerantz abiatzen dela da. Atopia honek zentzugabetasuna dakar.

4. Esan bezala, erotasunaren mugan definitzen den eremu testu atopiko hau, literatura modernoaren amaieraren zeinu erabakior da mendebaldeko literatura eta arte moderno guztietan. Estrukturalismoak eta dekonstrukzioaren azken bilakaera idorrak, adibidez, loriatutako Hölderlin, Van Gogh, Mallarmé, Artaud, Beckett zirkulua arte modernoaren krisi orokorraren zeinu da. Abangoardia historikoak, Frantzia, Alemania eta Italian azaldutako artearen egoeraren azken ondorio dira.

Euskalerrian, Saizarbitoriaren elaberrigintzak norako bera azaltzen badu ere, beronen testuinguru historikoa desberdina da. Saizarbitoriak elaberri modernoaren krisiaren egitura narratiboak bereganatu baditu ere, bereganaketa hau Euskalerriko testuinguruan izan da. Beraz, *100 metro*-k ez du mendebaldeko elaberri modernoaren krisia adierazten, krisi hori euskal testuinguruan berrezarri eta berrinterpretatzen baizik. Testuinguruketa berri honen argitan, *100 metro*-tik *Ene Jesus*-erantzko bilakaerak, bere maila politikoan, euskal gizarte abertzale modernoaren krisia adierazten du, euskal gizartearen historiak iritsi duen testuinguru berezian: euskal eta espainiar abertzaletasunek osatzen duten gizarte ideologi eremu banaketaren krisia. *Ene Jesus* krisi horrekiko Saizarbitoriak eman duen erantzuna da: erotasuna eta atopia. Alegia, gizartetik at gizabanakoaren barne eremu psikologikorantzko ihesa. Gizarte euskaldunetik ihesa. Ihes atopikoa dugu hau, espaziogabea, gizartetik kanpora, erotasunera[10].

5. Literatura modernoaren amaiera osoan bezala, atopia honen azken emaitza zera da: lengoaiak berak hartzen du testuaren espazio guztia eta ezer esan ezin dezakeen narratzailearen diskurtsu etengabeak betetzen du elaberriaren testua. Atopia testual honek sakontasun narratibo oro kentzen dio elaberriari: norbaitek norbaiti zerbaitez kontatzen dioen zera izan beharrean, ez igorlerik, ez jasotzailerik ezta erreferenterik ez duen testu buruhaskia bihurtzen da elaberria. Efektu hau, lehengo puntuan arrazionalismoan sakontasunezko eredu epistemologikoekin gertatutakoaren parekide da. Literatura modernoa bere amaieran sakontasunik gabeko testu lau bihurtzen da. (Cf., adibidez, Ricardou 1973).

3. Topologica atxagensis

0. Atxagaren literatur ekoizpena halaber topologikoki banatuz gero, emaitza kritiko esanguratsuak aurkituko ditugu. Geure tesia zera da: bere literatur ekoizpena Saizarbitoriarenean aztertu dugun literatura modernoaren krisiaren barnean deskriba badaiteke ere, atopiarantzko literatura bezala, bere azken ekoizpenean literatura postmoderno baten hastapenak ikusta ditzakegula eta, hain zuzen, literatura honek atopia modernotik atera eta beste topologia moeta bat (alegorikoa) azalerazten duela, sakontasunezko eredu epistemologiko modernoetatik at, alegia. Honetarako lehenik Atxagaren ekoizpen literarioaren sailkapen historikoa egingo dugu.

Bere ekoizpena hiru garai edo sailetan bana daiteke: 1- *Ziutateaz*, 2- *Etiopia*, 3- *Etiopia*-z gerozko ipuingintza, *Obakoak*. Lehenik banaketa hau generu banaketa bati jarraikitzen zaio. *Ziutateaz* narrazio luze bezala kontsidera daiteke, *Etiopia* poesia bezala eta gerozko ipuingintza, *Obabakoak* hain zuzen, ipuin generuaren barne. Topologiari dagokionez, hiru produkzioen egituraketa topologikoa da. *Ziutateaz* hiri imaginario baterantzko bidaia da: Ikaria. *Etiopia* Etiopiarantz Piolet poetak egiten duen bidaiaren kontakizun poetikoa da. Gerozko ipuingintzak, aldiz, *Obabakoak*, egileak eragindako birmoldaketa baten ondorioz, bidai itxura hartu du eta, beraz, itxuraketa topologiko bat hartu, hain zuzen Obaba herrirantz egileak dagien bidaia. Atxagak 1978an idatzi zuen lehenengoetako ipuinetatik hasita azken garaian egin dituenetaraino, denak liburu bakar batean bateratu ditu 1988an (*Obakoak*). Liburuan eragindako bateraketa honen ondorioz, lehenago isolaturik eta barreiaturik

(10) Euskal literatura modernoaren analisi topologiko hau heda baledi emaitza interesgarriak eman litzake. Gogora datozkidan lehen bi egileak Txillardegi (eta batez ere *Haizeaz Bestalde*-rantzko bilakaeraren prozesua) eta Sarrionaindia *(Izuen gordelekuetan barrena)* dira. Arestik berak beste ikuspegi bat hartuko luke *Maldan behera*-tik hasita.

egileak argitaratu zituen ipuinek orain bilduma honetan osotasuna hartu dute bidaia tropo erretorikoaren eskutik. Ipuin guztiek egilearen ibilaldiaren aldi desberdinak adierazten dituzte.

1. Saizarbitoriarenean bezala, hiru bidaiok atopian amaitzen dira. Alabaina, ikus dezagun polikiago zertan datzan sail bakoitzaren topologi egituraketa atopikoa.

Ziutateaz. Lan hau literatur eredu kafkiarrari jarraikiz egituratutako idazketa eskizofrenikoa da. *Ziutateaz*-ek, lehenago azaldutako Saizarbitoriaren *Ene Jesus*-en idazkera bera erakusten du. Bada bi idazkeren artean diferentzia handirik, baina funtsean biak egituratzen dira topologia mental atopiko gisa. Bi elaberrietan ez dago gizarte eremurik. Eremua narratzaile eskizofrenikoaren arabera era ilogikoan ametsen ekonomiari jarraikiz egituratzen da. Adierazgarria da zentzu honetan, idazlea bere gelan mundutik isolatzearen ekintzaz hasten dela *Ziutateaz*.

Ene ustez, garaian idatzi zen Jon Larizen (gaur egun Mario Onaindia bezala ezagutuagoa) *Elurtzan datzaten (sic) zuhaitz enborrak* (1973) eta Patri Urkizuren *Sekulorun sekulotan*-ekin (1975) batera, *Ziutateaz* (1976) eta *Ene Jesus*-ek (1976) euskal literatura modernoaren amaia osatzen dute. Lau testuok lehen aipatu atopia testuala azpimarkatzen dute. Bidenabar, frankismo garaiaren amaieran idatziak dira guztiak eta, egia esan, idazlanon idazkera eskizofreniko kafkiarrak eta egoera politiko berezi hark ere lotura berezia hartu zuten Euskadin literatura modernoaren amaia idaztean.

2. *Etiopia*. Tituluak berak adierazten duenez, autoreak garaian hain gustoko zuen dada klabean utopiaz dihardu, eremu utopiko (etiopiko) batez. Hau da, *Etiopia* elaborazio topologikoa da. Poesia modernoaren bideari jarraiki zitzaion garai honetan autorea. Nik-neuk oraindik euskal poesiaren lorpenik garaienetako bat deritzodan liburu honetan (*malgré son gratuit avant-gardisme*), Atxagak bide berria entseitzen du, zeharo paralogikoa.

Baserritarra den mutiko poeta, Piolet, ziutatera jeisten da (klabe errealistan, Bilbora) eta poesia modernoaren bideari jarraikiz, Rimbaud-en (le poéte moderne par excellence, gogoratu *Etiopia*-ko poema "Lizardi, Rimbaud etorri duk hitaz galdezka...") bideari ekiten dio Etiopiarantz haren pausoen atzetik. Piolet poeta kaxkar bezain maitagarri horrek, bere espazio paratopikoa agurtzen du, Euskadi baserritarregi bat abandonatzen du zeharo ok eginda, eta poeta modernoen bideari jarraikitzen zaio eremu utopikorantz. Bide hau, estilo modernista zuhurrenari jarraikiz, bidai metaliterarioa da era berean (Lizardi, Lauaxeta, Rimbaud, Pound, Genet, Rilke eta beste askoren aipuz eta kopiaz eratzen da liburua)[11].

Liburuko azken poema, eremu utopikotik (Etiopia) eremu paratopikorantzko itzulera da. Saizarbitoriarenean bezala, itzulerako bidai honek eremu utopikoan heroiak jasandako hondamena aldarrikatzen du. Ironia laudagarriz, azken kontakizunean poeta bere emaztearen maitaleak hilerazten duela kontatzen digu autoreak. Hilketa honekin batera, poesi idazlanak berak bere burua deuseztatzen du, zeren azken oinoharrak dioen bezala "Nork soporta dezake poeta afizionatu bat egun bakar batez ere?". Saizarbitoriarenean bezala, eremu utopikoan egindako bidaiaren hondamenak eremu egitura osoa deuseztatzen du. Berriro ere Atxagak euskal literaturan barneratzen du literatura modernoaren topikorik garrantzitsuena: azken hitzaren bilaketa. Azken hitzaren bilaketaren topiko modernoak poesiarik idatzi ezin daitekeen

(11) Nik-neuk Hölderlin eta Mallarmé botatzen ditut faltan.

baieztapenaz hersten du *Etiopia* poema liburua[12]. Eta bertatik *Etiopia*-ren izaera metaliterarioa. *Etiopia* ere literatura modernoaren testuez hedatzen den eremu testual atopikoa bihurtzen da, zeinetan poesiarik idatzi ezin daitekeen baieztapenak hersten duen testuaren eremu atopikoa.

3. *Obakoak*. Atxagak 1978tik 1988ra arte literaturaren sailean ez du ipuinik baino idatzi. Ipuin gehienek, ia denek, elementu bateratzaile bera dute: denak toki berean kokatuta daude, Obaba deritzon herri tipian. Beraz *Etiopia*-z gerozko ipuingintza osoak berriro ere egituraketa topologiko bati erantzuten dio, Obaba herria. Jakina, *Etiopia* zen eremu utopikoaren hondamenak egilea berriro eremu paratopikora bultzatu du: guk, baserritar guztiok osatzen dugun herrixka hau, Euskadi-Obaba. Aurreko bi eremuak nolabait hiritarrak (*Ziutateaz*) edo kosmopolitak (*Etiopia*) baziren, hirugarren espazio hau, aitzitik, ez da urbanoa, baserritarra edo errurala baizik. Nolabait, ezaugarri honek hirugarren saila beste bietatik bereizten du.

Alabaina, eremu honek besteek ez duten konplexutasuna azaltzen du. Izan ere 1978tik aurrera idatzi zuen lehen ipuina (*Francisco Javier*) ez zegoen Obaban kokatua, eta *Obabakoak* liburua 1988an argitaratu zenean bakarrik barneratu zen Obabako topologian (*Jose Francisco* bezala). *Francisco Javier*-ez geroko beste ipuin gehienak Obaban kokatu ditu egileak. Alabaina, ipuin hauek bakarka argiratu zirenean, ez zioten orain arte azaldu dugun eremu atopiko modernoaren ereduari erantzuten. Beste eremu topologiko erabat desberdin bati zetxekien. 1988-an *Obabakoak* argitaratutakoan, ipuin ez a-topiko hauek testu orokor honetan barneratu ziren. Eta, hain zuzen, *Obabakoak* lanak berriro ere eremu modernoaren egituraketa atopikoa hartzen du. Alabaina, lehen ipuin goiztiar ez-atopiko hauei sail berezia, eremu atopikotik kanpo, eskeiniko diegu.

Lan honetan ipuin hauez arduratuko gara, eta bereziki lehen biez: *Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena* eta *Jose Francisco: Obabako erretoretxean azaldutako bigarren aitortza* (hemendik aurrera *Camilo Lizardi* eta *Jose Francisco*). Geure ustetan, ipuin hauek ez dute eremu atopiko modernoa eredu topologikotzat, eremu topologiko postmoderno bat baizik. *Obabakoak*-en barneratu ez zen beste ipuin luze bat ere, *Bi anai* (sic, 1988), topologia ez atopiko honi datxekiola deritzogu.

Obabakoak-eko lehen bi ipuinek eta *Bi anaik* osatzen duten eremu topologiko ez-moderno edo post-moderno hori izango da hurrengo azterketaren gai. Geure eritziz hiru ipuinon azterketak *Obabakoak*-en bi topologia gainezartzen direla azaleraziko du: atopikoa modernitateari dagokiona, eta alegorikoa postmodernitateari dagokiona.

4. De rebus Obabae (Obabazkoak)

0. Beraz, lan hau Atxagaren hirugarren ekoizpen sail bezala definitu dugun horretan finkatuko da, bertan lehen bi ipuinak eta *Bi anai* aztertuz. Lehen-lehenik sail hau osatzen duen eremuaren sorreraz arduratuko gara, ondoren eremu horren egituraketa topologikoa hiru ipuinetan aztertzeko.

1. *Obaba* hitza bera bizkaierazko lo kanta batetik mailegatua da. Lo kanta honen zati bat Atxagaren *Etiopia* poesi idazlanean aurkitzen da. Etiopiara iristeko poetak bederatzi zirkulu konzentriko zeharkatzen ditu desertuan. Zirkulu bakoitzaren zeharkapena berezita kontatzen da liburuan. Jakina, zirkuluetan zehar egiten den bidaia iniziatikoa

(12) Atxagak kitaezinezko zorra dioen Borges da seguruenik adibiderik onena. Ikus *El espejo y la máscara* bezalako ipuinak.

da. *Obaba* hitza hirugarren zirkuluaren kontakizunean topatzen dugu, hain zuzen zirkulu bakoitzaren kontakizunean sarrera gisa poetak ezartzen dituen aipamenetan. Hirugarren zirkuluko kontakizunaren sarrera-aipua lo kanta bizkaitarra da: "obabatxue obabatxue / obabatxue doian orduen / zaldi urdinen gainean / beste hainbeste mile gehiago / joango dire atzean / (Bizkaiko lo-kanta)" (51. or.).

Aipu hau geroko autorearen ipuingintza oinarritzen den herriaren lekuizena nola bihurtu den aztertzeko, *Etiopia*-n bederatzi zirkuluen kontakizunek osatzen duten egitura ulertu behar dugu lehenik. Lehen zirkulua Etiopia inguratzen duten bederatzi zirkuluzko laberinto iniziatiko metafisikoaren sarrera da: "hi hintzena... galdu da, galdu haiz... laberintoaren harri txintxarretan / zauritzen hire oin birjinak". Ondorengo zirkulu bakoitza, irtenbiderik gabeko ihes entseiu bat da laberintoan. Entseiuek hondatu ahala, poeta laberintoan barneratzenago da eta Etiopiara iristen, laberintoaren erdira. Halatan, hirugarren zirkulua ihes entseiu bat da, halaber, eta hain zuzen haurtzarorantz poetak egiten duen ihes entseiua. Hirugarren zirkulua osatzen duten kontakizuna eta poema bikoitzak adierazten duten moduan, haurtzarorantzko ihesa ihes alperrikakoa da. Ispiluaren eredu den narzisoren sinboloa era desberdinetan azalduz, poetak haurtzaroa heriotza narzisista dela iradokitzen du.

2. Sarrerako aipua bera aztertuz gero, eta Durand-en arketipologiaz (Durand 1969) baliatuz, zaldi urdinaren sinboloa heriotzazko sinbolo dela ikasten dugu kultura askotan. Azken finean, "Obabatxuek" egiten duen bidaia zaldi urdinaren gainean, heriotzarantzko bidaia da *Etiopia* idazlanean. Sarrera aipu honek azkenean haurtzarorako ihesaren ezintasunaren premonizio izan nahi du.

Obabaren sorrera jakinda, orain hirugarren sailean ezagutu duen artikulazio topologikoa azter dezakegu.

4.0. Topologia

0. Aipatu hiru ipuinok orain arte aztertu ez dugun topologia bikoitz berrian oinarritzen dira: autorearen *Hemen*-a eta narratzailearen *Hor*-a. Alegia, autoreak zehazten ez duen Hemen batetik Hor, Obaba deritzon beste leku horretan, gertatzen dena kontatzen digu. Beti ere egilearen eta narrazioaren artean desberdinketa topologiko garbi bat ematen zaigu. Egilearen Hemen-a ez da inoiz zehazten, baina irakurlea (edo "irakurle inplizitoa" zehazkiago, cf. Jacca 1985) topos horretan bertan dagoela inplizitoki ematen da. Autoreak eta irakurleak konpartitzen duten Hemen honetatik, narrazioak beste topos batera eramaten gaitu, trasladatzen. Beste topos hori, Hor hori, Obaba herria da. Beti ere narrazioaren ekintza Obaba herria topos-ean gertatzen da. Ondorioa beraz zera da, narrazioa traslazio topologiko batean oinarritzen dela, geu (egilea eta irakurlea) kokatzen garen Hemen honetatik, ekintza gertatzen den (narratzaileak kontatzen digun) Obaba topos horretara. *Traslazio* hitza giltzarri suertatzen da deskribapen honetan, topologia honek hartzen duen konplexutasuna azter dezagunean azalduko den bezala. Orain arte esandakoak, lehen definitu dugun topologiatik (paratopia, utopia, heterotopia > atopia) urruntzen gaitu. Ipuin hauetan ez da heroi baten eremu batetik besterako bidaiaren hondamena kontatzen, irakurlea bera eremu batetik bestera trasladatzen da Obaba topos finkoan zer gertatzen den kontatzeko.

Diskurtsu eta narrazio mailak bereizten baditugu narratologiaren tradizio enborrean egin den bezala, bereizketa honek topologi traslazioa (Hemen > Hor) ulertzen lagunduko digu. *Diskurtsua* (liburua osatzen duen literatur testua) egilea eta irakurlearen artean zubi egiten duen testua da. Aitzitik, *narrazioa* egileak narratzaile baten bidez diskurtsu barruan hedatzen duen ekintza eta pertsonaiz ehundako egitura logikoa da.

Narratzailea beti ere irakurlea ez den eta diskurtsu barnean kokatzen den beste instantzia subjektibo bati zuzentzen zaio —narratarioari (Tacca, op. cit.). Irakurleak, narratzaileak kontatzen duena jakiteko, narratzailea zuzentzen zaion pertsonai edo instantzia narratiboaren lekura trasladatu behar du, diskurtsu barnean dagoen narratarioaren lekura, hain zuzen. Bi mailok (diskurtsua, narrazioa) hala bereizirik zera baiezta genezake, diskurtsua egileak eta irakurleak konpartitzen duten testuak egituratutako Hemen hori dela. Diskurtsuak ahalbidetzen du egileak eta irakurleak konpartitzen duten Hemen-a. Aitzitik, narrazioa Obaba toposa egituratzen duen Hor hori da. Narrazioa (narratzailea eta narratarioa, pertsonaiak eta ekintza) Obaban lekutzen den eta, beraz, narrazioak egituratzen duen, toposa da.

Diskurtsutik narraziora testuan gertatzen den traslazio topologikoa oso mekanismo sofistikatu eta zolia da Atxagaren testuetan. Beti ere mediazio edo traslaziozko tartekaritza oso landuz egiten da. Eta, hain zuzen, ene aburuz tartekaritza honetan datza ipuinon literatur lorpenik onena. Geroago azalduko dugunez, traslazio honen bi funtzioak, egiatasuna eta alegoriazko adierazpena dira. Funtzio hauek ulertzeko, traslazioa aipatu hiru testuotan banan-banan aztertuko dugu lehenik.

1. *Camilo Lizardi.* Ipuin honetan, egilea testu traskribatzaile bat da[13]; testu jasotzailearen literatur artifizioaz mozorrotzen da. Irakurleak autoreak jasotako testu horiek irakurtzen ditu. Egilea, Bernardo Atxaga, beste norbaitek idatzitako testu batzuren berri ematean, testu hauetatik desberdindu egiten da. Testu hauetako narratzailea ez da Bernardo Atxaga, Camilo Lizardi erretorea deritzon fikzio instantzia baizik. Eta, hain zuzen, Camilo Lizardi narratzaileak hartzen du bere bizkar narrazioa kontatzeko ardura.

Egileak ematen digun testuaren eta narratzaileak kontatzen duen narrazioaren artean dagoen banaketa topologiak ematen digu. Egilea irakurlearen Hemen diskurtsiboan kokatzen da. Camilo Lizardi narratzailea berriz Obaba deritzon toposean, Hor narratiboan. Bien arteko desberdinketa topologiko hau narrazioaren gutun-izaerak ematen du. Camilo Lizardik bere narrazioa Obaban bizi ez den beste norbaiti zuzentzen dio, bere lagun bati, hain zuzen. Beste norbait horrek irakurlea ez den neurrian, irakurlea eta narrazioaren jasotzailea, narratarioa, desberdinak direla azpimarkatzen du. Ondorioa zera da, egileak eta irakurleak konpartitzen duten Hemen topos honetatik, Obaba toposean gertatu dena erabat topologikoki berezita ikustatzen dutela.

Dudarik ez, diferentzia topologiko hau beste desberdinketa zenbaitek osatzen du halaber: euskalkiena eta denborarena batez ere. Diskurtsua euskara batuan ematen du egileak, narrazioa aitzitik gipuzkera klasikoz idazten duen apaiz kultu batek idazten du. Egileak ipuina 1982an argitaratu bazuen (traskribatu), testuan zehar banatutako zenbait erreferentzia deiktikok ekintza XIX. mende amaieran edo XX. mende hasieran gertatu zela ikustera ematen digu.

2. *Jose Francisco.* Jatorriz ipuin hau *Camilo Lizardi* baino lau urte lehenago argitaratu zen *Francisco Javier* tituluaz (*Francisco Javier* 1978, *Camilo Lizardi* 1982). *Camilo Lizardi*-ren ondotik aztertzearen arrazoia *Obabakoak* liburuan berrargitaratzean jaso dituen aldaketetan datza. Lehenik, titulua aldatu zaio; jatorriz *Francisco Javier* bezala argitaraturik, *Obabakoak*-en *Jose Francisco: Obabako erretoretxean azaldutako bigarren aitortza* bezala ematen da. Bigarrenik, *Camilo Lizardi* ipuinaren ondoren ematen da eta hari loturik; lotura hau ez zen 1978ko jatorrizko bertsioan.

(13) Jadanik Txillardegik euskal literaturan entseiatua *Leturiaren egunkari ezkutua*-n (1957).

Azkenik, ipuinak eraldaketa izugarria jaso du diskurtsuaren mailan baina ez narrazioarenean. Ikus dezagun aldaketa hau zertan datzan.

Jatorrizko bertsioan ipuina narrazio zuzena da eta, beraz, ez dago bereizterik diskurtsuaren eta narrazioaren artean. Narrazioak testu osoa betetzen du eta hortaz egilea eta narratzailea bat dira. Ondorioz irakurlea eta narratarioa topos berean kokatzen ditu testuak: Obaban. Irakurleak zuzenean segi dezake, Obabako etxe bateko leiho batetik begira ari bailitzan, narrazioan gertatzen dena. Bigarren bertsioan, aitzitik, egile autonomo bat ezartzen da, eta egile honek narratzaile batek zinta (hari) magnetofoniko batean grabatu duena jaso eta traskribatzen du, hain zuzen, 1978ko bertsioa. Egilearen berrezarpenak berriro banaketa topologikoa sortzen du egilearen eta narratzailearen artean. Egileak irakurlearen Hemen topologiko batetik, beste topos batean, Obaban, gertatu dena traskribatzen du. Bigarren bertsioan beraz, irakurleak egilearen tartekaritzaren bidez jakiten du narrazioan gertatua. Kasu honetan ez da euskalki desberdinketarik, baina banaketa topologikoak denborazko banaketa sortzen du, lehen bertsioan antzeman ezin zitekeena, horrela *Camilo Lizardi*-rekin parekatuz.

3. *Bi anai.* Ipuin honetan narrazio zuzena erabiltzen da. Beraz, ez dugu diskurtsuaren eta narrazioaren banaketak eragiten duen bereizketa topologikoa. Halaere, bada bereizketa topologiko desberdin bat ikuspuntuak eragina. Kasu honetan narratzailea animaliak dira: txoria, katagorria, sugea eta antzarra. Alabaina, animaliek ez dute narrazioan ikuspuntu gizatiar konbentzionalik hartzen. Terminologia tradizionalean ez dela narratzaile animalien prosopopeiarik gertatzen esango genuke. Ipuinak duen erakargarritasun eta efektu guztia animaliek irakurleari ematen dioten "animali ikuspuntu" honetan datza. Hala, animaliek Obabako gizakien artean sortzen den gatazka kontatzen digute.

Narrazio ikuspuntu honek irakurlea narrazioaren mailan barneratzen badu, Obaban, era berean estrainatu[14] egiten du, ordea. Hots, irakurleak ekintza animalien ikuspuntutik segitzen du eta, beraz, gizakien ekintzaren mailatik aldendu egiten da. Irakurleak ez du zuzenean Obabako gizakien artean gertatzen dena "gizatiarki" ikustatzen. Obabako gizakiekiko aldenketa hau areagotu egiten da Obabako gizakiek animaliekin mintzatzerik ez dutela kontutan hartzen badugu. Hau da, animaliek eta gizakiek ez dute komunikaziorik elkarren artean eta, beraz, animalia narratzaileek gizakien komunikazio mundutik at dagoen ikuspuntu ez-gizaki batean kokatzen dute irakurlea.

Narrazioan animaliekin komunikazioa duen bakarra "Mintzoa" bezala izendatzen den instantzia subjektiboa da. "Mintzo" honen izaera guztiahalduna kontutan hartuta, *sub specie aeternitatis* kokatzen den jainko-gisako instantzia dela konturatzen gara. Instantzia hau da animaliak agintzen eta gidatzen dituena bere ekintzetan. Eta izan ere animalien komunikazioaren aldean kokatzen gaituen testu honek, Mintzoaren mailan lekutzen du irakurlea. Irakurleak orobat, gizagaindikoen ikuspuntu jainkotiar honetatik segitzen du narrazioa. Irakurlea animalia anitzen hizketa segitzeko gauza dela onartuz gero, ulergarritasun hori zilegizta dezakeen ikuspuntu bakarra Mintzoarena da. Hala, *Bi anai*-ren irakurleak narrazioa *in situ* segitzen badu ere, egile-jasotzaile baten tartekaritzarik gabe, bere ikuspuntua azkenik Obabako topologiaz harantzago, Mintzoak osatzen duen topologia teologiko edo eterno batetik (utopikoa zentzu etimologikoan) segitzen du. Hala, narrazioaren ikuspuntu animali-antzekoak banaketa topologiko bat sortzen du narrazioan: pertsonaien ekintzarena = Obaba, eta, Mintzoa eta irakurlearena = utopia. Utopikotasun honek azken finean irakurlea tartekari baten

(14) Brecht-en "estrainazio efektua"-ren zentzuan darabilt "estrainatu" terminoa.

beharrean jartzen du: Obabako gizakien komunikaziotik kanpora dautzan animaliena. Azkenik ikuspuntuak banaketa topologikoa sortzen du.

4. Halaere, hiru ipuinotan aztertu dugun topologi traslazio hori ez da bikoitza soilik, alegia, egile/irakurlearen eta narratzaile/narratarioaren topos bietan oinarritzen dena. Traslazio honek ia amaiezina den konplexutasuna hartzen du *Obabakoak* liburuan. Obaba toposetik narrazioak beste topos batzutara eramaten gaitu *Obabakoak*-eko zenbait ipuinetan. Topos nagusia Hamburgo da. Baina ez bakarra. Gero aztertuko dugun ipuin batean (*Hans Mensher*) narrazioak Hamburgotik Arabiako Jaddig hiria toposera eramaten gaitu. Bi kasu hauek traslazioaren birtualtasuna infinitoa dela onartzeko aukera zabaltzen dute. Nolabait esateko. Hemen eritzi diogun toposetik diskurtsuak edozein toposetara alda gaitzake, beti ere biunibokoki, alegia, topos1-etik topos2-ra, topos2-tik topos3-ra edo topos1-era, topos3-tik topos4-ra edo topos2-ra eta abar.

5. Konplexutasun hau batez ere *Obabakoak*-en lehen aldiz argitaratutako beste bi ipuinetan ikusta daiteke, hain zuzen *Esteban Werfell* eta *Hans Mensher* ipuinetan. Lehen ipuinean, pertsonai nagusia, Esteban Werfell, Obaban bizi da. Umetan elizan izandako ikuskizun baten ondorioz Hamburgon bizi den neska bat aluzinaziotan ikusi eta berarekin gutunkatzea erabaki zuela kontatzen du. Narrazioak hasiera batean neskak Hamburgotik erantzuten diola Estebani iradokitzen digu, eta, beraz, elizan izandako aluzinazioa egia zela. Baina azkenean Hamburgotik erantzuten duen neska hori Estebanen aita dela jakiten dugu. Estebanen aita Alemanian jaioa da eta Obaban bizi da. Hala, gutunketa guztia Obabatik zuzendua zela jakiten dugu Hamburgon bizi zen Estebanen aitaren lagun baten bidez. Aitaren engainioaren helburua Estebani Obabako giro itogarritik atera eta Alemaniako bizitza erakustea da, aitaren beraren jatorrizko bizitza. Ipuin honetan, beraz, bi elementu interesatzen zaizkigu, bata traslazio topologikoa eta bestea traslazioa ahalbidetu duen tartekaritza.

Traslazioa autorearen Hemen-etik Esteban Werfellen Obabara (Hor) egiten da ipuinaren hasieran. Gero Esteban Werfellen Obabatik bere haurtzaroko gertakarira (ikuskizuna) eta beraz Hamburgora. Eskematikoki esateko, Hemen > Obaba > Hamburgo edo topos1 > topos2 > topos3. Beste elementu interesgarria traslazioa ahalbidetzen duen tartekaritza da. Beti ere topos batetik besterako traslazioa literatur tartekaritza batek ahalbidetzen du. Alegia, Hemen > Obaba traslazioa diskurtsuaren mailatik narrazioaren mailara iraganez egiten da eta iragapen hori ipuinak literarioki markatzen du. Obaban gertatua Esteban-ek berak kontatzen du egunkari baten bidez, ez du egileak kontatzen. Alegia, Bernardo Atxaga autorearen ipuinak Esteban Werfellen egunkaria jasotzen du eta egunkari honen bidez Obaban gertatu zena jakinarazten. Ipuina den testuak beste testu bat, Esteban Werfellen egunkaria, bere barnean jasotzen du. Testu banaketa honek ahalbidetzen du traslazio topologikoa. Era berean egunkaria den testuak beste testu batzuren berri ematen digu, Esteban Werfellek eta aitak gurutzatzen dituzten eskutitzak. Eskutitz hauen bidez berriro toposez aldatzen gara ipuinean: Obabatik Hamburgora. Azken finean traslazio topologikoa eta testuzkoa batera datoz. Beti ere traslazio topologikoa literarioki emana da. Eskematikoki zera esan dezakegu: topos1+testu1 > topos2+testu2 > topos3+testu3 eta ostera.

Hans Mensher ipuinaren kasuan ere antzeko traslazioa ikus dezakegu baina gradu bat areagoturik. Ipuinak Hamburgon bizi zen pintatzaile "ero" baten kasua kontatzen digu. Pintatzaileak bera pintatzen ari den eta Arabian kokatzen den paisaia deskribatzen du eta esaten bertan (kuadroan, Arabian) bizi den neska bat ikusten duela eta hartaz maitemindurik dagoela. Ipuina pintatzailea hilik azaltzen denean amaitzen da. Hala, berriro ere egileak diskurtsuaren Hemen-etik Hamburgo-ko toposera trasladatzen

gaitu. Alabaina, juje baten etxeko artxiboetan eskutitz bat topatzen du narratzaileak. Eskutitz hau Arabiako Jaddig herriko poliziak bidalitako eskutitza da. Eskutitz honetan neska batek bere familiak Hamburgoko pintatzaile "eroa" hil zuela baieztatzen duela ematen da jakitera. Berriro ere eskutitz baten tartekaritzak hirugarren topos batera traladatzen gaitu. Alegia, Hamburgotik Jaddig-erako traslazioa berriro ere testu batek ahalbidetzen du. Eskematikoki goian azaldutako egitura bera dugu: diskurtsua+Hemen > narrazio+Hamburgo > eskutitza+Jaddig[15].

Bi ipuin hauen azterketak puntu honen hasieran azaldu dugun traslazio topologikoaren konplexutasuna azaltzen digu. Ipuin hauetan literatur tartekaritza batek topologia batetik beste batera trasladatzen gaitu. Traslazio topologiko honek, azkenik, ipuinaren bilbaketari oinarri ematen dio eta berori ahalbidetzen.

4.1. Alegoria

0. Traslazio topologiko hauen lehen literatur funtzioa errealismotasuna da. Testuek testuak beren barnean jasotzeak betidanik funtzio bera izan du: literatur testuaren sinesgarritasunaren zilegiztapena eta legitimazioa. Beste hitzetan, testuak bere burua bere barnean bikoizten duenean, barnean daraman testu bikoitzaren literaturtasun eta fikzionalitatea azpimarkatu nahi du, testu barneratzaileak berak beste status bat hartzen duelarik: ez fikzionalarena. Nolabait fikziozko testu bat barneratzeko gauza den testuak bere burua zilegiztatu nahi du ez fikzionaltzat. Joera hau literatura modernoaren hasieratik present dago; *Kixotea* aipatzea nahikoa da. Alabaina, Platon-en mimesian oinarritzen den efektu errealista honek literatura postmodernoan beste jira bat hartzen du. Mimesiaren eta errealitatearen eskema modernotik at ateratzen da literatura postmodernoa, testu guztien fikzionaltasuna azpimarkatuz eta, finean, errealitate berarena. Azterketa honen arabera, hiru ipuinon kasua horixe da, fikzio postmodernoarena, hain zuzen.

Fikzio orokor baten aukera postmodernoa batez ere alegoriaren bidez egin da abangoardia historikoez gero (Cf. Bürger 1987). Alegoria da literatura eta arte postmodernoen estrategia semiotikoa errealismoaren eta fikzionaltasunaren eskema moderno eta platonikoa desegin eta kuestionatzeko. Gure kasuan, *Obabakoak*, traslazio topologikoaren funtzioa azaltzeko, aipatu dugun alegoriaren beste kontzeptu teoriko honi atxiki behar gatzaizkio. Lan honen hipotesia traslazio hauek alegorikoak direla frogatzea da.

1. Alegoria eta traslazio topologikoaren arteko erlazioa ulertzeko *Obabakoak*-en jasotako beste hiru ipuin aipatuko ditugu: *Ni Jean Baptiste Hargous, Bagdadeko Morroia* eta *Dayoub Bagdadeko morroia*. Hiru ipuin hauen bidez, Bernardo Atxagaren ipuingintza, bidai iniziatikoaren metafora modernoaz gain, alegoria topologikoaz baliatzen dela frogatuko dugu eta diferentzia honek zer ondorio dituen azaleratuko. Lehen azaldutako terminologiaz baliatuz zera esango genuke, ipuingintza hau ez dela "paratopia, utopia, heterotopia > atopia" eremu protokolo modernoaren arabera egituratzen, baizik eta topos bakar baten errepikapen eta traslazio alegorikoan. Berriro ere, ipuin bakoitza banan aztertuko dugu. Lehen ipuina eremu protokolo modernoen adibide da. Bigarrenak protokolo moderno honen aurkako bertsio era berean modernoa emango digu. Hirugarrenak aldiz, aurreko bi ereduen kontrara, eremu protokolo alegorikoa (eta, beraz, postmodernoa) azaltzen lagunduko digu.

(15) Sarrionaindiak ere badu antzeko ipuin bat pintore txinatar bati buruz, bere *Narrazioak*-en. Marguérite Yourcenar-ek ere bere *Nigrum*-en gertaera bera bilakarazten du. Jatorriz txinatarra dirudi motiboak. Nolabait motibo hau sakonki erroturik dago egungo mendebaldeko narratiban. Velazquez-en *Meninak* lekuko.

Ni Jean Baptiste Hargous Frantziako erregeak barbaroen aurka eratutako kruzadan kokatzen da. Ipuina kruzada honek barbaroak topatzera ifarrera egiten duen bidaiaren kronika da. Beraz, ipuina bidai bezala egituratua dago; desplazamendu topologiko bat da. Hemen ere lehengo eremu bera ezar dezakegu. Frantziak eremu paratopikoa eta Erdi aroko Europak orokorki espazio heterotopikoa adierazten dute. Frantziako erregeak zuzendutako kruzada eremu paratopikoan eratzen da. Kruzada ifarraldean kokatzen den eremu utopikora abiatzen da, barbaroen aurkako gerraren froga gainditzera. Hontaz, ipuin honetan ez da topologia aniztasunik ez eta batetik besterako traslaziorik aurreko hiru ipuinetan ikusi bezala. Bidai hau, erromantizismoaz geroko bidai *moderno* guztiak bezala, bidai iniziatikoa da zentzu zabalenean: esistentziala edo metafisikoa. Barbaroak, hala, heriotzaren metafora bezala erabiltzen dira ipuinean. Zentzu murritzagoan, Europako kultura klasikoa mehatxatzen duen heriotzaren metafora adierazten dute[16]. Ipuinean, kruzada barbaroen kanpamentutik gertu iristen denean geratu egiten da, beldur baita. Oraindik barbaroak ikusten ez direnez, zelatariak bidaltzen ditu erregeak sekula ikusi ez dituzten gizaki fantastiko horiek ikustatzera. Banan banan zelatariek pot egiten dute. Zenbait ez dira itzultzen, beste batzu erotuta itzultzen dira edo hizkuntza ezezagun bat hitzeginez. Zelatarien itzuleraren itxurak beldurtuta, kruzadako tropa barreiatu egiten da eta ihesari ematen barbaroak sekula ikusi gabe. Heriotzezko barbaroen aurrean bidaia hondatu egiten da eta itzulera antzua, esku hutsekoa, bihurtzen da.

Seguruaski Rimbaud-ek *Une saison en enfer*-ez inauguratutako bidai iniziatiko maisuaz gero, bidaiaren metafora modernoak heriotza gainditzinaren itxura desberdinak hartzen ditu: Baudelaire-ren *spleen*-a eta paradisu artifizialak, Mallarméren *Coup de dès*-aren ezintasuna, Pound-en *Pisako kantu*-en paradisu ezintasuna eta memoria zatikatua (spezzata), Eliot-en *Waste Land*-a, Borges-en azken hitzaren bilaezintasuna eta, zentzurik zabalenean, isiltasuna literatur diskurtsuaren heriotza bezala. Lehen argudiatutako terminologiaz jokatuz atopia orokorra esango genuke. Atxagaren ipuin hau, bidaiaren metafora modernoaren sagan lekutzen da, maisuki lekutu ere, eta, beraz, literatura modernoaren protokolo espazialei erantzuten die.

Bagdadeko morroia ipuinak ere hondamendi bera azpimarkatzen du. Morroi batek Herio topatzen du Bagdadeko kaleetan eta hark keinu egiten diola konturatzen. Berriro ere bidaiaren topoia erabiltzen da, oraingoan *Hargous*-en ipuinaren alderantzizko zentzuan. Morroia zaldia hartu eta hiri urrun batera, Ispahan-era, heriogandik ihes abiatzen da. Eremu paratopikotik utopikorantzko desplazamendu honen hondamena ipuinaren amaieran azaltzen da. Morroiaren nagusiak Herio topatzean, bere morroiari egindako keinuaz galde egiten dio. Heriok erantzuten du bere harridura keinuaren arrazoia zera zela, gau hartan Ispahan hiri urrunean morroia topatuko zuela zekienez, egunez Bagdaden topatzeak harritu egin zuela. Ipuin honek lehenaren baieztapen antitetikoa erakusten du, ihesezko bidaiak ere ez duela balio Heriori ekiditeko. Eremu utopikorantzko ihesa hondatu egiten da.

Bidaiaren metafora (e. paratopikoa > e. utopikoa) modernoan oinarritzen den ikuspegi epistemologiko edo semiotikoa sakontasunezkoa da —sarreran azaldu dugun zentzuan. Modernitatean gizabanakoa subjektu historiko bezala esistitzen da eta heriotzan topatzen du bere izaera subjektiboaren esanahia; hain zuzen, esanahi bakarra eta egiazkoa bere bizitzaren esanahi ezkutua gordetzen duena eta jakinez gero bizitzaren zentzu unibertsala azaltzen duena. Alabaina, heriotza gaindiezinezko errealitatea denez, bizitzak bere izatearen zentzua heriotzan aurkitzen badu ere ber-

(16) Kavafis-en *Barbaroak* poema ipuin honen motibo berean oinarritzen da. Biak batera irakurtzeak ikuspegi interesgarria zabalduko luke.

tan suntsitzen da. Arrazoi horregatik literatura modernoaren azken zentzua nihilismoa da. Nolabait subjektuak bere izatearen esanahia topatzeko suntsitu egin behar du. Zentzu bakar hori esanezina denez, metafora bidez ematen da literatura modernoan. Metafora hau bidaia da. Joan etorrizko bidaiaren zentzuak metaforikoki heriotzaren zentzua errebelatzen du. Hain zuzen, horregatik bidaiaren metafora modernoak abiapuntutzat lehen azaldutako banaketa topologikoa (e. paratopikoa > e. utopikoa) hartzen badu, atopian amaitzen da heroi modernoaren hondamenagatik. Goian aipatu literatura modernoaren adibideetan bidaiaren metaforak era desberdinetan azken zentzu honen berri ematen du.

Dayoub, Bagdadeko morroia aurreko ipuinaren aldaera bat da. Aldaera honetan berriro morroi berak Herio topatzen du eta ihesari ekiten. Ihesean, azkenean Ispahango ispilugile baten etxean topatzen du babes. Herio bila datorrenean, morroia ispilu artean ezkutatzen da bere irudia zazpitan biderkatuz. Goizaldea du Heriok epe morroia berarekin eramateko. Lipar bat baino geratzen ez denean goizargi izateko, Heriok morroia zazpi ispilutan biderkatuta topatzen du. Azkenik, zazpi irudiak banan-banan mihatzeko astirik ez duenez, bat aukeratzen du itsumustuan eta okerrekoa aukeraturik ispilu bat eramaten du berarekin morroia beharrean.

Morroiak hemen bere bizitza Herioren eskutatik libratzeko, azken mementuan ez du ihes egiten baizik eta Herioren aurrean bere burua aurkezten. Aurkezpen honetan bere bizitza salbatzen du baina salbazioaren bidea bere izate bakarrari uko egin eta zazpi ispilutan biderkatzea da. Alegia, salbazioa izate bakar errealaren suntsidurak eta beronen biderketak eragiten du. Beste hitzetan, morroiak bere izate erreal bakarrari uko egiten dio eta izate anitz eta berdinetan bere burua biderkatuz, edo galduz, Herio gainditzen. Kasu honetan ere morroiak bere izatea bidaiaren topologia bakarrean barneratu beharrean, topologia anitzetan, zazpi ispilutan, biderkatzen du. Nolabait, morroiak bere izate errealari uko egin eta orijinalik gabeko kopiatan bere burua barreiatzen duenean garaitzen du Herio. Zazpi ispiluak, beraz, ez dira topologia bakara baizik eta topologia anitz baten traslazioa. Ispilu bakoitzak beste ispilura eramaten gaitu eta traslazio honetan kopia bera ikustatzen dugu. Topologia anitz honetan bere izatea trasladatuz lortzen du morroiak bere bizitzari eustea. Baina ere berean morroiak izate bakarrari uko egiten dio[17].

Jakina, ipuin honen izaera diskurtsiboa ere kopiarena da. Aurrean eztabaidatutako ipuinaren *(Bagdadeko morroia)* kopia edo aldaki da. Eta kopia izate honetan datza bere funtsa.

2. Hiru ipuinen erkaketak bi semiotika desberdin erakusten dizkigu, semiotika errealista modernoa, metaforarena, eta semiotika postmodernoa, alegoriarena. Baudrillard-en lan erabakiorrari jarraikiz, (Baudrillard 1981)[18] kopiaren semiotikak simulakruaren eta errepikaren semiotika (bigarren morroiarena) gizarte postmodernoen adierazte sistema dela erakusten digu.

Modernitatea, Platon-engandik abiatuz, erreferente erreala eta bere kopia ez-errealak osatzen duten semiotika errealista batean oinarritzen bada, postmodernitateak

(17) Euskal ahozko literaturan bada antzeko ipuinik. Ezagunena Axularren istorio bezala emana da. Deabrua Axular bahitzera doanean honek ihes egiten du baina deabruak haren itzala zapaltzean Axularrek itzala galdu egiten du. Itzalaren galerak nortasunaren galeraren sinbolo bezala jokatzen du. Bagdadeko morroiaren kasuan ere, hark nortasunari uko eginez lortzen du Heriogandik alde egitea. Itzala galdu beharrean, bere irudia galtzen du morroiak.

(18) Oraintxe eskura dudan itzulpenean dioenez: "The very definition of the real becomes: *that of which it is possible to give an equivalent reproduction...* at the limit of this process of reproducibility, the real is not only what can be reproduced, but *that which is always already reproduced.* The hyperreal". (*Simulations,* Semiotext(e), 1983, 146. or. bere azpimarketak).

erreferentearen ez-errealtasuna aldarrikatzen du. Erreferentea dagoeneko beste erreferente baten kopia dela eta, beraz, beti ere aurreko baten errepika baino ez dela adierazten du postmodernitateak. Erreferente erreala izan beharrean, postmodernitateak simulakrua dela kausitzen du, jadanik errepetizio den erreferente baten errepetizioa. Errepikapenaren eta simulakruaren semiotikak errealismoari berezko zaion unizitatetik ateratzen gaitu eta beronek sortzen duen teleologiatik. Hala, ez da heriotza errealik bizitzari zentzurik ematen dionik; zentzua ez dago jadanik azken heriotza erreal baten funtzioan. Postmodernitatean, simulakruak errepika amaitezina baieztatzen du bizitza bakar bezala eta errepika honen amaiera simulakruaren heriotza benetazko. Beraz, semiotika postmodernoak errepika aldarrikatzen du simulakruaren bizitza bakartzat. Errepika amaigabe batek ematen dio zentzua simulakruari. Zentzua errepikan datza eta ez erreferente erreal azken eta teleologiko batekiko erreferentzian (heriotza).

Simulakrua ezin da metaforikoki esan, baizik eta alegorikoki errepika. Benjamin-en teoriei jarraikiz (Bürger 1987) garbi dago abangoardia historikoez gero alegoria izan dela arte postmodernoak erabili duen adierazbide semiotikorik garrantzitsuenetako bat. Alegoriak, metaforak ez bezala, ez du erreferente erreal bat finkatzen beronen aldaki poetiko metaforikoa emateko. Alegoriak erreferente errealaren kopia eman beharrean, erreferente bertatik mailegatzen ditu zatiak eta zati hauek berregituratzen. Alegoria zatikazko lana da. Zatiketa honetan, alegoriak erreferente batetik hartutako puskak berregituratzean bere burua erreferentearen planuan ezartzen du. Alegoria erreferentea bezain erreala da, erreferentea osatzen duten zatien egituraketa desberdina baino ez da. Hala alegoriak bere burua erreferentea bezain errealtzat baieztatzean, bera ere erreferente-gai bihurtzen du, beste alegoria baten erreferente. Azkenik, erreferente lehena dagoeneko beste erreferente batzuren berregituraketa dela ikusten uzten digu. Beste hitz batzutan esateko, alegoriak errealismo modernoarekin hausten du eta oro aurreko erreferente baten kopia, aldaera edo traslazio baino ez dela inplikatzen azkenik. Alegoriak, hala, erreferente-kopia erlazioak sortzen duen sakontasunezko semiotika desegiten du, biak planu lau berean daudela aldarrikatuz. Alegoria, teoria kritikoak bezala, epistemologia postmodernoan oinarritzen da.

3. Hala, simulakruaren semiotika postmodernoaren argitan, berriro ere topologia alegorikoaren kontzeptua berrar dezakegu eta bere bidez orain arte azaldutako Atxagaren ipuingintza deskribatu. Hala, alegoriak, zati batzuren muntaketa edo egituraketa denez, egituraketa hau bera nola egin aske uzten du. Geure kasuan, Atxagak topologia aukeratu duela egituraketa alegoriko ardatz bezala ikusta genezake. Atxagaren topologiak aurreko erreferente topologiko baten berregituraketa baino ez dira. Topologikoki egituratzen diren topologia guzti hauek bata bestearen alegoria bezala azaltzen dira. Topologia bakoitzak aurrekoa baino ez du kopiatzen, kopia bakoitzaren autonomia literarioki aldarrikatuz, eta azkenik topologi errepikapen honen amaiezina eta bizitza azaleraziz. Atxagaren ipuingintzak, topologia bakarra behin eta birritan alegorikoki errepikatuz, simulakru topologiko bat azaltzen digu. Simulakru topologiko honen bizitza eta literatur balioa traslazioan datza hain zuzen. Behin eta berriro trasladatzen den topologia honek bere burua aldioro alegorikoki kopiatu egiten du eta kopiaren bidez bere burua baieztatzen eta irauneraziten. Maila honetan, Atxagaren topologia alegoriko honek literatura postmodernoaren barnean kokatzen gaitu euskal literaturan.

Hurrengo sailean, topologia alegoriko honek beti ere kopiatzen eta errepikatzen duen topologia atxagatar honen simulakrua zein den azaltzen saiatuko gara, topologia bakoitzak zer kopiatzen duen aurreko topologiatik, zer den beti ere errepikatzen dena eta errepikatu behar dena Atxagaren ipuingintza Herioren eskutatik libra dadin bere buruaren zazpi ispiluetan biderkatuta.

4.2. Intzestuaren simulakrua

0. Berriro ere adibidetzat hartu ditugun hiru ipuinetara jotzen badugu, *Camilo Lizardi, Jose Francisco* eta *Bi anai,* hiruretan topologia nagusi bat dugu: Obaba. Topologia honetan pertsonai bat errepikatzen da, pertsonai anormal bat, gizarte arauetatik kanpo geratzen den pertsonaia. Hiru ipuinotan, hurrenez-hurren, basurde bihurtzen den mutil bat, basatia den mutila eta subnormala izanik animaliak erakartzen dituen mutila ditugu. Hiru kasuotan, heroia esango diogun pertsonai hau pertsonai beraren errepikapena dela ikus daiteke, kopia, beti ere materiale diskurtsibo diferentez eraikia. Mutil hau, gero azalduko dugun bezala, intzestu debekuaren hausturaren frutu den simulakrua da. Beti ere, simulakru honen ezaugarria animaltasunaren eta gizatasunaren mugan egotea da, edo Lévi-Strauss-en intzestuaren teoriari jarraikiz, kulturaren eta naturaren mugan bizi den simulakru intzestuosoa izatea. Simulakru guztiak bezala, hau ere ez da egiazkoa. Ez dugu inoiz mutilaren aurkezpen zuzenik, egiazkorik, beti ere narratzaile zenbaiten eta egileak azaldutako bertsio baten bidez emanak dira aurkezpenak, literatur zatiz eraikiak. Aurrera joan aitzin merezi du hiru adibideok banan-banan aztertzea.

1. *Camilo Lizardi*-renean, mutil bat azaltzen zaigu gurasogabea. Camilo Lizardi erretoreak lagun bati idazten dizkion eskutitzen bidez Obaban gertatua jakiten dugu. Mutil hau herriak marjinaturik bizi da eta azkenean basurde zuri bihurtzen. Basurde gisa eraldatzen denean, ordura arte herrian marjinatu izan dutenen aurka bortxaz aritzen da. Herriak biolentoki erantzuten du eta ondorioz basurdea erdihiltzen dute. Ipuinaren azkenean mutil hau Camilo Lizardi erretorearena berarena dela jakiten dugu eta beronek erdihilik topatzen duenean errematatu egiten duela basurdearen errukiz eta lotsaz. Ipuinak aditzera ematen du Obabako famili erlazio legeetatik kanpora sortua izan den mutil honek, apaiz baten seme delako, animalitasun ezaugarri hau hartzen duela. Anormaltasun honek, azkenik, mutilaren beraren eta aitaren suntsipena dakar. Mutila hil egiten da eta aita bera ere galtzen.

Jose Francisco-n bi anaiak, Obabako famili erlazio arauak hautsiz, neska bat estaltzen dute elkarrekin eta seme bat izaten: Jose Francisco. Ama hil egiten da haurraz erditzean. Mutila erdi basatia jaiotzen da; ez du hitzegiten eta gainera animalia baten indarra du. Mutila basoan abandonatzen du anaietako batek. Mutilak, baserrira itzuliz, aita hau hiltzen du. Beste aita honetaz konturatuta, basora abiatzen da eta semea topatutakoan hil egiten du eta ondoren bere burua akatzen. Autoreak inplizitoki ikusten uzten digu biolentzia guzti honek Obaba herria desagertzera daramala.

Bi anai-n, aldiz, bi anaiaren istorioa kontatzen digute zenbait animaliak. Heroia, Daniel, subnormala da eta anaia normalaren, Paulo, ardurapean bizi da. Subnormaltasun honen ondorioz animaliak erakartzeko eta berauekin komunikatzeko ahalmena du anaia subnormalak. Aitaren heriotzarekin hasten da ipuina; ama ordurako hila dela jakinarazten zaigu. Aita hiltzen denean bi anaiak bakarrik suertatzen dira eta era berean nerabezarotik heldutasunera iragaten. Anaia subnormala herriko neskatxa baten amodioa lortzen saiatzen denean, neskak errefusatu egiten du eta sortzen diren zenbait iskanbilaren ondorioz herri guztiak errefusatzen du eta saihesten anaia. Ondorioz, bi anaiek trenbidean akatzen dituzte beren buruak eta, antzar bihurturik, hegaldatu egiten dira. Nolabait hemen ere, animalitasunaren mugan dagoen mutil batek Obaba herriko famili erlazioetan integratzen saiatzen denean neska baten maitasuna bilatuz, herriak mutil ez-normal hau errefusatu egiten du. Errefusapen hau berriz ere biolentoa da. Ondorioz mutil subnormala eta anaia animalitasunera eraldatzen dira, Obaba herriko gizartetik kanpo. Berriro ere eraldaketa hau biolentziaz egiten da, suizidioaz.

2. Hiru deskribapen labur hauetatik zenbait ondorio atera dezakegu simulakruzko heroiari buruz. 1– Obabako gizarte normaltasunetik kanpo geratzen den mutil bat da heroia. 2– Heroi honen ez-normaltasuna bere animalitasunean azaltzen da. 3– Beti ere Obabako famili-erlazioen arauen aurka joatean, mutila animalitasunera eraldatzen da. 4– Anormaltasun honen ondorioa gizarte biolentzia da eta beti ere mutilaren eta bere familiaren heriotza dakar. 5– Azken bi ipuinetan mutila bikoiztasun baten inguruan eratzen da, bi anaiok sortzen duten mutil bat da edo eta anaia batekin bizi den mutila da eta anaiarekin hiltzen dena.

3. Ezaugarri hauek berriro ere Obaba egitura topologikoa dela azaltzen digute. Lehen deskribatu dugun heroia mendebaldeko literatura errealista eta modernoak itxuratzen duen subjektu moetatik at dago, hau da Walter Scott-en elaberri historikotik James Joyce-ren elaberriak arte hedatzen den heroi moetatik at. Hegel (1975) eta Lukács (1971) erreferentzia teorikotzat hartuz, literatura modernoak heroi konfliktiboa sortu eta egituratu duela onartzen badugu, lehen deskribatu dugun Obabako heroia heroi konfliktiboaren eredu modernotik at geratzen da. Heroi obabarra ez da gizarte moderno barruan kokatzen den subjektu moderno konfliktiboaren eredu. Heroi konfliktibo modernoa, subjektu modernoak orokorki gizarte industrialean ezagutzen duen gatazkaren *metafora* da. Heroi konfliktiboak, XIX. eta XX. mendeko subjektu modernoaren metafora bezala jokatzen du. Aitzitik, heroi obabarra Obabako gizartearen mugan kokatzen da eta beti ere at geratzen. Heroi obabarrak ez du Obabako gizarte subjektuaren metafora bezala jokatzen, Obabako gizartearen mugen markatzaile bezala baizik. Heroi obabarraren gatazka Obabako gizartean barneratzen saiatzean gertatzen da. Barneraketa honen hondaketak kanpo uzten du eta, beraz, ipuinak Obabako gizartearen mugen banaketaren berri ematen digu. Ipuin bakoitza, honela, muga horren banaketaren errepikaketa bat da. Maila honetan heroi obabarra post-modernoa da zentzurik hertsienean: heroi moderno konfliktiboaren ondotik dator eta subjektibitate ez-modernoa markatzen du.

Obabako heroi honen subjektibitate postmoderno honek narrazioko pertsonai guztiak egituratzen ditu. Hots, ipuin hauetan ez da inoiz pertsonai autonomo konfliktibo baten barnekaldea azaltzen, pertsonai guztiak gizarte mugen arabera definitzen dira eta beraiekiko nortasuna bereganatzen. Ikuspuntu moderno batetik zera argudia genezake, ez direla autonomoak, ez dutela barne gatazkarik, eta, hortaz, literarioki ahulak direla. Beti ere orokorki pertsonaiak Obabako gizartearen mugen arabera banatzen dira. Alde batetik Obabako gizartea bera dugu. Gizarte honetan azaltzen diren pertsonaiek ez dute nortasun autonomorik Obabako gizartearen partaide bezala ezik. Beste aldetik, heroi obabarra dugu eta beronekin familia legez loturik dauden beste zenbait pertsonai. Heroia beti ere Obabako gizartetik at lekutzen da eta beti ere heriotzaz pagatzen lekutze hau. Heroiarekin loturik dauden beste pertsonai senideek ere patu bera nozitzen dute eta kanpoko den heroi honekiko erlazioa heriotzaz pagatzen berauok ere. Pertsonai banaketa topologiko hau da Obabako subjektibitatea egituratzen duena. Beraz, subjektibitate forma hau ez da gizabanako autonomoaren eredu modernoan oinarritzen, talde topologia batenean baizik[19].

(19) Thomas Mcfarland-ek modernitatearen hasieraz, erromantizismoaz, eginiko azterketa argigarrian (Mcfarland 1981: 33), sinboloaz eta alegoriaz hitzegiten du. Sinboloaz ari denean, guk hemen *metafora* terminoa erabili dugun zentzu berean darabil. Mcfarland-ek sinboloa azkenik alegoria era bat baino ez dela defendatzen du: "'The former [sinboloa] is momentary totality; the latter [alegoria] a progression into a series of moments'), that whatever distinctions are made in theory, in practical matters of interpretation, there tends to be only one mode: the allegorical". Ikuspegi honek historikoki bi formek izan duten bilakaera enoratzera jotzen du. Geure tesiaren arabera metaforak modernitateak nagusiki erabilitako semiotika osatzen du, alegoria ez da modernoa, ezta metafora postmodernoa ere.

Maila honetan, Obaba literatur topos bezala, Faulkner-en Yoknapatawpha modernotik baino García Márquez-en Macondo-tik gertuago dago. Faulkner-en toposean pertsonai autonomoak lekutu baino ez dira egiten, edo beste hitz batzutan, toposa pertsonai autonomo hauen ekintza eta gatazken gerta-leku hertsi baino ez da. Aitzitik García Márquez-en toposean, pertsonaiak beren gainetik hedatzen den Buendía familiaren toposaren arabera egituratzen dira, eta familia honen toposarekiko banatzen eta nortasun hartzen. Buendía familia da subjektibitate eratzailea. Beste bi topologia hauekiko erkaketaren ondorena zera litzateke, Obaba bera dela hiru ipuinotako subjektua. Obaba zentzu honetan subjektu topologiko eta beraz postmodernoa dugu[20].

4. Obaban subjektibitatea topologikoki eratzen dela onartuz gero, topologia honen egituraketa aztertu beharra dago. Orain arte topologia honek barneegituraketa bat duela ikusi dugu: Obabako gizarte barnean bizi diren pertsonaiak eta bertatik at bizi direnak. Muga hau egituratzen duen oinarria aztertzeko Lévi-Strauss-en antropologiara jo behar dugu, bertatik aterako baitugu oinarri honen aztarna. Geroago ikusiko dugunez, Obabako gizarte egituraketa honen oinarria Lévi-Strauss-en antropologiaren bidez deskriba ahal badezakegu ere, antropologia honen oinarri epistemologikoak direla medio, Obabak antropologia lévi-straussarra bera irauli egiten du.

Gure tesiaren abiapuntutzat zera baieztatuko dugu, Obabako pertsonaiak gizartetik at ala barne banatzen dituen oinarria famili erlazio legeak direla. Obabako famili erlazio legeetatik kanpora lekutzen diren pertsonai guztiak gizartetik at geratzen dira eta heriotzaz pagatzen kanpotasun hau. Hiru ipuinak gogoratuz oinarri hori ikus genezake. *Camilo Lizardi*-n, apaiz batek izandako semea hark abandonatu egin du legearen kontra zihoalako. Abandonu honek semea gizartetik kanpora uzten du eta semea animalitasunean eraldaturik, aitak berak hiltzen du. Aita bera ere azkenik patu berari jarraikitzen zaio. *Jose Francisco*-n bi anaiak estaltzen dute neska bera. Obabako famili erlazioen aurka doan aita bikoiztasun honek dakarren ondorioa semearen animaltasuna da eta, azkenik, amaren, semearen eta bi aiten heriotza. *Bi anai*-n, subnormala den (eta animaliekin erlazio duen) anaia batek Obabako neska baten maitasuna eta fabore sexualak lortu nahi izatean, gizarteak anaia subnormal hau errefusatu egiten du eta, errefusapen honen ondorioz, bi anaiak beren buruak hiltzen dituzte animalia bihurtuz. Berauen gurasoak ere ordurako hilik dira.

Hitz gutxitan esateko, Obabako famili erlazio arauek banatzen dituzte pertsonaiak gizarte barne ala kanpo. Famili erlazio arauen hausturak pertsonaiak gizartetik kanpo egozten ditu. Eta hain zuzen, Lévi-Strauss-ek azaltzen duenez (Lévi-Strauss 1949), intzestu debekua da forma desberdinetan edozein gizartetako famili arauak egituratzen dituena[21]. Alegia, intzestu legea da ezein gizarte gizarte bezala egituratzen duen lege oinarrizkoena. Lege honen bidez gizona *natura* egoeratik *kultura*-ra iragaten da eta *zoon politikon* bihurtzen. Nolabait esateko, intzestuaren legeak natura eta kultura arteko muga eratzen du. Eta hain zuzen hauxe da hiru ipuinotan ikusi dugun egitura gizarte-eratzailea. Hiru ipuinotan Obabako intzestu legearen transgresioak heroi bat eta haren familia gizartetik at kanporatzen ditu eta azkenik heriotzaz zigortzen. Heroia beti ere gizartez kanpo naturara iragatearen zeinua animalitasuna da. Animalitasunak intzestu debekuaz bestaldeko natura adierazten du Obaban.

(20) Lehen aipatu paratopia-utopia-heterotopia eskema modernoaz baliatuz gero, heroi obabarrak eskema irauli egiten duela esango genuke. Alegia, gizartetik at kokatzen den heinean, eremu paratopikoan ez du barneratzerik. Eta, aitzitik, heroia Obabako gizarteak eremu utopikoan nozitzen duen froga bera bihurtzen da. Heroia eremu utopikoan kokatzen da.

(21) Gogorarazi bakarrik Obaba, jatorriz, lo kanta bateko *subjektua* dela: zaldi urdinaren gainean doan umea.

5. Lévi-Strauss-ek intzestuaren debekua defendatzen eta aldarrikatzen badu gizarte egituratzaile unibertsal gisa, Atxagak hiru ipuinotan intzestuaren debekuak sortzen duen gizarte banaketa kuestionatu egiten du eta iraultzen, ordea. Izan ere Lévi-Strauss-en aurka, Atxagak kulturaz kanpo naturan kokatzen du heroi obabarra eta beronen kontakizuna ematen. Narrazio bakoitzean gizartetik at naturan geratzen den heroiaren heriotza kontatzen digu. Narrazio bakoitzak gizarte banaketa (kultura/natura) indartu beharrean, banaketa horren biolentzia azaleratzen du Atxagaren ipuinetan. Obabako intzestu debekuaren hausturak sortarazten duen biolentziaren berri eman eta biolentzia honek nola suntsitzen dituen at geratu diren pertsonaiak kontatzea da hiru ipuinon xedea. Atxagak at geratutako pertsonaien aldea hartzen du literarioki eta berauon trajedia kontatzen. Azkenik Obabako ipuinek gizarte legearen biolentzia eta biolentzia honek barnera ezin ditzakeen subjektuak nola suntsitzen dituen erakusten dute. Atxagak Obabako gizartea egituratzen duen legea salatzen du eta bere biolentzia azalerazten.

5. Obabako alegoria topologikoa

0. Ikusi dugu, bada, hiru ipuinotan topologia bakar baten hiru alegoria ematen dizkigula egileak. Topologia hau Obaba dugu eta bere oinarrizko egituraketa intzestu debekuaren legearen arabera egiten da pertsonaiak gizarte horretan biolentziaz barne eta at banatuz. Azkenik azpimarkatzen genuen banaketa hau, intzestuaren debekuaren deskribapen lévi-straussarraren aurka, bortxaz egiten dela Obaban.

Berriro ere simulakruaren deskribapenera jotzen badugu, erraz da ikusten inoiz ez dugula egiazko Obaba eta bere gizartea antzematen, bere simulakrua baizik. Beti ere Obaba ez da zuzenean ematen baizik eta egilearen eta irakurlearen artean eraikitzen den traslazio topologikotik abiatuta. Bestalde, eta lehen esan dugun bezala, heroia ere ez da inoiz zuzenean azaltzen beti ere narratzaile baten tartekaritzaz baizik. Ez dugu inoiz heroiaren subjektibitate gatazkatiaren barnea antzematen, hark markatzen duen gizarte-natura muga topologikoa baizik.

Hala, Obabara trasladatu egiten gaitu diskurtsuak, geu garen Hemen horretatik, Obabako Hor horretara eramaten. Era berean, Obaban beti ere istorio bera kontatzen zaigu, intzestu debeku haustura batek nola gizartetik kanpo aldentzen dituen heroia eta bere senitartateak eta, azkenik, nola heriotzara eramaten dituen gizarte barnean geratu direnen biolentziak. Hala, ez dugu inoiz benetazko Obaba erreferentea ikustatzen. Beti ere geu gauden toposetik trasladatuz, errepikapen bezala behin eta berriro ematen zaigun simulakru baten testigantza jasotzen dugu egile-narratzaileengandik. Obabaren errealitatea, hain zuzen, behin eta berriro bere burua errepikatzen duen topologia baten alegoria baino ez da. Errepikapen horretan beti ere bortxa baten simulakrua ematen zaigu.

1. Baina bortxa honen errepikapena ez da bakarrik Obabara mugatzen. Era berean, *Obabakoak*-ek trasladatzen gaituen beste topologietan ere ageri da. *Hans Mensher* ipuinean ere, Hamburgo-ko topologiak biolentzia beraren errepikapena present dela azaltzen digu, ezen Hamburgo bera simulakru topologiko beraren errepikapena da. Hans Mensher pintatzailea ere, Hamburgo-ko gizartetik kanpora lekutzen den pertsonaia dugu. Kanporaketa hau, intzestuaren debekuaren arabera ematen ez bada ere Obaban bezala, heriotzaz pagatzen du pintatzaileak, hain zuzen kanporaketa egiten saiatu den aldetik, Arabiako herri batetik.

2. Halatan, Atxagaren ipuingintzaren gehiengoa topologi traslazio baten egituran oinarritzen da. Lehen esan bezala, topologi traslazio hau alegorikoa da: edozein errealitate bereganatzen du topologia bakoitzak eta bere literatur izaera eta ahalmen

adierazkorra errealitate honen berregituraketan datzala markatzen. Hala, topologia honek *Etiopia*-n ikusi dugun lo kanta batetik hartzen du izena. Era berean, Obaban animalitasun era desberdinak bereganatzen dira naturazko ezaugarri bezala. Hamburgok zein Arabiak topologia honen traslazio lekune bezala jokatzen dute, halaber. Simulakru topologiko honek pertsonai desberdinak bereganatzen ditu, hala umeak (Jose Francisco, Daniel) zein pintatzaile zaharrak. Obaba ez dakigu zein garaitakoa den, XIX. mende amaieratik XX. mendera arteko edozein garai beregana dezake gertaera garai bezala. Euskalkiak ere desberdinak izan daitezke, batzutan gipuzkera eta bestetan euskara batua. Finean ezein elementu bortxa baten simulakru bezala egituratzen da *Obabakoak*-en, bere jatorria berdin zaiolarik.

Azpimarkatzekoa da garai modernoaren arabera errealitatetik egileak bereganatuko lituzkeen elementuak ez direla arau errealista moderno baten arabera bereganatzen *Obabakoak*-en. Ez da erizpiderik; edozein herri, edozein pertsonai eta garai simulakru topologikoaren osaketarako zilegi da. Berauen baliagarritasuna ez da errealitatearekiko fideltasunean oinarritzen baizik eta simulakru topologiko baten eraketarako literatur baliagarritasunean. Hala, ez dago errealitatearen eta ipuinon artean erreferentzia desberdinketa zehatzik egiterik, ipuin hauek ez dira errealitate baten islada (zentzu platoniko eta modernoan) baizik eta simulakru baten errepikapena. Eta hain zuzen, simulakru hau ez dago inon topologia beraren errepikapen amaigabean baizik.

Nolabait esateko, Atxagaren ipuingintza ezin da errealismozko arau modernoz neurtu, hein batean Lasagabaster eta Azkargorta egiten saiatu diren bezala. Ezen Atxagaren ipuingintzak erlazio alegorikoa du dagoeneko alegorikoa dela aldarrikatzen den errealitatearekiko. Atxagaren ipuingintzak literatur artifaktu dela ipuingintzan bertan azpimarkatzen du eta era berean errealitatea bera ere, ontologikoki eratuta dagoen zera egonkorra izan beharrean, adierazkorki eta materiale desberdinekin osatuta dagoen artifaktu adierazkorra dela baieztatzen du. Atxagak, alegoriaren bidez, ez du errealitatearen islada bat eman nahi, baizik eta dagoeneko artifaktu adierazkor den errealitateari alegoria bat ezarri, adierazkortasun horren perspektiba ikusteko. Nolabait esateko, Atxagaren topologia alegorikoak leku berri bat irekitzen du, beti ere perspektiban, inon ere ez dagoena, berez ere beste errealitate bat ez dena, bertatik geu bizi garen alegoriazko leku hau berrikusteko, perspektiba berri batetik irakur dezagun. Eta horretarako Atxagak bere alegoriak topologikoki eman ditu.

6. Alegoria topologikoaren irakurketa politikoa

0. Atxagaren simulakru alegoriko topologikoak oraindik beste topologia bat irekitzen du, beste topos batera garamatza. Hain zuzen, aztertzeke utzi dugun toposa, egileak eta irakurleak osatzen duten Hemen-a. Hain zuzen, Euskadin bizi den egilearen eta irakurlearen toposa esan nahi dugu.

Artikulu honen lehen atala gogoratuz, ikusi dugu Hemen hori ipuinok berok ematen dutela, Hemen hori literatur testuan bertan present dela. Present den heinean, eta hein honetan bakarrik, topos hau ere simulakru topologiko honen beste topos bat bezala irakur dezakegu. Eta topos hori euskaraz idatzita dagoen testu batean Euskadi da. Inoiz *Obabakoak* testua beste hizkuntzatara itzuliko balitz Euskadi ez den beste Hemen topos bezala irakurri ahalko litzateke baliagarriki. Alabaina, mementu honetan topos hori Euskadi bezala irakurri beharra dugu. Hala, irakurketa hau eginik, Euskadi ere biolentziazko simulakru horren beste errepikapen bezala irakurtzeko aukera zabaltzen digute ipuinok. Hau da, Obabatik Euskadira trasladatzen dugunean Atxagaren simulakru topologikoa, Euskadi ere simulakru ale-

goriko horren beste topos bat bezala azaltzen da. Nolabait esateko, Euskadi ere Obabaren alegoria bihurtzen da. Eta hain zuzen, artikulu honen helburua Atxagaren ipuingintza azken alegoria honen irakurketara zabaltzea da.

1. Atxagaren ipuingintzak lehenik Euskadi topos adierazkor bezala irakurtzera bultzatzen gaitu. Alegia, Euskadi bera ez dela errealitate iraunkor eta erreala —zentzu modernoan— da Atxagaren topologiaren azken traslazioaren lehen ondorioa. Euskadi ere alegoria bat gehiago da. Zera esan nahi dugu, Euskadi ere abertzaletasunak azken bi mendeetako historian sortu duen topos adierazkor, testual, ideologikoa dela ez errealitate historiko zilegiztatu bat (Ikus Juaristi, 1988)[22].

Bigarren ondorioa zera litzateke, Euskadi topos honen baliagarritasuna ez datzala bere errealtasunean baizik eta toposaren barne egituraketak duen baliagarritasun adierazkorrean. Berriro ere Atxagaren simulakruari jarraikiz, Euskadi toposa oinarrizko biolentzia batek egituratua bezala irakurri behar dugu. Biolentzia honen ezaugarria zera litzateke, gizarte arau jakin batzutatik kanpo geratzen diren subjektuak gizarte horrek biolentziaz suntsitzen dituela. Eta une honetan topos hori kultura eta naturaren artean kolokan jartzen dela biolentzia honen ondorioz.

Azkenik, Atxagaren ipuingintzak, gizarte biolentzia horrek suntsitzen dituen subjektuen narrazioa ematen digunez berauon ikuspuntutik, ipuinok suntsitutako subjektu hauen narrazioa izan nahi dutela irakur genezake.

2. Orain zenbait urte Atxagak Txillardegirekin izan zuen polemika sonatu batean, berak abertzale izatea eredu ideologiko irmo bati atxikitzea bazen, abertzale ez izatea nahiago zuela baieztatu zuen. Azken finean, Euskadi toposaren irakurketak, analisi honi jarraikiz, horixe azalerazi nahi du: Atxagak osatzen duen euskal literaturak, euskal abertzaletasunaren irmotasunak bazterreratu edo suntsitu dituen subjektuen narrazioa izan nahi duela. Neurri honetan Lasagabasterrek eta Azkargortak salatu duten lirikotasuna edo nihilismo modernista ez dira pertinente. Atxagak egitura adierazkor zoliagoz —ez errealista, postmodernoa baizik— Euskadi topoaren irakurketa politiko baten aukera eman digu. Irakurketa honek oraindik Euskal gizarte abertzalearen egituraren irmotasunak sortarazten duen biolentziaren eta biktimen irakurketa bat ematen digu.

7. Marginalia

Artikulu hau, Atxagak jaso zuen literatur sari nazionala eman zen baino lehenago burutu zen. Harrez gero, oraindik beste irakurketa bat egiteko aukera sor zitekeela otu zait. Alegia, Atxagaren ipuinak gaztelerara itzuli direnez, itzulpen honek beste topologia batean, beste Hemen batean, kokatuko gintuzke: euskal idazle baten euskal idazlanaren irakurketa espainiarra — eta agian latinoamerikarra. Topos espainiar honetatik, Espainia den beste alegoria hau berriro irakurtzeko aukera dugu. Eta neure intuizio espainiarraren arabera, Espainiak ere bortxaz deuseztatu dituela gizarte horretako arauetatik kanpora dautzan subjektuak argudiatzea ez da lan zaila— adibidez Euskadiko projektu abertzalea. Eta ondorioz, Espainiako eta Euskadiko ideologia

(22) Bere hitzetan: "Les règles de la parenté et du marriage nous sont apparues comme épuisantes, dans la diversité de leurs modalités historiques et géographiques, toutes les méthodes possibles pour assurer l'intégration des familles biologiques au sein du groupe social. ... Car la prohibition de l'inceste n'est pas une prohibition comme les autres; elle est la *prohibition* sous sa forme la plus générale, celle, peut-être, à quoi toutes les autres se ramenent ... La prohibition de l'inceste est universelle comme le langage"; (op. cit. 565. or.). Lévi-Straussen arabera intzestu debekua da forma desberdinetan edozein gizartetako famili erlazioak egituratzen dituena.

abertzaleak biolentziazko simulakru beraren bi alegoria direla proposatuko nuke. Baina irakurketa hau, kritiko ez euskaldun batek egitea hobe.

Bibliografia

Adorno, Th. W., 1973, *Negative Dialectics.* New York, Seabury Press.
Althuser, L., 1969, *Lenine et la philosophie.* Paris, F. Maspero.
Azkargorta, A., 1987, "Non dago Henri Bengoa?", *Larrun,* 4.
Baudrillard, J., 1981, *Simulacres et simulation.* Paris, Galilée. Ingelesezko itzulpena, *Simulations,* Semiotexte, 1983.
Bürger, P., 1987, *Theory of the Avant-garde.* Minnesota, Minnesota Univ. Press.
Deleuze, G. & Guattari, F., 1972, *Capitalisme et schizophrénie. I. L'Anti-Oedipus.* Paris, Minuit.
Derrida, J., 1967, *De la grammatologie.* Paris, Minuit.
Durand, G., 1969, *Les structures anthropologiques de l'imaginaire; introduction à l'archétypologie générale.* 3. arg., Paris, Bordas.
Foucault, M., 1969, *L'archéologie du savoir.* Paris, Gallimard.
———, 1976, *Histoire de la sexualité. I. La volonté de savoir.* Paris, Gallimard.
Goldman, L., 1964, *Pour une sociologie du roman.* Paris, Gallimard.
Greimas, J.-A., 1976, *Mauppassant. La sémiotique du texte. Exercices practiques.* Paris, Ed. du Seuil.
———, 1979, *Sémiotique. Dictionnaire raisoné de la théorie du langage.* Paris, Librairie Hachette.
Hegel, G. W. F., 1975, *Aesthetics.* London, Oxford Univ. Press.
Jameson, F., 1981, *The Political Unconscious.* Ithaca, NY, Cornell Univ. Press.
Juaristi, J., 1988, *El linaje de Aitor.* Madril, Taurus.
Lacan, J., 1966, *Écrits,* Paris. Ed. du Seuil.
Laclau, E., 1986, *Hegemony and Socialist Strategy.* London, Verso.
Lasagabaster, J. M.ª, 1986, "Introducción a la antología de textos" in id, (arg.), *Antología de la narrativa vasca actual.* Bartzelona, Edicions del Mall.
Lévi-Strauss, C., 1949, *Les structures élementaires de la parenté.* Paris, Minuit.
Lucáks, G., 1971, *The Theory of the Novel.* 6. inpr., Cambridge, MA, The MIT Press.
Lyotard, J. F., 1979, *La condition postmoderne.* Paris, Minuit.
Macherey, P., 1966, *Pour une théorie de la production littéraire,* Paris, F. Maspero.
Mcfarland, T., 1981, *Romanticism and the Forms of Ruin.* Princeton, NJ, Princeton Univ. Press.
Ricardou, J., 1973, *Le nouveau roman.* Paris, Gallimard.
Tacca, O., 1985, *Las voces de la novela.* 3. arg. zuz. eta hed., Madril, Gredos.

Bernardo Atxaga,
1972a, "Oscar edo nola egin behar den publizidaderako prospektu berri bat" in *Literatura 72,* Donostia, Lur, 133-141. or.
———, 1972b, "Borobila eta puntua" in *Literatura 72,* Donostia, Lur, 225-251. or.
———, 1976, *Ziutateaz,* I-II, Donostia, Kriselu, (Berrarg. Donostia, Erein, 1986).
———, 1978a, "Francisco Javier" in *21,* Donostia, Hordago, 305-312. or. (Birmold. "José Francisco: Obabako erretoretxean azaldutako bigarren aitortza" in *Obabakoak,* 1988, 23-40. or.).
———, 1978b, "Kamareroa izutu egin zen" in *21,* Donostia, Hordago, 313-323. or.
———, 1978c, *Etiopia,* (Argazkiak, J. M. Susperregi), Bilbo, Hauzoa, (Bigarren arg. eraldatua, Donostia, Erein, 1983).
———, 1980a, *Nikolasaren abenturak eta kalenturak* (Marrazkigilea Juan Carlos Eguillor), Antonio San Roman Editorea, (Gaztelerazko bertsioa urte eta editore berean).
———, 1980b, *Ramuntxo detektibea* (Marrazkigilea Juan Carlos Eguillor), Antonio San Roman Editorea, (Gaztelerazko bertsioa urte eta editore berean).

———, 1981a, "Algunas reglas prácticas para escribir un cuento en solo cinco minutos" in *23*, Donostia, Hordago, 23-27 or. (Birmold. eta itzul. "Ipui bat bost minututan izkribatzeko", in *Obakoak*, 1988, 285-288. or.).

———, 1981b, "Poema polaroid sobre la muerte de John Lenon" in *23*, Donostia, Hordago, 28-31. or.

———, 1982a, *Antonino apretaren istorioa* (Marrazkigilea Ion Zabaleta), Donostia, Erein (Siberiako treneko ipui eta kantak).

———, 1982b, *Camilo Lizardi erretore jaunaren etxean aurkitutako gutunaren azalpena*, Donostia, Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, (Berrar. in *Obabakoak*, 1988, 9-22. or.).

———, 1982c, *Chuck Aranberri dentista baten etxean* (Marrazkigilea Juan Karlos Eguillor), Donostia, Erein.

———, 1982d, "Hiztegia, poema" *Susa-5*, Apirila, 23-25. or.

———, 1982e, "Post tenebras spero lucem" *Jakin*, Urria-Abendua, 25, 104-116. or. (Berrar. in *Obabakoak*, 1988, 41-67. or.).

———, 1983a, "Drink Dr. Pepper" in *Donostiako Hiria, I*, Donostia, Haramburu Editor, 19-26. or. (Birmol. "Margarete, Heinrick" in *Obabakoak*, 1988, 313-322. or.).

———, 1983b, "Epilogoa, sasoi zaharrak gogoan" in Joseba Sarrionaindia, *Narrazioak*, Donostia, Elkar, 135-141. or. (Berrar. "Ni Jean Baptiste Hargous" in *Obabakoak*, 1988, 323-328).

———, 1984a, *Asto bat hypodromoan*, (Marrazkigilea: Jon Zabaleta), Donostia, Erein, (Siberiako treneko ipuin eta kantak saila).

———, 1984b, "Gauero aterako nintzateke paseatzera (II) Marie-ren azalpena" in *Donostiako Hiria III*, Donostia, Haramburu Editorea, 7-15. or. (Berrar. in *Obakoak*, 1988, 117-121. or.).

———, 1984c, *Sugeak txoriari begiratzen dionean*, Donostia, Erein.

———, 1985a, *Bi anai* (sic), Donostia, Erein.

———, 1985b, *Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian*, Donostia, Erein, (Siberiako treneko ipuin eta kantak saila).

———, 1986a, *Jimmy Potxolo* (Marrazkiak Asun Balzola), Donostia, Erein, (Siberiako treneko ipuin eta kantak saila).

———, 1988, *Obabakoak*, Donostia, Erein.

Euskal hizkuntzaren mailak

ALFONSO IRIGOIEN
(DEUSTU)

Agur afalkide guztioi, jaun eta andre*.

Bilbon noizean behin egiten diren Euskaldunen afarien barruan gaur Xabier Gereñok gomit egin dit afalondoan gai batez labur mintza nakizuen eta pentsatu dut egoki litzatekeela euskal hizkuntzaren mailez zerbait esatea. Gogora ekar dezagun Platonen *Sympósion* delakoan otorduan tratatu zirela filosofiako gai sakonak eta bost bat mende geroago Kristok berak ere azken afarian sortu zuela sakramentu bat. Apalago bada ere haien urratsen ondorik gabiltza. Ez dadila, ordea, azken afaria izan.

Dakizuenez gure hizkuntza guganaino bizirik heldu da batez ere euskaldunen artean ahorik aho menderik mende erabili izan delako eta neurri txikiagoan baita idatzi izan delako ere, idatzi izateak zerbait baino gehiago, baina ez nahikoa eta behar zen beste, lagundu baitio.

Historian zehar gehienbat mintzatua izateak bere ondorioak utzi ditu gure hizkuntzan, eta horrela, Euskal Herria txikia izanik ere, euskal hizkeren artean desberdintasun nabarmenak daude herri zabalagoan kokaturik sendo bizi izan diren zenbait erromantze ingurukotan gertatu izan denarekin konparatzen baldin badugu.

Bereziki gerra ondoan hizkuntza batua sortzearen asmoak arrakasta handia izan du eta bide horretan abiaturik gaude. Urte gutxiren buruan asko aldatu du jendearen eritzia eta egoitza berri honetan hainbat problema berri sortu da, gure hizkuntza eremu berrietan zehar sartu baita.

Lehen, Kanpionen gramatikaren tituluari kasu egiten baldin badiogu, lau euskalki literario bederen baziren[1]. Horrez gainera hainbat eta hainbat hizkera eta berbakera modu. Gutxienez hizkuntza mintzatua alderdi batetik eta literarioa bestetik bereizten ziren Etxeparek eta Leizarragak XVIgarren mendean batak poesia eta besteak prosa argitara eman zutenetik aurrera. Hor maila nagusi bi behintzat baditugu, bigarrena gutxienez lautan banatua eta lehenengoa herritik herrira.

Hizkuntza literarioa historian zehar gehienbat erlijioari loturik ibili izan da. Nolabait esateko hastapenetik beretik apez hizkuntza sortu zen. Apezek berek, ordea, ez dituzte ikasketak euskaraz egin izan, eta administrazioa ere ez da gure hizkuntzan erabili izan, Europako mendebal aldean zabal korritzen zuen latinaren denborak alde egiten hasirik hizkuntza erromanikoak geroago eta gehiago bere lekua hartzen joan baitziren, eta bereziki erreforma protestantearen garaian latinaren ondorengo ez

* Bilboko euskaldunen afalondoan 1988garreneko urtarrilaren 9an Gardoki jatetxean eginiko hitzaldia.

(1) A. Campión, *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la lengua vasca*, Tolosa 1884.

ziren nazio hizkuntzak ere bai, baina gurea, ordea, ez, Leizarragak, boterea gutxituriko erregina nafarraren eraginez, bestelako bidea hartu bazuen ere, eta hartu ere bide egokitik, euskal prosaren eta euskal nazioaren sortzaile gailen bihurturik. Hitz batez esateko, gure hizkuntza ez da izan gure Euskal Herriko bizitza osoa adierazteko erabili izan den bakarra, maila mintzatuan erabiliena izan bada ere bereziki jende arruntaren artean. Nafarroako erresumako gortea bera ere erdararen hedatzaile izan zen, beste ezer baino gehiago. Azkenean Enrike IVgarrena Frantziako errege ere bilakatuko zen Parisek meza bat entzutea merezi zuela esanik, eta izan ere geroagoko Frantziaren historia ez zen guretzat mesedegarriegi bihurtuko, orok dakikezuenez, eta klimax horren gailurra Erreboluziotik zetozen ondorioek hartuko zuten, gero Espainiara ere hedatu zirelarik.

Geroagokoa guztion gogoan dago. Gu beti berandutik berandura ibili izan gara, Herri meharrean bizi izan garelako, noski. Leizarragaren denboran, esate baterako, euskaldunak hamar miloi izan bagina kontua ez zatekeen berdin aterako. Baina historia den modukoa da, eta ez nahi gendukeen modukoa. Etorkizunean bakarrik dukegu posibilitatea neurri batean edo bestean, borondate zabala eta ondo finkatua izanez gero.

Gerra ondoko euskara batzearen *desideratum*-era itzul gaitezen.

Honezkero badakikezuenez gerra ondoan euskara batuaren arazoa Krutwigen bidetik hasi zen Lapurdiko euskara klasikoaren proposamena eginik zenbait jarraitzaile ere izan zituela: beren artean Villasante bera, halako moldeen barruan egin baitzuen 1952garren urtean Bilboko Diputazioan Euskaltzaindian sartu zeneko hitzaldia. Krutwigek berak egin zion erantzuna orain berrikitan argitara eman den testuaren bidez, delako testua luzaro erdi galdurik ibili baita. Izan ere testu horren kausaz atzerrira zen erantzulea[2].

Orduan oraindik frankismoaren urte latzak ziren eta geroagorarte modu zabalago batez ezin hasi izan ginen gure hizkuntza plazara ateratzen, Arantzazun 1956garren urtean Euskalzaleen lehenengo biltzar irekia egin genduen arte.

Arantzazuko bigarren biltzarrean 1968garren urtean agertu zen berriz euskara batuaren arazoa eta oraingo egoitzara hurbiltzen hasi[3].

Harrezkero euskara batuaren kontua topiko bihurtu da, eta Francoren heriotzeak, gainera, ezagutzen dituzuen politika arazo berriak ekarri ditu 1975garren urteaz geroztik, legearen aldetik lehengo euskararen kaleratze problemarik gabe. Euskadiko gobernuak, bestalde, hiru herrialdek osaturiko komunitate autonomoan bederen laguntza politika bat ere eraiki du, euskal telebista eta abar sortu da katea oso bat euskara hutsean izatera heldurik, eskola munduan geroago eta gehiago hedatu da, aldizkarietan ere lehen baino sarrera handiagoa du, eta jakina, jende berriaren uholdea nabarmen ageri da euskararen munduan, eta haien artean euskaldun berrien multzoa ere bada.

Agian denbora laburrean gauza berri gehiegi egin da behar den bezala zoritu gabe, euskara batuaren formula magikoak besterik gabe dena erabakiko duelakoan. Hau esatearekin ez ezazuela uste ni egin denaren kontra oso osoan altxatzen naizenik, zeren agian bestela ezin egin baitzitekeen. Hala ere zenbait akats nabarmen badirela itsu batek ere ikusiko luke. Gure egoitzaren luze laburra orokorki, zehaztasun gehiegitan sartu gabe, aipatu besterik ez dut egin nahi, apurka apurka zuzentzen joango delakoan.

(2) F. Krutwig Sagredo, "Hitzaldi bat eta bere aurre-historia", *Egan*, 5-6 (1986) 11-36.

(3) *Euskera*, 1 (1956) 163-304, eta 13 (1968) 137-265.

Lehengo baten euskal telebistako filme baten halako frasea entzun nion bertan parte hartzen zuen pertsonaia bati: —*Lotsa bat da* egin duena, '*es una vergüenza* lo que ha hecho'. Halako fraserik euskaldun zahar batek, den lekukoa edo den euskalkikoa dela, ez luke inola ere esango. Hor euskara erdararen mende dago hitzez hitz itzulirik: *una vergüenza = lotsa bat*. Edozein euskaldunek edozein mailatan *lotsagarria da* esango luke, eta Ifarraldekoa balitz *ahalkegarria da*. Beraz, lehen existitzen ez zen euskararen maila berria sortu da, erdararen mende dagoena, eta ez naiz kasu honetan hitzei buruz ari, aipatu diren guztiak euskal hitz zaharrak baitira, euskaldun zaharren oso ohitura linguistiko arruntei buruz baizik. Erdararen mende dagoen maila berria sortu da, eta horrek ez luke euskara batuarekin zer ikusirik izan behar, haren izenean badator ere. Etsenplu ugari aipa litezke, baina batekin aski dela uste dut honako. Ez diot lan horretan ari diren guztiak nahi eta nahi ez halako bidean murgildurik daudenik, horrelako bitxikeria zenbaitek ardura gehiegi gabe txitean pitean korritzen duela baizik, eta telebistan nabarmen gelditzen dira, eskolan baino nabarmenago, eskolakoek ere, beste alde batetik, eragin handia dutela hain ozenki entzun ezarren mundu zabalean.

Lehen euskararen ezagupide zabala izateko gutxienez lau euskalki literario mendera behar ziren, ikusi dugunez. Orain badugula euskara batua esaten dugunez gero, badirudi jende askorentzat aski dela euskara batu horren formula magiko hutsa ikastea oroiakile bihurtzeko, kristau arruntarentzat dotrina soila ikastea eta haren arauera jokatzea aski omen den bezala zerua irabazteko, teologiazko iturriak eta azken oinarriak zertan dautzan ikertzen hasi gabe, —irudi bat da, batez ere, hemen darabildana, kasu bakoitzaren luze laburretan sartu gabe—. Hala ere, ene ustez, lehengo egoitza ez da oinarriz aldatu, beharrezkoago bihurtu baizik, eta hizkuntzaren gaitasun zabala izateko gure memorio kulturalaren ondo ezagutzera heldu behar da behar litzatekeen maila onean euskaraz izkribatzen hasi orduko, Europako kulturaren iturburutik, bereziki Greziatik eta Erromatik, heldu dena ere inolako aitzakiaz ahantzi gabe, zeren hura ere gurea baita, gure ingurune zabaleko beste herri eta nazioena den modu berberean.

Ez dugu ahantzi behar gure memorio kulturalean euskal sistema berbal osoa ere badagoela egungo egunean korritzen duen urrituaren lekuan.

Batek edo bestek berehala lerradake ez dela aski euskaraz zuzen izkribatzea literaturaren aldetik baliozko diren lanak egiteko. Baina golpean erantzungo nioke edozein literaturazko lanetan, baliozko liren, *conditio sine qua non* dela hizkuntzaren aldetik zuzen izkribaturik egotea, berez aski ez bada ere.

Edozein modutan ere egungo egunean euskara batutzat gehienbat korritzen duena, —gutxiengo neurri batera iristen dena alderdi batetik, eta hain ona ez dena bestetik—, asko eta asko altxa liteke mailaz, hizkuntza dotore eta zentzu zabalean aristokratiko, eta arrazoi horregatik ohore osoz mimetiko eta imitagarri, bihurtu arte, horretarako borondate finkoa izatera euskaldun jende gaztea bultza bageneza. Izan ere, maila horretara igan bagintez egoitza hobean geundeke literaturazko lan ederragoak sor litezen ere. Ailitz horrela etorkizunean. Hala biz.

Jakina, argi eta garbi sartu behar dugu buruan, lehentxeago markatu den bidetik, Europako kulturaren zimentarriak ipintzen Grezian hasi zirela, eta horretara, bereziki hiztegi mailan, altxor handia dugula, inolako bildurrik gabe, lotsatu gabe, iturrira zuzenean joan gaitezen bakoitzean gurea dela aitor dezakeguna. Eta hori ez bakarrik ezinbestean, oraindik zenbaitek uste duen bezala, geure ondasun patrimoniala izateak ematen digun eskubide osoz baizik. Konparazio baterako, euskaraz grekozko λιθοφάγος *(lithophágos)* esateko badugu *harri jale*, mundu guztiak argi ulertzen

duen hitza, baina hala ere geure hizkuntzan grekotikoa inolako lotsarik gabe erabil dezakegu hitz zientifiko moduan, eta horrela jokatuarren ere ez dugu geurea baztertu beharrik, maila desberdinetan esan baititzakegu bata eta bestea. Berdintsu gertatzen da σαρκοφάγος *(sarkophágos)* hitzarekin, alderdi batetik 'haragi jalea' eta bestetik 'ehorzteko harri landu haragi jalea', eta abar eta abar. Eta zertan esanik ere ez *energia* hitzarekin, greko klasikoz ἐνέργεια, -ας *(enérgeia, -as)*, Mitxelenak haren ordez *kemena* nahi bazuen ere[4]. *Kemen, adore* eta *oldar* hitzek egungo egunean ez dute, ordea, bereziki zientzia mailan, *energia* hitzez mundu zabalean eman nahi den zehaztasunezko konotaziorik. Ene ustez, gure altxorra ezin alferrik gal dezakegu hain modu hutsean, serioski ari baldin bagara.

Ez dago zertan esanik guzti honek euskaldunen artean ere hizkuntza klasikoen ikasketak bultzatzera eramaten gaituela, eta ez gutiestera, beharrezko baitugu geure oinarriak adiutu eta zuzen har ditzagun, Europako edozein herrik duen bezala.

Beste alderdi batetik bada joera bat zenbait kasutan korritzen duena, zeinen arauera, mailegua ontzat harturik ere, beste itxura bat eman nahi baitzaio batere beharrezko ez delarik eta lotsari moduko batek eraginik, agian horrela euskaldunago bilakatzen delakoan. Eta ez da horrela. Bide horretarik abiatu da grekozko τεχνικός *(tekhnikós)* hitza, konparazio baterako, *teknikari* bihurturik irakurtzen baita inoiz, latinezko jatorria duen *-ari* berrekailua itsatsi zaiola, edo πολιτικός *(politikós)* > *politikari*, edo latinezko *minister, -tri*, akus. *ministru(m)* > *ministrari*. Hala ere ez dirudi **filologari, *filosofari* eta antzekorik hain erraz ikus daitekeenik. Halakoetan inolako lotsarik gabe erabili behar genituzke *tekniko, politiko, ministro, filologo, filosofo*, eta abar, *tekhniko, philologo, philosopho*, eta abar, *kh* eta *ph* dituztela izkribatu nahi ez bagenitu, Europako hizkuntzarik nabarmenenetariko diren frantses, ingles eta alemanak latinaren ohituraren arauera garatu duten bidea aintzat harturik.

Modu honetan, Greziatik heldu den kulturazko oinarri zabala dugula alderdi batetik, eta bestetik geure iturri etnikotik memorio kulturalaren bidez zuzen eta zabal, eta ez edozein modutan, atzeman dezakeguna, euskara batuzko maila gorena gauzatzera hel gindezke.

Bada, ordea, euskararen munduan beste alderdi bat ere gogoan izatekoa. Hainbat denbora da Euskaltzaindian agiri bat plazara genduela euskal hitzak zein diren adierazirik. Hartan hitz arrunten kontua tratatu zen, hala nola *bake, bekatu, berba, borondate, eliza, eskola, loria, lore, seinale, kolore, testamentu, kanta, familia, aingeru, izpiritu, gramatika*, eta abar, eta abar[5], hitz arrunten kontua, zeren orduan, pero-

(4) K. Mitxelenak UZEI-koekin izan zuen eztabaida famatuan horri eutsi zion. Eztabaida "Nuestra irresistible ascensión de la poesía a la ciencia", *Muga* III, nº 19 (1981), bere artikuluarekin hasi zen.

Ikus L. Michelena, "Acuse de recibo", *Deia*, 1982-I-15, hurrengo hau dioela: "Pero cuando se llegó a *energía*, —en una habitación en que estaban en reunión de trabajo físicos de uno y otro lado de los Pirineos—, no pude menos de señalar que *kemen* o *gemen*, traducido unas veces por 'energía' y otras por 'vigor', podría valer para el caso, a pesar de su carga animista, ya que Aguirre el de Asteasu, por ejemplo, lo empleaba para expresar 'virtud' de un sacramento".

Ez dut hemen adierazi nahi eztabaidan ari ziren alderdien artean batak gauza guztietan arrazoi osoa zuela eta besteak ez, ezta gutxiagorik ere. Esan nahi dudan gauza bakarra diodana besterik ez da, beste ezertan sartu gabe. Edozein modutan ere UZEI-k norbaiten kritika zorrotza beharrezko zuen hutsak gora behera, beste edozeinek ere beharrezko duen bezala.

(5) *Euskera*, 4 (1959) 214 hh. Hitz arrunt horietarik batzuk grekoan dute jatorria latinaren bidez zeharka aspaldi sartu baziren ere: Grekoz ἐκκλησία, -ας, (lat. *ecclesia, -ae*) > euskaraz arrunt: *eliza / eleiza / elexa*, grekoz ἄγγελος, ου, (lat. *angelus, -i*) > euskaraz arrunt: *aingeru / angeru / ainguru*, grekoz γραμματική, -ῆς, (lat. *grammatica, -ae*) > euskaraz erdi landu: *gramatika*. Bereizi beharra dago, alabaina, bide arruntetik etorri direnak alderdi batetik, eta bestetik Europan dugun kultura zabaleko altxorraren izenean jadanik harturik ditugunak eta aurrerantzean har ditzagunak. Bigarren sailekoak

grulloren egia izanarren, beharrezko gertatu baitzen oinarritzat ezartzea euskara bizian sustraiturik dauden hitzak jatorriz erdaratikoak direnean ere eskubide osoa dutela euskal hitz moduan oso osoan har ditzagun eta mintzatzerakoan eta izkribatzerakoan erabil ditzagun, eta hitzok zenbat eta sustraituago eta hedadura handiagoko izan, bai autore zaharren artean eta bai Euskal Herrian zehar, hainbat eta erabilgarriago direla esatea.

Jakina, garai hartan erdaratiko euskal hitz mordo bat eman zen eredugarri, besterik ez, eta ez zen arazo horren luze laburra neurtzeko ahalegin handiegirik egin. Oinarri hori gogoan harturik bakoitzak bere kasa egin zuen bide. Zeuden hiztegiek ere ez zuten gehiegi laguntzen kontu hori sakontzeko, zeren Azkuerenak berarenak ere halako hitzei ez baitzien leku gehiegirik eman, oso gutxi sartu baitzituen.

Uholde berria etorri delarik maiz erdarazko edozein hitz erabiltzeko batere kupidarik ez da agertzen eta esan beharra dago batek baino gehiagok beti ez dituela zaharrago diren erdaratiko egokiak eta normalki korritu izan dutenak ezagutzen, edo eta aurreko autoreetan agertzen diren bestelako modu egoki asko[6]. Egia esateko, *Orotariko euskal hiztegia*-ren lehenengo tomoa agertu berri da eta bertan denetarik biltzen da, erdaratiko eta bestelako, baita Arana Goiriren eta besteren neologismo inoiz erabili izan direnak ere, egungo egunean ahantzixe direnak ere bai[7]. Ez da hiztegi norma emailea, biltegia baizik. Argitaratzeko asko falta denarren Euskaltzaindiko Bibliotekan osoaren zerrendak daude. Zerrendotan ordenagailuan sarturiko autoreen testuetarik atera diren hitzak lerrokatzen dira, eta hitz bakoitza bere frasearen barruan kokatzen da, zein frasetan agertzen den hartan bildurik. Etorkizunean normazko hiztegietan, lexikoari dagokion purismoaren grina neurriz kanpokoa bazterturik, ez adinon dena ordea, gure altxorra behar den bezala jasoko al da! Gure patuak ailiotsa hala liren ondorioak!

Guzti hau Euskal Herri osoko nazio hizkuntza zabala sortzearen eta hedatzearen asmoari eta gogoari dagokio. Ikusi dugunez hor badira mailak: erdietsi nahi gendukeen gorengo maila eta besteak, onetarik hasi eta erdipurdizkoetara heldu arte[8].

Baina hizkuntza mintzatua dago beste alderdi batetik, lehen aipatu dugun moduan tradizio literarioan lautan banatua, apezen hizkuntza erizten zaiona, eta mintzatu hutsari bagagozkio herritik herrira. Maila horiek ere errespetoz begiratu behar dira, gure zimentarria hor baitago. Azken finean euskarak aurrera egingo badu tradizioa haurtzarotik gordetzen duten hiztunetan oinarri harturik izango da eta euskaldun berriak horretara makurtu beharko dute guztion artean helburura abia gaitezen. Tokian tokiko hizkerak zapuzten saia bagintez erdietsi nahi dugun nazio hizkuntzaren aurkako ondorioa sortzeko arriskua ipin genezake.

---

jatorrizko itxura modu osoagoan gorderik agertzen dira beti. Horrek esan nahi du Europako iturriok zein diren ere ikertu beharra dugula, eta arazo horrek izen bat du: hizkuntza klasikoen ezagupidean saiatu behar dela.

(6) Esaterako, komunikabide publiko baten hau idazten hasi baino apur bat lehentxeago entzun dut *oso preokupantea dela* zerbait. Jakina, gaztelaniaz maiz esaten dena itzuri zaio euskarara besterik gabe esaleari, *oso kezkagarria dela*, edo *oso kezkaturik daudela*, edo *oso arduraturik*, edo antzeko zerbait esan beharrean. Izan ere, *preocupante* berez ez da jakituria arloko hitza, aski arrunt korritzen duena baizik. Gaztelaniaz ere berdin berdin hauta liteke *muy inquietante*, ... Beste era batekoak dira *energia* edo *filosofia* edo *geografia* edo *dramaturgo*, edo *teatro*, edo *jurisprudentzia*, eta abar, hitzak.

(7) L. Michelena, *Diccionario general vasco - Orotariko euskal hiztegia, 1. A-Ama*, Bilbao 1987.

(8) Batzuetan euskal telebistan ematen dituzten filmetan pertsonen arteko tratamentuak eta mailak ere ez dira zeharo gordetzen. Esaterako, edozeini esaten zaio *kaixio*, edo Ameriketan egonik *eskilarapeko ardoa* eskatzen da girotik kanpo, *etxekoa* eskatu beharrean.

Hori horrela izanik Euskaltzaindian bertan Bizkaiko euskal aditz bateratua ere ontzat hartu zen egin zitzaion eskabide bat zela medio. Eta beste alderdi batetik nabarmena da izkribatzerakoan ifarraldeko euskaldunen artean bertako hizkerari deraukaten atxikimendua, hegoaldeko hainbaten artean ere euskara batuaren izenean nor bere hizkerara politotxo lerratzeko joera izanik, eta batzuetan bitxikerietara ere bai. Baina hori ez litzateke berez txarra ahaleginak egin bagenitza gure gogoa zabala lizen.

Esan dugun gorengo mailak beste maila guztietan, beherengora iritsi arte, eragin aberasgarria izango luke diglosiazko kokagune egoki baten gerta baledi.

Ez dugu ahantzi behar gure nazio hizkuntzaren umotzea prozeso luzea dela eta jadanik urrats nabarmenak emanik direla bide horretan zehar.

Eta besterik gabe afariak on deizuela guztioi eta gabon.

Haur txikien hizkuntz heldutasuna neurtzeko baliapide bat: esaldien bataz besteko luzera EBBL edo MLU

ITZIAR IDIAZABAL
(EHU, Gasteiz)

Sarrera

Euskararen deskribaketa eta azterketa, testu zaharretakoa eta gaurkoa, badoa pixkanaka sendotzen. Euskararen erakusketa bestalde, ahalegin eta baliapide askoren helburua da. Euskararen jabekuntzaz ordea, ez dago, esateko, argitaratutako emaitzarik. Eta hau ez da ongi ulertzen, izan ere, eta hizkuntza nagusienetan ongi ikus daitekeenez, hizkuntzaren jabekuntza aztertzea bai hizkuntz jardueraren deskribaketarako eta baita ere bere irakaskuntzarako oso beharrezkoa bait da.

Lantxo honen helburua haurren hizkuntz jabekuntza aztertzeko gehien erabiltzen den heldutasun neurri bat aurkeztea da, eta euskaraz, neurri horretaz baliatu ahal izateko, behar diren, edo guk egiten dizkiogun, egokitzeak adieraztea.[1]

MLU (Mean Length of Utterance) deituratik itzuliaz, EBBL (Esaldien Bataz Besteko Luzera) deitzen dugun neurria, izan ere, bere akats eta guzti, (ikus, adibidez, Crystal 1974) oraindik erabiliena da, edozein hizkuntzaren jabekuntza ikerketarako, erreferentzi puntu bezala[2]. Eta hobeagorik asmatzen ez den bitartean, euskaraz ere lanabes baliagarria dela uste dugunez, gure egokitze erizpideak azaldu nahi ditugu. Neurria erabili nahi duen guztiak ezagut ditzan eta bidebatez, erizpide ezberdinak baleudeke elkarrizketarako bidea irekitzeko. Guzi hori, euskararen jabekuntzan ere ikerketa gehiago egingo denaren esperantzan.

1. Zer da EBBL?

Aspalditik aztertu den zerbait da haurren hizkuntz jabekuntza. Hala ere ikasketa hauen sendotze eta garatze berezia hirurogeietatik dator eta ingelesaren aztertzetik batez ere. Ikerketa hauen aintzindari Harvard-eko R. Brown eta bere taldea (Clark, Bowerman, Bellugi, etabar) izan da eta argitalpen guztien artean 1973ko *A first language. The early stages* bereizten da. Bertan ikerketa askotako emaitzak eta metodologia oinarriak aipatzen ditu Brownek eta batez ere, orduz geroztik hain erabilia

(1) Lantxo honetan agertzen diren hizkuntz adibide batzu Euskal Filologia Saileko ikasleek egindako lanetatik atera dira.

(2) Ikus esate baterako, Miller 1981, Bowerman 1984, Slobin 1985, De Villiers & De Villiers 1978 amerikar batzuk aipatzeko, eta Europarren artean, Taeschner 1983, Meisel 1986, De Houwer 1987, etabarrek argitaratutakoetan nola beti agertzen den MLU neurria, nahiz eta erreferentzi gisa edo informazio osagarri besterik ez den askotan.

izan den, MLU hizkuntz heldutasun neurria eta bere erabilerarako arauak aurkezten dira. Alegia, haurrek esaten dituzten hitz eta esaldien luzera nola neurtu eta neurri horri eman dakioken hizkuntz heldutasun balioa proposatzen digu. Horretarako hizkuntz grabazio baten transkribapenean, esaldiek duten bataz-besteko morfema kopurua eta transkribapen horretan bertan agertzen den esaldirik luzeenaren UB (Upper Bound) arabera bost maila erabaki zituen. (Ikus taula 1) Harrez gero, hizkuntza ezberdinetara egokitu da neurri hau eta oso erabilia da jabekuntza ikerketetan, erreferentzi puntu modura.

Taula 1. Brownek MLU eta UB bitartez erabakitako hizkuntz mailak eta balioak.

Maila	MLU	UB
I	1.75	5
II	2.25	7
III	2.75	9
IV	3.50	11
V	4.00	13

Hizkuntz jabekuntzaren ikerlariak ohartu ziren, haurraren adina ez zela neurri fidagarria bere hizkuntz maila adierazteko. Aurreneko hitz eta berbaldiak behintzat, haur batzuk lehenago eta beste batzuk askoz beranduago ematen dituztelako, eta horrek geroko hitzegitearen aurrerapen edo atzerapenik adierazten ez duelako. Hiztegiaren kopurua, aspalditik erabili izan den neurpidea bada ere, ez da oso fidagarria; metodologia aldetik, ezinezkoa gertatzen bait da haur baten hiztegi osoa jasotzea.

Haurraren esakuneak arretaz behatzen badira, ordea, totel-hizkerazko edo tikilitakalako ahots jarioaren ondoren, garbi ikusten da uler daitezken hitzak banaka hasten dirala sortzen; hitz bateko esaldiak edo holofraseak deitzen zaie lehenengo berbazko emaitza hauei. Ondoren, bi eta hiru hitz lotuko ditu, eta astiro joango da esaldia luzatzen eta bere hizkuntzaren gramatikaren ezaugarriez osatzen.

Beraz, hizkuntzaren berbazko garapena neurtzeko esaldien luzera erizpide fidagarritzat hartu izan da. Kontuan izan gainera, metodologia hau oso loturik agertzen dela garai horretako gramatiketan, (nahiz estrukturalista nahiz sortzaileetan) esaldi unitateak hartzen duen garrantziarekin. Horregatik, esan da (ikus adibidez Crystal, 1974) MLU neurria adinekoen gramatika deskribapenen baldintzapean egiten den zerbait dela eta ez haurren hizkuntzaren berezko ezaugarrietan oinarritua. Hori bai, ikerketarako baldintzak nahiko errazten dira bide honetatik, ez da hizkuntz emaitza guzia jaso behar eta erreferentzi puntua ere (hizkuntzaren gramatika) nahiko garbi zehaztua dago, hizkuntza nagusietan behintzat.

Esaldiaren luzera neurtzeko, jakina, unitate ezberdinak har daitezke: hitza, silaba, azentudun silaba edo beste. Brown-ek morfema hartu zuen unitate eredu legez eta harrez gero hau da gehien erabili izan dena. Zeri deitzen zaion morfema eta zenbat kontatu kasu bakoitzean ez da, ordea, erabaki erraza izaten beti. Brown-ek, eta ingelesari begira, noski, zenbait arau eman zituen. Araudi hura gure beharretara, euskararen neurketara, alegia, egokitu dugu. Horretarako bitarte honetan egin diren hainbat kritika eta aldaketa ere kontuan izanik.

Brown-en MLU neurriari egiten zaion beste kritika nagusia, *esaldia* unitatearen definiziorik eza da. Alegia, ez da beti garbi egoten non hasi eta non bukatzen den

esaldi bat. Erizpide ezberdinak erabili izan dira hemen: morfosintaxiazkoa batetik, doinu edo prosodiazkoa bestetik, eta semantikoa edo edukiarena ere bai.

Aurkezpen orokor honetan esan behar da, bestalde, EBBL neurriak ez duela edozein adinetako hizkuntza neurtzeko balio. Brown-en proposamenetan, bost hizkuntza maila agertzen badira, bostgarrenak 4 morfemen EBBL-a du. Beraz hasierako hizkuntzarentzat bakarrik gertatzen da adierazgarri; 3 urte inguruan amaitzen da bere neurt-balioa.

Hizkuntzarteko jabekuntza gonbaraketan ere erabili izan da neurri hau, batez ere bi hizkuntza batera ikasten dituzten haurren emaitzak neurtzeko. Bi hizkuntza horiek oso ezberdinak badira, ezin esan daiteke oso fidagarria denik edo ez behintzat, alderatzeko neurri bakartzat har daitekeenik. Izan ere, lehen esan dugun bezala, esaldi arteko ebaketa, edo morfemaren mugak, ez daude argi eta ez dakigu zenbateraino duten balio berbera bi hizkuntzetan. Hala ere erreferentzi puntu bezala eta beste neurri batzuren artean ikerketa mailan erabilgarria da.

Ikerketa maila esaten dugunean ez dela eskolan erabiltzeko esan nahi dugu, eta ezta test modura haurraren hizkuntz etorkizunaren diagnostikorako har daitekeen zerbait ere.

2. Euskarazko EBBL neurtzeko arauak

Brownek MLU neurri objetibo bezala aurkezten bazuen ere ikusi dugu behin eta berriro zalantzak sortzen direla. Atal honetan euskarazko emaitzak neurtzeko guk erabiltzen ditugun erizpideak azalduko ditugu.

1. Esakune edo esaldia mugatzea da erabakirik ezobjetiboena. Transkribatzaileak, haurrak esaten duen doinuaren, edukiaren eta formaren arabera esaldiak marraz (/) mugaturik adierazi behar ditu. Adibidez:

— /begila holi/tutu/, eta ez
— /begila holi tutu/, "holi" eta "tutu"ren artean ixilune bat gertatu delako kasu honetan.

2. Brownek transkribapenaren lehenengo bi orriak ez kontatzea proposatzen bazuen ere, guk aurrenekotik kontatzen dugu, haurrak hasieratik normaltasunez jardun badu behintzat. Bestela, normaltasuna —eta hori ez da beti erraz ikusten— noiz hasten den, orduan hasten gara kontaketan. Gero, 100 esaldi oso hartzen ditugu bataz-besteko morfema kopurua edo media ateratzeko. Transkribapen batetan 100 esaldi baino gutxiago baleude, daudenen artean egiten dugu bataz-bestekoa.

3. Brownek errezitapenak ez kontatzeko esaten du. Guk ere ez ditugu abesti, olerki edo telebistako iragarkietako esaera guztiz errepikatuak kontatzen. Aldiz, haurrak ipuin edo antzeko bat kontatzen badu, nahiz eta lehen beste norbaitek berari esandakoa izan, berea bezala hartzen da; nolabait, nahiz eta esaera errepikatuak agertu, kontakizuna haurrak berak antolatua delako.

4. Jatorrizko ereduan bezala, erabat transkribatutako esaldiak bakarrik hartzen dira kontuan EBBL kontaketarako. Esaldi batean, hitz edo zatiren bat entzun ez edo ulertezina delako zuri uzten bada, esaldi hori ez da kontatzen. Kontatzen dira, ordea, zenbait hitzen esanahia argitzeko, parentesi arteko azalpenak dituzten esaldiak. Adibidez:

— /xxx balaki xxx/ = ...
— /hau balaki (badaki(t)) ni hemen/ = /1+2+1+1/ = 5

5. Brownen eredua jarraituz, esaldi guztiz berdinak errepikatzen badira, errepikapen guztiak kontatzen dira. Aldiz, errepikatzen dena hitz bat bada, edo erdizka edo totelka esandako esaldi bat, agerpen guzietatik osoena bakarrik kontatzen da. Adibidez:

— kotxie/kotxie/kotxie/kotxie/benga zuk be bai jolastu/ = /1/+/1+2+1+1+1/ = 1+6

— /zu/zu/zu/zu zara ai ai ai/ = /1+2+1/ = 4

6. Ereduan proposatzen den modura, *mm*, *hh* eta antzeko hots betegarri edo euskarriak ez dira morfema gisa kontatuko, baina *bai!*, *ez!*, *ia*, *jo*, *ta*, *ba* eta antzekoak bai; alegia, zentzua edo gramatika-funtzioa nahiko garbi adierazten dutenak bakarrik hartzen dira kontutan.

7. Hitz konposatuak, izen propioak eta onomatopeiazko hitz osaketak hitz soil bezala kontatuko dira, beti osaketa berarekin azaltzen badira behintzat; haurrari ez zaio konposaketaren kontzientziarik suposatzen. Adibidez: *urtebetetze*, *lo-lo*, *burrum-burrum*.

8. Esaerekin zer erabaki hartu ez dago garbi: *ondo-lo-in*, *ze-moduz*, *bihar-arte*, hiru eta bi morfemez osatutako esakuneak ala batekoak dira?. Guk horrela erabaki dugu: haurrak nahiko garbi esaten baditu eta transkripzioetan zehar, esaera horietako osagarriren bat isolaturik agertu bada, (adibidez, *ondo*, *(eg)in*, *zer*, *bihar*), bereiz daitezkeen hainbat morfemaren balioa emango zaie esaerei: *ondo-lo-in* = 3; *ze-moduz* = 2; *bihar-arte* = 2. Bestela, esaera bakoitza, erro hutsez osatutako hitz bat edo morfema bakarreko bezala kontatuko da.

9. Edozein izen edo deklinaturiko hitz-errori morfema baten balioa ematen zaio eta kasu edo bestelako atzizki bakoitzeko (artikulua, pluralgilea etabar) beste morfema bat bezala kontatzen da:

— /ama/ = 1

— /amaren/ = 2

— /amarena/ = 3

Baina salbuespenak badaude.

10. Artikulua edo *-a* atzizkia ez da beti kontatzen. Transkribapenean zehar ongi erabilia behar du izan; alegia, behar denean jarri eta behar denean kentzen den marka modura erabilia. Bestela delako *-a* organikoaren antzekoa litzateke, ez gramatikazko atzizkia, alegia. Adibidez, *nerea* hitzari 3 balioa eman ahal izateko, haurrak, *nere* ere erabiltzen duela ikusi behar da. Bestela, horrela kontatzen da:

— /eman nerea kotxea/ = /1+2+2/ = 5

Kotxea-ren artikulua hartzen da kontutan baina *nerea*-rena ez; eta *kotxea*-rena ere, aurretik *kotxe* bezala, erroa soil-soilik, agertu delako. *Nerea*-ri, bestalde, genitiboaren atzizkiak ematen dio bigarren morfema balioa.

Arau bezala, beraz, horrela formula daiteke: edozein hitzi berak itsatsirik daraman atzizki edo atzizkien morfema balioa gehitzeko, delako hitza edo erroa atzizkirik gabe edo beste batzurekin osatua agertu behar du, transkribapen horretan edo

aurrekoetan. Bestela ezin froga daiteke delako erabilera erabat bereganatua duenik haurrak; errepikapen hutsa, edo aztertu gabeko "amalgama" deituriko esakune horietako bat litzateke.

11. Browek marka txikigarriak ez kontatzeko esaten du, haurrak zenbait hitz (*mummy*, *daddy*, adibidez) forma horretan bakarrik ezagutzen dituelako. Euskaraz, balio hori duten atzizkiak besteen parean jartzen dira, indarrezko formak (*hortxe*, *holaxe*) edo kasu atzizkien pareko, esate baterako. Eta ondorioz, betiko araua jarraitzea proposatzen da. Alegia, hitz bati atzizki baten morfema-balioa kontatu ahal izateko, delako hitzak atzizki hori gabe agertu behar du edo behintzat beste hitzen batek bi eratara (atzizkiarekin eta atzizkirik gabe, alegia) erabilia izan behar du. Adibidez, *Begotxu*-ri 2 balioa emango zaio, haur horrek *Bego* ere erabiltzen badu, edo behintzat *ama* eta *amatxu*, edo antzeko zerbait, bere transkribapenetan agertzen badira.

12. Aditz formen kontaketarako zenbait ohar egin behar da:

12.1. EBBL neurriarekin azter daitekeen hizkuntz maila mugatua dela esan dugu; beraz, ez dugu uste adizki guztien balioa aztertzen aritu behar denik. Esate baterako, denbora edo tempusaren formei dagokienez, orainekoak bakarrik agertuko direnez, ez ditugu morfema bezala kontatuko. Moduari buruz berdin, ez da ahalezkorik agertuko, beraz ez da modua ere kontuan izango. Pertsona eta kasu markekin gertatzen dena ere ez dago beti argi. Zenbait ikerlarirentzat (adib. Taeschner, 1983) haurrak hasieran aditz-forma bat bakarrik erabiltzen du edozein pertsona nahiz alditarako; oraindik lexikoa bereganatzen nahikoa lan duelako. Hala ere, forma bat baino gehiago laster agertzen da, eta hori bai, haur gehienak forma berdintsuetatik hasten dira. Beraz, forma horiek neurtzeko eta bere bilakaera aztertzeko proposamen batzuk egingo ditugu.

12.2. Aditzaren jokatugabeko formen artean, *-tu* formak neutrotzat hartzen dira, beraz, erroarekin batera morfema bat bezala kontatzen dira. Beste formek, aldiz, *-tzen* eta *-tuko*-k morfema bat gehitzen diote erroari. Nominalizazio markekin ere (*-tzea*, *-tzeko*, *-tzera*, etabar) berdin jokatzen da, morfema bat gehituaz, alegia. Adibidez:

— /ipini/ = 1
— /ipintzen/ = 2
— /ipintzeko/ = 2
— /ipintzea/ = 2

12.3. Forma jokatuetan, kasu marka bakoitzeko morfema bat gehitzen zaio erroari. Adibidez:

— /dator/ = 2
— /datorkit/ = 3

12.4. Aditz-forma batek pluralgilea daramanean beste morfema balio bat hartuko du arrazoi horregatik. Singularra ez markatutzat hartuko da beraz. Adibidez:

— /nator/ = 2
— /gatoz/ = 3

Baina salbuespenak badaude:

12.5. Aditz laguntzaileetan, erroa ez da kontatzen, baina kasuen adizkiak eta pluralgilearena bai, jakina. Adibidez:

— /apurtu da/ = 1+1 = 2
— /apurtu zaio/ = 1+2 = 3
— /apurtu dut/ = 1+2 = 3
— /apurtu diozu/ = 1+3 = 4
— /apurtu dizkiozu/ = 1+4 = 5

12.6. Aditz forma askotan adizki guztiak ez dira ahoskatzen eta ez dago argi, haurra zenbateraino jabetzen den esaten duen guztiaz. Adibidez: *guruzu, ipinikot, tapakolu; gura dozu, ipiniko dot* edo *tapatuko dugu*-ren baliokidetzat har daitezke ala ez? Izen sintagmaren markekin eta han agertzen ziren osaketetan esaten genuena esango dugu hemen ere. Alegia, esakunearen osagairen batek, bakarrik edo beste osaketa batean agertu behar duela bere adizki guztiak kontatu ahal izateko. Adibidez, *guruzu* esaten duenak *gurot* edo *eizu* edo *zu zara* edo antzeko beste zerbait ere esan behar du, aditz forma hori bere adizki edo morfema guztiekin kontatua izateko. Hau da (*gura*(1) + *dozu*(2)) = 3. Bestela, morfema baten balioa besterik ez luke izango.

3. Azken oharrak

Ikusten den bezala, bere mugak eta bere ahalmenak dituen baliapidea da EBBL delakoa. Haur batek II edo III mailako hizkuntz heldutasuna duela esateak ezer gutxi esaten du haur horrek bere solaskideekin komunikatzeko duen ahalmen osoaz. Ez du solaskidea bera ere kontutan hartzen, ez keinurik ez ahozko hizkuntzan hain adierazgarri diren hainbat ezaugarri ezertarako aipatzen: doinu, abiadura, ixiluneak, etabar.

Guzti hori kontuan hartzen duen neurririk ez da, ordea, asmatu oraindik, eta denbora luzea joan beharko duela uste dugu hori lortu arte. Hala ere, nahiko adierazgarria da gramatiketan aztertzen den hizkuntzaren hastapenetan oinarrituaz, hizkuntz bereko haur ezberdinen arteko alderaketak egiteko eta batez ere haur baten beraren bilakaeraren neurri bat izateko.

Eta batez ere, eta hau da beharbada garrantzitsuena, nahiz eta emaitzen arrazoirik eskeintzen ez duen, haur arteko eta hizkuntz maila ezberdinen arteko emaitzak agerian jartzen dituelako, galderak sortarazten ditu. Eta ikerketan, jakina denez, beharrezkoena galderak eukitzea da.

Bibliografia

Bowerman, M., 1979, "The acquisition of complex sentences", in Fletcher and Garman (eds), *Language acquisition*. Cambridge: Cambridge University Press.

Brown, R., 1973, *A first language. The early stages*, Penguin, 1976, Hardmondsworth etc.

Clark, E., & Clark, H., 1977, *Psychology and language: an introduction to psycholinguistics*. New York: Harcourt Brace Jovanovich.

Crystal, D., 1974, review of Roger Brown's *A first language. The early stages, J. of Child Language*, I, 289-334.

De Houwer, A., 1987, *Two at a time: An exploration of how children acquire two languages from birth*, Free University of Brussels.

Meisel, J., 1986a, "Word order and case marking in early child language. Evidence from simultaneous acquisition of two first languages: French and German", *Linguistics*, 123-183.

Meisel, J., (ed) 1986b, *Adquisición de lenguaje. Aquisaçao da linguagem*. Vervuert, Frankfurt.

Meisel, J., & Mahlau, A., 1987, *La adquisición simultanea de dos primeras lenguas. Discusión general e implicaciones para el estudio del bilingüismo en Euzkadi*. II Euskal Mundu Biltzarrean aurkeztutako txostena.

Miller, J., 1981, *Assessing language production in children: experimental procedures*. London: Edward Arnold.

Van Naersen, M., 1986, "Hipótesis sobre la adquisición de una segunda lengua: consideraciones interlenguaje: comprobación en el español", in J. M. Meisel (ed.) 1986b.

Slobin, D. I., 1973, "Cognitive prerequisites for the development of grammar". In C. A. Fergusons & D. I. Slobin (eds.), *Studies of child language development*, New York: Holt Rinehart & Winston.

———, (ed.) 1985, *The crosslinguistic study of language acquisition. I: The data*. L. Erlabaum Ass. Publ., Hillsdale (N. Y.) & London.

Taeschner, T., 1983, *The sun is feminine. A study of language acquisition in bilingual children*. Springer-Verlag, Berlin etc.

De Villiers, J. G. & De Villiers, P. A., 1978, *Language acquisition*, Harvard University Press, Cambridge (Mass.) & London.

Volterra, V. & Taeschner, T., 1978, "The acquisition and development of language by bilingual children", *J. Child Language*, 5, 311-326.

Wells, G., 1986, *Language development in the pre-scholl years*. Cambridge: Cambridge University Press.

Algunos aspectos socio-culturales y socio-lingüísticos del léxico disponible de la población escolar bilingüe euskara-español

Mª JOSÉ AZURMENDI AYERBE
(UPV, San Sebastián)

Introducción*

Este trabajo está basado en el material léxico y psico-socio-cultural obtenido en el Proyecto de investigación: "Estudio psico-socio-lingüístico del bilingüismo en la población escolar de Euskadi, a través del análisis de su léxico básico disponible en ambas lenguas" en la primavera de 1982, a través de dos tipos de encuestas: la encuesta lingüística y la psico-socio-lingüística.

A través de la encuesta lingüística se ha obtenido el léxico relacionado con los 16 Centros de Interés (C.I.) o áreas significativas amplias de que consta, inicialmente, este Proyecto. De entre éstos, los analizados, parcialmente, hasta ahora son los cinco C.I. siguientes:

C.I. 2: Jantziak eta oinetakoak / Prendas de vestir y de calzar;

C.I. 6: Hiria nahiz herria: hauetan ikusten eta egiten direnak / Ciudad o pueblo: lo que se ve y se hace en ellos;

C.I. 9: Lana: lan motak, lanbideak, ofizioak / El trabajo: clases de trabajos, de oficios, de profesiones;

C.I. 10: Jolasak. Atsedenaldiak. Denborapasak / Juegos. Diversiones. Entretenimientos;

C.I. 13: Jai egunak eta oporrak: egiten duzuna eta egin nahiko zenukeena / Los días de fiesta y las vacaciones: lo que haces y lo que te gustaría hacer.

El léxico así obtenido lo hemos analizado y clasificado según las siguientes características o variables lingüísticas:

* Este trabajo, que se inscribe en una serie de trabajos relacionados con el tema central: "Estudio psicosociolingüístico del bilingüismo, a través del análisis de su léxico básico disponible en ambas lenguas, respecto de la población escolar bilingüe de Euskadi", está también relacionado con el trabajo que elaboramos para el libro-homenaje *Symbolae Lvdovico Mitxelena Septuagenario Oblatae*, en honor también de nuestro profesor Koldo Mitxelena).

Tipo de variables 1:	de la cantidad de producción léxica;
Tipo de variables 2:	de la clase léxica o del grado de lexicalización (sustantivos, verbos, expresiones perifrásticas de distintos tipos,...);
Tipo de variables 3:	de la distancia inter-lingüística mantenida entre ambas lenguas en uso, por parte de los bilingües; o a la inversa, de la dependencia léxica y lingüística de una de las lenguas respecto de la otra en contacto, como por ejemplo a través de los préstamos;
Tipo de variables 4:	del grado de corrección lingüística en el uso del léxico obtenido en ambas lenguas, distinguiendo distintos tipos de incorrección lingüística;
Tipo de variables 5:	de los grupos semánticos o significativos distintos distinguidos dentro de cada C.I., para facilitar un análisis socio-cultural.

A través de la encuesta psico-socio-lingüística se han obtenido gran cantidad de datos de distinto tipo de la población a estudiar. Sólo una parte del total de datos los hemos parcialmente analizado, aquéllos que son considerados entre nosotros como los más importantes con vistas a la planificación, sobre todo a través del sistema educativo, y que son con los que hemos establecido los tipos de estratos o grupos poblacionales siguientes:

las dos lenguas en contacto de nuestro bilingüismo social: el euskara y el español;

Los tres grupos de edad, y de escolarización: 5º de EGB (10-11 años), 8º de EGB (13-14 años), y 3º de BUP + 2º de FP (16-17 años);

Los dos grupos según la clase de escolarización en relación con el euskara: las Ikastolas con una enseñanza fundamentalmente en euskara, y los Centros públicos y los privados con una enseñanza entonces (en 1982) prácticamente sólo en español;

Los cuatro grupos geolingüísticos: Araba/Alava, Bizkaia/Vizcaya, Gipuzkoa/Guipúzcoa, y Nafarroa/Navarra.

Así pues, la población-objetivo, o a estudiar, es la población bilingüe escolarizada en las etapas que acabamos de señalar, de todos los territorios de Euskadi-Sur.

Para la muestra final se seleccionaron las encuestas de 4248 alumnos, de los que se obtuvieron 310 tacos o paquetes completos de encuestas, comprendiendo cada uno de ellos dos respuestas (una en euskara y la otra en español) de cada uno de los 16 C.I. a estudiar. Así, para cada C.I. se han utilizado 620 encuestas lingüísticas y psico-sociológicas distintas; de las 620 encuestas lingüísticas, 310 (la mitad) corresponden a cada una de las dos lenguas en contacto y de uso, producidas aproximadamente por 265 alumnos.

Los objetivos más importantes de este Proyecto de investigación (a realizar en equipo) son dos:

> Conocer cómo es nuestra situación de "contacto de lenguas" y de "bilingüismo social" en el País Vasco, a través de la descripción del "léxico disponible" utilizado en ambas lenguas por parte de nuestros bilingües, desde todos los puntos de vista posibles: el socio-cultural, el psico-sociológico, el lingüístico, el psico-lingüístico, el socio-lingüístico, etc...
>
> Obtener unos resultados que sean aplicables y faciliten la planificación socio-cultural, lingüística, socio-lingüística, etc. en el País Vasco, a través sobre todo del sistema escolar como decíamos ya más arriba.

Desde el punto de vista teórico, nuestros presupuestos iniciales hacen referencia a teorías de distintas disciplinas y tradiciones científicas, como la Psicología social, la Psicolingüística, la Sociolingüística, la Lingüística. Sobre todo hacen referencia a la tradición científica de estudio psico-socio-lingüístico del contacto de lenguas y del bilingüismo social.

Más concretamente ahora, en relación con la "adquisición y uso posterior del léxico", existen distintos planteamientos teóricos y epistemológicos, entre los que yo asumiría por ejemplo, resumidamente:

Por una parte, reconocer dos modos distintos de adquisición del lenguaje, sobre todo respecto de la primera lengua o lengua materna: algunos aspectos se adquieren por "emergencia" de estructuras lingüísticas innatas, y otros se adquieren por "aprendizaje" posterior. Se trata, pues, de una postura convergente e intermedia entre las posturas más extremas.

La adquisición del léxico, concretamente, pienso que viene dada fundamentalmente por aprendizaje. Además, el léxico sería el aspecto del lenguaje más fuertemente ligado al contexto psico-socio-histórico-cultural concreto en donde se va a dar dicha adquisición del léxico por aprendizaje. Esto resulta más claro cuando se tiene en cuenta que el léxico es precisamente el aspecto del lenguaje de mayor movilidad, de modo que su proceso de adquisición y uso es cambiante, y no termina nunca, en comparación con la adquisición y uso de otros aspectos del lenguaje como el sintáctico, o el fonémico, por ejemplo.

Por otra parte, soy partidaria de distinguir lo que es el estudio de la "competencia lingüística", de lo que es la "competencia psico-socio-cultural-lingüística" (por decirlo de algún modo) y desde la que se entiende la "actuación o uso lingüísticos". Es en dicha actuación y uso lingüísticos donde intervienen tanto la competencia lingüística, como la competencia psico-socio-cultural-lingüística dada por el conocimiento del mundo, la pragmática, el conocimiento contextual y discursivo, la intencionalidad, etc... Todavía más, creo que el léxico es el aspecto del lenguaje que mejor sintetiza y expresa todo el conjunto de factores, de distintos tipos, que intervienen en el uso o actuación lingüísticos. Por todo ello, la adquisición del léxico se manifiesta como un proceso inacabable, del mismo modo que el contexto psico-socio-cultural (que el léxico refleja) está en constante evolución, sobre todo en sociedades de gran movilidad, de todo tipo, como es la nuestra. De ahí que la adquisición, y uso, del léxico, sea un problema complejo, fundamentalmente psico-socio-histórico-cultural-lingüístico a la vez.

En la situación de contacto de lenguas y de bilingüismo social, como es nuestro caso en el País Vasco, el estudio del léxico disponible en ambas lenguas de uso tiene una importancia especial, porque el léxico es el aspecto del lenguaje que mejor reflejará, también, la situación de y entre las dos lenguas en contacto en nuestra sociedad, y entre las dos lenguas de uso de nuestros bilingües, desde cualquier punto de vista: el más lingüístico, o el más psico-sociológico, o el socio-cultural, etc...

Y desde el punto de vista metodológico, hemos utilizado distintos métodos de obtención de los datos, y distintas técnicas de análisis de dichos datos según los aspectos a estudiar, como las técnicas de "análisis multivariante y factorial en componentes principales" para algunos de los aspectos socio-lingüísticos por ejemplo.

En esta comunicación, vamos a ejemplificar sólo algunas de las conclusiones socio-culturales y socio-lingüísticas generales, obtenidas a través del estudio del "léxico disponible" en ambas lenguas por parte de nuestra población bilingüe escolar.

Mundo conceptual disponible

Uno de los primeros resultados obtenidos en este trabajo ha sido la obtención del "mundo conceptual o significativo disponible" de la población estudiada, a través del "léxico disponible" obtenido en ambas lenguas respecto de los C.I. o áreas significativas amplias dadas más arriba.

En la literatura psico-socio-lingüística se entiende por "léxico disponible" respecto de una población, aquél que dicha población mejor conoce, y más le interesa, en relación con unos C.I. determinados; es decir, que dicho léxico representa tanto al mundo cognitivo, como al volitivo, de la población estudiada.

Dicho mundo conceptual nos viene dado a modo de diccionario por el ordenador. El léxico, en el diccionario general (respecto de toda la población), nos viene ordenado de más o menos disponibilidad, aplicando sucesivamente ambos criterios o índices:

> Primero según el "índice de disponibilidad" (IND.DISP.), que expresa la frecuencia porcentual poblacional obtenida;
>
> en segundo lugar, y dentro ya de cada "intervalo de disponibilidad" (FREC.id.), en una escala de intervalos dispuestos de 10% en 10%, el ordenamiento responde al "rango asociativo" (RANG.ASO.) con que se ha producido el léxico, expresando el lugar de aparición media de cada término de referencia lematizado en las encuestas.

A modo de ejemplo, damos a continuación un listado, o diccionario, de los términos de referencia más disponibles: los que se incluyen en los intervalos 9 a 1, es decir los producidos al menos por el 10% poblacional, y por tanto los más importantes, los que podrían incluirse en un diccionario básico. Esta ejemplificación lo es en relación con el C.I. 13: "los días de fiesta y las vacaciones: lo que haces y lo que te gustaría hacer".

CENTRO DE INTERES 13 - - - TOTAL

DICCIONARIO	OTRA LENGUA	IND.DISP.	FREC.ID.	FREC.REL.	FREC.ABS.	RANG.ASO.	COEF.VAR.	FREC.RA.
Hondartzara joan	Ir a la playa	56	5	32.39	2244.70	7.16	89.25	5-000
Mendira joan	Ir al monte	55	5	34.99	2424.70	8.51	89.47	5-000
Jolastu	Jugar	46	4	27.13	1880.50	5.67	128.48	4-000
Zinemara joan	Ir al cine	37	3	21.52	1491.60	8.68	83.18	3/000
Bizikletaz ibili	Andar en bicicleta	34	3	19.45	1348.10	9.77	83.23	3/000
Telebista ikusi	Ver televisión	36	3	23.53	1631.00	15.36	98.89	3-000
Igerilekura joan	Ir a la piscina	23	2	13.17	912.60	7.82	87.47	2-000
Lo egin	Dormir	22	2	12.72	881.80	9.55	90.15	2-000
Dantzatu	Bailar	21	2	13.29	921.30	10.55	81.51	2-000
Jan	Comer	20	2	12.94	896.80	12.38	69.43	2-000
Pilotan Jolastu	Jugar a pelota	11	1	6.31	437.20	8.15	74.52	1-000
Futbolean jolastu	Jugar a fútboL	18	1	10.46	725.20	8.27	92.88	1-000
Oporretan ibili	Ir de vacaciones	10	1	5.93	410.90	8.41	63.53	1-000
Bainatu	Bañarse	14	1	9.28	643.10	9.00	95.33	1-000
Mezatara joan	Ir a misa	13	1	7.11	492.50	9.67	99.21	1-000
Ibilaldiak egin	Ir de excursión	10	1	5.60	387.90	9.82	59.95	1-000
Paseatu	Pasear	15	1	8.64	598.80	10.21	71.06	1-000
Igeri egin	Nadar	18	1	10.67	739.30	10.43	82.32	1-000
Irakurri	Leer	14	1	8.06	558.80	10.48	76.73	1-000
Eguzkia hartu	Tomar el sol	13	1	7.19	498.60	11.52	85.67	1-001
Korrika egin	Correr	14	1	8.45	585.90	12.13	72.17	1-001
Arrantzatu	Pescar	19	1	10.99	761.60	12.26	80.95	1-001
Jaietara joan	Ir a fiestas	10	1	6.78	470.00	12.30	56.08	1-001
Atzerrira joan	Ir al extranjero	12	1	10.97	760.50	13.19	88.88	1-001
Musika entzun	Oír música	12	1	6.79	470.90	13.39	68.22	1-001
Bidaiatu	Viajar	10	1	6.79	470.70	13.76	72.37	1-001
Abestu	Cantar	11	1	6.83	473.10	14.67	67.29	1-001
Lan egin	Trabajar	10	1	6.00	415.60	15.18	114.91	1-001
Edan	Beber	13	1	9.47	656.40	16.81	86.04	1-001

Desde el punto de vista psico-socio-cultural, se trata de conocer cuál es el mundo que mejor conoce y más interesa a la población a estudiar. Por ejemplo, respecto del C.I. 13, se trata de descubrir cómo es, y se quiere que sea, el ocio o el tiempo libre por parte de dicha población: ¿de actividades fundamentalmente activas, o más bien pasivas?, ¿de actividades a realizar solo, o más bien en grupo?, ¿actividades a realizar sobre todo en casa, o fuera de casa, y entonces dónde?, etc.

De este modo, se quiere facilitar la planificación de este mundo conceptual así obtenido, como por ejemplo respecto del ocio o tiempo libre obtenido en este C.I. 13, de nuestra población escolar (de 10 a 17 años aproximadamente). Esta planificación, a través también, y quizá sobre todo, del sistema educacional, sistema que tiende cada vez más a responder a todas las necesidades de los alumnos, desde una concepción de no-separación en estamentos estancos de los distintos dominios de funcionamiento social, como son: la familia, el sistema escolar, los amigos, la calle, etc...

Los datos cuantitativos generales del mundo conceptual disponible obtenido para nuestra población estudiada, respecto de los cinco C.I. analizados, a través de los significados o términos de referencia lematizados, por cada intervalo de disponibilidad y en total:

Intervalo de disponibilidad	C.I. 2	C.I. 6	C.I. 9	C.I. 10	C.I. 13
9	1	—	—	—	—
8	3	—	—	—	—
7	3	1	1	—	—
6	3	1	—	1	—
5	4	2	—	—	2
4	5	1	6	3	1
3	10	5	10	7	3
2	7	13	17	9	4
1	21	42	39	34	19
0,5	23	67	64	49	47
Menor que 0,5	435	2.261	1.063	1.718	2.077
TOTAL	515	2.393	1.200	1.821	2.153

Como puede verse, el grado de heterogeneidad socio-cultural interna distinguida en cada C.I. es muy distinto entre sí: El C.I. 6 (Ciudad o pueblo: lo que se ve y se hace en ellos) es donde se da un mundo conceptual o significativo más diversificado y rico; y el C.I. 2 (Prendas de vestir y de calzar) donde se da un mundo conceptual y significativo menos diversificado.

Desde el punto de vista del grado de disponibilidad con que se ha dado dicho mundo conceptual, los términos de referencia distintos incluidos hasta el intervalo 5 (producidos así al menos por el 50% poblacional), hasta el intervalo 1 (producidos al menos por el 10% poblacional), y hasta el intervalo 0,5 (producidos por lo menos por el 5% poblacional), son:

	C.I. 2	C.I. 6	C.I. 9	C.I. 10	C.I. 13
Hasta intervalo 5	14 2,72%	4 0,17%	1 0,08%	1 0,05%	2 0,09%
Hasta intervalo 1	80 15,53%	132 5,52%	137 11,42%	103 5,66%	76 3,53%
Hasta intervalo 0,5	90 17,48%	162 6,77%	163 13,58%	129 7,08%	92 4,28%

Estos datos relativos son los más importantes, los más significativos para describir a nuestra población estudiada, y los más seguros para hablar del grado de heterogeneidad o diversificación real de su mundo conceptual disponible. Ahora, los C.I. internamente más diversificados son el C.I. 9 (El trabajo: clases de trabajos, de oficios, de profesiones) y el C.I. 6 (Ciudad o pueblo: lo que se ve y se hace en ellos); y los C.I. internamente más homogéneos, el C.I. 2 (Prendas de vestir y de calzar) y el C.I. 13 (Los días de fiesta y las vacaciones: lo que haces y lo que te gustaría hacer).

Lo más sorpresivo, es el grado de heterogeneidad y de dispersión grandes en nuestra población estudiada, o de escaso consenso poblacional, respecto del mundo conceptual disponible obtenido. Esto puede verse, por ejemplo, a través de los significados o términos de referencia que definirían con seguridad a la mitad poblacional, que son solamente: 1 respecto de los mundo significativos de los C.I. 9 y 10, 2 respecto del C.I. 13, 4 respecto del C.I. 6, y 14 respecto del C.I. 2 (siendo este C.I., así, donde el comportamiento poblacional es más homogéneo). Este escasísimo grado de homogeneidad, y escasísima posibilidad por tanto de definición significativamente de nuestra población, son realmente sorpresivas.

Comportamiento de los distintos grupos o estratos poblacionales, en relación con el mundo conceptual disponible en total

El estudio del comportamiento de los distintos grupos tiene un interés tanto teórico como aplicativo. En este Proyecto de investigación se ha dado prioridad a la aplicabilidad de sus resultados, tanto desde el punto de vista socio-cultural, como socio-lingüístico. Además, repitiendo lo dicho ya, esta aplicabilidad está dirigida sobre todo al sistema escolar, al que se le suele conceder una eficacia mayor, comparativamente, por su grado de institucionalización, y sobre todo por la generalidad del sistema educacional, ya que tiende a incluir obligatoriamente a toda la población en edad escolar. Así se explica nuestra selección de criterios a la hora de estratificar a nuestra población, distinguiendo los tipos de grupos o estratos poblacionales que describíamos más arriba, en la Introducción de esta comunicación.

Ahora, pues, se trata de conocer cómo intervienen los distintos estratos poblacionales distinguidos en el mundo conceptual disponible obtenido en total, y que caracteriza a toda la población estudiada.

Para ello, hemos elaborado manualmente un diccionario comparativo para cada C.I., utilizando los datos obtenidos por el ordenador para el diccionario general, y para los distintos diccionarios parciales (correspondientes a la producción léxica de cada estrato distinguido).

A modo de ejemplo parcial, puede verse el listado que se da a continuación, respecto del C.I. 13 también; ejemplo parcial, porque sólo incluye la comparación

respecto de los términos de referencia más disponibles, los incluidos en los intervalos del 9 al 1 del diccionario general. Para ello, después del índice de disponibilidad (IND.-DISP.) medio dado en el diccionario general (como puede verse más arriba), correspondiente a la producción media poblacional para cada término de referencia, se añaden los distintos índices de disponibililidad correspondientes a la producción media de cada estrato, obtenidos en los distintos diccionarios parciales:

(*Codificación* utilizada en el diccionario comparativo siguiente:

TOTAL = proporción porcentual media de la producción poblacional total.

E = proporción porcentual media de la producción en euskara;

C = proporción porcentual media de la producción en castellano o español.

1 = proporción porcentual media de la producción de 5º de EGB;

2 = proporción porcentual media de la producción de 8º de EGB;

3 = proporción porcentual media de la producción de 3º BUP + 2º FP.

I = proporción porcentual media de la producción de los alumnos escolarizados en Ikastolas (fundamentalmente en euskara);

P = proporción porcentual media de la producción de los alumnos escolarizados en Centros públicos y privados (prácticamente sólo en español).

A = proporción porcentual media de la producción de los alumnos de Araba;

B = proporción porcentual media de la producción de los de Bizkaia;

G = proporción porcentual media de la producción de los de Gipuzkoa;

N = proporción porcentual media de la producción de los de Nafarroa.)

El término de referencia lematizado en este diccionario como: *lagunekin jolastu / jugar con los amigos*, es el término de referencia más disponible, el más importante, para la población estudiada. También es el término de referencia que incluye un conjunto significativo más heterogéneo, más lleno de matices, y que nos parece interesante reflejar aquí a través de las distintas lematizaciones que dimos en su día, y que reproducimos a continuación en un ordenamiento alfabético. Como puede verse en este listado de sublematizaciones, "lagunekin jolastu / jugar con los amigos" es la que nos aparece como más disponible, de ahí que sea la elegida como el lema que exprese el conjunto de producción léxica "en relación con los amigos" en el diccionario general.

C.I. 13: Jai egunak eta oporrak: egiten duzuna eta egin nahiko zenukena /
Los días de fiesta y las vacaciones: lo que haces y lo que lo que te gustaría hacer

		TOTAL	E	C	1	2	3	I	P	A	B	G	
Lagunekin jolastu	Jugar con los amigos	56	(*)										
Hondartzara joan	Ir a la playa	56	57	55	47	60	69	60	51	42	57	57	40
Mendira joan	Ir al monte	55	53	57	45	61	68	56	54	33	52	59	52
Jolastu	Jugar	46	50	42	54	44	26	48	43	36	50	43	51
Zinemara joan	Ir al cine	37	44	31	23	49	50	39	36	36	32	42	33
Bizikletaz ibili	Andar en bicicleta	34	34	34	28	41	34	38	30	34	32	36	33
Telebista ikusi	Ver televisión	36	41	31	34	39	34	36	35	41	30	40	32
Igerilekura joan	Ir a la piscina	23	23	24	23	27	15	19	17	30	15	28	32
Lo egin	Dormir	22	22	22	13	26	40	23	21	33	20	24	17
Dantzatu	Bailar	21	16	27	13	24	41	18	26	15	24	20	21
Jan	Comer	20	17	24	17	22	24	21	20	9	20	22	20
Pilotan jolastu	Jugar a pelota	11	12	10	11	11	11	9	13	—	9	12	18
Futbolean jolastu	Jugar a fútbol	18	17	20	18	19	17	17	20	30	18	17	24
Oporretan ibili	Ir de vacaciones	10	7	13	9	13	6	8	13	3	9	11	18
Bainatu	Bañarse	14	9	20	18	11	11	15	13	20	13	14	20
Mezatara joan	Ir a misa	13	10	15	14	11	10	13	13	10	10	14	16
Ibilaldiak egin	Ir de excursión	10	12	7	10	11	9	11	9	31	13	7	8
Paseatu	Pasear	15	14	16	11	18	17	15	15	7	9	20	19
Igeri egin	Nadar	18	18	18	8	24	33	19	17	36	20	16	16
Irakurri	Leer	14	17	10	9	17	20	12	16	13	15	13	14
Eguzkia hartu	Tomar el sol	13	12	14	5	17	24	12	14	10	14	12	9
Korrika egin	Correr	14	16	13	10	18	17	14	14	14	9	18	18
Arrantzatu	Pescar	19	15	23	16	21	20	19	19	17	20	18	14
Jaietara joan	Ir a fiestas	10	11	10	4	14	19	8	13	14	10	10	15
Atzerrira joan	Ir al extranjero	12	7	17	9	12	21	13	11	10	10	14	8
Musika entzun	Oír Música	12	13	11	1	18	30	10	15	13	10	14	6
Bidaiatu	Viajar	10	6	14	4	12	23	8	11	3	8	12	6
Abestu	Cantar	11	8	15	9	13	16	13	10	13	11	12	7
Lan egin	Trabajar	10	11	8	7	11	15	7	13	6	10	11	8
Edan	Beber	13	14	12	5	17	26	12	14	3	9	17	10

(*) = Los índices de disponibilidad de los distintos estratos correspondientes al término de referencia más disponible: lagunekin jolastu / jugar con los amigos, no están incorporados en el listado por un error en la codificación.

DICCIONARIO	OTRA LENGUA	IND. DISP.	FREC. ID.	FREC. REL.	FREC. ABS.	RANG. ASO.	COEF. VAR.	FREC. RA.
Laguna	Amigo	1	0	0.50	34.70	37.49	46.95	0-0597
Lagunak aurkitu	Encontrar a los amigos	1	0	0.54	37.60	13.42	39.40	0-0282
Lagunak bilatu	Buscar amigos	0	0	0.27	18.60	6.30	15.24	0-0043
Lagunak bisitatu	Visitar a los amigos	1	0	0.51	35.00	16.62	28.74	0-0379
Lagunak egin	Hacer amigos	2	0	0.89	61.70	11.46	68.60	0-0207
Lagunak ez hil	No matar a los amigos	0	0	0.18	12.60	13.00	0.00	0-0268
